

**Martin Duhalde**

**MEDITAZIONEAK  
GEI PREMIATSUENEN  
GAINEN**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Meditacioneac gei premiatsuenan gainean*,  
Martin Duhalde (faksimilea). Hordago, 1978.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00397.htm>

# **MEDITAZIONEAK GEI PREMIATSUENEN GAINEAN**

Zenbait abisuekin, othoitzekin  
eta bizitzeko erregela batekin

*Arima Jainkotiarren onerako  
Baionako diozesako  
Eliza-gizon batek eginak*

Baionan,  
Cluzeau anaien baithan, Jaun Aphezpikuaren  
Inprimatzaileak  
1809

# **I. PARTEA**

# ABISUA

Nola liburu hunen inprimazailiek ez baizakiten eskara, gesthatu zaiete huts ongisko egitea: bainan irakurtzaile eskalduna erretxki ohartuko da huts heitas eta haurkituko ditu gehienak korreituak liburuaren akabantzan.

## PREFAZIOA

Uzte dugu Meditazione haujen agertzeak handizki lagunduko duen ezkaldun onen Jainkoaren alderako maithagunea. Egilea da ezagutua bere Jinkozko kharraz ta jakintasun hedatuaz. Gaztetasunetik, berthute ta jakitatez berezia zen, gorphutz bati iratxakia, bethi begiratu izan du hartako izpiritua, ta entzajatu haren ederretzaraztera barren artharen pean emanak izan ziren, ta elizari beiratzen zaiskon ezagutzetan argituak izan behar zirenei. Emaiten ohi zituen, theologiari ukhitzen zitzaiskon ezagutzpenak ziren laburrak, enganioz bilhuziak, gusiz argi-

tuak. Haren bizia, iztudioaren ta obra-onen artian partaiatua. Egiaren alkian, penitentziaren tribunalean, agertu izan zituen indar ta gantzadura berezi batzuek hanbat bekhatore bere baitan zar arazi, hainbat kordokadura zuntsi arazi, hanbat konsolazione gozo arima nekhatuetan eman izan zitusten. Perzekuzione baten frogantza luze ta gogor batzuren ondoan, onhetzia, maithatua, guziz errezpetatua Jaunaren probidentziak deitu izan zuen lekuan, ezin iharduki izan zioten, fidantzia zuhur ta hedatu baten ariaz maiteki hartu izan zituen nekhei. Gizon barnekoiaaren xedearen enganatzea da haren laudorioaren egitea. Xede hura behar da izan errezpetatua haren orroitzapenaren gainean nigar egiten duen amudioaz, ta zero goretan segitzen duen ezagutsaz. Gehienik onhetzia izanen den ezagutzatza datza, hark seinalatu izan darozkigun biden segitzean, ta bide hetan bortiztean. Zusenki, Izpiritu sainduaren dohain, ta sainduien ezkolan egin erran zituen ainsinamenduen fruitu batzuei bezala behatu behar zaioten meditazione hautan, bakotxak edirenen ditu haren ahotik gehiago adi ez daitezken konseilluiak, ta frogatuko,

bizi zelarik, bihotzetan zor harazten zituien sentimendu Jainkozkoak... denborak ditu, obra hau ezagutzen zutenek galdegiten zutela hunon ager haraztia. Heien gutziari amur emaiten diogu, ezperantzarekin guzientzat progotxo izanen dela, Jaunaren ministrintzat, arima leialentzat bezalak. Agian hortarik ethor daiteken onak zerbait iratxakiko dio bethi bihotz-minekin orroituko garen gizon prestu eta Jainkotiarraren zorionari.

**BIZITZEKO ERREGELA**  
**MUNDUAN PRESTUKI**  
**BIZI NAHI DIRENENTZAT**



# AITZINEKO ABISUAK

1. Erregelaren arabera bizi dena, Jainkoaren arabera bizi da, dio Jaundone Paulok. Nola Jainkoa berenaz baita arrimu ta orde zuzena bera, eta nola berak egin dituen guziak orderekin eta arrimurik ederrenean egin baititu, hagitz zaio lakhet guk ere gauza guziak egin detzagun erregelaren arabera, orderekin eta bakhotxa dago-kon denboran eta gisan.

2. Arimakotzat ere hagitz progotxos da bere egiteko guzietan erregelatua izatea, ta guziak egitea erregelaren arabera. Hortarat ematen dena, ezta errexki aldaratuko bere debozinezko egintz onetarik. Erregelaz orotan bidatzen dena, ohitzen da bere nahia hausten, eta hori ezin erran bezain phondu premiatsu bat da bizitze izpiritualekotzat. Erregelaren arabera biziko denak egunean askotan bere buruari bortxa egin beharko dio; ohean egon nahia, jaiki beharko da bere mugan, elheketan egon nahia, lanerat yoan beharko da; hulako lanean gostu gehienarekin hari denean, utzi beharko du, meditazionea egi-

teko edo ohera joateko; gauza bera bertze asko phondutan: bada nork bere buruari egiten dio-tzan bortxa horiek penitentzia guziz balios bat izanen dire. Erregelari behatzen bazaio, egin behar zaion bezala, Jainkoaren beraren nahiari bezala, eta Jainkoaren nahi saildua bethetzeko xede garbiz egiten badire erregelak seinalatzen dituenak. Guziak handizki baliaturen dire zerukotzat: bainan nork bere umorez, gostuz eta jaiduraz, eta Jainkoaren nahiari behatu gabe, egiten baditu ere berenaz ditezken gauzarik hoberenak eta baliosenak, zerukotzat alfer gerthatzen dire guziek.

3. Arrazoin horiek gatik, asko arima prestu, Jainkoaren nahiaren arabera orotan bizi, ta seindutasuneko bide zuzenean aitzinatu nahi direnek; bizitzeko erregela bat galdetzen ohi diote bere bidariei edo direktorrei: horiek erakharri naute ni ere hauxe iskribuz ezartzerat, Jainkoaren loria ta arimen ona aitzinatu nahiz. Ikhusia da bizkitartean, eztitekela eman bizitzeko erregelarik, guzientzat, sehientzat eta etxeko umentzat, aitzindariantzat eta menekoentzat, aberatsentzat eta yende beharrentzat ongi joanen

denik; hain dire batzu bertzeak ez bezalakoak munduko bizi-moduak ta hekiei datxeizkoten eginbideak: eztut beraz nik hemen ezarri, guziei edo behintzat gehienei ongi dohazkoten zenbait phondu premiatsu baizen, eta hek zenbait abisu-rekin, Jainkoaren zerbitzuan eta bidetan oraino berri direnen onerako. Batbederak behar dituzken bertze abisu ta erregela bereziak galde diotzoke bere bidariari.

4. Bizitzeko erregela bat hartu denean, leialki atxiki behar da phondu guzietan, batere utzi gabe, arrazoin handiz landan. Bertzela egitea liteke Jainkoaren alderako leialtasun eskas bat, handizki gaitzi lakiokena, eta arimakotzat asko ondore gaxto lukena. Hargatik San Frantses Salesek abisu ematen deraie yende prestuei, eztela hulako erregelen gainean, ez thematsu, ez grinatsu izan behar. Berdin ezta hautan deusere bekhaturen penan manatua denik, non bertze aldetarik ezten hala manatua. Utzi behar dire beraz, grinarik gabe, zenbait arrazoin onek hala galdetzen duenean. Hala meditazionea da gehienik gomendatzen diren phonduetarik bat. Bizkitartean norbaitek, edo zeren bere bizi-behar

handiak eztuen uzten mement bat ere lanetik aldaratzerat, edo zeren den bertzeren azpiko, eta aitzindariak gaizki kausitzenez, ezin har balezake astirik meditazionean egoteko, utzi behar luke meditazionea, haren orde artha berezi bat hartzen lukelarik, bere lanen erdian Jainkoaz ahalik eta maizena orhoitzeko eta egiten dituen guziak Jainkozko xedez ta Jainkoari eskeiniz egiteko. Segurki gaizki egin lezake gisa hartako yende batek, egun oroz oren-erdi bat meditazionean egotea, bere eginbidea trebes uzten lituzkelarik, edo bere aitzindariari haserretzeko bidea emanaz. Gauza bera aditu behar da meza entzuteaz, irakurtz edo lektura izpiritualaz, arrosarioaz eta bertze phonduez. Asko gisetara zerbitza diteke Jainkoa; eta batek uzten duenean egin gabe, Jainkoa gatik eta arrazoin onez, egin nahi zuken zenbait ongi, hori deitzen da Jainkoa Jainkoa gatik uztea; eta horrek eztakharke bidegaberik arimakotzat. Izan gaiten beraz leial eta arthatsu gure debozinezko egintzetan, ez ordean hisiti ta thematsu: zerbitza dezagun gure Jainko maitea khar eta jarraitasun handi batekin, ordean bethiere maithagunez edo amodioz eta

bihotz ideki batekin, aita guzietako hoberena bezala, eta ez nausi gogor eta ekhargaitz bat bezala.

## **Egun guzietan egitekoak**

5. Iratzartzearekin batean Kristau on batek Jainkoari eman behar dio bere izpirituko lehenbiziko gogoeta, hartaz berehala orhoitzen delarik: eman behar dio bere bihotzeko lehenbiziko sentimendua, hura gogoz adoratzeko eta maithatzen duelarik: eman behar dio bere ahoko lehenbiziko hitza, erraten duelarik: Jesus, Maria, Josep; nere Jesus maitea, ematen dautzut nere bihotza osoki, jabe zaite hartaz sekulakotz, eta bethe zazu zure grazia seinduez, halabiz: eman behar dio oraino bere lehenbiziko eginkundea edo akzioa, gurutzaren seinalea debotki egiten duelarik.

6. Jaiki borts orenetan, non edo osasun eskasak, edo arduraren bano berantago etzan izanak, edo bertze zenbait arrazoin onak eztuen pixka bat berant-arazten. Orobat neguko hotz handie-

tan jaikitzea gibela diteke bortz orenak eta erdietaraino, edo gehienaz ere seiataraino. San Frantses Salesen errana da, on dela seindu ta sano izateko goiz jaikitzea. Hala eginez, asko bekhatutarik beirutzen da; gaizkirako jaidurak ethentzen dire; bere debozinezko egintzetako ta bertze lanetako denbora kausitzen da; oro xuxen gerthatzen dire; hala nola berriz, berant jaikitzen denean, oro makhur gerthatzen ohi baitire, eta bertzela eginen ziren asko egintz on egin gabe gelditzen baitire. Izan beraz goiztiar. Ohetik ilkhitzeko uzkuratasuna garaitzekotzat, aski da zinez gogoan hartzea, zein gogorki zagoen gure Jesus maitea, dela Betelengo abren askan, dela gurutzearen gainean, edo orobat gure bekhatuez merizitu dugun suzko ohea.

7. Jauntz modeski zein bere adinaren ta herrunkaren arabera; bainan hertsiki beira banitate ta mundutarkeria guzietarik. Egiazki irhigarrri eta eskandalos da, debozioneari darraizkon jendeak ikhustea, edo dagozkoten baino arropa ederragoez kargatuak, edo arropak ederregiak ta baliosegiak ezpadire ere, edozein mundutar bezain ximenki aphainduak eta arrimatuak. Soi-

nekoak hartzean, erabil zenbait gogoeta on Izpirituan; orhoit non dugun eta zer egin dugun bat-hajoko arropa garbia; erreberri bekhatuaren higuntza, zeinak erakharri baitu jaunztaren beharra; othoitz Jesu-Kristo, biluz gaitzala gisa zaharretik, erran nahi da, bekhatutik eta bekhatura darontsaten guzietarik, eta jauntzi gaitzala gisa berriaz, erran nahi da, Jesu-Kristoz beraz, bere Izpirituaz eta sentimenduez bethetzen gaituela.

8. Jauntzi ta berehala egin goizeko othoitz, ur benedikatuarekin zeinaturik eta belhaunika jarririk. Zenbait arrazoin onez ezin egin baditeke orduan berehala goizeko othoitz, erran zenbait othoitz, beharrenak bederen, soinekoak hartzean, eta bere egitekoetan hari delarik. Ez hartatik utz lazakeriaz eta arrazoin handiz kanpoan, goizeko othoitz erran den gisan egin gabe: ondoan asti hobearekin egiteko pezkizan uzten bada, utzia-utzi gelditzen ohi da, eta askotan arratsa ardiesten da goizeko othoitz egin gabe. Eta alabainan othoitz da zeruko laguntzen eta grazien ardiesteko bidea; haren gainean lazatzeraz gero, deus onik ezteke izan gutaz. Ukhan

beraz jarraitasun handi bat othoitzaren alderat, eta othoitzak egin ahalik eta debozione gehienarekin, gogoari zinez ematen diogula, zer hari garen, noren aitzinean agertzen garen, ta nori mintzo gaizkon, bainan ez nahas, ez lotsa, othoitzean barrajadurak eta idortasunak sentitua gatik ere; ez horien gatik othoitzei batere utz egin gabe, ez eta berriz hasterat bihur. Barrajadurek eta idortasunek eztute batere gutitzen gure othoitzen merezimendua, gure nahiaren kontra direno, eta othoitza ahalik eta hobekiena egiterat entsejatzten garen. Has beraz othoitza ahalik errespetu handienarekin; Jainkoaren aitzinean garela, eta majestate guzizko nausi hari mintzo gaizkola orhoiturik: ondoan barrajatuak kausitzen bagare, itzul berriz eta deskantsuz Jainkoa ganat, eta aitzina eraman gure othoitza kausitzen garen lekhutik, gibelat abiatu gabe. Abisu hau aditu behar da bertze othoitzez ere, meditazioneaz, meza entzuteaz, kofesioaz, komunioneaz, eta hitz batean errelijionezko egintz guziez. Egin detzagun guziak, gure aldetik ta gure eskuko denaz bezenbatean, ahalik hobe-



kiena; gainerakoan gauden deskantsu; Jainkoaz eztauku gehiago galdetzen.

9. Goiz guzietz erreberri, Jainko maitea zerbitzatzeko, eta bekhatu, bederen-bederen mortalik, eginen den baino lehen bere bizia emateko xede zina. Ikhus zer, non eta norekin izan ditek egiteko, edo bertze zein parada edo okasio-ne gaxtotan kausi gaitazken egun hartan, eta nola beira gaitazken hetan bekhatu egitetik. Hau aditzen da ezin ihes egin dakioken parades: ezen ikhusia da, ihes egin ahal dakiokenetarik urrun-du behar dela. Gomenda nork bere burua bere xede onekin andre dena Mariari, bere aingeru begiraleari ta bere patroin seinduari.

10. Egin egun oroz oren-erdi bat meditazio-ne, eta hura goizean, ezin bertzez kanpoan. Prestuki bizi nahi diren giristinoek handizki prezatu ta maithatu behar dute meditazioneko egintz salbagarria. Hartan ongi aditzen dire errelijioneko egiak, bihotzean barna sartzen dire; hekien araberako sentimenduz bethetzen da arima, ta hala errexki eramaten da bizitze pres-tua. Bainan meditazionea alde bat uzten bada, histen ohi da errelijioneko gauzez dugun ezagu-

tza aphurra, iraungitzen bezala da fede guzia, eztire sentitzen, eztire kasik sekulan gogoratzen fedeak irakhasten deraikun egia handiak; eta hortaraz geroztik, zerk urrunduko du bekhatutik? Zerk debekatuko du trebes bizitzetik? Bainan meditazio egiteko usantza atxikitzen bada, hark berak handizki beiratuko du gaizkitik; edo nolazpait behaztopatzen bada ere, meditazio-neari arthoski darrajona, laster altxatuko da bere erorikotik. Horrengatik bizitze Izpiritualeko nausi guziek hertsiki gomendatzen dute meditazioa, gaizkitik urrun egoteko ta ongian aitzinatze bide segurenatarik bat bezala. San Frantses Salesek galdetzen zuen bidatzen zituen arimatarik, egun oroz egin zezaten oren bat meditazio-ne, nahi bezenbat lan ukhanagatik ere. Hori sobra balin bazaje zenbaiti, nihor guti izanen da, nihor balin bada ere, goiz edo arrats, oren laurden bat bederen ezin kausituko duenik egintz seindu huntakotzat, salbu hainitz bakhan gerthatuko diren egun banaka batzu: baieta gehien-gehienek oren erdi bat errexki kausituko dute, denboraz ongi baliatzen badire, ibilketa eta elheketa alferrak alde bat uzten dituztelarik. Edo

azkenean balin bada norbait hain herstuki denik ukhanaren aldetik, edo lanez hain ithorik, non denborarik batere ezin har baitezake meditazio-nean egoteko, bederen ukhan beza artha berezi bat, bere lanen eta hara-hunen erdian bada ere, errelijioneko egiak ardura gogoan erabiltzeko, ta hekien araberako sentimenduak maiz erreberritzeko. Meditazioan ezta premia errelijioneko gauzen ezagutzan hainitz barna sartzea, ez eta hekien ganean erreflexione luzeak eta ederrak egitea: phondu premiatsuena dire bihotzeko afekzioneak eta sentimenduak; hekiei behar zaje kontu eman guzien gaintetik, eta entsejatu behar da bihotza ongi bethetzerat higuintz sendo batez bekhatuarentzat, guzien gainerako maithagunez Jainkoarentzat, ez-axolatasunez lurreko gauzen-tzat, gutiziaz zerukoentzat, meziprezioz eta arbu-joz bere buruarentzat, prezamenduz eta karitatez lagunarentzat. Sentimendu horiek bihotzean ongi finkatzen dituena izanen da segurki medita-zionerik hoberena, gainerakoan nahi bezain idor-ki egina izana gatik ere. Nork bere barrena ta bihotza idor eta sentimendu gabe sentitzen due-nean, liburu on batez zerbitza diteke, phixka bat

irakurri eta haren ganean erreflexioak egiten dituelarik. Hala egiten zuen santa Teresa handiak, eta san Frantses Salesek hori ongi kausitzen du. Bat-bederak hautatuko du hobekienik dagokon meditazioneko geia edo sujeta, bere beharren arabera. Hastean eta bekhaturako jaidurak oraino bizisko direnean, hoberenak dire gizonaren laur azken finak. Ondoan, bekhaturik, bederen mortaletarik beiratzeko usantzan jarri denean, bereziki egin behar da meditazionea Jainkoa behar bezala maithatzerat ta osoki harenak izaterat gehienik erakhar gaitzaketen arrazoinen ganean; Jainkoaren osogune edo perfekzione adoragarrien ganean; egin eta egiten deraikun ezin kontatuzko ongien ganean, agintzen deraukun sekulako golardoaren ganean; Jesu-Kristok bere misterioetan, batez ere bere pairamenean, aldareko sakramendu seinduan ta komunione seinduan erakhausten daukun maitzagune neurrigabearen ganean: deusere horiek baino hoberik, maithagune garbienaren ta bizienaren su sakratua gure bihotzetan phizteko ta emendatzeko. Hargatik nahi bezain aitzinatua izan arren norbait launaren bidetan, ongi eginen

du, noizetik-noizera bederen, meditazioe egitea gure azken finen ganean, beldurtasun seindubatean bethiere irauteko. Meditazioea orobat egin diteke asko egunez ere lerroan gei beraren ganean: jaundone Bixintxo Paulakoaz errana da, berrogoi urthez egin zuela aphales-guneaz edo umiltasunaz. Gainerakoan ongi heldu da meditazioea, igandetan, Jainkoa zerbitzatzeko arrazoi-  
nen ganean; Jesu-Kristoren misterioak ohoratzen diren besta-egunetan, misterio hekien ganean; Andre-dena Mariaren edo bertze seinduen ohoretan atxikitzen diren bestetan, hekien prestugunen edo berthuten ganean, ezagutuak balin badire behintzat; ortzegunean aldareko sakramendu seinduaz; ortzilarean, Jesu-Kristoren paimenaz; kofesatu behar den egunaren goizean, bekhatu mortalaz edo benialez; komuniatu behar den goizean, komunione seinduaz.

11. Egun oroz eta ahalik goizena entzun meza seindua. Ez huts egin hartan egitea komunione Izpirituala. Niholere elizarat ezin badohake, eskeini Jainkoari han ematen den meza seindua, eta egon, lanetik gelditu gabe bada ere, mezako denboratsu hura, Jainkoa baithan bildua,

eta mezan kausitzen baitz lituzken sentimendu beretan. Ongi liteke zenbait othoitz ere orduan egitea mezako xedez, hargatik nihor ohartzen ezlitekelarik.

12. Bazkal aitzinean har bizpa-hirur minuta, etsamina berexia egiteko: huna zer den hau. Egiazko prestu izan nahi direnek, duda gabe gudukatzen dituzte bekhaturako jaidura guziak. Halarik ere bat bereziki hautatzen dute, hari gisa berezi batez gudu egiteko aste batez edo biez edo gehiagoz, zeinek bere beharren arabera, hura arrats bere baitharik suntsitu nahiz: batean izanen imodeskeria, bertzean jauzkortasuna, bertzean hantustea edo urguilua, bertzean atsegin-zalea, bertzean medisentzia, bertzean alferkeria. Orobat hautatzen dute prestugune berezi bat, hartan ongi finkatzerat entsejatzeko; batean aphales-gunea, bertzean eztimasuna, bertzean mortifikazionea, bertzean Jainkoaz maiz orhoitzeko artha, edo bertze zenbait. Bada hemen mintzo garen etsamina berexia hautatu den bekhaturantza edo prestugune haren gainean egiten da. Kausitzen bada hutsik eginik haren gainean, Jainkoari barkhamendo eskatzen zajo, ta

xede onak erreberitzen dire: ezpada hutsik kausitzen, bizpa-hirur minuta hek enplegatzen dire bekhatuantza haren higuintzen, eta prestugune haren maithagunean finkatzen. Bide guziz on bat da horixe, jaidura gaxtoak erroetaraino suntsitzeko, ta prestugune batzutan eta bertzetan ongi finkatzeko.

13. Har bere onthuruntzak oren erregelatuetan; bazkaria eguerdi inguruan, afaria zazpietarik zortzietarat dohala, aintzineko eta ondoko othoitzak huts egin gabe. Jateari ta edateari behatzen zerajen san Agustinek, arimakotzat guziz perilos den gauza bati bezala, eta hala da: gaitz da jan-edanetan ahoko gostuari sobraxe ez behatzea, eta ahoko atsegina gatik xoilki zerbait ez jatea edo edatea; eta hala egiten bada, dudarik ezta bekhatu benial bederen badela, zeren ahoko eta bertze edo-zein sentsutako atsegina gatik xoilki ta baxharrik edo gehienik zerbait egitea, bekhatu baita. Horren gatik zioen san Bernatek ere, janhariak hartu behar direla botikariko edari batzu bezala. Artha izan behar da beraz, onthuruntzak hartzean, ahalaz ahoko gostuari ukho egiteko, deusik ez hartzeko xoilki atsegin

haren gatik. Jan beraz eta edan Jainkoaren gogara egitea gatik, zeren hala den Jainkoaren nahia, ta gure gorphutzat haren loriakotzat bizirik ta sendorik atxikitzeke. Aphur bat mortifika diteke, batez ere gauza goxo, ahoari gehienik atsegin egin diezoketenetan; gainerakoan jan ongi, barrenak galdetzen duen eredura. Jar onthuruntzez kanpoan ez jateko eta ez edateko usantzan, beharrez edo bertze zenbait arrazoin onez landan.

14. Bazkal ondoan har oren laurdentto bat, meditazione phixka bat egiteko. Denbora hura iragan diteke orobat, goizeko meditazionean izan diren sentimendu onak erreberitzen, edo Jesus maitea adoratzen bere gurutzean, zeren eguerditik hirur orenetaraino gurutzean egon eta hirur orenetan hil baitzen. Horren gatik ongi liteke oren laurden hau hartzea hirur orenen inguruan, batezere ortzilaretan. Lanean hartzerat behartuak direnek, edo lagunekin daudenek egin dezakete debozione hau, lanetik eta lagunetarik aldaratu gabe, barrenez eta bihotzez, nihor ohartzen ezten gisan.



15. Afal aitzinean har oren-erdi bat, debozio-  
nezko irakurtza edo lektura bat egiteko, eta arrosarioa errateko. Irakur oren-laurden bat, bainan  
astiroki, gauzak phisatuz, eta irakurtzak sor-  
arazten dituen sentimendu onez bihotza bazka-  
tuz: irakurtzetik geldi ere baditeke, bihotza  
aphur bat mobitua sentitzen denean, sentimen-  
du hetan hobeki sartzeko. Irakurtza hagitx  
progotxos da gisa hortan egiten denean; medita-  
zio-  
ne bat bezala da. Bainan arras alfer gerthatzen  
da, nonbait han dagozkon sentimenduez kontu-  
rik iduki gabe egiten denean. Irakurtzaren ondo-  
an erran arrosarioa. Andre dena Maria iduki  
behar dugu, Jainkoaren aldeko gure ararteko  
bereiztat: den zer den eginen du bere egiazko  
debotentzat, eta beregainki hura bezala prestuki  
ta garbirik bizitzerat entsejatzen diren neskatxa  
gaztentzat. Guziek ukhan behar dugu beraz  
deboziona berezi bat, gure Jesus maitearen ama  
benedikatu haren alderat, maiz eta gure behar-  
ordu guzietan haren ganat laster egiten dugula,  
eta haren ohoretan erakhutsiak diren bestak  
ahalik eta seindukiena iragaten ditugula. Orhoit  
arrosarioa dela egina ditezken othoitzik ederre-

nez: erran beraz egun guzietz, bainan bethiere errespeturekin ta debotki, eta ez ohitura ta usantza xoilez. Bainan, dio san Bernatek, nahi baduzu Maria sakratua balia dakizun ararteko, ukhan ezazu artha eman dauzkitzun prestugunezko exenplu ederrei zure ahalez jarraikitze; eta izan zaite hura bezala Jainkoari baxharrik maitzagunez Josia, mundutik aldaratua, bekhatu guzietarik beiratzeko arthatsu, aphaltura edo umil, ezti, modest eta garbi; bederen ukhan nahi zina horrelako izateko ta hortarat entseja. Arrosarioa erran diteke bidean, kasuak hala ematen badu; baieta lanez gaindi direnek erran dezakete phuskatuz eta hamarrak elkhar ganik urrunduz ere, astia duten bezala.

16. Arratseko othoitzatik lekhora, egon aphurto bat Jainkoa adoratzen, haren maithatzen, den guzia hari ematen, ta hiltzeko mementean izan nahiko diren sentimendu beretan sartzen, orhoiturik askori gerthatzen zajela, osasunarekin etzan eta goiza argitu baino lehen launaren tribunalerat deithuak izatea. Egin arrats oroz konzientziako etsamina: hartan kontu gehiago iduki bekhatuaren higuintzazko sentimenduak

erreberritzeaz, ezenez bekhatuez orhoitzen denbora hainitz iragateaz. Ezen askotan gerthatuko zaje jende prestuei arratsean ez kausitzea egun hartan bekhatuketarik egin dutela, bederen eza-gutza osorekin, gainerakoan segur den arren guziek ere, erdi oharkabean bederen, asko huts egiten dugula egun oroz, jaundone Jakua aposto-luak dioen bezala.

17. Etzan hamar orenen inguruan; eta loan sarthu bitartean Jainkoarekin egon bihotzez, zenbait gogoeta on Izpirituan erabiltzen dela. San Frantses Salesek, eta bertze bizitzeko erregelarik eman dutenek, zazpi oren seinalatzen dituzte phausukotzat. Hortan egon behar da ahalaz. Baldin zenbait arrazoinez etzatea berantzen bada, jaikitzea ere phixka bat berant diteke. Hargatik san Frantsesek dio, kaltekor dela berant etzatea, berant jaikiko bada ere. Beraz artha izan behar da muga onez etzateko, gero muga onez jaikitzeko.

## Aste guziez egitekoak

18. Ontsa da ortzilaretan barurtzea, Jesus jaunaren pairamen seinduaren ohoretan. Osa-sun-eskasa gatik, edo lan handitan hari beharrez, ezin barur ditekenak, egin beza bertze zenbait mortifikazione, bereziki naturalezari atsegin gehienik egin diezoketen gauzetan. Orobat usantza on bat da larunbat arratsetan gutixago jatea, barur-egunetan egiten den bezalatsu, Andre dena Mariaren ohoretan. Ez egin bertze mortifikazione gorputza pena dezaketarik, nor bere bidariarekin aditurik baizen. Mortifikazione sobrak gorputza herbaltzen du, nork bere eginbideak ezin bethe detzaken gisan, eta hori gaizki da. Batzutan gerthatzen ere bada, barurez gorputza flakutzen den bezenbat edo gehiago, arima hantustez ta bere buruarendako prezamenduez gizentzea; eta orduan mortifikazioneak on baino bidegabe gehiago egiten dio arimari. Badire bizkitartean kasu batzu, zeinetan barur eta bertze mortifikazionetarik gehiago egin behar baita; baina bethi abisu hartu behar da bere bidaria ganik.

19. Igande-bestetan kausi arthoski eta errespetu gehienarekin elizako ofizio guzietan. Ez hartatik izan thematsu phondu hunen gainean, ez eta bertzen gainean ere. Baldin etxe-zain egon behar bada, edo bertzeak ofizioetarat joan nahi badire, geldi etxean khexagunerik eta erasiarik gabe. Karitatea da prestugune guzien erregina; eta haren ariaz egin gabe uzten bada egiteko gogoia zen zenbait ongi, ezta merezimendua galtzen Jainkoaren aitzinean. Bainan zenbait arrazoinez huts egiten bada elizako ofizioetan kausitzea, bederen ez huts egin elizan eginen zen guzia etxetik egitea. Gainerakoan, astia har ditekenez bezenbatean, igande-bestetan egon denboran aphur bat sakramendu seinduaren aitzinean, Jesus maiteari konpainia egiten, hari errespetu ta adorazione guziak bihurtzen, maithagune khartsuenarekin hari bere izate guzia ematen, hari bere hutsez bihotz-min handirekin barkhamendu eskatzen, hari bekhatutan bizi direnentzat eta elizako behar guzientzat othoitz egiten. Zenbait seinduren besta denean, hari gomenda gisa berezi batez, eta anima haren prestuguneak imitatzerat. Andre dena Mariaren bestetan erre-

berri seindu guzien erregina lorios haren alderako errespetuzko, maithagunezko, fidantziatzeko, debozionezko sentimendurik bizienak; hari othoitz egin arren ararteko balia dakigula, eta berri-berritan eta bihotzik hoberenaz konsekra haren zerbitzuari. Jesu-Kristoren misterioak oho-ratzen diren bestetan, ez huts egin, misterio seindu hekien gainean meditazioe on bat egi-tea, hekietan barna sartzeko, ta hekien arabera-ko sentimenduz ongi bethetzeko. Igandetan ikhus ongi zertan eta nola iragan den aitzineko astea; entseja gerthatu izan ditezken huts guziak kontrizione perfetenaz garbitzerat, eta gerokotzat erreberri egundaino baino zinkiago prestuki ta Jainkoarentzat bakharrik bizitzeko xedeak. Erran gabe doha, debozioneari darraiz-konak urrun ibili behar direla munduko dantza, ikhuskari perilos, joko sobraniatzko, eta holako bertze mundutarkerietarik. Bainan jende Jainko-tiarrenak aphur bat dosta ditezke bere kide pres-tuekin zenbait dosteta onestetan. Izpiritua aphur bat alegeratu behar da, gorphutza ongi izanen bada; guziak Jainko maitearen loriakotz.

## Hamabortz guziez egitekoak

20. Kofesa hamabortz guziez; ez sekulan gehiago luza arrazoin handiz landan. Zenbait egunez aitzina diteke kofesioa, zenbait besta seinalatu gerthatzen denean: ezen halako besta-buruetan ezlukete jende debotek huts egin behar sakramenduetarat hurbiltzea. Hauta ahalik bezenbatean kofesor argitu ta arthatsu bat, bera errelijionearen arabera gobernatzen dena, eta bere penitentak guriki ekhartzea baino hobeki, hek bere hutsetarik korreji-araztea ta prestutasunean aitzina-araztea bilhatzen duena. Ez sekulan ibil kofesor largo, errexki absolbitzen dutenen bilha: hala dabiltzanez dio san Charles Boromek, eztutela debruak berak baino kontrizione gehiago. Kofesor on bat kausitu denean, eman haren baithan bere fidantzia guzia; hari erakhuts bere barneko plegu ta sentimendu guziak, nork berak ezagutzen dituen bezala, eta haren erranetarat eror jautsapen eta sumisione guziarekin. Behin kofesor on bat aurkhituzgero, atxiki bethiere harekin, bertzetarat joan gabe,

arrazoin handiz landan. Bainan beira kofesora-  
rentzat afekzione ta estekamendu sobraniakoz-  
rik hartzetik; hori arimakotzat hagitz kaltekor  
izaten ohi da: beha beraz bethiere aita kofesora-  
ri, Jesu-Kristo bera balitz bezala: gisa hartan  
zabal hari bere barne guzia, eta entzun haren  
solasak eta abisuak. Ez izan eskrupulos, ez kon-  
tentagaitzegi kofesioaren gainean. Oren laur-  
den-erdi bat aski da, etsamina egiteko, hama-  
bortz guziez kofesatzeko, eta bekhatutik, bede-  
ren handiskoetarik, beiratzeko usantzan diren-  
nentzat: eztute halakoek zeren beldur izan huts-  
ketarik ahantz dakien. Bainan ez sekulan laza  
kontrizionearen gainean; bertzenaz orobat zori-  
gaitza gertha liteke biziaren ithurrian berean  
herioa kausitzeko; eta kofesoraren oinetarat  
Jainkoaren grazian zelarik hurbildu litekena, oro-  
bat haren oinetarik ilkhi liteke, bekhatu mortal ta  
sakrilejo izigarri bat eginik. Has beraz bezperatik  
urrikizko sentimenduak bere baithan erreberri-  
tzen: hortan eman diteke etzan-aitzinekotzat  
seinalatua den mementotto hura. Kofesatzeko  
egunean egin meditazionea, bekhatua higuintze-  
ko arrazoinen gainean; eta entseja ahalik bizikie-



na sentitzerat, zer atrebentzia izigarri den, gu bezalako ezjeusak Jainko guziz handi ta botheretsu haren kontra erreboltatzea; zer mesprezio egin dugun hartaz, haren manu sakratuak haren beraren begietan phorroskatu baititugu, eta hartaz arnegatzen ginuelarik, debru madarikatua hautatu baitugu gure aitatzat eta nausitzat, bekhatu mortala egin dugunean; zein beltza izan den gure bihotzeko gaxtotasuna, izate guziz eder eta oso, gure estekamendu guziak berenaz ere merezi dituen hura, gure ahalez hil eta ezeztatu baitugu, zein izigarria izan den gure haren alderako eskergabetasuna, hark bere aldetik ezin erran bezenbat ongi egin daukun ta memento guziez egiten hari zaikun arren, guk hari ongirik handienen orde gaizkirik saminenak egin baitiotzagu, eta berak egin deraikun emaitzez eta dohainez berez edeki baitiogu bizia gure ahalaz; zer krueltasun izigarri erakhutsi dugun Jesus maitearen alderat, hark guredako maithagune hutsez jasan zituen laido ta thormenta guziak eta heriotze dorphea erreberritu baititugu; zein harrigarria izan den gure zoramendua, zeru bat den bezain ederra galdu baitugu, ta ifer-

nua den bezain lazkarria merezitu bekhatu mortalaz, eta bekhatuan kausitzen ginuen atsegin ezjeusa gatik. Horiek dire, bekhatua higuintzerat ta bekhatu eginez urrikitan sartzerat gehienik erakhar gaitzaketen arrazoinak. Ez bada sekulan kofesoraren oinetan jar, ezperen ez absoluzionerik errezebi, oren-erdi baten ingurua erreflexione horietan egon gabe. Hala-hala gisa hortan aphaindu edo preparatu ondoan, bihotza gogor eta hotz sentitzen badaere, ez khexa horrengatik; kofesa aitzina ta har absoluzioea deskantsurekin. Eginkundetarat eta batek daraman bizitzeko molderat behar da hemen behatu guzien gaiset. Artha duenean bekhatutik, bederen handiskoetarik beiratzeko, beldurkhunderekin duda gabe, bainan fidantzia nausi duela ta batere gogohurritu gabe hurbildu behar da sakramenduetarat, eztituen arren bere bihotzean sentitzen nahi lituzken bezalako urrikizko ta maithagunezko sentimendu gozoak. Bainan ditezken sentimendurik hoberenetan litekela iduritzen balitzajo ere, ta nigar gozotan guzia urtzen balitzere, ezluke zeren hartu egiazko urriki balukela, baldin horiekin batean errexi eta

ardura, hamabortzean edo hogoian behin baizen ezpalitz ere, eta gogoeta xoilez izana gatik ere, bekhatu mortaletan erortzen balitz; eta halako kasutan bere burua ikhusten lukenak, ezluke absoluzioea hartu behar, kofesorak eman nahi balio ere, funski bekhatutik korrejitu artean.

21. Komunia, bidari zuhur eta argituak ontsa kausitzen duen bezain maiz. Atxiki bethiere ardura komuniatzeko gutizia handi bat. Hori da giristino batek mundu huntan ukhan dezaken zorioneik handiena. Jesu-Kristoren eta Eliza ama seinduaren xedea da, maiz komunია dezagun, eta deusere arimakotzat progotxosagorik, ongi egiten bada, eta nola maiz eta ongi komuniatzekotzat, bekhatu mortaletarik arras, baieta benialetarik ere ahalaz beiratu behar baita, nola nork bere naturaleza behar baitu zebatu ta mortifikatu, eta prestugune guziei jarraiki behar baitzaje, hetako paradak gerthatzen diren eredura, horiek guziak arthoski ta gogo onez egin behar ditu arima lejal eta Jainkoti batek, maiz komuniatzeko zoriona merezi dezantzat. Kofesa-artetan gerthatzen bada zenbait besta-buru seinalatu, hetan komuniatzeko baimena galde diezoke

bere kofesorari, kofesatzen denean baizen oraino komuniatzen eztuenak ere. Gauza bera galdetuko du bere izeneko seinduaren bestako, eta bere bathajoko egunekotzat, hobe den arren bere bathajoko egunean kofesatzea, arima arras garbiturik, bere bathajoko promesak erreberritzeko. Beira ordean sekulan kofesoraren kontra thematzetik, zenbait aldiz absoluzioea luzatua gatik, edo behin permetitu zituen komunione usuak ondoan baxhandua gatik ere: lannoki ta gogo onez egon behar da haren jujamenduaren azpian, jakinik ezen aingeruak berak bezain garbi ta seindu bagine ere, oraino ezkinukela hertsiki merezi, ez maiz ezik, gure bizi guzian behin xoilki ere komuniatzea. Kofesor arthatsu batzuk luzatzen edo baxhantzen deraizte batzutan komunioneak penitent batzuei, hekien frogatzeko, umiliatzeko, mortifikatzeko, zenbait huts xumetarik hek korreji-arazteko, ongia egitean hek atzarriago ta khartsuago izan-arazteko, bertze xederik eta arrazoinik gabe hala egiten zuen santa Teresaren bidari, izenez eta izanez abila zenak. Halako xedez beraz edo bertzela kofesorak zenbait komunione debekatzen badu, ez

batere gaizki har; jar haren jujamenduaren azpian; egin lejalki hark manatu duena, eta bihur xuxen kofesatzerat seinalatu duen denboran. Baina egin bethiere nork bere aldetik maiz komuniatzeko zoriona ukhateko behar den guzia. Bainan beira komunione seinduarekin sekulan sobra familier egitetik, egin bethi art-hoski, bai komunione aitzineko aphaintza, bai ondoko eskerrak ematea, komunione bakhotxa gure lehenbiziko komunionea edo azkena balitz bezala. Ez hargatik izan khexos, ez griñatsu, ez sentitua gatik ere nahi litezken bezalako debozionezko sentimendu gozoak ta bihotzeko samurtasunak; egigun gure aldetik ahalik hobe-kiena, eta gainerakoan gauden deskantsu kofesioaren gainean erran dugun bezala.

## **Urthe guziez egitekoa**

22. Bizitze Izpiritualeko aitek ongian finkatu ta seindutasunean aitzinatu nahi direnei handizki gomendatzen diote, urthe oroz egitea aste bateko erretreta. Deusere hobeagorik nork bere

arimako estatua, hutsak, jaidurak ta prestugune-  
eskasak ezagutzeko, ta giristinozko sentimen-  
duetan bere bihotza ongi finkatzeko. Badakit biz-  
kitartean hainitzek, hala nola sehiek, familietako  
umek, jende beharrek ezin eginen dutela erre-  
treta hau, hemen ezarria den gisan. Hekien egin  
behar dutena da; aste hartan adiskideak ikhuste-  
tik, lagunekin solastatzetik, ta bertze denbora-  
iragaitz premiaz kanpokoetarik ahalaz beiratzea,  
Jainkoa baithan bilduak egoteko, errelijioneko  
egiak gogoan erabiltzeko, eta hemen erranak  
direnatarik ahal dagitena egiteko; bethi aditzen  
dela hargatik eztiotela bere eginbidei ta pre-  
miazko lanei hutsik eginen. Astia har dezakete-  
nek eginen dute erretreta hura gisa huntan.

23. Aste hartan egin egunean hirur medita-  
ziona, bakhotxa oren-erdi batekoa; bata goi-  
zean, bertze hamar orenetan, eta bertzea arrats-  
aldeko hirur orenetan. Egin orobat oren-erdi bat  
irakurtz izpiritual. Horietan sartzen dire egun  
guzietako meditaziona ta irakurtza. Lehenbizi-  
ko bi egunetan ongi izanen da meditaziona  
egitea gizonaren laur azken finez, beldurkunde  
salbagarri bat, giristinozko atzartasuna, bekha-

tuaren higuintz osoa, lurreko gauzen mesprezioa bere baithan erre-berritzeko. Ondoko meditazio-neak eginen dire, Jainkoa geroago khartsukiago maithatzerat ta lejalkiago zerbitzatzerat erakhar gaitzaketen arrazoinen gainean, haren osogune edo perfekzione adoragarrien gainean, egin eta egiten deraikun ezin kontatuzko ongien gainean, gure alderat erakhutsi duen urrikalmendu miragarriaren gainean, Jesus maiteak dela bere pairamenean, dela aldareko sakramendu seinduan erakhusten daukun bazterrik gabeko maithagunearen gainean. Entseja meditazione ta irakurtz horietan egundaino baino hobeki nork bere burua ta bere eskasak ezagutzerat, ta seinduki bizitzeko xedetan ongi finkatzerat osoki ta bethikotz.

24. Aste hartan egiten da urtheko kofesioa bere barrena ahalik eta hobekiena ezagutarazten zajola bere bidariari. Astearen erditsuan kofesa diteke behin bere bekhatuak errateko, eta arimako bertze gaitzak eta beharrak ezagutarazteko. Ondoko egunetan entseja, bekhatuezko urriki handi batean Jainkoarendako maithagune perfetenean, ta seinduki bizitzeko xede

zinean ongi sartzerat eta finkatzerat. Erretretaren azken egunean edo bezperan akhaba kofesioa, kofesoraren oinetarik ilkhi ta berehala Jesu-Kristoren tribunalerat joan behar balitz bezalako sentimendu berekin. Bekhatuen erratearen gainean atxiki diteke erregelata hau. Baldin ezagutzen bada, edo dudatzeko arrazoin onik balin bada, urthe hartan kofesio gaxtorik egin dela, hori agertu behar zajo kofesorari; eta baldin kofesor berri batekin bada egiteko, urthe ko kofesioa egin beharko da xeheroki, urthe guzian batere kofesatu ezpaltz bezala, erranez ere zenbat kofesio ta komunione egin dituen gisa hartan. Bainan baldin kofesor berarekin bada egiteko, gerthatu den huts hura garbiki erran eta, askiko da ongi erranak diren bekhatuez jeneralean eta xehetasun handitan sarthu gabe akusatzeta. Gauza bera egiten da urthe ko kofesioen erreberitzeko arrazoin premiatsurik eztenean, edo ezagutzen eztenean hetan hutsik gerthatu izan dela. Erretreta horren egiteko denbora egokiena liteke, edo eguberriren aitzineko astea, Jesus maitearen sortze dohatsua ohoratzerat, ta hura bera gu baithan Izpirituz eta sentimenduz



sor-arazterat aphaintzeko; edo Mendekoste aitzineko astea, Izpiritu seindua bere dohainekin errezebitzeko zoriona ardiesteko. Egun hek, erran nahi da, Jaundone salbatoretik mendekoste arterainoko egunak apostoluek ere iragan zituzten erretretan bethi othoitzean, Jesu-Kristo bere nausiarekin azken afaria egin zuten lekuan, Izpiritu seinduaren dohainez geroago ta gehiago aberastuak izateko.

## **Abisu jeneralak**

25. Ikhusia da, nihor eztitekela funski prestu izan, ez eta egiazko seindutasunerat hel, bekhatutik beiratzuz, ta prestugune edo berthute guziei jarraikiz baizen. Debozioneari aphur bat ematen zaizkon jendeak beiratzen ohi dire bekhatu larrienetarik, burhoetarik, haserrego handietarik, desoneskeria likhitsetarik, kalumnia beltzetarik. Aphur bat badarraizkote prestugune batzuei; lakhet dute othoitzean, irakurtz onetan, elizako ofizioetan; bere kofesioak eta komunio-neak erregelatuak dituzte. Bainan horien guzien

gainera, eta ezpadute nahi bizitze erregalatu hura eramateko hartzen dituzten pena guziak galduak izan ditezen, artha ukhan behar dute bekhatu guzietarik ere ahalaz beiratzeko, ta prestugune guziei jarraikitzeke. Jakin behar dute, bekhatu benialak ere hagitz damu samina egiten dioela Jainkoari, bereziki maiz eta errexki norbait hetan erortzen bada, grazien ithurria hainarentzat agortzen bezala dela, hekien bidez etsajak esku handi bat hartzen duela arimaren gainean, gure indar Izpiritualak hagitz flagatzen direla, ta hala bekhatu benialak errexki egiten dituen segurki bezala bekhatu mortalean eroriko dela. Beraz Jainkoaren egiazko adiskide izan nahi dena, ta haren maithagune sakratuan iraun nahi duena, atzartasun handi batean biziz behar da bethiere, bere ahalez bekhatu biter ez egiteko, ta gauza guzietan prestugune batzuek eta bertzek galdetzen duten bezala gobernatzeke. Ezta hargatik lotsatu behar, erdi oharkabean bezala eta lehenbiziko mobimendu batez zenbait huts gerthatua gatik ere. Segur da berdin arima diteken atzarrienari ere halako hutsak gerthatu-ko zaizkola. Seindu guzien artean Maria sakratua

da halakorik batere gerthatu etzajona. Bihotza hetarat emana eztenean, errexki barkhatzen dire, eta eztiote arimari bidegabe handirik egiten. Huna orai zenbait bekhaturantza edo bizio, eta prestugune berexi, zeinetaz jende prestutasun erakhusten dutenek ere ezpaitaukate bethi behar den bezenbat kontu.

26. Lehenbizikorik, hantustea edo orguilua maiz gordetzen da prestutasunaren idurien azpian. Asko jende prestu-idurik erraten dute bere baithan, ebanjelioko farisauak bezala: eznaiz lohia, eznaiz hordia, eznaiz ohoina, ez eta arnegaria, hulakoa ta halkaoa bezala; hunenbertze othoitz, hunenbertze meditazione, hunenbertze komunione egiten dut. Horiei behatu ta halako jendetarik asko bere baithan hanpatzen dire, seindu handi batzu balire bezala, baderitzate hurren hirurgarren zeruraino xuxen igaterat dohazila. Bere buruentzat prezamenduz betherik, eztute mespreziorik baizen bertzentzat. Guziez nahi dire izan ongi aiphatuak eta ongi ekharriak, ta gerthatzen bazaje zerbait, hekien hantustea zapha dezakenik, su ta lama egiten

dire. Holako asko jende kausitzen da debozione-ko itxura hartzen dutenen artean.

27. Bada hainak desengana bitez; eta egiazki prestu eta debot izan nahi direnak, hertsiki beira bitez halako sentimendurik bere baithan idukitzetik. Egiazko aphalesgunea, nork bere burua mesprezatzea, ta bertzez ere aphaletsia ta mesprezaturia izatea gutiziatzea edo bederen gogo onez jasatea, da Egiazko prestutasunaren zimendua eta erregela segurena; eta aphalesgune hori gabe, othoitz, barur, komunione frango egitea ezta bertzerik, dio san Gregorio handiak, herrautsa haizeari botatzea baizen. Beraz batbedera segur izan bedi, zenbatenaz baita urrunago egiazko aphalesgunearen sentimenduetarik, ta hanbatenaz dela egiazko seindutasunetik urrunago ta gutiago prestu, gainerakoan bizitzerik Jainkoskoena balerema ere. Seinduek bere buruak arbujatzen eta mesprezitzen zituzten, lurreko herrauts phixka batzu bezala, ezjeus batzu bezala, bekhatoretako handienak gizon guzietako gaxtoenak bezala. Entseja gaiten bada gu ere, hek bezala seindu egin nahi bagare, sentimendu beretan sartzerat, orhoitzen

garelarik ezen, eztugulagure baitharik deusere, ezjeusa ta bekhatua baizen, eztugula beraz merezi arbuorik ta mespreziorik baizen; gure baithan diteken on guzia Jainkoa ganik dela, hari zajola beraz zor ohore ta loria guzia; eta gure bizian ezpagindu egin bekhatu mortal bakhar bat baizen ere, hortaz merezitu ginituzkela baie-ta gehiagorekin, mundu huntan gertha ditezkegun ahalge, desohore ta laido guziak. Egia horiek zinez gogoan harturik, arthoski gudukatu behar ditugu, gure prestutasuna gatik, jakitatea gatik, eta bertze edo-zein arimako ta gorphutze-ko gisagune edo kalitate on gatik sor ditezkegun gure buruendako ikhustatezko ta prezamenduz-ko sentimendu guziak: zorrozki beiratu behar gare jenden laudorioen ta munduko ohoren guti-ziatik: deusik ez egin sekulan xede hortaz, ez halaber utz egingabe egin gogo zenik deusik, mundutarren burlen eta erasion beldurrez: ibil bere jaunzturretan eta aphaintzeko maneran bak-hotxaren herrunkari dagokon bezain arruntki, hortan hutsik egitekotz, sobraz baino gutiagoz lehenago huts eginen duen gisan: sekulan ez mintza nor bere buruaz, edo hari dagozkonez eta

ukitzen zaizkonez, bertzen prezamendua gu gana dezaken gisan, non eztuen zenbait arrazoin handik hala galdetzen, lekhat hargatik bere bidariari, zeinari ezagutzerat eman behar baitzaizko barneko onak gaitzak bezala. Seindu handi batzuen ohitura zen, bere buruez agitz aphalki ta mesprezio handirekin mintzatzea; bere aphalesgune handiak hala mintza-arazten zituen: hargatik san Frantses Salesek nahiago du, eztadin nor bere buruaz batere mintza, ez ongi, ez gaizki, zeren aphalesgunearen hizaintza haren azpian errexki gorde bailiteke ta maiz gordetzen baita hantustearen phozoina. Gerthatzen zaikunean bertzez gaizki aiphatuak eta mesprezatuak izatea, hori har atsegin guziarekin, bederen eztiki ta gogo onez jasan, asko aldez merezi dugun gauza bat bezala, gogoari emanik ezen, gaizki aiphatzen gaituzten phondu hartan hobetik ezpadugu ere, bertze aldetarik ta bertze arrazoinenez merezi dugula handik dathorkigun beheragunea ta ahalgea, baieta gehiago. Horra nolakoa izan behar den barnez eta kanpoz egiazko aphaltura eta edozein egiazko prestu izan nahi dena. Ez hargatik khexa, hantustezko zen-

bait sentimendu bere baithan sentitua gatik ere: ukhan artha hek bere bihotzean thotzeko, heta-rik bere gogoia aldaratuz: hori egin eta egon des-kantsu; berdin orduan sentimendu hek eztire bekhatu. Hau auditu behar da bertze tentamen-du guziez ere.

28. Hantusteari hurbildanik darrajo jauzkortasuna ta pairu-eskasa; bethi kasik elkharri datxeizko bi bekhaturantza horiek. Hala ikhusten ere dire hanbat jende prestu-iduri, nor nahi bezain minbera, jauzkor; supher, sentikor; fits baten pairatzen eztakite, erran behar bada; ezjeus baten gatik orobat hanbat khexagune erakhusten dute, hanbat erasia baderabilate; goragokoak, bardinak, eta bereziki sehiak eta bertze bere menekoak erasiaz eta errephortxuz xahutzen dituzte orobat huts xumenak gatik; nihork ezin buru dezake hekiekin, eritasunak hartzen dituenen, edo bertze zenbait nahi-gabe gerthatzen zajenean. Holako jende prestu-iduriek, bere arimakoaz bertzalde, bidegabe handi bat egiten diote debozionario ere: hortik esku hartzen dute mundutarrek debozioneaz trufatzeko ta jende egiazko deboten ere mesprezatzeko.

29. Jakin behar dugu beraz, pairatzen jakitea, gaitzak eta nahigabeak ezteki jasatea dela egiazko prestutasunaren seinale segurua. Berzue guzietan jainkozko xedez bezain ontsa ibilgenetazke jaidura naturalez, gure guredako maithagunez, hantustez, othoitzean eta sakramenduetan kausitzen dukegun barneko gozobatez, eta hala gabiltzako, ikhusia da eztekelagure baithan prestugune handirik. Bainan nola naturalezak ezpaitu bere kontua kausitzen gaitzetan eta nahigabetan, hek ongi jasatea, ta hetan senti ditezken naturalezako jauziak eta sumindurak arthoski gudukatzea ta zaphatzea da egiazko prestuak garelako seinale bat hurren ezin dudatuzkoa. Urrun beraz jende egiazki prestu izan nahi den baten ganik, urrun barneko jauzi biziak, bihotzeko minkhartasunak, erasia saminak, lakhet pairatzen, nola nahikoak izanen badiere ere, eta nondik nahi, baieta gizonen gaxtake-riatik ethorriko bada ere, pairatzeko ukhanen duena; hotza, beroa, gosea, egarria, oinhazeak eta eritasunak ezteki, baieta atseginekin Jainkoaren esku bethi maithagarritik hartzerat entseja; jasan guziak errenguratu gabe: mintza hargatik



lañoki ta garbiki gaitzak erremedia detzaketenei, batezere gaitzek ondore txarrik ukhan dezakete-  
nean, gorphutzeko gaitzentzat barber-mirikuei,  
eta arimakoentzat nor bere kofesorari ta bidaria-  
ri, ta egin griñarik gabe hekiek manatzen dute-  
na.

30. Gaitzak eta nahigabeak ongi jasateari  
darrajo nork bere burua mortifikatzeko artha, ta  
hartarat emanak izan behar dire egiazko prestu  
izan nahi direnak. Egiazko prestua izan behar da  
Jesus jaunaren iduriko, eta zer izan da Jesu-Kris-  
tok lurraren gainean eraman duen bizitzea, bethi  
zirauen eta azken hatsarekin xoilki baratu zen  
mortifikazione bat baizen? Bekhatuak borhatuko  
badire, behar du nork bere burua penatu ta mor-  
tifikatu; bada guti-gutiak arima prestuak, lehe-  
neko denboretan bekhatu mortal aphur bat egin  
eztutenak, eta oraino gutiago dire egun oroz ere  
asko huts xumetarat lerratzen eztirenak. Ber-  
tzalde gure naturaleza guzia gaizkirat makhur-  
tua da, eta segurki bekhatuko lezerat arthikiko  
gaitu, ezpadugu egun orozko mortifikazionearen  
bidez gogorki ekhartzen. Hala dio jaundone Pau-  
lok, alhargun gazte guriki beizi dena, bizi delarik

hila dela. Ezta hargatik egin behar, gorphutza flaka eta osasuna altara dezaketen mortifikazio-ne handirik, barurik, gau-beilatzerik, eta bertze holakorik, bere buruz eta bere bidariarekin aditu gabe. Bainan bertze asko mortifikazioe, egun oroz, kasik memento guziez egin ditezke, indarrak eta osasuna batere ukitu gabe; hala-nola, ikhusi nahian ez behatzea, aditu nahian beharria ez paratzea, berriak jakin nahian ez galdetzea, mintzatu nahian ixilik egotea, hotz, gose egarri guti bat sentitzean ez lehiatzea surat hurbiltzerat, jaterat, edaterat, bere nahia utzirik bertzerenerat erortzea ez on, ez gaitz handirik eztakhar- keten gauzetan. Bada holako mortifikazioei hagitz jarraikia izan behar da egiazko prestu izan nahi den Kristaia; horiez, kasik deus gosta gabe, bilduko ditu zerukotzat aberastasun handiak.

31. Alferkeria oraino eskas bat maizegi bai- zen kausitzen eztena debozionario itxura hartzen duten jendetan. Egiazki eskandala bat da hetarik zenbait ikhustea, elkhar gana bilduta, oren osoak, arratsalde osoak iragaten, lanari batere, edo erdizka baizen konturik ematen eztiotela. Orobat meza entzuterat joan eta, aitzinean edo

ondoan Jainkoak daki zenbat denbora galtzen dute elheketan eta funsgabekerietan. Horiek egiazko deserregelamendu batzu dire, zeren denbora galtzea berenaz ere gaizki handi bat baita, zeren bere etxekoei asko bekhatu egiteko, eta mundutarrei hetaz eta debozioneaz gaizki erasteko bide ematen baitiote.

32. Jakin behar dugu beraz guziek, Jainkoari egun batez kontu hertsia bat eman beharko diogula, gure eginkunde guzietan bezala, gure biziko memento guzietan ere. Enplega beraz guziak ongi, gauza onetan eta Jainkoaren gogarako izanen den gisan. Garen guziak, zoin bere ahalen eta herrunkaren arabera, obligatuak gare lanean haritzerat; hola da Jainkoaren manua, eta hori da gizonari bekhatu egin ondoren eman dion lehen-biziko penitentzia. Bizitzeko zerbait laguntza edo onthasun dutenek, baldin behintzat bere gisa bizi badire, edo bertzeren meneko izan arren, bere aitzinekoek astia uzten badiote, denbora gehiago eman dezakete Jainkozko gauzetan, othoitzean, elizan; hainek begira detzakete bizitzeko Erregela huntan ezarriak diren phondu guziak, eta gainerako denbora enplega bezate

arthoski lanean, bertze jende, bere lanetik bizi behar direnak, edo bere aitzinekoek denbora handirik bere eskuko uzten eztiotenak, are jarraikiagoak izan behar dire lanari. Hainek goiz guziez eman balezate oren erdi bat meditazio-nean, egun oroz iragan baletzate oren osoak elizan, bere eginbidei huts eginez, bere etxekoak haserre-araziz, edo gaitz phixka batek hartzen baditu, bertzeren laguntzaren beharrean litezken gisan, gaizki legikete hanbat denbora debozioneko gauzetan ematea; debozione gaizki aditu bat liteke hori. Bertzeren manupean bizi denak guzien gainetaik amor egin behar deraje bere aitzinekoei; obeditu behar deraje arthoski ta gogo onez, Jainkoaren edo eliza ama seinduaren legek debekatzen eztituzten gauza guzietan; hori Joan behar da debozione hutsezko gauza guziak baino lehenago. Orobat onthasunketarik eztutenak entsejatu behar dire oneski ta nihor behartu gabe bere bizia kharrajatzeko ahaletan ezartzerat bere buruak. Kasu horietan diren jendek, oneski har dezaketen denbora debozionezko gauzetan eman eta, gainerakoak eginen dituzte lanean hari direlarik, erregela huntan

hor-hemenka errana den bezala. Ahalaz hartuko dituzte igande-bestak kofesatzeko ta komuniatzeko, eta orduan enplegatuko dute ahal dagiten bezenbat denbora. Bainan gerthatzen bazaje astelehunetan sakramenduen hartzea, laburkiago egin detzakete bere debozionaek, elizako eskasa etxean eta bere eginbidetan hari direla ahalaz bethetzen dutelarik. Bainan halako jendek ukhan bezate artha berezi bat bere lanak eta Joan-Ethorri guziak othoitzatzat balia-arazteko. Egiten duten guzia egin bezate, ez bakharrik bizi beharrez, edo bertze arrazoin naturalez, bainan egin bezate Jainkoa gatik, Jainkoaren nahia bethetzeko xede garbiz, eta zeren harentzat duten maithaguneak erakhartzen dituen gauza guzietan hari atsegin egiterat: horrela egiten badute, kontu egin ahal dezajete bere denbora guzia othoitzean daramatela; eta asko denbora belhauniko daramatenek bezenbat edo gehiago grazia ardietsiko ta zerukotzat merezimendu bilduko dute.

33. Lagunekin ibiltzearen eta solastatzearen ganean, huna jende prestuek atxiki behar dituzten erregelak. Ezpitez ibil ezin bertzean eta arra-

zoin onez baizen, jande lazo, munduaren arabek-  
rako sentimenduak dituzten, eta solasak eta  
aireak darabiltzatenekin; hori Jainkoari zor dio-  
ten ohorearen kontra liteke, baieta asko gisetara  
arimakotzat kaltekor gertha lakieke. Hargatik  
halako jendetarik norbait Jainkoari irabazteko  
esparantza balin balute, ezlezakete gaizki egin  
hura aphur bat hantatzea; zerbait adiskidetasun  
erakhuts ere baliezokete. Bainan beira ongi,  
haina Jainkoari irabazi nahian, eztiotzon hainak  
debruari berak irabaz. Ezin bertzez kausitzen  
direnean mundutarrekin, eta bereziki bertze  
muetakoekin edo fexukoekin, iduki bezate aha-  
laz aire seriosa: neskatxak ez ukhana gatik ere  
xede gaixtorik, gizon gazten aitzinean alegeregi  
ta araiegi agertzen bada, horrek berak asko ta  
asko bekhatu eragin dezake: neskatxak eztitu  
askotan ezagutuko, ordean Jainkoak ikhusiko  
ditu, eta bere jujamendu ikharagarrian haren  
gain ezarriko ditu, haren faltaz eginak bezala.  
Horrela bortxatuak direnean bertze sexuko jen-  
dekin ihardukitzerat, arthoski begira betzate  
Izpiritu Seinduaren abisu hauk: atzartasun guzia-  
rekin begirazozu zure bihotza, beldurrez sor

dakizun, zuretzat den gutiena perilos izan ditek-  
en afekzionerik batere: eztezazula sekulan  
begirik koka bertze muetako jenden gainean,  
beldurrez begietan gaindi sar dakizun bekhatua-  
ren phozoina. Bai, artha guziarekin begiratu  
behar ditu jende prestuki bizi nahi denak abisu  
zuhur horiek, jakinik ezen debru lohiak hatzema-  
ten dituen hanbat arimetan eztela bat, erran  
behar bada, hastean bekhaturatzeke gogorik  
zuenik; bainan behar den atzartasunarekin biho-  
tza zaindu gabez, han sortzen da ondikozko  
afekzione bat, zeinak behin bihotzari nausituzke-  
ro, zertarat nahi herrestatzen baitu. Eta eztezala  
nihork bere burua lausenga, jende erregelatue-  
kin, gizon seinduekin dihardukalako estakuruan;  
san Agustinek dio, san Ambrosio ta san Jeromo  
bezain seindutzat eta hek bezain seindutasu-  
nean finkatutzat zaduzkanak ikhusi izan dituela  
ondikoz erortzen, Jainkozko adiskidetasunetik  
hasirik. Ezta ere nihor fidatu behar, ez bere adi-  
naren, ez bere prestutasunaren, ez orai artean  
eraman dituen garaitien eta begiratzeko zoriona  
ukhan duen garbitasunaren gainean: bethi peri-  
los izanen dire bi muetetako jenden elkharreki-

ko ihardukitzeak; eta galtzeko bidetan jarri nahi eztenak hetarik ahalik gutiena atxiki behar du ta ahalik laburzkiena, hetarat bortxatua denean atzartasun handi batean egoten delarik bere barneko ta kanpoko sentsu guzien gainean. Hargatik halako kasutan hobe da phixka bat mintzatztea, eta zenbait umore on aire guti bat erakhus-tea, ezenez trunko bat bezala bethi mutu ego-tea. Hau aditzen da prestugunerik batere kolpatzen ezten solasetan eta gauzetan: ezen erreli-jionea, karitatea, modestia, edo bertze zenbait prestugune kolpatzen dutenetan ez irhi batez baizen ezpalitzere, konsent sarthu behar: aitzitik gothorki enferratu behar zaje mihi phozoatu hekiei, eta goraki agertu behar da Jainkoaren ohorearen alde. Hargatik beldur izateko bada, erasia gaxto hekiei enferratuz, bekhatu gehiago egin dadin, ez goraki enferra, bainan atxiki aire idor bat, alda solasa bertze zenbait gauzetarat, eta ilkhi lehen bai lehen halako konpainia izurri-tsuetarik.

34. Jende prestuek elkhar hantatzeak eztakharke berenaz deus gaizkirik; aitzitik arimako-tzat hori on diteke, artha hartzen badute, hartu



behar luketen bezala, Jainkozko gauzez aphur bat bederen mintzatzeko. Ongi liteke ere adiskide prestuek patu bat egin balezate, elkhar abisatuko dutela batak bertzean ikhusiko dituen hutsez; ezen eztugu zeren dudatu askotan hutsak egiten ditugula ustekabeen eta oharkabeen; ordean gu hetarat ez ohartua gaitik ere, bertzek ikhusten ohi dituzte, eta adiskide egiazko batek bere adiskideari bihur diozoken zerbitzu handienetarik batentzat idukitzeko da hura bere hutsez abisatzea. Hargatik elkharrekin ihardukitze hetan beira alferkeriatik, beira medisentziatik, batari piko, bertzeari asiki, mundu guziazari hauzi egitetik; ahalaz ez mintza bertzeren hutsez, non eztiren behintzat jende-artean arras banatuak, eta orduan ere ahalik gutiena. Ohartu behar da oraino, jende prestuek elkharrekin ihardukitze hura ere arimakotzat kaltekor litekela, baldin bihotza adiskidetasun natural batez sobraxe lotzen balitzajo norbaiti; bethi haren ganat lehia, harekin baizen onik ez, harekin ezteanean ere bethi kasik hura gogoan: holako adiskidetasunak, neskatxen edo haurriden artean izana gatik ere, asko bidegabe egiten dio arima-

ri; Jainkoari zor diogun maithagune osoa hagitz flakutzen du, debozionarioen gustua ethentzen du; asko ondore gaxto baduke. Iduki beraz bethiere bihotza gauza eginetarik laxatua; deusere, ez nihorere maitha Jainkoa baithan eta Jainkoa gatik baizen, Jainkoarendako maithagune sakratuak bethiere gure bihotzetan lehen herrunka idukiko duen ta osoki erreginatuko duen gisan.

35. Azken abisua, bainan guziz premiatsua, jende prestuei hemen emateko dudana da, art-hoski dabiltzala bethiere Jainkoaren aitzinean, dakitelarik ta maiz gogoan hartzen dutelarik lekhu ta memento guziez haren baithan direla, ta beha dagokotela: hori da Jainkoak berak Abrahami eman zioen abisu handia, ta egiazko seindutasunerat heltzeko irakhatsi zioen bide segura. Maiz erran biezote beraz jende debotek bere buruari: nere Jainkoa beha dagot; lagunekin naitzenez bezain ontsa bakhartasunean, elizan bezain ontsa etxean, bidean eta plazan, argian bezain ontsa ilhunbetan eta gau-minean bada-kusa zer egiten dudan, aditzen du zer erraten dudan, zundatzen du nere bihotzaren zolaraino; ez othe da deus nere izate guzian, ez barnean ez

kanpoan, Jainko handi, jainko maite hari damu dakiokenik? Gogoeta guziz ona, bekhatutik urruntzeko, ta ongia khar seindu batekin egiteko. Jainkoaz orhoitzearekin batean jende pres-tuak adora bezate, erakhuts biezote bere mait-hagunea, bere bekhatuen barkhamendua ta behar dituzten laguntza guziak eska biotzote. Ukhan bezate artha, egiten dituzten guzi-guziak, lan arrontenak ere bai, Jainkozko xedez, Jainkoaren nahia bethetzea ta hari atsegin egitea gatik egiteko. Goizean ofreimendu hori egin eta egun-araldian ere ahalik maizena erreberri bezate: gisa hortan memento guziez zerukotzat aberas-tuz Joanen dire. Orenak jotzen duenean, sar bitez bere baithan; adora bezate Jainko Jauna, orobat Jesus maitea, batean gurutzearen gai-nean, bertzean aldareko sakramendu seinduan, gogoa hetarat hedatzen dutelarik; gomenda bekizko Andre dena Mariari, agur-Maria batez, eta bere aingeru begiraleari othoiztto huntaz: *Angele sancte Dei, sit tibi cura mei, nunc et in hora mortis meae. Amen.* Hori latin da; huna eskaraz: Jaunaren aingeru seindua, idukazu,

arren nitaz artha orai eta nere heriotzeko orenean. Hala-biz.

Bizitzeko erregela huntaz zerbitzatuko direnak othoizten ditut, eztezaten huts egin ni ere Jainko maiteari gomendatzea. Segurki jaundone Paulok baino arrazoin gehiago dut beldur izateko, bertzeak salbatzen lagundu ondoan, nerorrigal nadin.

# JESUSEN IZEN SEINDUAREN LETANIAK

## Abisua

Guziz ederrak dire letania hauk Jesus maitearen sentimenduak ta prestugune berezienak hautan seinalatzen dire, ta othoitz eder batzu dire, hek hari berari galdetzeko. Bada ere hirur ehun egunen induljentzia debotki erraten diren aldi bakhotxeko. Egun oroz erran behar litezke beraz, gure kateximak goizeko othoitzean gomendatzen duen bezala; eta nola ezpaitire kausitzen latinez baizen jende-artean banatuak diren liburuetan, hemen eskaraz ezarri ditut, gostu, debozione ta progotxu gehiagorekin erran detzaten nahiz eskara baizen eztakitenek, aditzen dituztelarik bertsu batzutan eta bertzetan seinalatuak diren Jesu-Kristoren prestuguneak, eta hek hari berari eskatzen diotzotelarik.

Hargatik irakurlea abisatu behar dut, Espainian inkisizioneak debekatzen dituela Letania

hauk, bertze guziak ere bai, lekhat Andre dena Mariarenak, seindu guzienak, eta hagonian direnenak; eznintzen guti espantitu hori aditu nuen lehen aldian. Horrek ere aphur bat dudan iduki nau, ea hemen ezarriko nintuenetz: alabainan lekhan lekhuako legeak begiratu behar dire. Bainan nola Espainiako theologo prestu bezain argitu batek erran baitzautan, duela denbora, Espainian ere erran zitezkeela, hastea eta akhabantza uzten zirelarik, horren gainean ethorri naiz hauk hemen ezartzerat eskaraz arimen onetarako. Espainian erraten direnean beraz, hasi beharko dire hitz hautarik: *Jesus, Jainko biziaren semea*; eta utzi bertze hitz hautan: *zure ama Maria Birjina guziz ezti*; ondoan den oremusa edo othoizta erran diteke Espainian Frantzian bezala.

## **Jesusen izen seinduaren letaniak**

Jauna, urrikal zakizkigu.

Jesu-Kristo, urrikal zakizkigu.

Jauna, urrikal zakizkigu.

Jesus, adi gaitzatzu.

Jesus, entzun gaitzatzu.

Zeruetako aita, Jainko zarena, urrikal zakizkigu.

Seme, munduaren eroslea, Jainko zarena, urrikal.

Izpiritu seindu, Jainko zarena, urrikal zakizkigu.

Trinitate seindua, Jainko bakhar bat zarena, urrikal zakizkigu.

Jesus, Jainkoa biziaren semea, urrikal zakizkigu.

Jesus, aitaren argia, urrikal zakizkigu.

Jesus bethiko argiaren distiadura, urrikal zakizkigu.

Jesus loriazko erregea, urrikal zakizkigu.

Jesus zuzentasunezko iguzkia, urrikal zakizkigu.

Jesus Maria Birjinaren semea, urrikal zakizkigu.

Jesus guziz miragarria, urrikal zakizkigu.

Jesus Jainko guziz ahaltsua, urrikal zakizkigu.

Jesus geroko mendeko aita, urrikal zakizkigu.

Jesus kontseilu handiko aingerua, urrikal zakizkigu.

Jesus guziz botheretsua, urrikal zakizkigu.

Jesus guziz pairutsua, urrikal zakizkigu.

Jesus guziz obedienta, urrikal zakizkigu.

Jesus bihotzez ezti ta aphaltura, urrikal zakizkigu.

Jesus garbitasunaren maithatzalea, urrikal zakizkigu.

Jesus gure maitatzalea, urrikal zakizkigu.

Jesus, bakhezko Jainkoa, urrikal zakizkigu.

Jesus, biziaren emailea, urrikal zakizkigu.

Jesus prestugunen modela, urrikal zakizkigu.

Jesus arimen bilhari khartsua, urrikal zakizkigu.

Jesus gure Jainkoa, urrikal zakizkigu.

Jesus gure ihes-lekhua, urrikal zakizkigu.

Jesus on-beharren aita, urrikal zakizkigu.

Jesus sinhestunen tresora, urrikal zakizkigu.

Jesus artzain ona, urrikal zakizkigu.

Jesus egiazko argia, urrikal zakizkigu.

Jesus bethiko zuhurtzia, urrikal zakizkigu.

Jesus mugarririk gabeko ontasuna, urrikal zakizkigu.

Jesus gure bidea ta gure bizia, urrikal zakizkigu.



Jesus aingeruen bozkarioa, urrikal zakizkigu.  
Jesus patriarken erregea, urrikal zakizkigu.  
Jesus profeten argitzailea, urrikal zakizkigu.  
Jesus apostoluen nausia, urrikal zakizkigu.  
Jesus ebanjelisten irakhaslea, urrikal zakizki-  
gu.

Jesus martiren indarra, urrikal zakizkigu.  
Jesus kofesoren argia, urrikal zakizkigu.  
Jesus birjinen garbitasuna, urrikal zakizkigu.  
Jesus aphezen loria, urrikal zakizkigu.  
Jesus seindu guzien khoroa, urrikal zakizkigu.  
Alde zakizkigu, barkha diezaguzu, Jesus.  
Alde zakizkigu, entzun gaitzatzu, Jesus.  
Gaitz guzietarik, libra gaitzatzu, Jesus.

Bekhatu guzietarik, zure haserreduratik,  
debruaren amarruetarik, lohikeriazko izpiritutik,  
sekulako heriotzetik, zure gogoramenduen alde-  
rako ez-axolatasunetik, zure haragitze seinduko  
misterioaz, zure sortzeaz, zure haurtasunaz,  
zure bizitze guziz Jainkozkoaz.

Zure nekhez, zure hagoniaz eta pairamenaz,  
zure gurutzeaz eta uzmenuaz, zure akidurez,  
zure heriotzeaz eta ahorzgoaz, zure phizteaz,  
zure zerurat igateaz, zure bozkarioez, zure

loriaz, zure ama Birjina Maria guziz eztiar, libra gaitzatu, Jesus.

Jainkoaren bildots, munduko bekhatua, khentzen ditutzuna, barkha diezaguzu, Jesus.

Jainkoaren bildots, munduko bekhatuak khentzen ditutzuna, entzun gaitzatu, Jesus.

Jainkoaren bildots, munduko bekhatuak khentzen ditutzuna, urrikal zakizkigu, Jesus.

Bertsua. Benedika dadila Jaunaren izen seindua-ihardestea. Orai ta hemendik aitzina mende guzietan.

*Oremus.* Erran nahi baitu, egigun othoitz. Jesu-Kristo gure Jauna, zure apostoluei erran zenerajen: galdezazue eta errezebituko duzue, bilhazazue eta kausituko duzue, Jozozue atheari eta idekiko zaitzue: galdez eta errekeriz gagozki-gutzu bada gu ere; igutzu, arren, zure maithagune guziz Jainkozkoaren sentimenduak, eta egizu bihotz guziaz eta gure eginkunde guziez maitha zaitzagun, gure mihiko solasez bezain ontsa, eta ezgaitezen sekulan geldi zu laudatzetik eta benedikatzetik, ezina Jainko zarelarik bizi baitzare eta erreginatzen baituzu Jainko aitarekin Izpi-

ritu seinduaren batasunean mendetako mende  
guzietan. Halabiz.

# JESU-KRISTORI OTHOITZAK

## **Nork bere burua Jesu-Kristori emateko othoitza**

O! Jesus launa, huna non naizen zure zerbitzari bat, ta zure Eliza seinduaren ume bat; arren bada harzazu zure eskuetan nere eskuko den guzi-guzia; harzazu nere memoria, nere adi-mendua, nere borondatea, nere bihotza, nere arima ta nere gorputza. Naizen guzia ditudan guziekin zuk egina naiz, zuk ongi garastia erositua naiz, arrazoin guziez zurea naiz; bada guzi-guzia zuri bihurtzen natzatzu, zure eskuetararat ezartzen naiz, naizen guzia ta gauza guzietan zure borondate seinduaren arabera goberna nazazuntzat. Indazu, arren, zu, eta zure ama Maria Birjina guziz seindua egiazki ta osoki maithatzeko grazia, eta horrekin batean aski aberats izanen naiz, eta eztautzut deus bertzerik eskatzen. Bizhala.

## **Nork bere burua Jesusen bihotz sakratuari emateko othoitzza**

O! nere erosle Jainkozkoaren bihotz adoragarria! gizonentzat erretzen zauzkan bazterrik gabeko maithagunea gatik, gure salbatzeko isuri nahi izan duzun odol prezagarria gatik; zure urrikalmendu mugarririk gabeak gatik, egun eta bethikotz ematen dauzkitzut naizen guzia ta ditudan guziak; ematen dauzkitzut nere gorputza, nere arima, nere gogoetak, nere gutiziak, nere hitzak, nere eginkundeak, nere pairamenak; bainan gisa bereziago batean ematen dauzcut nere bihotza bere maithagune, estekamendu ta mobimendu guziekin. Harzazu, arren, o! Jesusen Jainkozko bihotza, garbizazu, seinduzazu, eta emazu guzia sutan zure maithagune sakratuaz. Den-hala.

# **Jesusen bihotz sakratuari ohorezko amanda**

O! nere salbatzailearen ta nere Jainkoaren bihotz adoragarria! guziz damuz iretsirik, ni ganik ta bertze hanbaten ganik gorphutz seinduko sakramenduan errezibitu ditzun eta egun oroz errezebitzen ditzun laido saminak gatik, huna non nagon zure aldaren oinetan ahuspez jarria, hetaz guziez zuri ohorezko amanda egiteko. Oi! nere errespetuez ta nere adorazionez berre ahal banezake zure ohore mesprezatu! Oi! nere nigarrez, baieta nere odolaz errepara ahal banetzake hanbat errespetu-eskas, hanbat farfanakairia, hanbat sakrilejo! Oi! ala nere bizia ongi enplegatua bailetake, hoin gauza handi batetakotz sakrifika ahal banezake! Barkha diezezu, errekeritzen zaitut, o! nere Jainkoa, hanbat heretiko desohoratzen zaituztenei. Bainan bereziki barkha diezadazu neroriri, zeinak mezak gaizki entzunez, komunione hotzez, komunione gaxtoez eta bertze hanbat gisaz hain damu saminak egin baitauzkitzut: orhoit zaite, zure bihotz adoragarria nere bekhatuez kargaturik,

izan dela heriotzeraino hagarandua. Arren bada, zure hanbat nekhe ta pairamen, zure heriotzea ta odola ezpitez neretzat alfer izan. Suntsi diezadazu bihotz gaxto hau, eta indazu bertze bat, guzia zure bihotz sakratuaren araberakoa izanen dena; bihotz bat urrikiz phorroskatua ta beheratua, bihotz bat garbia ta notharik gabea, bihotz bat gaurgero den guzia zure loriakotzat enplegatuko dena, ta zure maithagunearen su sakratuaz erretzen egonen dena. Nere aldetik hitz ematen dautzut, o! Jesus adoragarria! Iragan bizian egin ditudan errespetu-eskasak eta sakrilejoak, orai nere bihotza guzia auhenetan hondatua daukatena, nere ahal guzietz erreparatuko ditudala, maiz ethorritz zure aldaren oinetarat zuri nere errespetuak bihurtzerat, zu maiz eta ahal dagidan debozione ta khar guziarekin errezebituz komunione seinduan, eta bethiere modestia guzia begiratzuz, barnez eta kanpo, zure Eliza seinduetan.

# **Nork bere jaidura gaxtoen garaitzeko grazia eskatzeko Othoitza**

O! Jainko, seindutasuna bera zarena! O! urrikalmenduzko aita! zuk egin nauzu, zure ume maitei eman zajen libertate dohatsuan zerbitza zaitzadantzat. Ez nazazula bada, arren, utz gehiago nere jaidura gaxtoen lege ahalkagarrien azpian bizitzerat: hel zakizkit ta lagun nazazu, hek garaituko baditut, nere buruari egin behar diotzodan ta jasan behar ditudan gudu gaitzetan.

Ezagutzen duzu, Jauna, ni zein flakoa naizen, ta zein borthitzak diren niri nausitu nahiz dabilzikidan etsai muthiriak, nere bihotzeko jaidura gaxtoak. Hain ardura haserreagoak asaldatzen nau; hantusteak harrotzen nau; sumindurak minkhartzen nau; lohikeriak izurrikeriez bethetzen nau; nere umore gaxtoak hain jasangaitza egiten nau; nagitasunak hain phisu, hain laxo egiten nau nere eginbiden gainean; nere-nere-dako maithagune itsua hain ardura sartzen da



egiten dudan ongi gutian ere, eta beretzen du zuretzat egin behar nuenaren zathi handi bat, guzia ezpada ere. Zer herstura, o! nere Jainkoa! Zer ondikoeko esklabotasun, horien guzien bor-txa, zu maithatu nahi zaituen eta guzia zurea izan nahi den arima batentzat!

Bai, egin da; gaurgero, eta zer nahi gostako bazautere, eztitut nahi entzun nere jaidura gax-toen gogoramendu phozoatuak. Bekhatutik bei-ratu nahi naiz; eta nere jaidurak direnazkero nere bekhatu guzien ithurriak, baitezpada gudu-katu nahi ditut, zehatu nahi ditut nere arimaren etsai muthiri hauk. Zure izenean, o! Jainko guziz botheretsua! Hartuko ditut harmak, etsai dorphe haukien gudukatzeko. Bertze hanbatek, zure grazia seinduaren laguntzarekin batean garaitu dituzte loriozki; eta nik ere esperantza dut, zure izenean ta zu laguntzen zaizkidalarik, garaituko ditudala, Jesu-Kristo gure launaz, zeina bizi baita eta erreginatzen baitu mendetako mendetan.

# **Arimako ta gorphutzeko garbitasuna galdetzeko othoitza**

O! Jesus adoragarria, Birjinen espos loriosa! lurraren gainean bizi zineno, hain maithagune berezia erakhutsi izan duzu garbitasuneko prestugune ederrarentzat. Mirakulurik espantigarrienaz, Birjina baten ganik sorthu nahi izan zare, haren garbitasuna den gutiena zaurtzen etzelarik. Bertze phondu gehienen gainean bai, bainan garbitasunaren gainean eztitutzu utzi zure etsai errabiatuak zure kontra akusik xumena altxatzerat. O! Jesus adoragarria! Prestugune prezagarri hunentzat ukhan duzun maithagune berezi horren ariaz, errekeritzen zaitut eman diezadazun, hau nik ere dagokon bezala prezatzeke ta osorik begiratzeko grazia. Zure idurira egin nauzu; nola ni atrebi hain higuin duzun bekhatu batez zure iduri sakratua likhisterat? Mehatxatzen duzu, fundituko duzula zure tenplu seindua profanatuko duena; zer sakrilego izigarri ezlitateke, nere gorphutza, zure tenplu bizia, hanbat aldiz komunione seinduan egon-tokitizat zerbitzatzen zaitzuna, lizuntzea ta lohitzea? Zure

mienbroa naiz; zer monstro ninteken beraz zure begietan, zu Birjinen Birjinaren mienbroa. Naize-na, debru lohiaren mienbro egiten banintz! ez, o! Jesus adoragarria! eztezazula sekulan deusere sartzerat utz ni baithan, arimako ta gorphutzeko garbitasuna den gutiena hits diezakedanik. Badakit grazia berezi bat behar dudala, Jainkozko prestugune hunen osorik begiratzeko. Horrengatik ere zu ganat egiten dut laster, o! hanbat Birjinen espos adoragarria! Zenbatak, zeruan aingeruak bezala, bizi izan direnak lurra- ren gainean? Hek ere flakoak ziran ni bezala. Eznau beraz nere flako izateak lotsatzen; zure laguntzarekin batean badaidiket nik ere bertze hanbatek egin izan dutena, egidazu beraz, o! nere Jesus maitea, nere izate guziaren gainean hain atzarririk bizitzeko, ta othoitzari hain art- hoski jarraikitzekeo grazia, non Izpiritu tentatzai- leak, zure loriaren ta nere salbamenduaren etsai madarikatu hark ezpaitaut sekulan den gutiena eskurik hartuko.

# **ANDRE DENA MARIARI OTHOITZAK**

**Andre dena Mariaren himnoa,  
air, Maris Stella, hasten dena,  
eskaraz ezarria**

Agur, itsasoko izar ederra, Jainkoaren ama guziz behar bezalakoa, bethi Birjina izan zarena ta zeruko athe ta sar-bide zorionezkoa.

Onhetsazu gure ahotik, bertze orduz aingeru san Gabrieleke egin zautzun agur lorios hau, ta finka gaitzatzu egiazko bakean: ezen Ebari baino hobeki dagotzu zuri bizien amaren izena.

Phorroska zaitzu beraz, oi! ama guziz ona! Gu ondikozko hobendunak amarratuak gauzkatzen gathe phisuak; suntsi zatzu gure ilhunbe lodiak; urrunatzu gu ganik arimako ta gorphutzeko gaitz eta ondiko guziak, eta zure seme adoragarri gure Jainkoa ganik ardiets dietzagutzu behar ditugun on guziak, eta bereziki arimari ta salbamenduari ukitzen zaizkonak.

Erakhutsazu, arren, egiazki zarela ama; eta hel-arazatzu gure galdeak eta errekerimenduak Jesu-Kristo zure semea ganaino, zeina zu ganik sorthu nahi izan baita gu salbatzeko, eta, arren, zure othoitzen bidez ta zure amoreak gatik digula eskatzen diogun guzia.

O! Birjina seindua, egundaino zu bezalakorik izan ezten bezalakoa, guzien artean zure ezta-sunaz, aphalesguneaz eta garbitasunaz seinalatu izan zarena! Egizu, arren, zure othoitzez, gu ere, gure bekhatuetarik atherarik, izan gaiten bihotzez ezti, aphaltura ta garbi.

Egizu, arren, zure othoitzez, bizi gaitezen seinduki ta garbiki, eta bethiere atxiki dezagun zerurat daraman bide xuxena, egun batez ukhan dezagun, Jesu-Kristo zure semea ta gure salbatzaile guziz maitea bere lorian ikhusteko, ta haren aitzinean zurekin batean sekulako bozkarioaz gozatzeko zoriona.

Loria ta laudorio aita Jainkoari; loria ta laudorio Jesu-Kristo gure jaun guzien gainekoari; loria ta laudorio Izpiritu seinduari; Trinitate adoragarriari eman bekio ohore bera ta guzien gainekoa. Biz-hala.

## **Salve Regina eskaraz**

Agur, Erregina, urrikalmenduzko ama, gure bizia, gure gozoa ta gure esparantza, agur. Zure ganat gaude deiez, gu Ebaren ume desterratuak; zure ganat gaude hasgorapenez, guziak auhentan eta nigarretan hondaturik nigarrezko haran huntan. Ea bada, gure abokata, itzulatzu gu ganat zure begi urrikalmendutsu horiek; eta desterru huntarik ilkhitzen garenean, erakhuts diezaguzu Jesus zure sabeleko fruitu benedikatua. O! ama guziz bihotz-samurra! o! ama guziz urrikalmendutsua! o! Birjina Maria guziz ezta ta gozoa!

Bertsua. Othoitz egizu guretzat, o! Jainkoaren ama guziz seindua.

Ihardeskia. Merezi dezaguntzat Jesu-Kristok agindu dauzkigun onthasun handiez gozatzea.

### ***Oremus, egigun othoitz***

O! bethidanik zaren Jainko guziz botheretsua, Izipiritu Seinduaren obraz eta egintzaz aphaindu

zinituen Birjina ama Maria loriosaren gorphutza eta arima, Jesu-Kristo zure semeari zegokon bezalako, egon-lekhu bat izan zedintzat: egizu, arren, haren orhoitzapena errespetu eta bozkario guziarekin ohoratzen dugunak, libratuak izan gaitezen, haren arartekotasunaz, eta oraiko gaitzetarik eta sekulako heriotzetik; galdetzen dautzugu Jesu-Kristo hartaz beraz. Halabiz.

## **Andre dena Mariari othoitzza**

Maria seindua, Jainkoaren ama benedikatua ta bethi Birjina, nik egun hartzen zaitut bihotz guziaz eta nere bizi guzikotzat nere patrointzat, nere abokatzat, zere Jainkoaren aldeko ararteko berezitzat, eta nere Jainkoaren ondoko jabetzat: hartzen dut xede ta gogo zinena, sekulan ez urruntzeko zure ganik, sekulan deusik ez errateko, deusik ez egiteko, zuri damu ditekezunik, ta bertzeak ere nere ahalaz urruntzeko zure ohorearen eta nahiaren kontra dohazken guzietarik. Har nazazu beraz, o! ama maite-maitea ta guziz ona! Har nazazu, othoi, ta bethiere iduk nazazu

zure umetzat eta zerbitzaritzat; hel zakizkit eta lagun nazazu nere urhats guzietan, ta gerthatuko zaizkidan parada, hirrisku, tentamendu ta behar-ordu guzietan; eta beregainki eznazazula utz nere heriotzeko orenean. Halabiz.

## **Andre dena Mariari bertze othoitzza**

Orhoit zaite, o! Birjina Maria, guziz ona ta urrikalmendutsua eztela egundaino aditu, zure geriza seindurat laster egin duenik, zure lagun-tza galdetu duenik, eta harentzat ararteko balia zinitezen eta othoitz egin zenezan bihotz onez ta behar bezala errekeritu zaituenik nihor izan dela arbujatua, ta bere esperantzan ta galdetan enganatua. Ni ere, o! Birjina guziz seindua, Birjina guzien ama loriosa, fidantzia hortaz betherik, barren ta gogo guzia ondurik, zure ganat nathor, zure ganat egiten dut laster, zure oinetarat ahuspez erortzen naiz, nere bekhatuen karga phisuaren azpian marraskaz nagoela. Ea bada, o! Berbo adoragarriaren ama loriosa, eztezazula,



arren, nere othoitzza arbuja ta mespreza: aitzitik urrikal bekiz zure bihotz samurra ta garbia; adizatu ta entzun nere deiak eta errekerimenduak; erakheitsuazu egiazki gure ama zarela, eta Jesu-Kristo, gure jaun, gu salbatzea gatik zure ganik sorthu nahi izan denak, zure bidez ongi har eta entzun betza gure othoitzak. Den-hala.

## **Andre dena Mariaren bihotz sakratuari othoitzza**

O! Maria, bethi Birjinaren, eta bere amaren sabelean ere bekhatuaren notha guzietarik beiratua izan denaren bihotz sakratua! zu zare, Jesu-Kristorenaz landan, Jainkoaren esku guziz botheretsuak egundaino egin duen egin izan duen bihotzik seinduena, garbiena, osoena, handiena, alde guziz ohoragarriena: zu zare graziazko, ontasunezko, eztitasunezko, garbitasunezko, urrikalmenduzko ta maithagunezko ithurri ezin agortuzko bat: zu zare prestugune guzien modela eskasik gabea, eta Jesusen bihotz adoragarriaren iduririk ederrena ta osoena: zu bethi erre-

tzen egon zare maithagunerik khartsuenaz ta garbienaz, eta zuk bakharrik maithatu duzu Jainkoa, serafin, aingeru ta seindu guziek elkharrekin emanik ere baino gehiago: zuk loria gehiago eman diozu Trinitate adoragarriari zure itzuli xemenaz, diren bertze guziek bere eginkunde handienez eman dioten edo eman ahal diozoketen baino.

Zure aitzinean ahuspez jarririk beraz, o! urrikalmenduzko amaren bihotz sakratua, bihurtzen daukitzut ahal dagizkidan errespeturik handienak; eskerrik hedatuenak ematen daukitzut, nere beharren gainean ukhan ditutzun eta oraino ere daukatzun urrikalmenduzko ta maithagunezko sentimenduez, eta zure amazko ontasunetik errezebitu ditudan ongi guziez.

Zu izanen zare geroroz, oi! bihotz guziz maitagarria, zu izanen zare geroroz, zure seme maitaren bihotz adoragarriaren ondoan, ni gehienik behaturen natzajona; zuretzat izanen dire nere errespeturik handienak, nere maithagune suharrena, nere debozione samurrena; zure ganat ethorriko naiz, zure bidez nere salbatzaile adoragarria ganat heltzeko; zure bidez jautsiko

dire ni ganat haren graziak eta urrikalmenduak; zu izanen zare nere ihes-lekhua, nere atsekabetan, nere gozoa nere nahigabetan, ta nere laguntza nere behar guzietan.

## **Induljentzia batzu, nor-nahik, noiz-nahi ta nahi bezenbat aldiz irabaz detzakenak**

### **Abisua**

Eztugu zeren dudatu, Jainkoaren zuzentasunaren alderat zor handiz kargatuak garela. Irragan denboran egin ditugun bekhatuak gatik; eta nola egun oroz ere zenbait hutsetan erortzen baikare, egun oroz zor berriak egiten ditugu, zeren ezpaita bekhaturik batere, zeinarentzat ezpaitiogu Jainkoaren zuzentasunari satisfakzio-ne egin behar. Zor batzu dire horiek, mundu huntan edo bertzean baitezpada pagatu behar ditugunak. Bada zor horietarik atheratzeko baliatzen zaiku induljentziak. Ontsa ez-axolatuak genetazke beraz gure arimen alderat, ezpagine arthoski baliatzen, Elizako tresoretan kausitzen

dugun, hanbat zor phisutarik atheratzeko bide erretx huntaz. Bainan orhoit gaiten, induljentziak irabazteko seinalatuak diren othoitzak eta bertze eginkunde onak, giristinozko sentimenduekin egin behar direla, ta bereziki bekhatuezko urriki egiazko ta bizi batekin. Ezen induljenzia, bekhatu jadan barkhatuei zor zajen denborako penaren barkhamendua da; eta ezta bekhatu bate-re barkhatzen egiazko urriki gabe. Batez ere induljenzia irabazteko egiten den azken othoitz, edo bertze eginkunde ona, baitezpada egin behar da Jainkoaren grazien delarik.

Aita seindu batzuk eta bertzek eman dute asko induljenzia. Bainan gehienak, edo zenbait konfardiei, edo zenbait besta-buruei iratxikiak dire, eta hetaz kanpoan ezin irabaz ditezke. Bainan hemen ezarriak direnak nor-nahik ta noiz-nahi irabaz detzake. Horren gatik ere hemen ezarri ditut.

1. Induljenzia plenaria edo osoa irabazten dute. Fedezko, esperantzazko ta maithagunezko aktak, hilabethe batez egun oroz egiten dituztenek, hilabethe haren akhabantzian ongi kofesaturik komuniatzen dutelarik, eta othoitz egiten

dutelarik denbora berean Eliza seindua ren gora-  
menduarentzat, heresien eta xismen ezeztan-  
menduarentzat, eta errege giristinoen bakearen-  
tzat. Bizpahirur gure aita eta agur Maria erran  
ditezke xede hortarat. Induljentzia hau irabaz  
diteke arima joanentzat ere, eta erreberri diteke  
hilabete guziez, batean defuntu batentzat, ber-  
tzean bertze batentzat, eta arima joana ezpada  
beharretan, nork beretzat.

2. Bada zazpi urthe ta zazpi berrogoi egunen  
induljentzia, fedezko, esperantzazko ta maitha-  
gunezko aktak egiten diren aldi bakhotzeko.  
Induljentzia hau ere irabaz diteke arima joanen-  
tzat.

3. Ehun egunen induljentzia irabazten dute,  
angelus belhauniko, ezkilak jotzean, erraten  
dutenek, eta hori aldi bakhotxean: eta hala, goi-  
zean, eguerdian, eta arratsean erraten duenak,  
irabazten du hirur ehunena. Angelus xutik erra-  
ten da larunbat arratsetik igande arratseraino,  
baieta bazko-denborako egun guzietan ere, eta  
bazko-denbora doha bazko-larunbatetik Trinita-  
teko iganderaino.

*Regina coeli* dakitenek, hura erran behar dute bazko-denboran, bere bertsuarekin eta othoitzarekin, angelusen orde ta lekhuari. Baina *Regina coeli* eztakienak, orobat erran deza-ke angelus.

4. Bada hirur ehun egunen induljentzia, Jesu-sen izen seinduaren Letaniak erraten diren aldi bakhotzeko, eta berrehun egunena Andre dena Mariarenak erraten diren aldi bakhotzeko. Jesu-sen izen seinduarenak Espainian erraten badire, begiratu beharko da hekien aitzinean iskribu huntan ezarria den abisua.

5. Bada ehun egunen induljentzia, oren laur-den bat bederen meditazioe egiten den aldi bakhotzeko, edo bertzei meditazioea nola egin irakhasen diotenentzat.

# ABISUA MEDITAZIONEAREN GAINEAN

1. Meditazionearen izen xoilak eta aiphame-nak asko jende xingle harritzen eta izitzen ditu: baderitzate meditazionea gauza bat dela, hainitz jakitate eta Izpirituko zorroztasun galdetzen duena, eta prestutasunean aitzinatuei baizen eman etzajena. Askok bertze, meditazione egite-tik, desenkusutzen dire bere lanean hari-beharraren gainean, eta diote, ez tutela astirik meditazionean egoteko, doi-doia hartzen dutela bere obligazionezko othoitzen egiteko artea ere. Gisa hortan, batzuk aitzaki batez, bertzek bertze batez, oraino giristino gehienek alde bat uzten dute meditazioneko exerzizioa, zeinari bizkitartean seindu guziak hain arthoski ta hanbat gosturekin yarraiki izan baitzakko, zeinari ere gehienik zor baitziotzaten seindutasunean egin dituzten aitzinamendu handiak.

2. Bada aitzaki, hanbat arima, bere bidegabe handitan, meditazioneko pratika salbagarritik urruntzen dituzten horien sunsitzeko, aski da

ongi ezagutzea zer den meditazioea ta zertan datzan ezta bada bertzerik , baizitare errelijione-ko zenbait egia, ebanyelioko zenbait maxima eta irakhasmendu: edo zenbait prestugune aphur bat gogoan erabiltzea, hekien araberako sentimenduz bihotza bethetzeko, eta hekiei dagozkoten bezalako gogokundeak edo erresoluzioeak hartzeko bere konduitakotzat edo egiteko moldekotzat. Hala, Jainkoaren osoginen edo perfekzionen gaineko meditazioea datza, Jainkoaren bothere zuhurtzia, ontasun, urrikalmendu, zuzentasun mugarririk gabeak gogoan erabiltzean, haren bekdurrez, ta harendako errezpetuz ta maithagunez bihotza bethetzeko, hartzen delarik gogokunde zin bat, hain maithagarri dela ezagutzan den Jainko hari damu dakiosken guzietarik urrun ibiltzeko, eta bizi guzian ahalik eta lejalkienik haren zerbitzatzeko.

3. Bertzerik zer behar da, meditazioea zein gauza erretxa den sentitzeko? Nor da, nahi bezain jakitategabea ta izpiritu laburra izanen bada ere, bainan xede ona ta bihotz zuzena balin badu, nor da Jainkoaren osogune miragarriak, egin deraikun ongi ezin kontatuzkoak, gure sal-



batzaile maiteak bere pairamen edo pasione seinduen Jasan zituen thormenta dorpheak eta erakhutsi zaukun maithagune bazterrik gabea, Jainkoaren jujamenduaren zorroztasun, ifernuko izigarrikeriak, Zeruko loria eta gozo ezin erran bezalakoak, aphur bat gogoan ezin erabil detzakena, horiei dagozkoten bezalako sentimendutan ezin sar ditekena, eta horien arabera bizitzeko xedeak ezin har detzakena? ez, ezta hortokotzat eskola handirik behar; bihotz zuzena, nahi ta xede ona dire hemen premiazkoenak; eta askotan ikhusten dena da, jende eskolarik ezutenak, bainan bihotz zuzen batekin Jainkoa bilhartzten dutenak, gizon argituek baino hobeki egiten meditazionea.

4. Eztiteke gehiago balia, meditazione egiteko astirik eztutela diotenen aitzakia. Meditazionea egin diteke noiz-nahi ta non-nahi, bidean, lanean, jende-artean, Elizan, etxean, baieta ohean ere. Horietan guzietan asko gauza erabilitzen ohi dire gogoan: zertako eztire erabiliko errelijioneko egia handiak hanbat gogoeta gaxtoen edo funts-gaben lekuan? Zertako ez enseja egia ta misterio handi hekien araberako senti-

menduak bere bihotzean erreberitzerat, eta finkatzerat, eta prestuki bizitzeko xedetan geroago hobeki gogortzerat? Berdin izpiritua ta bihotza Jainkoarekin ta Jainkozko gauzetan daudelarik ere, orobat aitzina joanen dire kontu eman behar zajen bertze gauzak eta egitekoak. Hargatik ongi lanez gaindi ta egitekoz lehertua izan behar liteke, egun oroz orenlaurden bat bederen meditazionean egoteko ezin berex lezakena. Helas! gehienek, eta astirik ezin har dezaketela diotenek bertze nor-nahik baino gehiago, ez othe dute, egun gehienetan bederen, denbora gehiago ere galtzen elhe-melhetan eta phasajeta alferretan?

5. Meditazionea egitea zein errex den jakiteak behar ditu giristino gogo hurriak alaitu edo animatu. Bada egintza edo pratika salbagarri huntarik atheratzen diren on handiek behar dituzte bertze giristino laxoak bere nagitasunetik sendatu, eta meditazioneari jarraikitzeke arthaz bethe. Ez, ezta deusera meditazionearen usantza baino hoberik, dela bekhatutik beiratzeko, edo hartarat lerratzen bada, hartarik ilkhitzeko, dela prestutasunean finkatzeko, aitzinatzeko eta

irauteko Jainko Jaunak berak Isajas profetaren ahoz bekhatorei ematen derajen abisu handia da, sar ditezela bere bihotzetan barna, eta jar ditezela, bekhatutik urrun-arazteko gehienik gai diren errelijioneko egia handiak gogoan erabiltzen, eta bere ahalez phisatzen. Eta egiazki, zein othe da bekhatorea, bere bizitze gaxtoan iraun lezakena, maiz eta zinez gogoan erabiltzen badu, bekhatu eginez erakhusten duela Jainkoaren alderat esker-gabetasun bat, eta Jesu-Kristoren alderat krueltasun bat, basa jende barbaroen artean ere halakorik kausitzen ezten bezalako; mement guziez, orobat arimako laguntzarik batere ukhan gabe, herioak hatzeman dezakela, eta zorigaitz hori gerthatzen bazajo, bertze hanbati gerthatu zajen bezala, eztagola bertzerik harentzat, baizitare jujamendu bat osoki lazgarria ta etsimenduz bethea, eta hartarik lekhora thormenta batzu, nihork ezin erran, ezin gogoan har dezaken bezain gogorrak, eta bethi eta bethi iraunen dutenak? Nor da bekhatu egiterat atrebi litekenik, egia handi horiek maiz eta zinez gogoan erabiltzen balitu? eta nolazpait, etsajak, esku harturik eta jaidura gaxtoak nausiturik, bekhatu-

rat lerratzen bada ere, nola ezta lehiaturen be-  
hatutik altxatzerat, baldin zinez ematen badio  
gogoari, gutien ustean kausi ditekela sekula  
guzikotzat leze beltzetan ehortzia? Bai lege  
baderrakegu ondikozko denbora hautan ere,  
Jeremias profetak bere denboran erraten zuena,  
bekhatu lotsagarrienek, zopherna batek bezala,  
estalia daukatela lur guzia, nihor kasik eztela  
bere bekhatuez behar bezalako penitentzia egi-  
ten duenik, ez Jainkoaren zerbitzuari behar beza-  
la darrajonik, zeren nihork kasik ezpaitu artharik  
errelijioneko egia handi horiez premia liteken  
bezain ardura ta zinez orhoitzeko. Eta Dabit erre-  
ge seinduak, zenbat ere baitzen ongian finkatua,  
bere burua galdua zaukan, baldin laxatzen  
bazen Jaunaren lege seindu gau eta egun medi-  
tatzeko zuen jarraitasunetik.

6. Meditazionea, bekhatutik beiratzeko ta ilk-  
hitzeko bezala, handizki baliatzen da ongian fin-  
katzeko eta aitzinatzeko ere. Egintza seindu huni  
arthoski darraizkon jende prestuek sentitzen  
dute, errege profetak bezala, Jainkoaren maitha-  
gunearen su sakratua bere bihotzetan geroago  
gehiagophizten eta emendatzen meditacionea-

ren bidez. Jainkoaren osogune adoragarriak, egin deraizten eta egun oroz egiten deraizten ongi handiak, agintzen derajen golardo edo sari ezin erran bezain handia ta gozoa, maiz eta zinez gogoan erabiliz, sustatzen eta finkatzen dire Jainkoaren alderako maithagune sakratuan, bere izate guziaz egin dioten eta maiz erreberritzen dioten emaitz osoan, eta edozein hersturetan izanen badire ere, ez sekulan, ez deusen gatik ere, haren zerbitzu seindutik ez aldaratze-ko xede zinean. Errelijioneko egiak eta misterioak, maiz eta zinez gogoan erabiliz; hobeki aditzen dire, maithatzen dire, hetan gustu hartzen da, bihotzean barna sartzen dire, arima guzia hekien araberako sentimenduz bethetzen da; sentimendu hek bethi finkatuz doazi, eta azke-nean natural bezala egiten dire: bada hartarazkero, bekhatuari ihes egiten zajo, naturalki higuin diren gauzei bezala, eta prestugune guziei jarraikitzen zaje gerthatzen diren parada guzietan, jaidura naturalez maithatzen eta bilhatzen diren gauzei bezala. Ezin gertha ditekena bezala da beraz, jende prestu bat bekhaturat lerra dadin, meditazionea egiteko usantza atxiki-

tzen dueno; edo funtsean, nola ondikoizko bizitze huntan gareno, etsajez inguratuak, eta gaizkirkoko pendura muthiriz betheak baikare garen guziak, gerthatzen bazajo ere jende prestu bati bere eginbidetik nolazpait aldaratzea, segur bezala laster ere bihurtuko dela bide xuxenerat, meditazionea egiteko usantza lejalki atxikitzen badu.

7. Ezta gehiago behar, edo zeini ere sentiarazteko, bere salbamenduko egitekoan ongi bururat heldu nahi den Kristau bat, baitezpada bere ahalaz jarri behar dela egun oroz bere meditazionea egiteko usantzan, eta hura lejalki atxiki behar duela bizi deno. Hori ere premia-tsuago da, barnetik edo kanpotik bekhaturat biziki hertxatuak direnentzat; ez, halakoek ezute zeren higuriki galtzetik beiratuko direla, meditazione usuak eta zinak eginez baizen. Gauza bera diot, Jainkoak grazia berezi batez hartarat deithurik, prestutasunean aitzinatu ta egiazko seindutasunerat heldu nahi direnez. Guziz arthatsu ta jarraikiak izan behar dire meditazionea egiteko phonduaren gainean.

8. Asko jende, bereziki Jaunaren zerbitzuan berri direnetarik, lotsatzen eta gogo-hurritzen dire meditazio egitearen ganean, zeren ezin iduk dezaketen bere Izpiritua bildurik; zeren ez tuten sentitzen bihotzeko agortasunik baizen. Horrek asko erakhartzen ditu meditazioneko egintza guziz salbagarria arras aldebat uzterat. Oi! arren, beira bitez hortarik. Jakin bezate barrajadura ta agortasun hek ez tirela huts batzu, ez tiotela bere meditazionen merezimendua batere gutitzen, baldin hekien beren aldetik eskasik ezpada, ta bere meditazionek ongi egi terat entsejatzen badire duda entsejatu behar gare, Izpiritua bildua, ta hartu dugun meditazioneko geian edo sujetean baratua atxikitzerat, eta bihotza hari dagozkon bezalako sentimenduetan sar-erazterat. Bainan hortarat entsejatu gatik ere Izpirituak harat-hunat barrajatzen bazaiku, ezkare hortaz batere ez espantitu, ez khexatu behar; gizonaren herbaltasuna da hori lurraren ganean. Beraz barrajatuak kausitzen ditugunean gure buruak, emeki ta deskantsaz itzuli behar gare Jainkoa ganat eta gure meditazioneko geirat. Bertzerik ezpalitz ere, bethi

ukhanen dugu Jaunaren aitzinean barrajadura hekien gudukatzearen merezimendua, eta Jainkoak gure on handitan kontu idukiko dauku gure xede ta nahi onaz. Jakin behar dugu bertzalde eztela gauza guti bat, meditazionean sentitzen diren idortasunak penitentziazko Izpirituz hartzea ta jasatea, ezagutzen dugula eztugula merezi Jainkoak bertze gisaz trata gaitzan; eta baldin agortasun hekien bortxa arthoski atxikitzen badugu meditazionea egiteko usantza, Jainkoak benedikatuko gaitu, eta idortasun hekien orde emanen deraiku barneko hezadura ta gozo atsegingarriak, berak hortarakotzat seinalatu duen denboran. Hala gerthatu izan zaje gehienean seindu handienei, ezen eztugu zeren uste izan hek ere bere othoitzetan eta meditazionetan atseginez eta gozoz gaindi zaudela; etzuten askotan sentitzen idortasunik eta unhadurarik baizen: bainan horiek guziak gogo onez jasaten zituzten; bere sentimendu eskasaz Jaunaren aitzinean ahalgetzen ta beheratzen zirelarik: bainan horien guzien bortxa arthoski irauten zuten bere othoitzetan eta meditazionetan, hetan ematen ohi zuten denbora batere laburtu gabe.



Bada jarraitasun eta lejaltasun horren sariak izan dire, Jainkoak ondoan eman deraizten gozo handiak ta grazia seinalatuak.

9. Meditazioneko geitzat edo sujetzat hartu behar du bat bederak bere beharrei dagokoten egia, irakhasmendua edo misterioa. Bizitze presuari berriki emanak zaizkonek, eta bekhaturako pendurak oraino bizisko dituztenek, bereziki egin behar dute gizonaren laur azken finen gainean, eta bekhatutik hobekienik urrun-araz gaitzaketen bertze egien gainean: baieta jende prestue- nek ere, noizean behin bederen, horien gainean meditazionea egin behar dute, beldurkhunde eta atzartasun seindu batean irauteko. Gainerakoan ongian aphur bat aitzinatuak direnek maizago eginen dute, Jainkoa osoki maithatzerat, eta nor den guzia harenak izaterat erakhar gaitzaketen egien eta arrazoinen gainean, Jainkoaren osogune adoragarrien gainean, egin deraikun eta egun oroz egiten hari zaikun ongi handien gainean, Jainko-salbatzaileak guretzat bethe dituen misterioetan erakhutsi daukun maithagune neurri-gabearen gainean. Kofesatzeko egunean guziek eginen dute meditazionea, bekhatuez urrikitan

sarzeko arrazoinen ganean, eta kofesatu gabe komuniatu behar den goizean, komunione seinduaren ganean, sakramendu horien errezebitzerat ongi aphaintzeko edo preparatzeko. Gainerakoan meditazioea ongi doha, igandetan, Jainkoa zerbitzatzeko ditugun arrazoinen ganean; bertze bestetan, hetan ohoratzen diren misterio berezien ganean; ortzegunean, aldareko sakramendu adoragarriaren ganean; eta ortzilarean, Jesu-Kristoren pairamen guziz ukigarriaren ganean. Horren ganean bat bederak hauta dezake, bere gostuak eta Jaunaren graziak seinalaturen dioen geia. Jaunaren zerbitzuan berri direnek ere ezpezate huts egin, zenbait aldiz bederen, meditazio egitea, Jainkoak erakhutsi derajen urrikalmendu miragarriaren ganean, ta haren maitatzeko bertze arrazoinen ganean, zeren maitahagune sakratu hark behar baiteraizte arindu ta gozatu gehienek berri hartan egiteko premia duten penitentzia garratzak, eta bere ohitura gaxtoen ta jaidura muthirien kontra jasateko dituzten gudu nekhagarriak.

10. Jadanik erran dugu, ta egia da, meditazioea egin ditekela non-nahi ta noiz-nahi, bai eta

edozein lanetan hari delarik ere; horrek behar ditu alaitu ta animatu jende beharrak, biziko badire, bethi ta bethi lanean hari behar direnak, eta sehiak, etxeko umeak ta bertze jende bertze-ren manupean bizi direnak, eta bere aitzinekoek bertzela astirik uzten eztiotenak: hortan behar dire ere hainak gehienez baratu; ezen gaizki liteke, meditazionean egotea gatik, bere eginbidari huts-egitea, edo bere aitzinekoak haserre-araztea. Bainan nola bertze asko jendek asti gehiago har baitezakete, on da hainek jakin dezaten meditazionea egiteko molde arrimatuak; hekientzat bereziki ezartzen dut hemen.

11. Meditazionean seinalatzen ohi dire bereziki hirur pharte; preparazionea, bertzela aphaintza deith dezakeguna, gorphutza, ta bukania edo akhabantza.

12. Aphaintza bereziki hirur gauzetan datza. Lehenbizikorik eman behar da Jainkoaren aitzinean. Orhoitu behar da, eta zinez eman gogoari, Jainkoa leku guzietan dela, eta bereziki othoitzean jartzen garen lekhan dela eta ohartasun berezi batekin behar dagokula. Hori zinez gogotan harturik, adoratu behar da Jainko handi hura,

majestate neurri gabe haren aitzinean gure ahalaz beheratzen eta urmariatzen garelarik. Bigarrenekorik, ezagutu behar dugu, dela gure ezdeustasuna gatik, dela bereziki gure bekhatuak gatik eztugula merezi, zeru-lurren jabe guziz seindu haren aitzinean agertzea. Entsejatu behar gare beraz, arima bekhatuaren notha guzietarik garbitzerat, urrikizko sentimendurik bizienak erreberrituz, eta Jainkoari umilki barkhamendu eskatuz. Hirugarrenekorik, nola ezpalkare gai, zerukotzat balia ditekegun gogoeta bakhar bat gure baitharik ukhateko, Jainkoari galdetu behar diotzogu, meditazionea ongi egiteko behar ditugun graziak eta laguntzak; othoizten dugularik, argi dezan gure Izpiritua meditatzerat goazin geiaren gainean, bero dezan gure bihotza, bethe dezan gure arima berak hartan ikhusi nahi dituen sentimenduez, eta har-araz dietzagun gure bizi-moldekotzat behar diren bezalako gogokundeak. Horietan datza meditazioneko aphaintza, zeinak ezpaitu iraun behar oren-laurden-erdi baten ingurua baino gehiago.

13. Hortarik lekhora sartzen da meditazio-eko bigarren phartean, zeina deitzen baita gorphutza: ta hau ere hirur gauzetan datza. Lehenbizikorik egin behar dire gogoetadura edo konsiderazione ahalik eta zinenak hartu den meditazio-eko geiaren gainean; entsejatu behar da ahalik hobekiena haren aditzerat. Gogoan hartu behar dire hura hobekienik senti-araz dezaketen arrazoinak; zer irakhatsi daukun Jesu-Kristok haren gainean, zer exenplu eman daukun bai hark, berak, bai bertze seinduek. Behatu behar zaje meditazio-eko gei hari datxeizkon bertze gauzei, eta darraizkon onei edo bidegabei. Gogoetadura horietan egoten da aphur bat, erran nahi da, meditatzen den geia gogoan ongi hartu ta, bihotza haren araberako sentimendutan sartzen hasi diteken artean. Bihotzeko sentimendu eta afekzione hautan datza meditazio-eko gorphutzaren bigarren phartea: hauk dire meditazio-nearen funtsa, arima ta muina bezala. Hauzi behar zaje beraz kontu eman guzien ganetik, ta hautan behar da gehienik baratu. Gogoetadurak berak eztire enplegatzen, sentimendu hek bihotzean sor-arazteko baizen; eta hala gogoetadu-

rak utz ditezke, bihotza sentimendu on hetan sartzen denean. Nor nahik ere ikhusten duke sentimendu hek, batean batzu, bertzean bertze batzu izan behar direla, meditazioneko geiak dakharkenaren arabera. Batean egoten da majestate guzietako Jainko haren aitzinean guzia beheratua, hari errespetu ta adorazione guziak bihurtzen bertzean Jainko mugarririk gabe mait-hagarri haren bihotz guziaz maithatzen, bertzean guzien gaineko nausi hari bere izate guzia osoki ta bethikotzat ematen, bertzean urrikirik minenarekin bere bekhatuez hari barkhamendu eskatzen, ta bere bizi guzikotzat gertha dakioz-ken gaitz eta nahigabe guziekin haren zuzenta-sunari satisfakzionetan eskeintzen. Bertze batzutan egoten da, prestugune baten preza-tzen, maithatzen, gutiziatzen, ta hari jarraitze-ko xedetan finkatzen, edo bekhaturantza baten bihotz guziaz aborritzen, hartarik beiratzeko gogo zin bat hartzen, prestugune edo bekhatu-rantza hekien gainean egin ahal izan ditezken hutsez Jainkoaren aitzinean ahalgetzen eta hari barkhamendu eskatzen, ikhusten ongi zer bide behar den hartu ta zer den egiteko, bekhatu har-

tarik beiratzeko ta prestugune haren arabera bethiere gobernatzeko, eta ongi finkatzea bide hetaz baliatzeko gogokundean. Hemendik ere ageri da, gorago erran dugun bezala, bat bederak hauta dezan, hobekienik dagokon eta beharrena duen meditazioneko geia. Sentimendu horiek bihotzean aphur bat gutitzen edo iraungitzen badire, berriz gogorat erakhartzen da hek sor-arazi zituen zenbait arrazoin eta phondu; hala entsejatzen da sentimendu hek erreberritzerat, eta hetan egoten da, erran den gisan. Sentimendu horiek atxikitzen dire meditazio-neak iraun behar duen denboraren akhabantzaturaino; eta horrek iraun behar da, ahal baditeke, bihotza bekhaturako ta lurreko gauzetarako jaidurez arras arnegaturik, Jainkoaren maithagunean, ta bere bizi guzian hari lothua egoteko xede zinetan finka dadin artean. Ondoan hartzen dire gogokundeak edo erresoluzio-neak; eta hautan datza meditazioneko gorphutzaren hirurgarren phartea. Gogokunde hek izan behar dire, sentimenduez erran den gisan, meditatzen den geiaren eta bat bederaren beharren araberrak. Ezen guti balia liteke oro-oroazki edo jenera-

lean beihatutik beiratzeko ta prestuki bizitzeko xedea hartzea: jautsi behar da xehetasunerat edo detaillerat; ikhusi behar dugu zertan huts egiten dukegun, edo zer ongi uzten dukegun egin gabe, meditatzen den geiaren gainean, eta huts hetarik bereziki beiratzeko, eta ongi hura bereziki egiteko gogokunde zina hartu behar da.

14. Azkenean meditazionearen bukania edo akhabantza gisa berean hirur phondutan datza. Lehenbizikorik Jainkoari eskerrak eman behar zaizko meditazione hartan eman dauzkigun argiez eta sentimendu onez eta egin dauzkigun bertze graziez. Bigarrenekorik, barkhamendu eskatu behar zajo meditazione hartan izan dituzkegun barrajadurez eta hoztasunez eta egin dituzkegun bertze hutsez. Hirugarrenekorik, egiten da floka Izpirituala: huna zer den hau. Jende guriek ta bere sentsuen esklabo direnek lakhet ohi dute floka bat aitzinean erabiltzea, haren urrin onaren atsegina maiz hartzeko: orobat baieta miletan hobeki jende prestuek hartzen dute bere meditazionean gehienik ukitu dituzken sentimenduetarik bat edo bertze, hartaz maiz orhoitzeko egun-aralde hartan, ta haren



bidez bere sentimendu onak bethi freskorik ta bizizrik idukitzeko; eta bereziki gogoan hartzen den phondu edo sentimendu hura deitzen da hemen floka izpirituala. Hala, aphalesguneaz edo umiltasunaz egin bada meditazionea, hauxe har diteke flokatzat: Jesus bihotz-ezti ta aphaigura, egizu nerea zurearen iduriko: heriotzeaz egin bada, hagonian direnen letanietako bertsu hau: heriotze gaxtotik beiragaitzatu, Jauna: jujamenduaz egin bada, errege profetaren othoitz hau: ez, arren, Jauna, etzaitezela sar hain jujamendu zorrotzetan zure zerbitzariarekin: parabisuaz egin bada, san Ignazioren erran eder hau: oi! ala lurra, dituzken edertasun ta aberastasun guziekin ere, deus guti ta arbujagarri baitzait, zeruari behatzen diodanean! Ifernuaz egin bada, san Agustinen hitz hauk: hemen, arren Jauna, bai hemen erre nazazu, hemen phorroska nazazu, hil ondoan sekulako sutik beira nazazuntzat: Jainkoarendako maithaguneaz egin bada, san Thomasen hitz hauk: maite zaitut, o! Jainko guziz maithagarria; bainan egizu, othoi, khartsukiago maitha zaitzadan: Jesu-Kristoren pairamenaz egin bada, san Bernaten hitz hauk: gorde naza-

zu, o! nere Jesus maitea, ta bethi ere gorderik iduk nazazu zure zauri sakratuetan: eta horrela bertze meditazioneko geien gainean. Borondate onez egiten bada, bat bederari bere prestutasunak, eta are hobeki Jaunaren graziak kausi-araziko dio asko floka urrin onetako. Akhabantzan, meditazionean ukhan dituzkegun sentimendu onak, ta hartu ditugun gogokunde onak eman behar dire, eta gerorri hekiekin batean eman behar gare Andre den Mariaren laguntza seinduaren azpian, erraten dela elizaren othoitz hau: zure geriza seindurat ihes egiten dut, o! gure Jainkoaren ama guziz seindua. Arren bada ezteztatzula arbuja nere othoitzak; hel zakizkit nere behar-ordu guzietan; beira gaitzatu ta athera hirrisku gaxto guzietarik, o! Birjina guziz loriosa ta benedikatua. Hortan akhabatzen da meditazionea, hargatik artha hartzen delarik, hartan izan diren sentimendu onak egunaz maiz erreberritzeko, ta beregainki hekien arabera gobernatzeko.

15. Hemen ezartzen dut orai exenplu bat, guziek hobeki adi dezatentzat meditazione egiteko molde hori. Hor-hemenka ezarriak diren

gurutzek seinalatzen dute, lekhu hetan aphurto bat trikatu bejar dela, han errana dena ongi gogoan hartzen eta goxatzen. Nere meditazio-nea egin nahi dut beraz aphalesguneaz. Aphaintza, erran den gisan egin ondoan, sartzen naiz meditazionearen gorphutzean; eta lehenbizikorik entsejatzen naiz umil eta aphaltura izateko ditudan arrazoinak ongi gogoan hartzerat gisatsu huntan. Zer naiz nere baitharik? Ezjeus hutsa. Badut gorphutz bat, badut arima bat, eta gorphutz huntan eta arima huntan nahi dudan bezenbat Izpiritu, jakitate, osasun, indar, edertasun, jujustasun, asko bertze gisagune ta kalitate eder, on eta prezagarri. Ordean horietan guzietan deus ezta nerorri baitharik dudanik; bertzek emanak ditut, bertzerenak dire. Zer nintzen, duela berrogoi, hirur hogoi, ehun urthe? Deusik ez; eta orai ere deusik ezninteke, norbaitek ezpanindu egin. Beraz nere baitharik ezjeus huts-hutsa naiz. Baditeke bada deus mesprezagarriagorik, ezjeusa baino? Eta zein gaizki dohakon ezjeusari bere baithan hanpatzea, bere burua prezatzea, ta bertzez prezatua izan nahi izatea!

Naizen eta dituzkedan guzietan deusere ezta, ez eta ile hondo bat ere, nere baitharik dudarik; guzi-guziak Jainkoa ganik dire, Jainkoarenak dire. Hari zor zajo beraz baxharrik guzien ohorea. Eta nolakoa liteke nere atrebentzia, Jainkoari guzia zor zajon loria haren pharte den xumena ere, hari ebatsirik, neretzat iduk baneza, jendez ikhusia ta laudatua izatea bilhatuz, edo hortan atsegín hartuz!

Nere baitharik ezjeusa hutsa naizenaz bertzalde, zenbat bekhatuz ez naiz nere bizian kargatu? Oi! eta menturaz zer bekhatu ahalkagarriz eta lotsagarriz! Zer diteke bada bekhatua baino mesprezagarriagorik, arbuja garriagorik, hastiagarriagorik? Ni, nere jabe guzien gainekoaren alderat atrebentziazko, eskergabekeriazko, krueltasunezko monstro bat izan naizena! Ni, Judas berria, Herodes berria, Pilatus berria, Borredo berria, eta hek guziak baino miliunetan areagoa, nere Jesus maitea hanbat aldiz gurtzefikatu, xehakatu, hil dudana! Ni, nere Jainkoaz arnegaturik, debru madarikatuaren ume eta esklabo egin naizena, eta ifernuko zolan ehortzia izatea merezitu dudana! Oi! eta menturaz orai

ere hori guzia naiz: ezen nor da bere bekhatuak barkhatuak izan zaizkola seguratu izan ditekenik? Oi! zein mesprezagarri egin naizen nere Jainkoaren begietan! Eta baldin ezjeusak bezala ezpadut merezi mespreziorik baizen, zer ez tut merezi bekhatore bezala? Munduan gertha ditezkedan ahalge, desohore, laido guziak; munduak gaizki apha nezan, anbilka erabil nezan, karrikako basa bezala oinen azpian ezar nezaten guziek, horra niri zor zautan guzia gehiagorekin.

Eta zer on ezatxeizko aphalesguneari arimakotzat? Bertzaldetik berriz zein ikharagarriak diren hantustearen edo urguiluaren ondorioak! Jainkoa enferratzen zajo hantustetiari, eta bere graziak nasaiki ematen diotza apha gurari; berak erran dauku hori asko lekhutan. Zer behar dut gehiago hantustearen khutsu guziak ni baithan suntsitzerat, ta egiazko aphalesgunean ongi finkatzerat nere ahal guziez entsejatzeko?

Luzifer, aingeru guzietako ederrena, zertaz egin izan debru guzietako izigarriena? Hantustear, bere buruarentzat hartu zuen prezamenduaz. Zer gerthakari! Eta baldin Jainkoak hanbat gaitzetsi badu hantustea aingeruetan, hain ede-

rrak eta osoak ziren Izpiritu hetan, zer begiz lekusake ni, ezjeusa baithan, ni lurreko herrautsa baithan, ni nere bizian hanbat bekhatuz kargatu naizena baithan!

Eta Andre dena Maria zertaz izan da altxatua, Jainko izateaz landan diteken dignitaterik gorenerat, Jainko-amatasunerat? Bere aphalesgune ezin erran bezain handiaz. Oi! beraz Jainkoak alde batetarik osoki gaitzesten badu hantustea, ala bertze aldetik handizki prezatzen baitu aphalesgunea!

Bertze hanbaten baithan gauza bera ikhusi izan da. Seinduak hein seindutasun osotaratigan dire bere aphalesgune handiaz. Bainan asko bertzek, denbora batez seindu handi gisan bizi izan ondoan, hain eroriko ikharagarriak egin izan dituzte, eta kasik guziak, zeren bere prestugune guzien erdian ere hantuste aphur bat baitzaukaten bere baithan: hala Dabit, hala Salomon, hala Jaundone Petri, hala bertze asko. Bereziki mende guzietan bethe izan da, eta egun oroz ikhusten da bethetzen Jaundone Pauloren errana; bekhatu desonestak, eta hetan ditezken lotsagarrienak direla hantustearen ondoreak.

Zertarat bada nago ni, baldin bekhaturantza galgarri hura ni baithan erreginatzerat uzten badut? Hala-hala zer grazia bereziak eztitut higurikitze-ko, ta hekiekin batean zer seindutasunetarat eznaiz helduren, baldin egiazki ta osoki aphaltura izaten banaiz? Hantustetia ezta zeruan sart-huko; bainan egiazko aphalturak segur bezala du zerua.

Horiek bada, ta holako bertze arrazoinak gogoan erabiliz, sartzen naiz afekzionetan eta sentimenduetan, gisatsu huntan. O! aphalesgu-nea, o! prestugune hain prezagarria, ala gure Jainkoak zutaz kontu handia baitauka, zure ariaz arima aphalturak bere grazia baliosenez bethe-tzen dituenazkero! Eta nola nik zu ez maitha! Oi! prestugune guziz prezagarria, arren finka zaite ni baithan, zutaz eta zure arabera erregela bedi nere izate guzia barnez eta kanpoz, eta ezteza-zula sekulan utz hantustearen khutsurik ni bait-han sartzerat.

Oi! nere Jainkoa! eta nere buruazko preza-mendua, eta ikhusia ta ohoratua izateko hirritsa hain biziak dire ni baithan; hain amarrutsuak dire; hain errexki hatzeman diezakedaket biho-

tza, ta lerra ditezke egiten dudan ongi gutizat ere. O, nere Jainkoa, zerorri hel zakizkit, arren, zure loriaren ta nere salbamenduaren etsai izigarri hau gudukatzen ta ni baitharik arras suntsitzen. Barkhamendu, o! nere Jainkoa, nere lagun ez preztua, maithatua, ohoratua izatea gutiziatuz, egin daukitzudan zuzen kontrakeriez, eta egizu, arren, gaurgero egiazki ta osoki izan nadin aphaltura.

Oi! nere Jesus maitea, eta nola ni agertuko naiz zure aitzinean? Hanbat aldiz ta hain hertsiki gomendatu daukuzu aphaltura izatea; hanbat aphaltura erakutsi duzu zerorrek ere zure sortzean, bizian, pairamenean eta heriotzean; munduko distiaduratik urrun, bizitze beheratua, ilhuna, gordea hautatu izan duzu mundu huntako zure phartajatzat: eta nere buruarentzat hanbat prezamenduz, hanbat ikhustatez bethea: beheramendu phixka bat, desohore guti bat ezin jasan; hanbat atsegin laudatzen nautenean: hain khexu zerbaitetan eskas egiten dautedanean. Oi! nere Jesus maitea, egiazki ikharatzeko dut ikhustez zein egite guti dudan zu, nere modelarekin, zeinaren iduriko izanez baizen ezpaititeke



neretzat salbamendurik. Oi! Jesus amultsua, akhabazazu hasi duzun lana. Arras suntsi zazu ni baitharik hantustearen bekhaturantza itsu, galgarria, eta finka nazazu aphalesgunean, salbamendukotzat hain premiazkoa den prestugune balios hartan. Oi! Jesus bihotzez ezti eta aphalegura, egizu arren, nere bihotza zurearen iduriko.

Aphur bat sentimendu horietan egon ondoan, arthikitzen dut begi-kolpe bat nere egiteko molde guziaren gainerat, ikhusteko ea zertan huts egiten dudan aphalesgunearen kontra; nere burua sobra prezatuz, soineko ederregiak edo airosegiak erabiliz, edo arruntak balin badire ere, artha sobrarekin arrimatuz; munduan ederki agertzea bilhatuz ematen zauzkitan laudorioetan atsegin hartuz. Egiten dauzkitaten mesprezioetan eta nitaz atxikitzen dituzten erasia txarretan damu sobra hartuz, edo bertzela; eta hartzen ditut horien guzien gainean egiazko aphalesguneak galdetzen duen bezala gobernatzeko gogokunde zinenak. Hartzen dut gero nere floka lzipirituala, eta akhabatzen dut nere meditazio-nea, gorago erran dugun gisan.

16. Holatsu egiten da meditazioea aphales-gunearen gainean. Hargatik bakhotxari bere bihotzak eta debozioeak eragin diotzoke, bai horren, bai bertze geien gainean, bertze gogoetadurarik ere, eta bai sor-araz bertze sentimendurik; hekien arabera orobat egin dezake, haukiei sopra lothu gabe.

17. Meditazioea orobat egin diteke, zenbait liburu onetan pixka bat irakurriz, eta irakurri denaren gainean bere gogoetadurak eginez, eta dagozkon bezalako sentimendutan sarthuz. Hala egiten zuen santa Theresa handiak, askotan behintzat; eta hori ontsa kausitzen du san Franses Salesek. Hala kontseila niezeke debozioean berri, ta gauza hautan arrotz direnei; baie-ta jende Jainkotiarrenei ere, bederen bihotza idor sentitzen duten denboretakotzat.

18. Hortarakotzat zerbitza diteke edozein liburu, Jainkozko gauzez mintzo denez. Bainan gutiziatzeko liteke izan ledin zenbait liburu, gauzak meditazioe gisan lekharzkenik. Halako asko badugu Frantsesez, ez ordean eskaraz, lekhat buru edo kapitulu bakhar batzu Filotean. Horren gatik iduritu zait jende prestuei atsegin eginen,

eta zerbitzu bihurturen nerajela, ondoan dathozen meditazioeak hekiei eskaraz eskuetarat emanaz. Lehenbiziko pharte huntan hilabeteko egun guzietakotzat emanak direnak frantsesetik eskararat itzuliak dire, *Journée Chrétienne* deitzen den liburutik. Hargatik han-hemenka zenbait ganbiamendu phixka egin dut. Badire ere zenbait hekien artean nerorrek egin ditudanak; hek dire, gizonaren laur azken finez, Jainkoaren eta debruaren zerbitzuaz, Jesu-Kristorendako maithaguneaz ta haren imitatzeko eginbideaz, eta Andre dena Mariaren alderako debozitioneaz direnak, eta sakramenduez denaren hirugarren phondua, komunione gaxtoaz. Bainan nola baitire gei batzu, hemen aiphatzen eztirenak, eta bertze batzu hemen laburzkiegi direnak, bigarren phartean ezartzen ditut hekien gainean nerorrek egin tudanak.

19. Badakit nerorrek egin ditudanak luzegi direla meditazione batentzat. Ala bainan eskaldunei mintzo natzaje, eta eztut ezagutzen eskarazko libururik, gauza hedadura aphur batekin dakharzkenik. Hautarik phondu bat beraz, edo orobat phondu baten pharte bat ere, zerbitza

diteke meditazionekotzat, eta gainerakoa lekturatzat, edo bertze egunetako meditazionentzat.

20. Nik lehen aldikotzat iskribu hau eginezke-ro agertu da eskarazko meditazionetako liburua. Jende prestuak balia bitez ematen zaizkoten laguntzez, eta guziak gomenda bekitzote Jainko maiteari.

**HILABETEAREN EGUN  
GUZIETAKOTZAT  
MEDITAZIONEAK**

# I. EGUNA

## Fedeaz

**I. PHONDUA.** Fedeak irakhatsen daukun guzia Jainkoaren hitzaren gainean bermatua dago. Ez, gure fede seindua ezta gizonek asmaturia eta moldaturia; Jesu-Kristo, egiazko Jainkoak berak irakhatsi zeraizten bere Apostoluei, hauek gero munduan predikatu zituzten erreligioneko egia guziak. Erran ere bazerajen, bidaliko zerajela Izpiritu Seindua, egia guziak irakhatsiko zeraiztena, eta munduaren akhabantzarraino hekiekin egonen zena, eta seguratu zituen, ifernuko athek edo ahal guziek ezin garaituko zutela haren Eliza. Segur naiz beraz, eta Jesu-Kristo, berenazko egiaren hitza berme dut, eznaizela errebelatuko, Elizari behatzen natzajono, eta hark irakhasten darotana sinhetsiz, irakhasten deraitan zenbait misterio nik ezin endelgatua gatik ere; deusere adimendu zuzenari hobeki dagokonik, adimendua bera Jainko baten hitzari sumetitzea baino. Ordean egiazko fedeak galdeztzen du, zinez sinhets detzadan Ebanjelio Sein-

duko erran guziak, berenaz sinhetsiak izatea bai-  
zen galdetzen ez tuten misterioak bezain ongi,  
nere bizia eta eginkunde edo akzione guziak  
erregelatu behar dituzten egiak ere: Jainkoa  
baithan hirur presuna badirela sinhesten dudan  
bezain sinhetsi behar dut, salbamendua dela  
munduan ditugun egiteko guzietako buruzagia,  
bekhatua dela bizian gertha ditekegun gaitzik  
handiena; bekhatu mortal bakhar bati zor zaiz-  
kola sekulako thormenta guziz izigarriak; thor-  
menta hetarik beiratu ta sekulako loriarat heldu  
nahi bainaiz, gurutzea behar dudala eraman  
bere salbatzaile adoragarriaren ondotik, nere  
buruari bortxa handiak egin behar diotzadala,  
nere jaidurak, sentsuak eta gutziak mortifikatu  
ta gudukatu behar ditudala, bihotzez ezti, apha-  
gura, garbi, pairutzu izan behar naizela. Holako  
egietarik bat bakharra ezpadut sinhesten, ez tute  
egiazko fedea, eta hortaz beraz damnazioneko  
bidean naiz, Jesu-Kristok berak erran duenaren  
arabera. Sinhetsi othe ditut bada zinez egia  
horiek guziak iragan denboran? Sinhetsi banitu  
behar den bezain zinki, biziko othe nintzen, bizi  
izan naizen bezala? Eta orai ere sinhesten othe

ditut? O! nere Jesus maitea, zure ontasun bakharretik daukat fedearen dohain baliosa; arren bada begira nazazu haren galtzetik; phitzazu ta berre ni baithan, nere on guziaren ithurria izan behar den prestugune prezagarri hau.

**II. PHONDUA.** Zer progotxu du giristino batek fedea ukhatea, ezpadu haren gainean moldatzen bere bizitze guzia? Erhokeria handi bat da ez sinhesta errelijione bat, Jainkoak berak irak-hatsi duena, hanbat miliun marthirek bere odolaz zigilatu dutena, hanbat mirakuluz finkatua izan dena, eta debruek berek hanbat aldiz aithortu izan dutena; bainan miletan erhokeria handiago bat da errelijione bat sinhesta, eta sinhesten ezpalitz bezala bizitzea; hori da debruek bezala sinhesta: ezen debruek ere sinhesten dute gure errelijionea egiazkoa ta Jainkozkoa dela, bainan eztire gutiago debru. Sinhesten diren egien arabera ez bizitzea da fedea bera desohoretzea ta laidoztatzea; eta ordutik Jaunaren dohain balios hau bera gure kaltetan liteke; ezen dudarik ezta sinhestun baten bekhatuak hanitzez handiagoak direla, legez kanpoko batenak baino, eta haren damnazionea miletan dorp-



heagoa izanen dela. Zer damu khiretsetan eznaiz sarthu behar orai artean fede seinduari egin diotzodan laidoen gainean? O! Jesus maittea, zerorrek lagun nazazu hemendik aitzina, alde guziz eta phondu guzietan irakhatsi dauzki-gutzun egien eta maximen arabera bizitzen.

**III. PHONDUA.** Fedea izanen da beraz geroroz nere eginkunde guzien ithurburua, ta nere bizitze guziaren erregela. Hark kondenatzen duena oraidanik eta bethikotz kondenatzen dut nere bihotz guziaz, naturaleza gaxtoak zer nahi erranen badu ere. Parada guzietan munduko maxima galgarriei kontra pharatuko deraiztet Jesu-Kristoren maxima salbagarriak. Zer dio munduak? Nork bere atseginak hartu behar dituela lurraren gainean, bere jaiduren arabera bizi behar dela, bere sentsuen gutziak bethe behar dituela, dohakabe direla gurutzea kharrajatzen dutenak, erromestasuna, mesprezioak, ahalgea jasateko dituztenak, eta dohatsu pairamenik gabe, alde guziz bere gogara bizi direnak. Zer dio Jesu-Kristok? Horien guzien kontrarioa. Zeinek othe du arrazoin? Munduak ala Jesu-Kristok othe?

Jainkoari emotzu eskerrak, zeren eman dau-tzun fedearen dohain baliosa, eta zeren sar-arazi zaituen eta zaduzkan egiazko Elizan, heresian eta xisman erori gabe. Iragan biziaz guzia ahal-geturik, finka zaite hemendik aizina fedearen arabera bizitzeko xede zinetan.

O, Jauna, emenda diezaguzu fedea. San luk.

Zer progotxu da, norbaitek katoliko gisan sinhets dezan, baldin pagano gisan bizi bada? S. Agust.

## II. EGUNA

### Gizonaren xedeaz, edo zertako den munduan

**I. PHONDUA.** Hunenbertze urthe badu ez nintzela munduan; orai bizi naiz; nork eginik othe? Ez bertzek, Jainkoak berak baizen; haren ganik daduzkat bizia, hatsa, arima bere ahal guziekin, eta gorputza bere sentsu guziekin. Eta zertako, eta norentzat egin othe nau Jainkoak? Ez bertzerentzat, beretzat baizen, ez bertzetako, baizitara haren ezagutzeko, maithatzeko ta zerbitzatzeko. Gure bihotzak berak erraten dauku Jainkoarentzat eginak garela, eta eztezake kausi phausu osorik, ez egiazko bakerik, Jainkoa baithan baizen, dio San Agustinek, mundu huntan naturalezak gutizia detzaken guziak frogatu zituenak.

**II. PHONDUA.** Bakhotxari berea eman behar zajo. Jainkoak eginak bagare, ta beretzat bakharririk egin bagaitu, izan gaiten beraz Jainkoarenak. Ordean Jainkoarenak izan gaiten gogotik. ume maite batzu bezala; bertzenaz harenak izanen gare gure bortxa, esklabo batzu bezala. Baitez-

pada izan behar gare, edo dohatsu, haren ontasunaren azpian, edo dohakabe, haren justizia zorrotzaren azpian; ezta bitharterik: bietarik zein nahi duzu?

**III. PHONDUA.** Gauza bakhotxa bere azken xedera heldu behar da, zertako egina baita, eta hartako zerbitzatu behar da. Iguzkiak ezpaginitu argitzen, ezpalitz bezala liteke; edo hobeki errateko, monstro bat liteke munduan. Orobat egiazko monstro bat da giristino bat, Jainkoarentzat egina den arren, guzia Jainkoarena eztena; deusere dohakabeagorik halako bihotz bat baino. Bizi othe naiz bada, Jainkoarentzat baizen bizi behar eztena bezala?

Nere gogoeta, gutizia, estekamendu eta egin-kunde guziak harentzat othe dire? Oi! ala gauza gutia baita, egiazki ta bakharrrik Jainkoarentzat egiten dudana! Zer hari gare bada munduan, egiteko dugun gauza bakharra ezpadugu egiten?

Urrikiz izan zaite urratua, zeren zure biziaren hain zathi handi bat menturaz Jainkoarentzat ez bertzerentzat enplegatu duzun, eta har zazu xede zina geroroz hura bakharrrik bilhatzeko gauza guzietan.

O, zu zare nere Jauna ta nere Jainkoa. San Joan.

Zaren guzia Jainkoak egina zare, eta hala baitezpada nahi du zaren guzia ta bethi harena izan zaitezen San Agustin.

### III. EGUNA

## Munduaren mesprezioaz

**I. PHONDUA.** Munduari estekatzen zajona, hortaz beraz nolazpait ere gelditzen da giristino izatetik. Mundu farfano edo profano hunek hanbat lehia du handitasunentzat, aberastasunentzat, atseginentzat, dosteta harroentzat, banitatea-rentzat, naturaleza galdua balaka dezaketen guzientzat; osoki da beraz Jesu-Kristoren etsaja. Horrengatik ere Jesu-Kristok hanbat madarizione aurthiki du Ebanjelio Seinduan munduaren kontra, eta garbiki erraten dauku, haren diszipuluak eztirela mundukoak, mundutik berexi ta hastandu dituela, bethiere munduarekin gerlan bizi behar. Eztetzaket beraz Jesu-Kristo ta mundua biak elkharrekin zerbitza; batarekin edo bertzearekin baitezpada hautsi behar dut. Ikhus bada bietarik zeinekin nahi dudan iduki ta zeinekin hautsi. O, Jesus maitea, bihotz guziaz arbujatzen dut mundua, zurekin idukitzeko, ta zure Ebanjelio Seinduaren arabera bizitzeko.

**II. PHONDUA.** Eznaiteke munduaren alde itzul, nere bathajoko hitzak eta obligazioeak hautsi gabe. Debruaz ta haren ponpez arnegatu dudanean, goraki hitz eman diot zeru-lurren jabeari, oinen azpian ezarriko nituela mundutiarrek preztzen dituzten guziak, dosteta, bilkhuja, hizkuntza, banitate, moda, aphaindura, jaunzteko manera harro ta galgarri guziak, hitz batez Jesu-Kristok egin deraikun modestiazko, aphalesguenezko, garbitasunezko, mortifikazionezko, bertzelako lekzionen kontra dohazken guziak; obligazioe hori hartu dut nere denbora eta adin guzietakotz. Zer atrebentzia, zer sakrilejo ezliteke bada, jainko bati hain goraki eman diodan hitza haustea? Eta hori iragan denboran hanbat aldiz gerthatu izan zautanazkero, hanbat aldiz eta hanbat gauzetan behatu natzajonazkero munduari, Jesu-Kristo ta haren ebanjelioa alde bat uzten nituelarik, zer nigar garratzak eztitut isuri behar orduko nere zoramenduaren gainean?

**III. PHONDUA.** Deus eztu munduak, Jainkoarentzat eta bethi bizitzeko egina den arima baten estekamendua merezi dezakenik: eztu ere zer-

taz paga bere zerbitzariak. Haren onthasunek, dostetek, atseginek, ohorek, laudorioek aphur bat lillura dezakete gure bihotza; eztezakete ordean sekulan ase, ez osoki bethe; hala aithortu du Salomonek, eta haren ondotik munduan pulunpaturik bizi izan ondoan, egiazki Jainkoa ganat itzuli izan direnek. Munduko nahikarak eztire itxurapenik eta itzalik baizen; hobeki errateko, egiazko gaitz batzu dire. Gizona gaxtatzen dute, eta eztute debekatzen dohakabe izatetik. Munduko ontsatasun osoena, eta iduriz deus eskas etzajona, hain hauskorra ta iragankorra da; hanbat khirestasun eta nahi gabe badatxeiko. Harri genetazke munduko dohatsu idurik hekien atsekaben berri balin baginaki. Bai, tronuaren gainean denak askotan hasgorapen frango aurthikitzen eta asko nigar isurtzen du, zephoetan burdinez kargaturik dagonak bezain ongi.

Mespreziosoz bethe zaite munduarentzat eta mundutarkeria guzientzat, othoitzazu gure Jauna arras suntsi dezan zu baithan munduaren Izpiritu-tua, ta baxharrik bere Izpirituaz bida edo gida zaitzala gauza guzietan, munduari batere beha-



tzen etzaizkola, ta munduko maximez eta erasiez konturik batere idukitzen eztuzula.

Mundu hunen adiskide dena, hortaz beraz Jainkoaren etsai egiten da. Jaund, Jakuak.

Zorigaitz gauza iragankorrei estekatzen zakizkotenei, berak ere hekiekin batean iragannen eta suntsituko baitire. San Agustin.

## **IV. EGUNA**

### **Heriotzeaz**

**I. PHONDUA.** Deusere seguragorik, egun batez hilen garela baino. Izan nadin nahi bezain gazte, hazkar, osasun onetakoa; balia nadin mirikuntzak gure egunen luzatzeko asmatu dituen bide ta mojan guziez; ez horiek, ez bertze deusek ezin beiratuko nau herioaren kolpetarik. Nahi bezain prestuki bizia gatik ere, bardin hil beharko naiz. Giristino onaren heriotzea, egia da, ezta ta gozoa izaten ohi da; Jaunaren begietan baliosa da ta prezagarria: bainan funtsean arima Jainkotiarrena gaxtaginik handiena bezain segurki hil beharko da. Egun batez hil beharko naiz; hitz laburra; bainan egia latza, eta sentsu handia duena! Hilen naiz; erran nahi da, munduan dituzkedan gauza guziez gabetua izanen naizela. Montoinka bil detzadan urhe-zilharrak, onthasunez igeri izan nadin; deusere eztut nerekin eramanen; ojhal phixka bat, nere gorphutz pustela estaltzeko, bospasei oin lur, ustelduraz, harrez, zizariz bethea, horra zer izanen diren nere ont-

hasun guziak. Eginkunde onak baxharrik, othoitzak, barurak, erremuninak, mortifikazionea, aphalesgunea. Sakramenduetarat maiz eta ongi hurbiltzea, horiek izanen dire nerekin eramanen ditudan onthasun xoilak, eternitatekotzat baliatuko zaizkidanak. Zer erhokeria beraz hain arras galdu beharko ditudan gauzez hanbat kontu idukitzea, nerekin bethikotzat eramanen ditudan onthasun baxharrez hoin artha guti hartzen dudalarik!

Hilen naiz; erran nahi da, hastandu beharko naizela, munduan maithatu dituzkedan guzieta-rik. Adios khiretsak orduan senharrari, emazteari, haurrei, adiskidei; adios sekulakotz mundu guziari, adios bihotz-erdiragarria, norbait edo zerbait minki maithatu izan denaren eredura. Jainkoarekin baxharrik izanen da egiteko handik harat. Gainerako guziek laster ahantziko naute. Zenbait egunez pixka bat nitaz mintzatuko dire: baina hekien begietarik joanezkero, laster Joanen naiz hekien gogotik ere. Zer erhokeria beraz, hain osoki galdu beharko ditudan, eta beharrik handienez laguntzarik batere ezin eginen dautedan lagunei eta adiskidei, bihotza hain

hertsiki estekatzea, neredenborako eta eternitateko ongi edo gaizki izatea eskuetan daukan eta egin behar duen Jainko handi haren adiskide maite izaterat hain guti entsejatzan naizelarik! Ordean zenbatez ezliteke erhokeria izigarriagoa, norbaitekin adiskidetzen banintz Jainko legearen kontra, ebaskoetan, gormandizetan, medisentazietan, desoneskerietan elkharren lagun izatekotan? Seguratuia izan ahal niteke, gure elkharrendako maithagunea, elkharrendako aborrimendutarat aldatuko dela, eta halako adiskide batekin kausitzen banaiz ifernuan, gu gerorri izanen garela bata bertzearentzat debrurik errabiatue-nak.

Hilen naiz; erran nahi da, nere gorputza eroriko dela estaturik lazgarrienerat. Nere begiak iraungiak; nere aurpegia guzia desegina, horitua, behatzen dioten guziak izitzen dituela; nere mihia, eskuak eta zangoak ezin higi ditezken bezala; nere gorputz guzia bizirik eta higitzeko ahalik gabe, trunko higin bat egina, laster bazter guziak phozoa eta izurritzeta letzakena, ezpali-re lehiatzen luphe batean harren zarratzera. Eta luphe hartan zer bilhakatuko da bizpahirur egu-

nen buruko? Bainan nere arima ezta hilen; gorphutzetik ilkhi eta sarthuko da bethi, bai bethi, iraunen duen bizitze batean, edo zeruan haren zorion handitan, edo ifernuan haren zorigaitz izigarritan. Oi! zer zoramendu lastimagarri beraz, edertasun huntaz nere burua itsutzerat uztea, gorphutz pustel huntaz hanbat kontu idukitzea, ez bilhatzea, hunen ederki jaunztea, hunen guriki ekhartzea, hunen gaitz guzietarik beiratzea, huni bere nahikara eta atsegin guziak ematea baizen, hain kontu guti daukadalarik, bethi eta eternitate guzian, nere zorion edo zorigaitz handitan bizi behar den arimaz!

Hilen naiz; erran nahi da azkenean, salbamenduko laguntza guziak orduan akhituko direla neretzat. Nahi bezain urrun joana gatik ere bekhatuko ta damnazioneko bidean, bizi naizeno, nere baithan zar niteke, nere salbamendua egin dezaket, seindutasunik goreneraino ere hel niteke, behar den bezain osoki ta khartsuki itzultzen banaiz Jainkoa ganat. Bainan azken urhatsa eginezkero, deusere ezin eginen dut nere salbamendukotzat; ezta geroroz izanen neretzat, ez graziarik, ez sakramendurik, ez urrikalmendurik:

bekhatu mortal bakhar batekin ilkhitzen banaiz mundutik, ifernu lazgarria izanen da nere egoitza eternitate guzikotzat; bekhatu benialak ere etzaizkit barkhatuko, nihork eztaki zenbat denboraz purgatorioko thormentak, mundu huntako gaitz guziak hurbiltzen etzaizkoten bezalakoak, pairaturik baizen; eta thormenta hetaz, eta hil ondoan eginen ditudan prestugunezko eginkunde guziez, Jainkoarentzat ukhanen dudan mait-haguneaz, emanen diodan loriaz eta laudoriez, deusere eztut zerukotzat merezituko. Norat ere eroriko baita zuhaitza edo arbola, eta han egonen da, dio Izpiritu Seinduak. Zein auhendagarria den beraz nere lazakeria, zerukotzat aberastera hain guti entsejatzen bainaiz! Nere bizia hain laburra da eternitatearen aldean; phondu bat baizen ezta; segurki den guzia eta ahal daikedan bezain ongi zerukotzat enplegaturik ere, ezliteke sobra: eta bizkitartean nere biziaren zathi handi bat zerukotzat alfer izanen den gisan daramat. Hanbat denbora, hanbat urthe menturaz bekhatu mortalezko estatuan, eta orduan egin dituzkedan egintza on guziak zerukotzat arras galduak; gainerako denboretan egiten

ditudan lan gehienak ere bizitze huntakotzat doako, Jainkoari batere behatu gabe; eta hetaz ere Jainkoak eztaut zerukotzat konturik batere idukiko. Horra beraz nere denboraren zathirik handiena eternitatekotzat arras galdua. Eta egin nezaken ongi eztut lazakeriaz uzten egin gabe? Eta egiten dudan ongia ere, othoitzak, kofesioak, komunioneak, meza-entzuteak, zein hozki, zenbat nagitasunekin eztitut egiten? Zer bihotz-min. Zer asaldu dagoen beraz neretzat herioa hurbiltzen zautala sentitzen dudanekotzat, orduan ikhusiko baitut, hanbat denbora munduan iragan, eta zerukotzat aberasteko hanbat ahal ukhan dudan ondoan, eskuak hutsik bezala agertzerat nohala nere Jainkoaren aitzinean! Ala orduan bertzela prezatuko baitut, orai hain lazoki eta alferki iragaten dudan denbora hau! Eman behar naiz beraz orai beretik nere ahal guziez zerukotzat baliazera Jainkoak bere ontasun handiaz ematen dautan denboraz, bekhatutik zorrozki beiratzuz, ahal dagidan ongi guzia eginenez, eta guzia ahal dagidan bezain ongi ta perfektu.

**II. PHONDUA.** Eta noiz ethorriko othe da nereztzat mement ikharagarri hura? Eztakit, eta sekulan ezin jakinen dut. Bainan badakit, noiz nahi ta non nahi herioak hatzeman nezakela. Eztut zeren nere burua lausengatu gazte ta hazkar naizelakoan; traba ez jeusak horiek herioaren kontra. Asko ezagutu dituzket ni baino gazteagoak, nik bezain luzeki bizitzeko iduri ederra zutenak, eta zeinak ezpaitire orai munduan. Bada hekiei gerthatu zajena, niri ere gertha dakiket. Menturaz urthe hunen, hilabete hunen, aste hunen buruko hobian zarratua izanen naiz, eztut mundu huntan mement bat ere seguraturik. Zer egin nezake bada, balin baneki bizpahirur egunen barnean Jainkoaren aitzinean agertu behar naizela? Zertako eztut hura eginen orai beretik? Legez erhokeria handi bat, ethorkizuna den bezain guti segur den denbora batetarat bidaltzea nere salbamenduak galdetzen duena, bakharra nere eskuko dudan orai denboraz baliatu behar bidean. Orai ifernuan dauden arima gehienek gerokotzat xederik hoberenak zituzten; onthasun phixka bat bildu ondoan, hulako egiteko akhabatu ondoan, ezkontzeko denbora ethorri



zitekenean, edo bertze hulako edo halako mugan, kofesio on bat eginik Jainkoarekin bak-hetu gogo ziren, arras debozioneari eman gogo zitzaizkon. Bainan higurikitzen zuten geroko denbora hura ezta hekientzat izan; eta nik orai egiten dudan bezala, bethi gerorat gibelatu dutelakotz osoki Jainkoari ematea, orai eta eternitate guzikotz su-elementetan dauntza marrasketan eta errabiamenduan. Nork erran daut bada, ethorkizuneko denbora hark eztautala niri eskas eginen, bertze hanbati bezala? Eta horren gainean nihondik ezin baduket segurantzarik, nolakoa da nere erhokeria, dio San Bernatek, bizi bainaiz estatu batean, zeinetan segurki ezpainuke nahi herioak hatzeman banintza? Holako zoramendurik erakhusten othe dut denborako egitekoan? Hetan ongi bururat heltzeko bide segurak alde bat utzirik, hartzen othe ditut dudazko bide, gehienak enganatzen dituztenak?

Eta nola hilen naiz? Supituki othe, ala aizinetik ezagutzen dudala hiltzerat nohala? Eztakit. Dakidana da, asko heriotze supitu gerthatzen dela; nere bizian urthe guti iragan bide da, non ezten halako zenbait gerthatu. Eta nork erran

daut eztagola neretzat zorthe bera? Zenbatak ere eztire herioaz joak izan, bekhatu egitean berean, ebasten hari zirela, hordituak zirela, zeigarreneko manamendua hausten hari zirela? Heriotzearen lazgarria! Hainak doazi Jainkoaren aitzinera harmak haren kontra eskuan dauzkate-la. Bada sekulan bekhaturat lerratzen banaiz, nork segura nezake eznauela herioak hatzema-nen bekhatu egite hartan beran? Eta dakidan denboran hori gertha ditekedala, nola mirakulu eskurik aski etsaiak har diezaket bekhaturat lerratzeko?

Badakit ere gehiago, heriotze gehien-gehienak supituak izaten direla, eta gehienak uste baino lehen doazila mundutik. Eritasuna arina dela hartzen ohi da hastetik; ondoan uste etzen bezala indarrak harzten ditu, eta azken orena ethortzen da, guti higurikitzen zelarik. Askotan herioa ezpainetan izanen da, eta eriak usteko du urrun dela. Eriari hurbiltzen zaizkonek ere, karitate gaizki aditu batez, uste hortan lausengatzen ohi dute. Hala arimako egitekoei kontu ematea gibelatzen da azken mementetaraino. Bainan orduan zertako da gai ondikozko eri hura? Nola

orhoit bere bekhatuez? Nola har hetaz behar den bezalako urrikia? Nola sar Jainkoaren aitzinean ongi agertzeko behar diren errelijioezko sentimenduetan, gorphutza guzia gaitzez hartua, arima guzia nahasia den denboran? Ala egia baitiote herstura hartan izan eta mundurat itzuli direnek, ezina bezala dela orduan deus onik egi-tea; gehienak eztire xoilki orhoitzen ere orduan sakramenduak hartu zituztela. Oi! zer erhokeria lastimagarria liteken beraz nere erhokeria, baldin nere kofesioetan kausitzen ditudan hutsak, edo bertze gauzetan gerthatzen zaizkidanak erreparatu gabe, eta egin nahi nuken eta noiz-pait egin gogo dudan ongia egin gabe banintago azken eritasuneraino! Bide hortaz segur bezala naiz, huts hek erreparatu ta ongi hek egin gabe Joanen naizela mundutik. Zaudete beraz bethi prestik, eta hiltzean izan nahiko zaretan estatu berean, zeren ezpiatakizue noiz eta nola izanen den zuen mundutik ilkhitzea, dio Jesu-Kristok. Osasunean zareno, egizu penitentzia, eta gainerako ahal dagizun ongi guzia: ezen eritasunean egiten den penitentzia ere eria izaten ohi da, eta osoki beldur naiz eriarekin batean hiltzen dela,

eta deusera etzajola Jainkoaren aitzinean baliatzen; San Agustin hitzak dire horiek.

Ordean zer estatutan hilen othe naiz? Jainkoaren grazian, ala bekhatutan naizela othe? Eztakit eta hau da ezagutza eta jakin-eskas bat, ikhara handi batez bethe behar nauena: ezen Jainkoaren grazian edo hartarik kanpoan hiltzeari darrajo, sekula guzikotzat edo zeruan lorios ta dohatsu, edo ifernuan izigarriki dohakabe izatea. Nola hilen othe naiz bada! Jainkoaren adiskide, ala etsai othe? Ez eiki, eztakit. Behintzat bekhatutan bizi banaiz, segur bezala da bekhatutan hilen naizela. Ezen bethi kasik egia gerthatzen da erran komun hau; nola bizi, hala hil; eta san Jeromak segur bezala zaukon, ehun mila gaizki bizi direnetarik doi-doia izan ditekela bat, Jainkoaren grazian hilen dena eta salbatuko dena. Eta baldin lazokisko bizi banaiz, bekhatu handirik ez, prestugune handirik ere ez, eta Jainkoaren zerbitzuko kharririk gabe, nola hilen othe naiz? Eztakit segurki; bainan beldur izateko dut, halako bizzate laxo bati heriotze gaxtoa eta sekulako damnazionea jarraikiko zaizkola. Ala bainan akhabantzaraino ongian irautea eta graziazko estatuan

mundutik eramana izatea, grazia berezi bat da, dohain guzietako dohaina da, Jainkoak nihori zor eztoena. Nola higuriki dezaket bada, dohain seinalatu hura neri emanen dautala, baldin bizitze hotz eta nagi bat baderamat, Jainkoarendako maithagune handirik gabe, asko damu xume bekhatu benialez egiten diodala, asko egintz on, haren gogarako litezkenak, lazakeriaz egin gabe uzten ditudala, ta egiten dudan ongia ere hanbat eskasekin egiten dudala? Eta ikhusi izan dire hanbat seindu handi, hiltzerakoan beldurrean eta ikharan sarthuak, ezjakinez ea ukhanen zuten Jainkoaren grazian mundutik ilkhitzeko dohain handia. San Hilarionek, mortuan aingeru bat bezala bizi izan ondoan, sentitu zituen, bertze askok bezala, izialdura hek; eta hunela animatzen zuen bere burua mement ikharagarri hartan: zeren beldur haiz. O! nere arima! Badik hirur hogoi urthe, ahalik eta hobekiena Jesu-Kristo zerbitzatzen duala. Oha beraz fidantiarekin nausi maite haren ganat, esparantza oso batekin, aita on bat kausituko duala haren baithan, eta ez etsai gogor bat. Bai, bere bizian ahalik khartsukiena Jainkoaren zerbitzuari darraizko-

nek, horrela anima detzakete bere buruak hiltzerakoan. Bainan, oi! ala beldur izateko baita, bizitze laxo bat daramatenen heriotzea, heriotze gaxtoa, damnatzeko direnen heriotzea izan dadin!

Azkenean nahi bezain kharsu eta lejal izana gatik ere orai Jainkoaren zerbitzuan, ez horrekin ere eznaiz segur seinduen heriotzeaz hilen naitzela. Salomon eta Judas gaxtoa denbora batez egiazki ziren seindu; bainan ondoan gaizkirat eman ziren eta segur da bigarrena behintzat sekulakotz galdu zela, ta lehenbizikoaz ere duda handia da. Bertze asko izan dire, zenbait denboraz, batzu hainitz urhez ere bai, lurreko aingeru gisan bizi izan direnak, eta bizikitartean ondiko galdu izan direnak: bada nihork eztezaketa segura ezteela gauza bera izanen nitaz ere.

Beraz jakitate-eskas hautan naizanezkero, nere eginbidea da, beldurtasun seindu batean bizitzea, ta nere ahal guziak egitea, Jaundone Petrik gomendatzen daukun bezala, nere zerurako hautamena seguratzeko, bekhatu, bai handi, bai xume guziei, nere ahalaz ihes-eginez, Jainkoak ematen dauzkidan grazia guzietz ongi balia-

tuz, sakramenduetarat maiz hurbilduz, bainan bethiere aldi baxhotxean azken aldikotzat errezi- bitzen banitu bezala, gainerakoan ere ahal dagi- dan ongi guzia eginez, eta guzia ahal daidikedan bezain ongi, huts egin gabe, heriotze on baten egiteko grazia Jainkoari eskatzea. Hola bizi banaiz, hiltzerat bethi prest izanen naiz, eta nola nahi nohan mundutik, supituki balitz ere, nere heriotzea heriotze seindu bat izanen da.

**III. PHONDUA.** Nolakoak izanen dire nere senti- menduak herioa hurbiltzen zaitanean? Osoki orai ezpezalakoak. Bizi gareno, munduak lilluratzen ohi gaitu; gure jaidura gaxtoek zoratzen gaituz- te; naturaleza galduak azpitik gauzka; eta horiek gure fedea iraungitzen, ezperen hagitz flakutzen dute; guti-gutiak dire, sinhesten dituztela dioten egien araberako sentimenduak dituztenak, ta hekien arabera bizi direnak.

Bainan herioa hurbiltzearekin batean, nausi arrotz horiek desagertzen dire; mundua ezeztatzen, pendurak ethentzen, naturaleza iraungi- tzen dire; eta horiek gure Izpirituatarat hedatu zituzten hedoiak eta enganioak suntsitzen dire, eta fedea bere indar guzia hartzen du.

Orduan beraz hasiko naiz gauzez jujatzen ebanjelioko argien arabera. Orduan munduari behatuko diot, airean agertu den bezain sarri suntsitzen den lanho bati bezala. Nolakoa izanen da beraz orduan nere bihotz-mina, baldin munduari behatzen banatzajo nere Jainkoaren zuzue-  
nen kontra, baldin munduko maximei ta modei jarraikitzen banatzaje nere solasetan, jaunztu-  
tan eta bizitzeko maneran? Baldin munduko era-  
sien, burlen eta farren beldurrak edo zenbait gaizkitarat lerra-arazten, edo zenbait ongi egite-  
tik eta Jainkoak gogorat ematen dautan bezain erregelatuki bizitzetik urrun-arazten banau? Ai,  
orduan ezagutuko dut zer erhokeria den, hil ondokotzat, ez onez, ez gaitzez ezin balia daki-  
kedan mundu huntaz hanbat kontu idukitzea,  
eta hunen gatik alde bat uztea nere Jainkoa,  
nere nausi guzien gaineko bakharra, zeinarekin  
xoilki ikhusiko baitut geroroz egiteko ukhan  
beharko dudala, eta zeinak baitauka eskuetan  
nere sekulako zoriona edo zorigaitza.

Orduan, hanbat artharekin eta nekherekin bildu dituzkedan onthasunak urthuko zaizkit, eta Joanen dire bertzen, ta menturaz primu esker-



gabe batzuen eskuetarat. Orduan beraz behatuko derajet karrikako basari bezala, eta hekien biltzen enplegatzen ditudan denborak eta nek-heak arras galdutzat atxikiko ditut. Eta nolakoa izanen da nere atsekabea, baldin onthasun biltzea gatik, ahantzia uzten badut nere eternitateko egiteko handia, baldin lazo izaten banaiz othoitzaren, sakramenduen, debozinezko bertze eginbiden gainean?

Orduan lagun eta adiskide guziei ez-axolarekin behatuko derajet, zeren ikhusiko baitut, hestura hartan, eta hil ondokotzat deus ere ezin baliatuko zaizkidala. Oi! eta zer khirestasunetan izanen da hondatua nere bihotza, baldin nere bizian norbait maithatzen badut Jainko-legearen kontra! Bai, mement ikharagarri hartan ikhusikoa biziki sentituko dut zer zuzenkontrakeria, zer ebaskoa izigarri zen bihotz hau errefusatzea nere Jainkoari, zeinarentzat baizen ezpaitzuen ukhan behar ez estekamendurik, ez bizirik, eta hunen ematea lagun galdu bati, debruaren ministro bati, eta haren bidez debruari berari! Orduan bizi-biziki gogoan landatuko zaizkit nere Jainkoak nere bihotzeko afekzinez galdetuko

dautan kontu hertsia, eta nere estekamendu gaxtoez eginen dauzkidan errephortxu lehergarriak; eta hartan izanik eta mement ikharagarri hartan experientzia eginik baizen, nihork ezteza-ke jakin, zer phondutaraino orhoitzapen horrek lehertzen eta deboilatzen duen bihotza.

Denboratik eternitaterako iragaitza ikharagari hartan eztu beraz konturik idukiko denborarekin suntsitzen diren gauza guzietz, munduaz, ont-hasunez, ohorez, lagunez, adiskidez. Orduan nere Izpiritu guzia hartuko dutenak izanen dire bizioan egin dukedan ongia edo gaizkia, zeren hek baxharrik eramanez baititut mundutik, eta hekiek beharko bainaute edo sekulako lorian sar-arazi, edo eternitate guzikotzat ifernuko lezetan ehorts-arazi. Orduan beraz gogorako zaizkit nere bizi guzian egin dituzkedan bekhatu guziak. Eta baldin zorigaxtoan nere biziaren zathi handisko bat, zenbait urthe bekhatutan baderematzit, oi! zer bekhatuzko oste izigarri etzaut gogorako? Hanbat gogoeta, hanbat gutizia, hanbat solas, hanbat libertinkeria, hanbat harrokeria, hanbat bertze gisetako bekhatu izigarri. Oi! nork erran nola begi-kolpe horrek ama-

rratzen eta nahasten duen mundutik ilkhitzerat dohan arima deithoragarria! Orduan eztute lek-hurik ukhanen, bizian bekhatua ezdeustatzen bezala duten aitzekiek, naturaleza gaxtoa dugu-la, gaizkirako pendura muthiriz betheak ginela, flakoak ginela, munduan bizi behar ginela, eta hala munduaren arabera egin behar ginuela: hiltzeko phunduan suntsituko dire estakuru horiek guziak, zeren ezagutuko baitugu Jainkoa zela gure nausi guzien gainekoa, eta hari behatu behar ginaizkola bertze guzien gainetik, zeren ezagutuko baitugu, zenbat ere gaitz baitzitzai-kun bekhatutik beiratzea, Jainkoak hortarako laguntza frango ematen zaukula, bai sakramen-duetan, bai hetarik kanpoan. Eta ezagutza horie-kin batean, oi! zer itxura izigarriekin orduan gogorako zaizkidan nere bekhatuak! Monstro batzu izanen dire, Iskritura Seinduaren arabera, alde orotarik sethiatua idukiko nautenak, guzia deboilatuko nautenak; uholde batzu izanen dire, nere arima guzia iretsiko eta hondatuko dute-nak. Oi! ala garrazki pagatuko baitut ordu lazga-ri hartan nere arinkerian, eta nere bizian har-tzen ditudan atsegin gaxtoak!

Ondikozko arima hura entsejatzan da, egin duken ongian kausitzerat zenbait arintgarri eta konsolazione hurrendua daukan atsekabe minaren kontra. Oi! ordean ala gutia eta eskasez beha kausitzen baitu orduan egin duelako ongi hura! Haren othoitzak hain hotzak; haren kofesioak hain guti preparaturik eginak, haren komunioneak hain ephelak; eta behar bada hainbertze sakramendu errezebituak, bekhatua funski behinere utzi gabe; hain penitentsia guti egina, menturaz hanbat bekhatoren ondoan, eta penitentsia egiten zuelako denbora hartan berean ere, hanbat lausengu bere gorphutzarentzat, hanbat gurikeria bere buruari emanak, bederen ageriki bekhatu etzirenetarik. Horra zer kausitzen duen arima hark egin zuelako ongi hartan. Orduan hura guzia esdeus bezala agertzen zajo, eta ikharan sartzen da, beldurrez eta egin zituelako egintz on hak berak hainbertze bekhatu izan diren Jaunaren begietan; othoitz hek Jainkoak iduki diotzan beldurtzen da, nausi lorios hari egin diotzan burla batzuentzat, hetan erakhutsi dioen ohartasun eta errespetu eskasa gatik; beldurtzen da kofesio ta komunione hek hainbertze

sakrilejo izan diren, zeren ezten hekiekin batean arras bizi bezala aldatu. Osoki beldur da beraz Jainkoaren aitzinera dohan bekhatuz kargaturik, eta deusere gabe haren haserradura ezti dezakenik; eta horrekin batean herstura hartan izan dena da baxarra dakiena nola kausitzen den nahasia, deboilatua, lehertua: mirakulu izanen da, ezpada arras etsimendutan erortzen, eta ezpada azken hatsa aurthiki gabe ere bere ifernua hasten.

Eta ni zertan izanen othe naiz mement, naturalezarentzat ikharagarri, eta fedearen arabera are lazgarriago den hartan? Badakit nere ariman asko bekhatu mortal egin dudala nere bizian. Bakhean jartzerat entsejatzan naiz, erranik ezen nere buruari, bekhatu egin badut, kofesatu ere banaizela, eta penitentzia egin dudala. Ordean nere kofesioak behar zen bezain senterrak, lla-noak, egiazkoak eta osoak izan othe dire? Ukhan dut behar zen artha guzia nere bekhatuez orhoitzeko, eta guziak garbiki aithortzeko? Etzaut othe gelditzen griñarik betere horien gainean? Ukhan dut nere kofesioan bekhatuazko urriki bat, behar zen bezain zina, handia ta guzien gainekoa, ta horrekin batean nere bizi guzian bek-

hatutik beiratzeko hain xede sendoa, non egiazki bainitagon zer nahi egiterat, pairatzerat eta sakrifikatzerat, bekhatu mortal den xumenerat lerratuko nitzen baino lehen? Ezpada nere bihotza hain osoki bekhatutik aldaratu, nere kofesioak eskasak izan dire, eta nere bekhatuak barkhatzetik urrun, berak izan dire sakrilejo izigarri batzu. Horren gainean ezin ukhanen dut bizi naizeno segurantza osorik; eta horrek behar nau bethiere beldurtasun seindu batean iduki. Halarik ere aski bakhean bizitzeko arrazoin baduket, baldin nere kofesioarekin batean bizitzea aldatu badut. Eta bada, Jainkoa ganat itzuli naizelako denbora hartan, hautsi dut arras bekhatuarekin? Bekhatutik bezala, bekhatuko parada gaxtoetarik ere urrun egotu naiz? Eztehadala nere burua lausenga; kofesatzearekin batean ezpanaiz funski, barneko maneraz aldatu, eztut batere zeren kontatu nere kofesioen gainean.

Penitentzia egin dut; ordean zer penitentzia? Eta nere ariman uste izan dezaket Jainkoak aski etsiko duela egin dudalako penitentzia egin ditudan hanbat bekahturen aldera? Bihotz guzia khirestasunez betherik Jainkoari maiz eta nigar

saminekin barkhamendu eskatzeko artha, othoitz khartsuak eta hainitz, gabean barna zirautenak, barur hertsia osteka, bere buruen kontrako higuntza seindu bat, bere gorphutzak ahal guziez mortifikatzeko eta gogorki tratatzeko lejaltasuna, jaunztura latzak eta arruntak, orobat jan-edanak, eta hautarik, hala nola lotik, doi-doja naturalezak baitezpada behar duen bezain guti, atsegin eta nahikara guziak bere buruei errefusateko atzartasuna, bizitze huntako gaitzak eta nahigabeak ere Jainkoaren eskutik penitentziazko xedez hartzen zituztela; eta horiek guziak, ez zenbait egunez edo astez, baina urthe osoz eta asko urthez; horra zer ikhusi izan den seindutzat ezagutuak diren penitentetan. Zer diot bada orai nere buruaz? Egin dudalako penitentzian kausitzen ditut seinale horiek? Eta ezpaditut kausitzen, nola bizi naiteke bakhean eta deskantsu? Edo orai eztakit zerk bakhean ezartzen banau ere, zer izialdurek eznaute lehertuko hiltzeko phonduan, gauzak diren bezala agertuko zaizkidanean? Ez, bizi naizeno, eta bereziki heriotzeko mementekotzat, eztiteke neretzat bakhe osorik, non kofesio on bat egin

eta herekin batean bekhatua arras uzten dudalarik, ezpanaiz hil aitzinean denbora aphur batez penitentziazko egintzetan eta Jainkoaren zerbitzuko gauzetan ahal guziez enplegatzen.

Egitzu maiz gogoetadura hauk, hiltzeko phonduan zarela kontu eginez, eta entseja zaite mement ikharagarri hartan ukhanen ditutzun sentimenduetan ongi finkatzerat: hori da bekhatutik beiratzeko ta seinduki bizitzeko irakhasten bide hoberenatarik bat. Ohi zaite egiten ditutzun guziak egiten, zure eginkunde bakhotxa zure biziko azkena izan behar balitz bezala; hala egitzu beregainki zure kofesioak eta komunioneak.

Ohoin bat bezala ethorriko naiz zure hartzerat gutien uste duzunean, dio Jesu-Kristok.

Giristino batek eztu sekulan biharamunerat luzatu behar salbamenduko egitekoak galdetzen duena, dio elizako aita batek.



# V. EGUNA

## Jujamenduaz

**I. PHONDUA.** Herioak jotzen du azken kolpea. Gorphutza iraungitzen da; luphean zarratzeko ta zizarien bazka izateko baizen on ezten gorphutz hil bat bilhakatzen da. Arima asko gisetako gogoetez bethea, ikharatua, nahasia, hargatik prestuki bizi izan balin bada, Jainkoaz lagundua eta esparantzaz animatua, hala-hala bekhatutan eramán badu bere denbora, guzia deboilatua, menturaz osoki etsimendutan eroria; arima hura, diot, Jainkoak daki nolako sentimenduz bethea, ilkhitzen da gorphutzetik, eta mement berean kausitzen da juje ikharagarriaren aitzinerat eramana, han jujatua izateko, ta eternitate guzikotz edo osoki dohatsu edo osoki dohakabe egin behar duen sententzia aditzeko. Zer mement! Zer jujamendu! Zer izialdurak!

Nolakoak ditezke arima baten sentimenduak juje adoragarri haren aitzinean agertzen denean? Juje hura da Jainkoa bera, berenaz den izate, mugarririk gabe handi, lorios, botheretsua,

diren gauza guziak hitz batez ezjeusetik athera duena, begikaldi batez itsasoa zolaraino ta lurra bere zimenduetaraino iharrosten eta ikharatzen duena; Jainko bat hain loriosa, non zeruko Izpiritu gorenek eta garbienek ezin beha baitiezokete ikhara seindu batekin baizen. Nola bada ta zer sentimendurekin agertzen diteke arima bat juje handi, juje ikharagarri haren aitzinean? Guzia lotsatua, urmariatua, beheratua, izialduran sartua.

Juje bat da guziak dakizkiena, deusere ezin gorde dakiokena. Orai gure bizitzearen lekhukoden hura bera izanen da orduan gure jujea, dio San Agustinek. Bizi gareno Jainkoak ikhuste dituguk egiten ditugun ta gu baithan iragaten diren guziak; gau-minean, ilhunbetan eta bakhartasunean egiten duguna, egun handian, agerian ta lagun aitzinean egiten duguna bezain ontsa. Gure behatze, solas, oin-urhats guziak badakuski. Gogoeta edo bihotzeko mobimendu den xumena eta sorthu den bezain laster suntsitzen dena, hain ongi ezagutzen du, nola kanporat agertzen den eginkunde larriena. Hala beraz Jainkoak ikhusten ditu, adimenduaz zerbitzatzen

hasten garen lehenbiziko mementetik eta azken hatsa aurthiki artean, izpirituz, bihotzez, begiez, mihiatz, eskuez, arimaz eta gorputzaz egiten dugun guzia. Bada horiek guziak gogoan dauzka; fits bat etzajo ahanzten; eta horra zein juje argitu ta jakintsunen aitzinean agertzen den arima hura; harentzat ikharatzeko ta lotsatzeko arrazoin berria.

Juje bat da aitzakirik batere aditzen eztuena, legearen arabera zorrozki jujatuko duena. Mundu huntan hain antzetsu gare gure buruen lausengatzeko. Gazteak gazte gisan behar dire jauntzi, ibili, mintzatu ta gobernatu. Munduan bertzeekin bizi behar denak bertzek bezala egin behar du, bertzenaz irhigarri liteke. Naturelezari ere zerbait eman behar zajo, eta bere ethorkiz jauzkor, urguilus eta atseginetarat ekharria denari zerbait barkhatu behar zajo. Holako mila estakuruz entsejaten gare mundu huntan gure buruak edertatzera; askotan bekhatua ezjeusatz eta bekhatu handiak xumetzat dauzkagu. Ordean juje guzien gainekoak eztu holako estakururik aditzen. Ebanjelioak egiten deraikun modestiazko, garbitasunezko, umiltasunezko,

eztitasunezko, mortifikazionezko, munduazko arnegamenduzko, baxharrik, egun eta adin guzietan Jainkoarentzat bizitzeko maximak eta manuak, adin guzientzat, estatu ta herrunka guzientzat dire; eta Ebanjelio Seindu hura da Jainkoak bere jujamenduaren eta sentenziaren erregelatzat hartuko duena. Badaki hori jujatua izaterat dohan arimak; badaki ebanjelioaren gainean behar duela ihardetsi, ebanjelioaren arabera jujatua izan behar dela zorrotasun guzian, ta haren bizia ezpada izan Ebanjelio Seinduaren araberakoa, sekulakotzat kondenatua izaterat dohala. Oi! zer izialdurarekin agertzen den beraz tribunal ikharagarri hartan!

Bizkitartean zenbat ere ikharagarria baita jujamendu hura, arima seinduki bizi izan den bat, edo bekhatu egiteko zorigaitza ukhan badu ere, ondoan denbora aphur bat penitentzia garratzetan eraman duen bat, tribunal hartan fidantzia handirekin agertzen da. Bere konzientziaren lekhukotasunak sustengatzen du, ta juje adoragarriak egiten dioen hartze arrajak osoki animatzen du; esperantza handi batekin agertzen da beraz juje adoragarriaren aitzinean, eta

benedizionezko sententzia baten ardiesteko fidantzia handi batekin hurbiltzen zajo.

Bainan, oi! ala bertzelako sentimendutan kausitzen baita giristino laxo ta ephel, menturaz gaizki handirik ezagutzarekin egin eztuen, bainan hala-hala prestugune handirik gabe bizi izan den bat! Ala orduan kezka latzak jasateko baititu, mundu huntan gozatu duen ondikozko bakearen orde! Orduan sentitzen du Jaunaren legeak hedadura handia zuela, eta eztela bere bizian behar zen bezala emana izan lege seindu haren, ta gainerako bere eginbiden ongi ikhasterat; baditekela beraz errexki juje argitu ta zorhotz hark kausi detzan huts handiak, berak hutsik batere ikhusten etzuen lekhuan ere. Orobat beldurtzen da, Izpiriturat ethortzen zitzaizkon hanbat gogoeta eta bihotzean sortzen zitzaizkon hanbat afekzione ta gutzietan asko gisetarat hobendun egin izan den, hekien gudukatzeko ta ithotzeko behar zen artha ez ekharriz bederen. Beldurtzen da eztituen ukhan bere kofesioetan eta komunioetan, galdetzen zituzten bekhatuezko urriki zina, Jainkoarendako maithagune khartsua, erreligionezko bertze sentimenduak,

ta hekien eskasean, ez bere onetan, bainan bai damnazionezko arrazointzat balia dakizkon hartu dituen sakramenduak. Beldur handitan sartzen da beraz, juje ikharagarriaren begi zorrotzak kausi dezan haren baithan asko bekhatu ta sekulakotz haren damnatzeko arrazoin asko. Eta beldurkhunde hortan, oi! zer izialdurarekin, zein nahasia ta harritua agertzen den bere jujearen aitzinean! Ala orduan sentitzen baitu, bainan helas! Berantxe, zer zoramendu zen haren bait-han, hain ephel ta nagi izatea halako nausi baten zerbitzuan, hain ez-axolatu izatea bethetzeko zituen eginbiden gainean, hitz batez denbora zeno bere neurriak ez hobeki hartzea, mement ikharagarri hartan izialdura ta herstura hartan ez kausitzeko!

Eta zer erranen dugu bada bere jakinean bekhatu mortalezko ta damnazionezko estatuan tribunal ikharagarri hartarat dohan arimaz? Non kausi hitz aski borthitzik, edo kolore aski bizirik, ondikozko arima haren orduko izialdurak eta deboilamenduak pintatzeko? Jainko guziz bothe-retsu bat bere kontra guzia sumintua, eta Jainko gisan eta dagokon bezala jazartzerat dohakona;

eta Jainko ikharagarri haren aitzinean agertzerat  
bortxatua izatea; haren begikaldi zorrotzei pha-  
ratua egotea: oi! zer begikolpe! Zer herstura!  
Zer errabia arima dohakabe harentzat!

Ezagutzen ditu orduan egundaino baino  
hobeki Jainko haren osogune adoragarriak, eza-  
gutzen du haren handitasuna, haren majestate  
guzizkoa, haren bothere mugarririk gabea.  
Orduan bai ezagutzen du, zer errespetu, zer  
ikhara zajon zor Jainko handi hari. Bainan, helas!  
Ikhusten du zenbat aldiz ta zenbat gisetara kol-  
patu duen Jainkoarentzat ukhan behar zuen  
errespetu handia, bere othoitzak eta errelijionez-  
ko bertze eginbideak hain lehiaka, hain barraja-  
tuki eginez, menturaz bere-bere etxean, Eliza  
Seinduetan, asko bekhatu eginez, mezak gaizki  
entzunez, asko gogoeta ta solas gaxtotan ego-  
nez, eta nork daki bertze zenbat gisetako profa-  
nazione sakrilejoz. Jainko haren handitasunaren  
gainean neurtzen du dohakabe hark bere bekha-  
tuen belztasuna, eta ezin erran bezalako gaitz,  
sekulakotzat thormenta guziak merezi dituen  
batentzat dauka, nausi lorios, nausi botheretsu  
haren kontra altxatzea, haren manu sakratuak

ostikatzea, haren gainean lehenkuntza edo preferentzia ematea kreatura ezjeus bati. Oi! eta badaki arima dohakabe hark, hura bera dela errebel atrebitu hura, eztuela bere bizian konturik iduki Jainko haren handitasunaz, haren nausitasunaz, haren gainean zituen zuzen ezin gehiagokoez, haren bothere mugarririk gabeaz, hari obeditzeko zuen premiaz, badaki haren etsaikotan ilkhi dela mundutik, ta haren etsai agertzen dela haren aitzinean. Oi! nolakoa den haren bihotz-mina, haren ikhara ta errabia! Ezagutzen du ondikozko arima hark bere Jainkoaren ontasun mugarririk gabea. Orhoitzen da haren ganik ukhan dituen ezin erran bezenbateko ongiez, orobat bere eskuak haren kontra harmaturik, jazarteko hari zitzajon mement berean egiten ziotzanez. Oi! ordean sentitzen du ontasun miragarri haren alderat gor eta sorhajo izan dela; bere nausi guzien gaineko ta ezin erran bezain on hura zerbitzatzetik urrun, haren ganik zaduzkan ongiez berez baliatu dela, krueltasun guziarekin hari jazartzeko. Oi! ikhusten du beraz bere Jainkoaren ontasun hura bera bere kontra sumin-



tua, eta haren eskergabekeriez mendeku galdez dagola.

Ezagutzen du bere Jainkoaren urrikalmendu miragarri hura. Orhoitzen da urrikalmendu maitagarri hark haren ondotik egin dituen urhats lehiatsuez, bere baithan sartzeko eman dioen denbora luzeaz, nola miliun aldiz hertxatu ta behartu duen bekhatuko ta damnazioneko bide-tik osoki atheratzerat, batean bera bihotzerat mintzatuz, bertzean kofesor, predikari edo liburu on baten bidez, zein amultsuki eskeintzen zioen bere bekhatuen barkhamendua ta Jainkoarekila-ko adiskidetasuna. Bainan dohakabeak ikhusten du, eztela baliatu nahi izan urrikalmendu miragarri hartaz. Orai beraz ikhusten du, eta errabia-tzen da ikhustez, Jaunaren urrikalmendu hura guzia agortua dela haren alderat, eta denbora haren salbatzeko zen bezain lehiatua dela orai hari jazartzeko, ta dorphetasun guziarekin haren thormentatzeko.

Ezagutzen du Jainkoaren Seindutasun mugarririk gabea, ta haren zuzentasun zorrotza, bek-haturik den xumena, solas alfer bat baizen ezpa-litz ere osoki higun duena, ta guziei dorpheki

jazartzen derajena. Oi! eta badakusa bekhatus kargaturik agertzen dela juje zorrotz, juje ikharagarri haren aitzinean. Ikhusten du beraz Jaunaren zuzentasun hura guzia bere kontra hartua, ta hanbatez kolpe gogorragoak jotzerat dohakola, zenbatez denbora ta salbamenduko laguntza gehiago eman baitio lurraren gainean.

Orhoitzen da arima hura gure erospeneko misterio miragarriaz. Ezagutzen du zer ontasun neurri gabe erakhutsi zioen juje ikharagarri hark, harentzat bera gizon egitean eta gurutze baten gainean hiltzean. Orhoitzen da, Jesusen pairamenari esker, bere bizian, dela sakramenduetan, dela sakramenduetarik kanpo, ukhan dituen graziez eta salbamenduko laguntza handiez. Baina helas, o! bihotz-mina, o! errabia, ikhusten du hanbat ontasunezko ta maithagunezko mirakuluren kontra gogortu izan dela, hanbat aldiz ostikatu duela bere jujearen odol adoragarria, hura zuzen zen bezala maithatzetik urrun, etzajola gelditu jazartzetik, mila aldiz haren zauri sakratuak bere thormenta guziekin bere ahalaz arreberitu dituela: o, Jesu-Kristoren odol adoragarri, hain sakrilejoki profanatu duena, haren kontra

goraki dago beraz mendeku galdez; Jesu-Kristoren zauri sakratu, hanbat eta hanbat aldiz erreberritu dituenak, hanbat aho dire, haren kontra madarizione lehergarrienak aurthikitzen dituztenak.

Oi! zer estatu bekhatuzko estatuan mundutik ilkhitzen den arima dohakabearen estatua bere jujearen aitzinean! Zer haren orduko deboilamendua, etsia eta errabia! Jainko guziz botheretsu hura ikhustea bere kontra guzia harmatua, hari bere bothere guziaz jazartzerat dohakola: ezagutzea haren perfekzione adoragarria, eta hetarik batere ezin kausi bere alde dezakenik, eta hek guziak ikhustea bere kontra harmatuak, asperkhunde galdez daudela; orhoitzea bere bizian, baieta duela mement bat, izigarrikeria hetarik beira zitekela, bere jujeak hartarako laguntza frango eman dioela, eta bizkitartean hetaz eztela baliatu nahi izan, guzien bortxa bekhatuzko estatuan erori dela Jainko biziaren eskuetarat, eta geroroz eztela harentzat erremediorik, ez graziarik, ez salbatzeko ahalik: hala beraz Jainko guziz botheretsu bat bere aitzinean, bere kontra guzia sumintua; zerua bere burua-

ren gainean sekulakotz hertsia; ifernua bere oinen azpian zabaldua haren iresterat prest; debru errabiatuak bere bazterretan, mementean ifernuko lezetarat herrestatuko dutena; zer estatu arima dohakabe haren estatua! Bai, dio San Gregorio handiak, gisa hortan bere Jainkoaren aitzinean agertzeak, ifernuko suak berak baino gehiago deboilatzen eta thormentatzen du ondiko-kozko arima hura.

Eta nondik duke laguntzarik bere atsimenduaren kontra? Nihondik ez. Mundua ta munduan diren guziak ezeztatu dire harentzat. Haren ahaideak eta adiskideak harentzat othoitzean daude; mezak, eta menturaz asko ere, harentzat erraten dire; deusere, ez deusere etzaizko horiek baliatzen bekhatu mortaletan hiltzen denari. Zeruko dohatsuak gogorrik daude ta sorhajorik haren alderat. Guziak haren kontra sumindura handitan agertzen dire. Bereziki aingeru begiralea, lehenago haren salbamendukotzat hanbat egin izan duena, eta guziak alferki, zeinaren begiak ere dohakabe hark bere bekhatu ahalkagarriez lizundu baititu; bai, Izpiritu dohatsu hura izanen da arima bekhatore haren akusatzaile

gogorrena; haren kontra goraki ta su handirekin asperkhunde galdetuko du. Oi! ondikozko arima berak daki, eta ez nihork ere mundu huntan, zein izigarriki kausitzen den tribunal ikharagarri hartan deboilatua, etsitua, eta errabiatua.

Eta horra zer merezitu dudan nik ere bekhatu mortala egiteko zorigaitza gerthatu izan zautanean. Oi! nolakoa zen orduan nere zoramen-dua? Non nuen adimendua? Non zen nere fedea, hain errexki, hain deus guti gatik ematen nitze-nean bekhatoreen jujamendu guziz etsigarria jasan behar izateko hirriskuan?

Zer eskher handiak eztiotzat bihurtu behar nere Jainkoari, zeren bere urrikalpen ezin erran bezalakoaz beiratu nauen izigarrikeria hetarik?

Eta orai zertan othe naiz nere Jainkoarekin? Othe dut arrazoin uste izateko haren grazian eta maithagunean naizela? Oi! eztezaket sobra preza zorionezko estatu hau, eta deus ezta egin behar eztudanik akhabantzaraino huntan irauteko. Ordean uste izateko othe dut Jainkoaren graziatik kanpoan naizela? Oi! hortan banaiz, nere zorigaitza saminki deithoraturik, lehiatu behar naiz ondikozko estatu huntarik ilkhitzerat eta

nerre juje adoragarriarekin bakheak egiterat; luzamendu guziak hemen izigarriki dire perilos.

**II. PHONDUA.** Juje argitu, juje zorrotz hura kontutan sartzen da haren aizinean agertzen den arimarekin. Zer kontu hedatu, zer kontu hertsia, galdetzen dioen kontua!

Gure bizian egiten ditugun guziak, eta gure izate guzian iragaten direnak zorrotzasun guziarekin izanen dire etsaminatuak, dio Izpiritu Seinduak, dela ongia, dela gaizki izan dadin.

Adimendurat heltzen garenetik eta azken hatseraino zenbat gogoeta gure Izpirituetan? Zenbat mobimendu, afekzione, gutizia, maithagune, estekamendu gure bihotzetan? Zenbat sentimendu gisa gure arimetan? Zenbat behatze, solas, aditze, jan-edan, urhats, eginkunde, gure sentisu guzien usantza? Zenbat egun, oren, mement munduan iraganik? Eta horiez guzietan kontu eman beharko dugu; eta horiek guziak zorrotzasun guzian etsaminatuak izanen, ez ordean ez munduko maximen, ez gizonen asmuen, ez naturalezaren gutizien arabera, bainan bai Ebanjelio Seinduko maxima garbien arabera. Oi! zer kontu! Nor ezta izitu behar?

Ebanjelioko erregelaren arabera, solas alfer bat bera, erran nahi da, zerbait arrazoin on gabe erraten den solasa, bekhatu benial bat da. Oi! nere Jainkoa, eta nork eman diezoke gogoari bekhaturik gabe kausituko dela etsamena ikharagarri hortan? Zenbat gogoeta eta gutizia, den gutienetik alferrak? Zenbat hizketa alfer eta funts gabe? Zenbat jan-edan, behatze, phausatze, bertze gauza, bere nahi xoilez bertze arrazoinik gabe, eta hetan kausitzen den atsegin xoila gatik egiten direnak? Eta horiek guziek egiazko bekhatutzat, eta Jainko gure izate guziaren nausiari egiten zaizkon ebasko batzuentzat idukiko zaizku jujamendu ikharagarri hartan. Oi! ala arrazoin baitzuen Agustin handiak gisa hontan mintzatzeko: zorigaitz gizonen idurira garbiena den bizitzeari, baldin Jainkoak urrikalmen-durik gabe etsaminatzen badu, bere jujamenduan eginen duen bezala!

Bizkitartean arima prestu, Jainkoaren beldurrean eta bere buruen gainean atzartasun handi batean bizi direnek, eztute zeren lotsatu. Hekien hutsak erdi ohargabekoak bezala dire; hetaz ere ohartzen diren bezain laster hartzen duten urri-

kiak eta egiten dituzten penitentziek hekien barkhamendua errexki ardieste deraje.

Bainan oi! ala bertzela izanen baita giristino laxo, bere ustez bekhatu handirik gabe, bainan hala-hala Jainkoaren zerbitzuko khar handirik gabe bizi den batez! Halako bizitze batean elemeniaka sartzen dire banitatezko gogoetak, solasak, aphaindurak eta egintzak; onthasunen, ohoren, laudorioen, atseginen gutizia, ta bertze bihotzeko estekamendu deserregelatuak; gezur xumeak, medisentzia arinak, bertze solas, zenbait prestugune kolpatzen dutenak; haserrego, bekhaizgo, jujamendu arinak. Halako giristino batek nekez athera dezake berak ere egun bakhar batean egiten dituen bekhatuen kontua, arratsa ethorri denean Jainkoaren beraren argian etsaminatzen baditu egun hartan gogoan erabili, gutiziatu, erran eta egin dituen gauza guziak. Bekhatu benialak dire horiek bai; bainan izigarriki deboilatuko dute giristino laxo hura Jainkoaren jujamenduan, zeren orduan, mundu huntan ezpezala ezagutuko baitu horien belztasuna, hetaz damuztatu duen Jainko haren majestate guzizkoa, bekhatu xume direlako hetarik beira-



arazi behar zuten asko gisetako arrazoin handiak, eta hortarakotzat ukhan dituen laguntza nasajak.

Bainan, gehiago dena, oi! ala beldur izateko baita juje zorrotz hark asko bekhatu mortal ere kausituko duen halako Kristau laxo baten bizitzean! gizon bezala ta girstino bezala bethetzeko ditugun eginbideak hainitzak dire; hekien gainera bethe behar ditugu zeinek bere bizi-moduko eginbideak. Obligatuak gare gure ahalaz eginbide hekien ezagutzerat; eta horren gainean ezpadugu ekhartzen behar den artha, gure jakitate-eskasak ezkaitu desenkusutzen Jaunaren aitzinean. Bada kasu hortan kausitzen dire laxoki bizi diren girstinoetarik gehienak. Egun oroz bai Jainkoaren, bai Eliza ama Seinduaren manamenduen gainean, aditzen zaje erraten: nik ezpaukan gauza hori bekhatu zela, edo bederen bekhatu mortala zela. Ordean nondik dathor ez jakite hori? Bere faltatik, zeren ezpaitziren behar zen bezala ensejaten legea bere hedadura guzian ikhasterat, Elizako irakhaspenetan kausituz, liburu onak irakurriz, sortzen zaizkoten dudak gizon jakintsun eta Jainko-beldurrekin

argituz. Holako hainitz huts, ta huts mortal eza-  
gutza gabe, bainan bere artha eskasetik sortzen  
zitzajon ezagutza eskas batez eginak, kausituko  
ditu juje argituak bizitze laxo bat daramaten  
Kristau gehienetan.

Hanbat gogoeta gaxto ta hain ardura sortzen  
dire gure Izpirituetan, fedearen, karitatearen,  
garbitasunaren, aphalesgunearen kontra. Askot-  
tan ere aski da gogoeta hetan den gutiena trika-  
tzea, bekhatu mortalez hobendun izateko. Bada  
nork eztakusa, giristino nagi, bere barneko ta  
kanpoko sentsuez hain kontu guti daukanak,  
eztuela, askotan behintzat, behar den atzartasu-  
na ta lehia gogoeta gaxto hekien gudukatzeko ta  
haizatzeko? Gisa hortan zenbat bekhatu morta-  
lez eztu Jainkoak kargatua kausituko arima lazo  
bat, zeinak berak ezpaitzuen uste bazitekela  
haren baithan zenbait bekhatu benial baizen?  
Eta zer bihotz-herstura, zer errabia arima doha-  
kabe harentzat, ikhusten duenean, Jainkoa bait-  
han juje ezti bat, aita on bat kausitu uste zuen  
denboran, eztuela haren baithan edireten juje  
sumintu ta etsai dorphe, bere bothere guziaz  
jazartzerat dohakon bat baizen, eta zeruan

dohatsuekin Jainkoaz gozatzerat zohala uste bazuen ere, debruekin dohala sekulako su elementetan ehortzia izaterat? Eta ala bainan, gaurgero ez erremediorik!

Eta giristino laxo hark egin duelako ongian berean ere zer kausitzen du juje zorrotzak? Hanbat eskas, hanbat hoztasun, hanbat nagitasun, hekien balioa ezdeus bilhakatzen dutenak, hurren bederen.

Gehiago dena, ongia zelako hartan berean zenbat huts, zenbat bekhatu eztu kausituko juje zorrotz eta argitu hark? Zer dire, barur, othoitz, Elizan-ibiltze, jende-arteko omena gatik egin dituen hek? Uргуилuzko bekhatu batzu. Zer dire othoitz, hanbat barrajamendurekin, erdietan zer zerasan berak ere etzakien gisan egin dituen hek? Majestate guzien gaineko haren alderako, errespetu eskas batzu, egiazko bekhatu batzu. Zer dire meza, hain fede gutirekin, hain hozki, hain barrajatuki, erdietan non zen eta zertan zen gogoan hartzen eztuela, entzun dituen hek? Errelijione-gabekeria izigarri batzu, bekhatu mortal batzu.

Eta bereziki sakramenduetan, oi! ala beldur izateko baita, giristino laxo hark asko sakrilejio egin duken! Ala bainan sakramenduak ongi errezebitzekotz, behar da izan artha, eta hartu astia, bere bekhatu guziez orhoitzeko; behar dire erran garbiki, bere nonbre, mueta, eta zirkunstantzia guziekin; behar da izan bere bekhatuez egiazko urriki bat, urriki surnatural, barneko, jeneral eta guzien gaineko bat; behar da hartu xede zina bizi izanen denbora guzikotzat bekhatu mortal guzietarik beiratzeko, baieta hortarakotzat bere bizia eman behar balu ere; horiek guziak gabe hartzen diren absoluzioneak eta egiten diren komunioneak hainbertze sakrilejio izigarri dire. Bada osoki beldur izateko da horien guzien gainean, jujearen begi zorrotzak asko huts kausituko duen giristino laxo baten baithan; asko bekhatu edo bekhatuen zirkunstantzia bera orhoitzeko artha eskasez ahantziak; bekhatuak kofesioan estaliak, edo erdizka eta asko gisetara ber-nuztaturik erranak; eta guzien gainetik absoluzioneak behar bezalako egiazko urriki hura gabe hartuak. Oi! zer estatu izigarritan kausituko diren orduan hainbertze eta ezin erran bezanbat

giristino, hilabete guzietz eta batzutan maizago ere komuniatzen dutenak, bainan behinere osoki ta behar bezain khartsuki Jainkoaren zerbitzuan jarri gabe, hain maiz errezebitzen duten Jesus Jaunaren Izpirituaz bethe gabe, bethi bardin hotz eta nagi direlarik bere bizitzeko maneran! Helas! bere buruak giristino on batzuentzat, hurren egiazko seindutzat dauzkatzite, eta juje ikhara-garriaren aitzinean bekhatuz eta sakrilejoz kargaturik agertuko dire, egiazko debru bezala.

Eta berak egin dituzken bekhatuen gainera, bertzeren zenbat bekhatuz eztu hobendun kausituko juje zuzenak behar bezain erregelatuki bizi ezten giristino bat? Hanbat zin eta burho, hark eskatimak phiztuz, edo mengoarik gabe bertzei kontra jarriz, bertzek egin izan dituztenak; hanbat solas, errelijionea, karitatea, garbitasuna kolpatzen zutenak, eta hetan atsegin hartzen zuelarik edo atsegin hartzen zuelako itxura eginez aditu dituenak; hanbat gogoeta lizun bertzeren Izpirituetan sorthu izan direnak, hanbat solas desonest bertzek erran dituztenak, haren solas eta kanta arinak gatik, haren aurpegiko ta begietako arintasuna gatik, haren jaunzteko, mintza-

tzeko, ibiltzeko, agertzeko manera harroegi ta behar zen bezala ez erregelatua gatik. Bai, zop-hernaka egiten dire munduan bekhatuak, jende gazten ta bereziki neskatxen arintasuna gatik. Helas! ondikozko hejek eztaukate gehienez horiez guzies konturik, zeren eztituzten berek egiten. Askotan ere bere kofesioetan bere buruak desenkusutzen dituzte, bere nahiaren kontra gerthatu zitzaiketelakoan, hartu diotza-ten eskudantziak. Bainan juje zorrotzak erakhu-tsiko deraje, eta haren tribunalean, bihotz-min khiretsekin, berek ikhusiko dute, eskudantzia hek bere arintasuna gatik gerthatu zaizkotela, eta bertzeren bekhatu hek hekien gain direla, zeren bere asko gisetako manera harroegiak gati eginak izan diren.

Oi! nork gogoan har bada zer nahasmendu-tan, zer deboilamendutan erortzen den giristino laxo, nagi bat tribunal ikharagarri hartan, daku-sanean bere burua bere ta bertzeren hanbat eta hanbat bekhatuz kargatua! Etzaikan naski bere burua seindu handi batentzat: ordean urrun da damnatzerat zohala uste baitzuen. Zer bihotz-min, zer errabia beraz haren errabia, ikhusten

duanean, higurikitzen zuen zero eder haren orde, ifernu izigarriak iresterat daramala!

Eta ni askio atzarriki ta erregelatuki bizi othe naiz! Ez beldur izateko juje argitu ta zorrotz hark kausi dezan ni baithan zenbait arrazoin ni damnatzeko? Eta Dabitek, zenbat ere baitzen profeta argitu bat, ta bere lan gozoena egiten zuena Jaunaren legea gau eta egun meditatzeaz, halarik erraten zuen: oi! Jauna, eta nor da bere hobenak ongi ezagutzen dituen, eta dakiena zenbat phondutan eta zertaraino den hobendun zure begietan? Arren beraz, o! Jainko urrikalmendutsua! Barkha dietzadatu nere bekhatuak, ezagutzen ditudanak bezain ontsa, ezagutzen ezitudanak ere, neronek egin ditudanak bezala, bertzen nere zenbait huts gatik egin dituztenak ere. Ez othe dut bada nik Profeta Seindu hark baino arrazoin gehiago, sentimendu beretan sartzeko ta bizitzeko? Hark baino ezagutza gehiago othe dut Jainko-legearen ta bertze nere eginbiden gainean? Hura baino lejalago othe naiz guzien bethetzeko?

Emagun orai Jaunaren jujamendurat dohala arima bat, trebes ibili izan dena, eta bere bekha-

tuak behar bezalako penitentziatzeko fruituez garbitu ezituenena. Oi! zer jujamendu hainaren jujamendua! Zer errabia, halako arima bat bere jujearen aitzinean lehertzen duen errabia!

Nork gogoan har, zenbat bekhatu mortalez, zenbat izurrikeriaz kargatua kausitzen den juje zorrotzak galdetzen dioen kontu hertsian? Norbaitek har dezan gezurrez zin egiteko, haserretzeko, lagunaz gaizki mintzatzeko ohitura edo abituda; norbaiten kontra herran bizi dadin zenbait denboraz, ezin konta bezenbat bekhatu mortal egiten du halakoak. Berezi garbitasunaren kontrako pendura madarikatuak esku hartzen badio, zer bekhatu mortalezko itsasotan ezta pulunpatzen, eta gogoetaz, eta gutiziaz eta bertze asko maneraz? Elhur-lumak erortzen diren bezain usu dabilta haren baithan bekhatu mortalak; hats hartzen duen bezainbat bekhatu mortalez kargatzen da, hola mintzatzeko.

Oi! zer arima, halako arima bat, Jainko garbi, Jainko Seindu, juje zorrotz haren aitzinean agertzeko! Bere bekhatu-oste izigarria, elementia bat bekhatu, bereak eta bertzerenak, egundaino menturaz kontutan hartu etzituenak; bai, izurri-



keria hek guziak bet-betan pharutzen zaizko begien aitzinean; pharutzen zaiko bere belztasun guzian, bere hedadura guzian, bere zirkuntanzia guziekin, egundaino munduan, nihori agertu zaizkon baino beltzago, izigarriago, lotsagarriago agertzen zaizko; monstro batzu dire, alde orotarik sethiatua daukatenak, deboilatzen, phorroskatzen eta lehertzen dutenak. Ikhusiko ditu bere bekhatuak; eta hek, diren bezain izigarririk begien aitzinean pintatuak ikhustez, dio profetak, errabian sarthuko da, hortz-karraske-tan emanen da, guzia ihartuko da. Ikhusiko ditu bere bekhatu guziak bere belztasun guzian, eta hekien ikhustek, ifernuko suak berak baino gehiago thormentatuko du, dio San Gregorio handiak.

Horra beraz, arima madarikatua, diotso juje mugarririk gabe sumintuak, horra non haizen nere zuzentasun garratzaren eskuetarat eroria. Bainan zer monstro agertzen haizen nere aitzinean! Emadak bada kontu lurraren gainean iragan dituan mement, eta egin dituan eginkunde guziez.

Bahiakien eta sinhetsi duk ni nintzela hire egilea, hire nausia, hire jabea: bahiakien hire obligazioe hertsia zela, adin, egun eta mement guzietan ni zerbitzatzea, ta nere lege seindua phondu guzietan begiratzea: hala ikhasi huen, hala sinhetsi duk. Bainan zer egin duk, kreatura errebela, arima madarikatua? Zertan iragan duk hire denbora? Nola bizi izan haiz? Hurren Jainko-rik bazela ere sinhetsi ezpahu bezala. Nere handitasunaz ta bothereaz atrebituki burlaturik, nitaz arnegaturik, debru nere etsai higuinari eman hatzajo; ni baino nahiago izan duk debrua zerbitzatu; hura hautatu ta iduki izan duk hire aitatzat, hire erregetzat, hire jabetzat; hire egunik ederrenak urguileriako ta lohikeriako debru madarikatuari eman izan diotzak, gainerako hire denbora guzia hurren, nere etsajekin bat eginik, iragan duk niri gerla gogorrena ta damu samine-nak egiten, nik egin nauzkian ongiez berez hortarakotzat baliatzen hintzelarik; eztuk kasik phondurik nere lege seinduan, urratu, ostikatu, phorroskatu eztuanik.

Hire Izpiritua hain garbi ilkhi zujan nere eskuetarik. Bainan, hik, hanbat gogoeta izigarritz

bethea iduki izan duk, guzia lohituia, izurrikeriaz kargatua ekhartzen duk nere aitzinerat.

Hire bihotzak etzian ukhan behar, ez maithagunerik, ez afekzionerik, neretzat eta nere araberakorik baizen; eta bizkitartean nere maithaguneak ezin ukhan dik sarbiderik bihotz pustel hortan; bertzeri eman diok zen guzia; hanbat gutzia likhitsez bethea iduki izan duk, eta ifer-nuzko su batez erretzen.

Hire ariman etzujan izan behar nere lege seinduaren araberako sentimendurik baizen; eta bizkitartean eztuk hurren arima hortan iduki, nere legeak madarikatzen duen sentimendurik baizen.

Hire gorphutza bere sentsu guziekin eman neraujan ni laudatzeko ta nere araberako gauzetan enplegatzeko; eta bizkitartean guzia bekhatutan enplegatu izan duk, guzia bekhatupean ehortzia iduki izan duk; hire mihia hanbat zin, burho, solas eta kanta lizunetan; hire ahoa hire atsegin xoiletan; hire begiak hanbat kuriustasunezko ta lohikeriazko behatzetan; hire eskuak hanbat ilhunbetazko egintza likhitsetan: hire gorphutz guzia izigarrikeriazko, monstrokeriazko

bilduma bat eta leze bat egina agertzen duk nere begietan. O, kreatura errebela! O, arima madarikatua! Hori zuan bada, hire egile, hire nausi guzien gainekoa bezala higanik higuriki behar nuena?

Nere urrikalpen xoilaz eta nere ontasun mugarririk gabeaz, bertze hanbatetarik berexirik, hel-arazi hintujan bathajoko ithurri sakraturat; eta han, bekhatuko heriotzetik eta debrua-ren menetik atherarik, berri-berritan neretzat hautatu hintiojan. Non duk bada orduan emana izan zitzajan arropa xuri, garbia? Ikhusak guzia lohitua, zikhindua, phorroskatua. Nik nere graziaz edertu ta phiztu nian arima hori, guzia monstro bilhakatu duk hire bekhatuez, eta heroren kontrako errabia izigarri batez berri-berritan eta hanbat aldiz, herio-kolpea eman diok. Hertsi nitijan hiretzat ifernuko atheak, iraungi hango suak; bihurtu nauzkian zerurako zuzenak. Bainan hik, o! zoratua! Hain erhoki, ezdeus baten gatik, galdu duk zeru eder hau; zabaldu dituk presundegi ilhun hetako athea, berriz phiztu ta bertzela izanen ziren baino miletan ikharagarriago egin suzko elementa hek.

Bathajatzean hautatu hintujan nere umetzat: oin hartan behatu dautak bada, eta ukhan duk neretzat aita batentzat izan behar den esker ona, jautsapena, ikhustatea eta maithagunea?

Hautatu hintujan nere mienbrotzat: gobernatu haiz bada gauza guzietan nere Izpirituaz eta nere maximez? Hortarik urrun, eztuk berzerik egin, ni laidoztatzea, desohoratzea, profanatzeta hire ahalaz lohitzeta baizen.

Hire arima ta hire gorphutza hautatu nitojan nere tenplutzat: bainan, o! sakrilejoa! Zenbat aldiz eta zenbat gisetara eztuk profanatu, likhitsu, lohitu nere tenplu bizi, harrizko ta zurezko Elizak baino miletan sakratuagoa zen hori?

Bathajatzean arnegatu huen debruaz, munduaz eta haragiaz; eta arnegamendu horiek lejalki bethetzetik urrun, guziak hautsi ta ostikatu dituen Debruarekin bethi gerlan bizi behar bidean, hura hartu eta atxiki duk hire aitatzat, hire erregetzat; haren nahikara ta gogoramendu likhitsen arabera bizi izan haiz. Mundua ostikatu behar bidean, hantatu duk, ta haren maxima galdu ta moda ergelei jarraiki hatzaje hire jaunzuretan, solasetan, bertze hanbat gauzetan. Hire

gorphutza niri, urrin onetako biktima bat bezala, mortifikazionearen harmez sakrifikatu behar bidean, eztuk bertzerik bilhatu gorphutz pustel guriki ekhartzea, ederki estaltzea, atseginez asetzea baizen; hari sakrifikatu hatzajo haizen guzia? Hari sakrifikatu diotzak hire Jainkoa, hire zerua.

Bathajatzean nere Ebanjelio Seindua hartu huen hire bizitze guziko erregela bakhartzat. Ikhusak bada herorrek eta jujazak, zer aria, zer egite den hik ukhan dituan sentimenduen eta eraman duan bizitzearen, eta lege seindu, lege garbi hunen artean. O! arima madarikatua! Arima monstrosa! Karakteraz eta izenez giristino, ta bizitzez pagano, eta ez pagano onest ere.

Ezagutzen nuelakotz hire flakotasuna, ta zein etsai bihurriak ukhanen hintuen gudukatzeko. Aphaindu nauskian laguntza handiak nere sakramenduetan. Nola baliatu haiz bada graziako ithurri sakratu hetaz? Zenbat aldiz eztituk urthe osoak iragan bakhetzeko tribunal seindu hartarik urrundua, nere ta nere Elizaren manau sakratue- nez burlaturik? Eta hurbildu haizenean ere, zenbat aldiz ezhaiz hurbildu, niri burla sakrilejoenen

egiteko, nere odol adoragarria ostikatzeko? Zenbat aldiz ezhaiz hurbildu nere mahain sakraturat konzientzia lohi batekin, ezpaituk orduan bertzerik egin, Judas eta borredo berria, ni berriz gurutzezikatzea, eta nere gorphutz adoragarria hire barneko leze beltz hortan bekhatupean ehorztea baizen.

O, arima madarikatua! Hortara behar hintzen beraz erori! Hire gainean nitian salbamentuzko xedeak, eta hi nere loriarat hel-arazteko egin ditian guziak alfer gertha-arazi dituk beraz hire bihotz-gogortasunaz! Iklusak bada orai zer duan merezi, eta zer duan higurikitzeke nere zuzentasun zorrotzetik.

O, nere Jainkoa! O, juje ikharagarria! Egizu, arren, zure graziaren indarraz, arima dohakabe hura, hozpin-kolpe horiek aditzearekin batean, lehertzen duen etsimendutik eta errabiatik zerbait iragan dadin nere arimaren zolaraino, orai balios izan dakikedan denboran, mement lazgarri hartan hekien alferretan aditzeko kasuan ez nadintzat eman.

**III. PHONDUA.** Bat-bederaren kontuak hartu ondoan juje adoragarriak ematen du sententzia;

benedizionezko sententzia arima zuzenaren alde; madarizionezko sententzia arima bekhato-rearen kontra.

Zato, nere aitaren benedikatua, diotzo lehenbizikoari; sar zaite munduaren hastapenetik zuretzat aphaindua den erresumaren gozame-nean. O! zer hitz gozo! Zer benedizionezko ta nahikarazko sententzia! Eta othe da deus, nahi bezain gaitza ta gogorra izanen bada ere, egin behar eztudanik, mement ikharagarri hartan hitz amultsu horien nere jujearen ahotik aditzea merezitzeko?

Eta zer gozo, zer kontentamendu ezta orduan sartzen arima dohatsu hartan! Hara non duen bere salbamenduko egiteko handia ongi bururat ekharria, joan dire joan harentzat nekheak eta guduak, gurutzeak eta atsekabeak, penitentziak eta nigarrak, perilak eta beldurrak. Ez, geroroz eztu debruak asaldatuko, ez munduak lilluratu-ko, ez naturalezako jaidura muthirik gaizkirat behartuko, ez laguneren erasiek ta burlek khexatuko; ez ta gaurgero harentzat izanen, ez hotzik, ez berorik, ez goserik, ez egarririk, ez eritasunik, ez hil-beldurrik. Gaitz ta nahigabe guzietarik



urrun, seindu-seinda guziekin Jainkoa ikhustea, Jainkoa maithatzea, Jainkoaz gozatzea, Jainkoaren laudorioak kantatzea, behinere unhatu gabe, bethi eta eternitate guzian atseginezko itsaso batean pulunpatua, atsegin bizienez ta bethi freskoez horditua; horra geroroz eta eternitate guzikotzat arima bendikatu haren zorthea.

Oi! zer bozkario, zer atsegin arima dohatsu harentzat! Orduan damurik othe du, benedizio-  
nezko sententzia haren aditzea merezitzeko egin, jasan eta pairatu dituenetz? Sobra egin duela, sobra nekhatu dela othe zajo, erretiramenduan, modestian, garbitasunean, mortifikazionean eramanez bere bizia? Hortarik urrun, ez othe du ikhusten haren gudu-borrokek ehunka ta milaka fruituak ekharri dituztela?

Bainan benedizioezko sententzia hori gozo eta atsegingarri den bezain dorphea ta lehergarria izanen da juje ikharagarriak arima hobendunaren kontra ekharriko duen madarizionezko sententzia. Urrun hadi ni ganik, arima madarikatua, diotso fulia guziarekin, oha debruarentzat eta haren lagunentzat phiztua den sekulako

surat. O! Jainkoa, zer sententzia! Zer ozpin-kolpe ondikozko arima harentzat!

Urrun hadi ni ganik; hire Jainkoa ganik, zeinak baxharrik egin baitzezakek hire atsegina ta zoriona, zeinetan baxharrik kausitzen baitituk hik gutizia detzakejan guziak, eta zeinetarik kanpoan ezin edirenen baituk lazeriarik, herramen-durik eta thormentarik baizen.

Urrun hadi nere seinduak ganik. Bizi hintzeno hitaz hanbat artha die; hanbat egin die hi haiz hek bezala, garbitasunean, aphalesgunean, mortifikazionean, gaizkitik urrun bizi-arazi, eta zeruko bidean xuxen ibil-arazi. Bainan hi, sorhajoa, horietarik urrun ibili haiz; bekhatuz kargatua ikhusten haut. Ehitzakete beraz orai nere seinduek bere arthean onhetz; fulia handirekin asperkhunde galdez daudez hire kontra.

Urrun hadi zerutik, loriazko erresuma, atsegin guzietako lekhu huntarik. Bai, hiretzat egin azujan: bainan, o! madarikatua! etsajak esku harturik, munduak lilluraturik, hire sentsu galduek zoraturik, hain erhoki, hain deus guti gatik sakrifikatu duk zeru eder hau; bada orai eta behikotz hiretzat hertsia zagok.

Arima madarikatua. O! zer madarizionezko zopherna isurtzen duen Jainko guziz botheretsuaren hitz horrek arima dohakabe hartarat! Madarizioneak haren Izpirituan; ilhunbetan ehortzia, gogoeta hiragarrienez deboilatua izanen da. Madarizioneak haren borondatean, sekula guzikotz gaizkian izanen da gogortua, sentimendu on bakhar bat ezin ukhanen duen gisan. Madarizioneak arima hartan guzian, ezta hartan geroroz izanen nahasmendurik baizen, errabiarik baizen, izigarrikeriarik baizen.

Eta, Jauna, norat bidaltzen duzu bada, hain lazki madarikatzen duzun ondikozko arima hura? Surat; su-brasa iresle, nere fuliaren haize botheretsuaz, bakharrik nere etsajen thormentatzeko, phiztuak diren hek izanen dire geroroz arima madarikatu horren phartaja, horren janharia, horren edaria, horren hatsa, horren izate guzia.

Eta, Jauna, zenbat iraunen dute bada thormenta lazgarri hekiek? Eternitate guzia. Bai, Jainko izanen naizeno, horren etsaja izanen naiz. Bihotz-min khiretsetan izanen da pulunpatua bere bekhatuen gainean, niri xiritaz egonen zait, marrasketan egonen da, munduko itsaso

guzietan ur den bezenbat nigar isuriko du, eta etzaut urrikalduko; bethi gor eta sorhajo izanen naiz horren alderat, eta sekula guzian eznaiz geldituko horri jazartzetik, horren thormentatzetik.

Oh, Jainko Jauna! Gaztiguaren dorphea! Zure jujamenduen ikharagarriak. Bizkitartean, Jauna, arima dohakabe hori zurea da, zure eskuen lana, zure odolaz erosia, zure gorphutz sakratuaz bazkatua. Bai, nerea zen zuzenez; ordean bertzerena da bere hautu sakrilejor. Ez nau ni ohoratu nahi izan bere egilea bezala, ez zerbitzatu bere jabea bezala, ez maithatu bere aita bezala. Debrua, nere etsai madarikatua hautatu izan du bere nausitzat; hari behatu zajo; hark ematen ziotzan gogoramendu gaxtoei jarraiki zaje. Eta beraz, bere bizian debruaren zerbitzari izan den bezala, boha orai eternitate guzian debruaren lagun izaterat bere etsimenduan, bere errabian, bere gisa guzietako thormentetan.

Jainkoa Jainko gisan mintzo da. Leze ilhunetako atheak zabaltzen dire; debrua agertzen da fulia handitan, eta sekulako su-brasetarat herrestatzen du arima Jainkoaz madarikatu hura.

Horra bi mugak, zeinetarat baitaramate mundu huntan atxikitzen diren bi bidek; prestutasuneko bideak jujamendu ezti batetarat, benedizionezko sententzia batetarat, sekulako loria-rat, bekhatuko bideak jujamendu etsimenduz bethe batetara, madarizionezko eta ozpinezko sententzia batetara, sekulako thormentetara. Hauta zazu bada orai bi muga hetarik zeintara nahi zaren heldu, eta atxikazu zinki hautatzen duzunerat xuxen daraman bidea! Hartarik bate-re errebelatzen bazare, orobat mement beretik eta sekulakotz zureak egin duke.

Gerrorek gure buruak jujatzen baditugu, ezkaitu Jaunak jujatuko, dio Jaundonek Paulok. Juja detzagun beraz gure buruak denboran gare-no; bainan ahalaz juja detzagun Jainkoak berak eginen gaituen bezain garrazki, eta hark arima kondenatuaren kontra ekharriko duen sententzia bera ekhar dezagun gure baithan kondenagarri kausituko ditugun guzien kontra.

Naizen guzia lazten eta iharrosten naiz Jainkoaren jujamenduaz orhoitzen naizenean, dio San Jeromok.

## VI. EGUNA

### Ifernuaz

**I. PHONDUA.** Arima kondenatuak ikhara eta errabia guziarekin aditzen du juje ikharagarriak haren kontra ekhartzen duen madarizionezko sententzia; mement berean kausitzen da sekulakotz suzko lezetan ehortzia; presundegi ilhun hetako atheak zarratzen dire haren buruaren gainean; eta hara haren zorthea sekula guzikotzat finkatua.

Zer sentimendu! Zer errabia arima damnatu hartan, ifernu lazgarri hartan sartzen denean! Huna beraz non naizen ifernuan, dio errabian dagoelarik! Ez, ez, ezta hemen ametsik, ez Izpirituko itxurapenik, huna non naizen debruaren hatzaparretan, guzia deboilatzen eta lehertzen nautela; huna non naizen suzko lezetan ehortzia; bai, alde orotarik inguratua nauka su izigarri hunek, guzia hartua nauka, iretsia nauka, jadan sentitzen dut haren garraztasun guzia. Oi! nere dohakabea! Oi! nere zorigaitza!

Hanbat aldiz nere bizian izan naiz ifernu izigarri huntaz mehatxatua; hunen beldur ere izan naiz. Ordean, oi! nere dohakabea! Eztiot ihes egin; gaitzegi zitzaitan thormentazko lekhu huntarik beiratzeko egin behar zena; eta orai, oi! errabia, huna non naizen thormenta guzietako leze hautan ehortzia.

Duela oren bat, eta gutiago, beira ninteken thormenta izigarri hautarik. Nere Jainkoak onhetsiko zituen nere bihotzeko urrikia ta nere penitentziazko nigarrak. Bainan orai, oi! orhoitzapen lehergarria! Bai, orai ta sekula guzikotz nereak egin du; madarikatuko dut bekhatua, urrikiz leher egiten eta ihartzen egonen naiz; hibajaz isuriko ditut nigarrak; eta horiek guziak alferretan; ez gaugero ezta neretzat erremediorik; suzko presundegi hauk, horra geroroz eta bethikotz nere egoitza; gisa guzietako thormentak, horra geroroz eta bethikotz nere phartaja. O! etsimendua! o! errabia! eta zer bihotz-min khi-rets, zer atsekabe lehergarri arima damnatu haren baithan, gogoeta horiek egitean!

Eta ifernu lazgarri hartan, zein da damnatuen thormentarik gogorrena? Hura da, dio San Kri-

sostomek, Jainkoa galdua izatea, Jainkoaz sekulakotzat gabetuak izatea.

Mundu huntan pena dugu horre sinhestea, zeren guti-guti ezagutzen baitugu zer den Jainkoa, zeren munduak lilluratzen, sentsuek zorazten, mila azdeuskeriek Jainkoa ganik eta gauza Izpiritualetarik urruntzen eta barrajatzen baikaituzte.

Ordean, oi! ala bertzela baitoazi gauzak, hil ondoan! Arima damnatua mundutik ilkhia da, bere gorphutzeko presundegitik kanpoan da: hala deusek ere trabatu gabe, den guzia Jainkoa ganat itzultzen da. Egundaino baino hobeki ezagutzen ditu izate guzien gaineko haren osogune adoragarriak, haren handitasun neurririkgabea, haren seindutasun osoa, haren edertasun bihotz-xoragarriak, haren ontasun miragarria, haren bertze osogune mugarririk eztutenak. Sentitzen du denbora berean, izate mugarririk gabe maithagarri hartaz gozatzeko, haren loriaz beraz jauntzia izateko, haren dohatsutasunaz beraz dohatsu izateko egina zela. Sentitzen du Jainko hark dauzkala baxharrik bere baithan, haren bihotzak gutizia detzaken guziak, eta har-



tarik kanpoan ezitekela izan harentzat hutsik  
baizen, zorigaitzik baizen, thormentarik baizen.

Horiek guziak ezagutzen eta sentitzen ditu  
arima damnatuak: baieta sentitzen ditu mundu  
huntan nihork erran edo gogoan har dezaken  
baino miletan bizikiago. Bainan, helas! ikhusten  
du Jainko hura eta bethikotz galdu duela; eta  
bere faltaz galdu duela; ikhusten du bere burua  
Jainko hartaz gaitzetsia eta laztasun guziarekin  
madarikatua. Oi! zer bihotz-min arima dohakabe  
harentzat! Zer atsekabe khirets eta ezin gehiago  
arrailagarri, Jainko bat galdu izatea, menderen-  
mende guzietan gozatu behar zuen Jainko haren  
madarizione guziez lehertua izatea! Bai, Jainkoa  
bera bere baithan handi, lorios, eder eta maitha-  
garri den bezain, bihotz-min khiretsa eta erdira-  
garria da, Jainko hura galdu izatea, dio San Agus-  
tinek. Nola beraz Jainkoaren perfekzione adora-  
garriek xitzen baitituzte gure endelga ahal  
guziak, orobat gure Izpirituek endelga dezaketen  
baino mugarririk gabe da bihotz-min lehergarria-  
goa, Jainko haren ganik urrundua ta hartaz seku-  
la guzikotzat madarikatua izatea.

Mundu huntan ere gerhatzen da batzuetan atsekabe minik. Laborari batek urthe guzia nekhe handitan iragan eta, uzta eder baten biltzeko bezperan ikhus betza bere alhorretako fruitu joriak harrite batez herrauts bilhakatuak; zer bihotz-min, zer atsekabe laborari harentzat! Batzutan ikhusten dire emazte batzu, bere sen-harrak galdu eta orobat asko urthez desolatuak daudenak, nigarretan urtzen direnak, nahigabez hiratzen direnak, askotan bere bizia ere atsekabearen handiz laburtzen zajenak. Bizikitartean horiek oro eztire ametsik baizen arima damnatuak Jainko bat galdu izateaz sentitzen duen, eta guzia deboilatua, hiratua ta lehertua daukan bihotz-minaren aldean.

Jainko bat galdu dut; oi! bihotz-mina, dio arima deboilatu hark. Jainko batentzat nintzen egina, eta Jainkoa sekulakotz galdu dut! Jainko bat behar nuen mendetako mendetan zeruan laudatu, Jainko baten zorionaz behar nintzen eternitate guzian gozatu; eta, oi! bihotz-mina, oi errabia! Jainko hura galdu dut, eta bethikotz galdu dut, eta Jainko harekin batean galdu ditut on guziak, nere bihotzak gutizia detzaken

guziak, eta Jainko hartarik kanpoan eztiteke neretzat errabiarik baizen; thormentarik baizen, su elementarik baizen. Oi! nere dohakabea!

Oi! zeru ederra, erresuma loriosa! Neretzat egina hintzen; hi baithan erreginatzeke ta nere Jainkoaz gozatzeko nintuan egina. Bainan, oi! errabia, galdu haut, o! zeru ederra hire atheak sekula guzikotzat hertsia dituk; ifernua duk geroroz nere egoitza, suzko tronu bat nere jarlekhua ta etzauntza, su-elementak nere izate guzia.

Oi! zeruko dohatsu loriosak, o! burhaso, senhar, emazte, haurride, ume, adiskide minak! Horra non zaudeten Jainkoaz gozaten, sekulakotz dohatsu: ni ere bada zorion beraz gozatzeko, zuekin batean gure Jainkoa laudatzeko egina nintzen; eztut ordean atxiki nahi izan zorion hortarat zaraman bidea; eta gehiago ezin hartarat bihurtuko naiz: ez sekula guzian ezin helduko naiz zuek ganat; zuek hordituak zauzkatzen atseginezko itsaso hortarik xorta bat ere ezta ni ganat helduko; debru ta damnatu errabiatuak dire geroroz nere lagunak; errabia, nigarrak,

thormenta guziak dire geroroz nere zorthe guzia.  
Oi! nere dohakabea!

Eta zeren gatik galdu dut bada nere Jainkoa,  
zerua, sekulako zoriona? onthasun phixka baten  
gatik, ohorezko lanho baten gatik, mement bate-  
tako atsegin lizun baten gatik. Oi! nere erhoke-  
ria, nere zoramendua! Jainko bat, zeru bat, seku-  
lako loria galdu dut mement batetako atsegina  
gatik. Oi! atsegin lizuna, nahikare madarikatu,  
ala garrazki pagatzen baihaut, eta eternitate  
guzian pagatuko baihaut!

Arima dohakabe, guzia atsekabetan eta erra-  
bian hondatu hura, jauzten da bere Jainkoa  
ganat, bainan zein biziki ta zer indarrekin? Haren  
gutizia, pendura eta ahal guziak gaurgero ezin  
nixon ere phausa ditezke Jainko baithan baizen;  
guziak dire haize handi, sendo batzu bezala, zei-  
nek Jainkoa ganat baitaramate; ez artilleria  
pezatik ilkhitzen den balak eztitu aireak hain las-  
ter, hain bizitik erditik egiten, nola arima hura  
Jainkoa ganat jauzten edo jauzterat entsejatzen  
baita. Bainan, o! bihotz-mina, o! thormenta  
berri, ikharagarria! Jaunaren beso botheretsuak  
baratzen du bere jauzian, eta urrun dauka hain

sendoki bilhatzen duen Jainko haren ganik; mement baxhotxean bere Jainkoaren galtzarretik suzko leze hetako zolarat aurthikitzen balute bezala da. Oi! zer estatu leher eta erdiragarri dohakabe haren estatua!

Bederen-bederen gogotik gal ahal balizake Jainko haren orhoitzapena ta gutizia! Bainan ez; eztiteke harentzat bertze phausa-lekhurik. Mundua harentzat suntsitu da; bai eta mila mundu, batzu bertzeak baino iduri ederragoarekin ager balitzaizko, ez liezeke xoilki beha ere; Jainko bat behar du, phausatuko bada; Jainko bat bilhatzen du bere izate guziaz; Jainkoa ganat jauzten da ezin erranezko indar batekin. Bainan bethi entseju alferrak, bethi thormenta berriak ondikozko harentzat. Ez, eternitate guzian eztu bertzerik adituko Jainkoa ganik, suzko leze hetarat arthiki zuenean, erran zioena baizen: urrun hadi ni ganik, arima madarikatua. Bizi hintzeno, hire bilha ibili nauk; hanbat aldiz eta eurorri bihotzerat mintzatuz, eta kofesor eta predikari haren bidez, eta bertze hanbat gisaz, deithu haut eta hertxatu ni ganat itzultzerat: bainan bethi gorra-rena egin dautak: orai duk nere aldia; bai, bilha-

tzen nauk, errabiarekin bilhatzen nauk, eternitate guzian bilhatuko nauk; bainan joan duk penitentzia egiteko denbora: ez, eternitate guzian ezin kausituko nauk. Hire denboran burlatu haiz nere nahiez, manuez eta debekuez: ni orai burlatzen nauk, eternitate guzian burlatuko nuk hire nahiez, nigar-marraskez, ojhu-xiriritez. Aski monstroa izan haiz hire bizian, Jainkorik etzadin izan nahi izateko; bada orai eztuk hiretzat Jainkorik, eta eztuk izanen eternitate guzian. Bainan sekulan nahiko eztuana, sekulan ezin onhetsiko duana, bethi ukhanen duk hirekin, Jainko etsai bat, Jainko haserretu bat, Jainko thormentatzaile bat, bere bothere guziaz hiri jazartzetik geldituko eztena. Oi! zer hozpin-kolpe horiek arima dohakabe harentzat.

Hortik sortzen dire dohakabe haren baithan sentimendurik izigarrienak, deboilamendu lazgarrienak. Ezin ardiets dezake gozatu nahi luken Jainko hura: beraz herran eta errabian sartzen da haren kontra: ezin goza dezakenazkero, hil eta suntsitu bederen nahi luke. Hortik Jainkoaren kontrako burhoak, blasfemioak eta madarizio-neak, suzko leze hetan aditzen direnak. Eta zer

deboilamendu, zer estira arima dohakabe haren baithan! Bere izate guziaz Jainkoa gozatu nahi, ta bere izate guziaz Jainkoa funditu nahi: nola lehertzen duten arima dohakabe hura, elkharren kontrakoak diren bi nahi, bi gutizia, bata bertzea bezain borthitz horiek! Nola den hetaz nahasia, deboilatua, estiratua! Ez, elkharren kontrako haize muthirienek, batak bertzea itsasoan bathu dutenean, eztituzte hala nahasi hango urak, nola Jainkoaz gozatu nahiak eta Jainkoa funditu nahiak estiratzen eta lehertzen baitute arima damnatua.

Deboilamendu berria! Bere buruaren kontra itzultzen du Jainkoaren kontra daukan errabia guzia. Ala bainan sekulako ilhunbetan ehortzia izana gatik ere, badaki hain lazgarriki madarikatzen duen Jainko hura dela izate, mugarririk gabe perfeta, maithagune ta laudorio guziak zor zaizkona. Bere buruari behatzen dio beraz monstroetako izigarrienari bezala, eta laztasun guziarekin madarikatzen du bere burua.

Sentitzen du dohakabe dela, eta ezin gehiago dohakabe, eta bethikotz dohakabe; madarikatzen du beraz bere izatea, eta mila heriotze izi-

garrienetarik nahi luke balethoz haren ezeztzerat.

Oi! zer estatu arima haren estatua! Zer bizitze hola bizitzea eternitate guzian! Bainan hori bizitzea othe da bada? Ez, dio San Agustinek; damnatuak eztire bizi, eztire hilak ere; hekien estatua da bethi dirauen heriotze bat; bethi hiltzen daude, behinere hiltzeaz akhabatu gabe.

Oi! nere Jainkoa, zure urrikalpenean miragarri ta zure golardoetan nasaja zaren bezain ikharagarria zarena zure jujamenduetan eta asperkudentan! Eta nerorri zer eta zertan othe naiz zure aitzinean! Helas! damnatuak eztire eternitatean zutaz gabetuak, zu denboran galdu zaituztelakotz baizen. Eta ni ere zu galdurik bizi othe naiz? Zu eternitate guzian madarikatzerat daraman estatu batean bizi othe naiz? Oi! Jauna, zorigaitz hortan banaiz, egizu, arren, zure grazia-  
ren indarraz, denborarik galdu gabe, zinez eta osoki itzul nadin zure ganat, eta hatsak diraue-  
no, zure maithagune sakratuan iraun dezadan, eternitate guzian zu maitatzeko, zu laudatzeko, ta zutazgozatzeko.



**II. PHONDUA.** Jainkoa galdua izatea da damnatuen thormenta gogorrena, ez ordean bakharra. Ifernua deitzen du iskriturak thormentazko lekhu bat; han dire thormenta mueta guziak bilduak, eta guziak mundu huntan erran edo asma ditek-en baino lehergarriagoak.

Damnatuek bethi gogoan dauzkatzite bere bekhatuak, eta mundu huntan hartu dituzten mahikarak eta atseginak. Oi! orhoitzapen lehergarria hekientzat, zeren baitakusate hain deus guti gatik galdu dutela Jainkoa, eta erori direla thormentazko leze hetarat; hortan datza ebanjelioan aipatua den eta behinere hil gabe, bethi asikika hariko zaien, bethi hiratuak idukiko dituen har hura.

Orhoituko dire bere bizian ukhan dituzten salbamenduko laguntzez; Jainkoak eman deraizten gogoramendu salbagarriez; aditu dituzten prediku hunkigarriez, ikhusi dituzten prestutasunezko exenplu, egin dituzten irakurtz, kofesoren ganik, burhasoen ganik, adiskide giristinoetarik ukhan dituzten abisu onez. Ikhusiko dute egin zezaketela bere salbamendua, urrun zitezkelala hekientzat galgarri ziren lagun hetarik, hauts zetzake-

tela adiskidetasun eta hantazione izurritsu hek,  
garait zezaketela bere flakeza eta zebe, eta azpi-  
tik atxik bere pendura gaxtoak graziaren lagun-  
tzarekin batean, bertze askok egin izan dituzten  
bezala: ezagutuko dute salba zitezkeela; eta sen-  
tituko dute, ifernu hartarik beiratzeko, eta zero  
haren ardiesteko behar zen guzia egin behar  
zutela, gogorragoa izan balitz, eta mila bizi hor-  
tarakotzat eman behar izan balituzte ere. Bai,  
salba ninteken, diote errabiatuek; hortarakotzat  
laguntza franko ukhan dut nere bizian. Salba nin-  
teken; bainan o! etsia, o! errabia! eznaiz salba-  
tu, eta geroroz ezin salbatuko naiz; iragan da  
guretzat denbora, agortu dire graziazko ithu-  
rriak; ezta geroroz guretzat ifernurik, thormenta-  
rik, errabiarik baizen. Oi! mundu madarikatua,  
hain zoroki hantatu dudana! Oi! diru madarika-  
tua, nere bihotza lothurik iduki dujana! Oi! adis-  
kide madarikatua, hire solas phozoatuez, hire  
agintza enganiozez bekhaturat lerra-arazi nauja-  
na, nere bihotza Jainkoari ebatsi eta amarraturik  
iduki dujana! Zer bada? Zuen gatik, zuekin ihar-  
dukitzea gatik, zuekin hartu ditugun atsegin  
saminak gatik, behar ginuen bada galdu Jainkoa,

galdu zerua, eta gure buruak pulunpatu thormentazko leze hautan? Oi! gure zoroak! Oi! gure erhoak! Helas, suntsitu dire ametsa bezala oho-reak, onthasunak, atseginak, etzaiku hetarik gelditzen, hiratuak gauzkan orhoitzapen errabiagarri bat baizen: orobat suntsitu dire salbamenduko laguntza guziak; eta gu ezkare salbatu, eta eternitate guzian ezin salbatuko gare. Gogoeta lehegarri horietan egonen dire damnatuak bethi ta bethi bere errabiamendu handitan, sekulan horietarik den gutiena ezin aldaratuko diren gisan.

Ifernuan damnatuek eztute adituko nigarmarraskarik baizen, marruma izigarririk baizen, burho ta blasfemio lazgarririk baizen. Han izanen dire guziak errabiatuak batzu bertzen kontra; elkharren madarizionez kargatzen eta lehertzen hariko dire fulia guzian. Bereziki batzu bertzeak gatik damnatu ditezkenak izanen dire elkharren kontra errabiatuenak; hek izanen dire bata bertzearentzat debru izigarrienak; han eztire baratuko elkhar fulia guziarekin madarikatzetik, elkhar lehertzetik. Hanbat burhaso flako bere umendako maithagune itsu batez eta hekiei

damu phixka ez egitea gatik, mundupean sartzerat, lagun galgarrien hantatzerat, Jainkoaren bidetarik urrun bizitzerat uzten dituztenak; eta bai burhaso, bai ume hetarik asko eta asko batzu bertzeak gatik elkharrekin kausituko direnak: hanbat jende gazte, bere solas phozoatuez, bere jaunztura, moda, aire arinegiez, bere asko gisetako harrokeriez bertzeren bihotzetan bekhatuzko hazi madarikatu bat ereiten dutenak, eta hetarik asko batzu bertzeak gatik damnaturik elkharrekin ifernuan kausituko direnak: hanbat adiskide lohi, batak bertzea bilhatuz, batak bertzeari amor eginez, behar bada asko denboraz bekhatupean ehortziak, Jainkoari jazarteka hari zirela bizi izan direnak, eta hetarik asko eta asko, batzu bertzeak gatik, bere bekhaturako aiphamen gaxtoa gatik, eta batak bertzearendako flakeza eta jautsapen kruela gatik damnaturik, elkharrekin ifernuan kausituko direnak; oi! zer debru errabiatuak horiek guziak elkharrentzat! Zer burho izigarriz: zer madarizione lazgarritz hariko diren elkharren lehertzen! Ala garrazki pagatuko baitituzte eternitate luze hartan, mundu huntako mement laburretan batak ber-

tzearentzat ukhan duten jautsapen kruela ta maithagune itsua, eta elkharrekin hartu dituzten atsegin gaxtoak!

Eta zer erranen dugu damnatu dohakabe hek erretzen dauzkan su izigarriaz? Oi! thormentaren lazgarria! Ordean egia othe da ifernuan badela egiazko su bat, damnatuen arimak mundutik ilkhi ta berehala, eta hekien arimak eta gorphutzak azken jujamendutik goiti erreko dituenak? Bai; hori hain hitz ageritan seinalatua zaien Ebanjelio Seinduan, non ezpaitezakegu hortaz duda, gure fedeari ukho eginik baizen.

Egia da beraz ondikozko damnatuak suzko leze batzutan daudela ehortziak, oi! zer thormenta! Nor da suaren indarraren frogantza egin nahi lukenik? Nor da, munduko urhe, zilhar, ohore, atsegin, khoro guziak beretzat ukhatea gatik ere, oren bat bizirik egon nahi litekenik gisu-labe sutan liteken batean? Sobra galdetzea da hori. Nor da, bere nahi minena bethetzea gatik, ikhatz gorrien gainean etzana egon nahi litekenik? Emagun gutiago; beso bat hekien artean sarthua iduki nahi lukenik? Oi! Jainkoa! eta zertan dauntza bada damnatu dohakabea?

Eta nolakoa da hekien thormenta? Oso-osoak supean ehortziak, gainetik su, azpitik su, begietan su, ahoan su, larruan, haragian, hezurretan, fuinetan, muinetan su, alde orotarik eta bere izate guzian su ta lama, guziak su bilhakatuak, olhako sutik atheratzen den burdin puska bezala. Oi! Jainkoa, oi! nere arima, zer estatu, zer thormenta, nor ezta laztuko?

Ifernuko sua ezpalitz ere mundu huntako sua bezalakoa baizen, hartan erran dugun gisan egoitea, bere orhoitzapen xoilaz ikharatu ta laztu behar gaituen thormenta bat liteke. Bizkitartean hain urrun da mundu huntako surik handiena ta borthitzena ifernuko sutik, non Elizako aiten araberak, lurreko surik izigarrienak ezpaitire freskurarik baizen ifernukoarekin aldean. Eta halako su batean bere izate guziaz ehortzia egon behar! zer estatu, zer thormenta!

Mundu huntako sua, Jainkoak bere ontasunaz gure beharretakotzat eman daukun gauza bat da. Bainan ifernuko sua, Jainkoak bere haserrearen haize guziz botheretsuaz, bekhatuarentzat duen higuintz mugarririk gabean, eta bakharrik bere etsajei jazartzeko phiztu duen su bat da.

Eta nork gogoan har, zer indar, zer fulia eman dioen su thormentatzaile hari!

Mundu huntako suak laster suntsitzen du lotzen zajona; eta bizirik erretzea balin bada eza-gutzen diren heriotze-mueta kruelenetarik bat, hura da halaber laburretarik bat: bainan ifernuko suak, Jainkoak eman dioen mirakuluzko berthuteaz, bethi bizirik eta osorik dauka erretzen duena.

Mundu huntako suak eztitu bederen thormenta-mueta guziak paira-arazten; bai ordean ifernuko suak, dio San Jeromek. Asma detzagun mundu huntan ditezken oinhaze ta thormenta suerte guziak, hormatzeko hotza, gose errabia-tua, ihartzeko egarria, buruko, hagineta-ko, hezurretako min kruelenak eta bertze hanbat gaitz gisa. Zer estatu, horiek guziak betan pairatzeko lituzkenaren estatua! Ala urrikalkizun kausi baikenezake haina! Bada horiek guziak eta miliunetan gehiago paira-arazten deraje ifernuko suak erretzen dauzkan dohakabe hekiei. Ifernuan da gaitz eta thormenta guzien bilduma; eta hango thormentak zorrotzak dire, ezin gehiagokoak dire. Zer da ur xorta bat itsasoko ur guziaren

aldean? Hain gutiak dire, deusik ez tire mundu huntako thormenta guziak ifernuko thormenten aldean dio, San Jerome berak.

Erran ere baditeke ifernuko sua nolerebait adimenduaz dohatua dela: ez titu ondiko zko damnatu hek guziak bardin thormentatzen; baina bai batbedera hobendun denaren eredura, eta zertan ere baita hobendun eta hartan bereziki. Oi! eta baldin bekhatu mortal batentzat ere hain lotsagarria bada, zer izanen da leze izigarri hetarat bekhatuz kargaturik jautsiko direnez? Bekhatu mortal duketen bezenbat ifernu ukharenen dute pairatzeko.

Mundu huntako nahigabetan eta pairamene-tan zerbait arintgarri ta solejimendu izaten ohi da Jainkoaren aldetik, konzienziaren aldetik, ahaide, adiskide, bertze lagunen aldetik; eta bethi ere noizpait, biziarekin batean bederen, akhabatuko direlako esparantza bada: ordu hetan nihoiz ere baino hobeki zerukotzat aberas-ten hari delako orhoitzapenak ez tu guti konsola-tzen giristino on bat. Baina ifernua gaitz eta thormenta guzien bilduma da, onik eta arintga-rririk batere gabe Jainkoa bethi bardin sumintua



dohakabe hekien kontra, barneko har kruela bethi bardin alha, su hark bethi krueltasun berekin erretzen, lagunen aldetik bethi burho ta madarizione berak, eta jakin thormenta lehergarrri hek probetxurik gabe daratmatzitela, eta sekula guzian eztirela akhabatuko; horra damnatuen zorthe. Bi mila urthetarat doha aberats gaxtoa ur xorta baten galdez dagoela marruma handirekin; zer da ur ttortta bat suzko itsaso haren kontra? Bizkitartean ezjeus hura gogorki errefusatzen zajo, eta errefusatuko zajo eternitate guzian.

O! ifernua, ifernua! Zein lazgarria haizen! Zer thormentak, zer izigarrikeriak dauzkajan hire lezetan! Oi! nere arima, sinhetsi othe ditut egia horiek? Bainan sinhetsi banintu, bizi izan naizen bezala biziko othe nintzen? Orai ere bizi naizen bezala bizi othe ninteke, zinez eta biziki sinhesten banitu?

**III. PHONDUA.** Urthe bat, egun bat, oren bat ifernuko thormenta hetan egotea guziz dorphe ta lazgarri izanen da; eta bizkitartean damnatuek pairatu beharko dituzte eternitate guzian: hala dio juje ikharagarriak: zoazte, madarika-

tuak, sekulako surat ondikoizko hejek bekhata higuinduko dute, madarikatuko dute; ez ordean graziaren mobimenduz, ez Jainkoarendako mait-hagunerekin, ez barkhamendu ardiesteko esperantzarekin. Hala bekhata bethi biziko da hekien baithan, ta Jainkoa bethi bardin haserrez izanen da hekien kontra, bethi bardin thormentatuko ditu. O! bethi, o! eternitate, zein lazgarria haizen!

Entseja nadin eternitate luze, ikharagarri hartarik zerbait bederen gogoan hartzerat. Baterat bil detzagun primaderan sortzen diren belhar hondo guziak, zuhaitzek ekhartzen dituzten hosto guziak, itsasoaren bazterrean diren hare bihi guziak; ezta Izpiriturik, horien guzien kontua bere baithan har dezakenik. Emagun bada urthe bat, mende bat, mila mende, belhar hondo bakhotxarentzat, hosto bakhotxarentzat, hare bihi bakhotxarentzat: zenbat mende kontu hortan! Eta bizkitartean, iraupen izigarri, gogoan ezin har diteken bezain luze hura, deusik ezta eternitatearen aldean. Noizpait egia izanen da, moltzo hartan belhar hondo, hosto ta hare bihi liteken bezenbat, urthez, mendez eta milium mendez

damnatuek pairatu dituzketela ifernuko thormenta lazgarriak; eta horien guzien buruan, batere pairatu ezpalute bezenbat, horien guzien buruan leze beltz hetan sartzen baljre bezenbat ukhanen dute pairatzeko. Oi! eternitatea, eternitatea, hire lazgarria!

Damnatu batek ezpeza isur nigar xorta bat baizen mila menderik barnean. Bai, noizpait isuri luke, munduko itsaso guzien egiteko aski liteken bezenbat. Halarik ere, ta mende oste ikharagarri haren buruan, eternitatea ezliteke batere gutitua; hastean bezain luzea liteke. Bethi hasten, eta behinere ez akhabatzen, ez gutitzen eztena da eternitatea.

Eta, o! Jainkoa, o! nere arima, eternitatea luze, gogoan ezin hartuzko hura, mundu huntako thormenta guziak hurbiltzen etzaizkoten bezalako thormentetan! Bethi etsimenduan eta errabian! Bethi nigar-marrasketan eta marrumaz! Bethi bardin erretzen, Jainkoaren hase-reak phiztu duen su izigarri hartan! Bethi thormenta suerte guziez lehertua! Eta hori jakin! Eta hala mement guziez eternitate oso haren karga jasaten! Bethi thormentak! Behinere akhaban-

tzarik ez! o! bethi, o! behinere ez! Zuen ikhara-  
garriak! Eta non luke fedea, non luke adimen-  
dua, hemen ezur-muinetaraino ikharatzen eta  
lazten ezlitekenak?

Zer mirakulu da bada hau? Ifernu bat bada;  
eta bekhatuak badire munduan! Ifernua sinhes-  
ten dute giristinoek; eta bekhatua hain frango  
dabila giristinoen artean! Eta kasik giristino  
guziek ifernurat daraman bide zabala daukate!  
Gauzaren harrigarria! Non dugu bada adimen-  
dua?

O! Jainko Jauna! Aithortzen dut zure aitzinean  
ahalgez aurpegia estalirik ta bihotza urrikiz arrai-  
laturik, erhokeria hortan erori naizela; ifernu bat  
bazela sinhesten nuen arren, askotan egin duda-  
la ifernu lazgarri hartan ehortzia izateko behar  
zen guzia. Oi! zer orduko nere erhokeria!

Eta, Jauna, zer izanen zen nitaz orai eternita-  
te guzian, zoramenduzko mement hetan deithu  
banintutzu zure tribunal ikharagarrirat? Oi! zer  
esker, zer maithagune su har zor dautzudan,  
neretzat ukhan duzun urrikalmendu handiaren  
orde! Nolakoak litezke damnatuen sentimen-  
duak zure alderat, thormenta hetarik athera

bazenetza? Ez othe dautzut nik hainbertze, baie-  
ta gehiago zor, zeren hetarik beiratu nauzun?

Badakit, Jauna, handizki hobendun naizela  
zure alderat. Gaztiga nazazu beraz, bainan,  
arren, munduan bizi naizen denboran. Bai,  
hemen jazar diezadazu, zathika nazazu, erre  
nazazu. Bainan, othoi, hil ondoan guphidets  
nazazu, ifernutik beira nazazu. Hori ardiesteko-  
tan munduko gaitz guziek eznaute izitzen.

Eta, Jauna, zer nahi duzu egin dezadan, seku-  
lako thormenta hetarik nere burua beiratzeko?  
Arren, zerorrek argi nazazu horren gainean. Zer-  
tarat nahi ekharria naiz, ditudan guziak, bai eta  
nerorri sakrifikatu behar baniz ere, ifernutik bei-  
ratzeko. Ez gurutzek, ez penitenzia garratzek, ez  
mortifikazione gogorrek, ez deusek ez nau lotsa-  
tuko, zure grazia seinduak laguntzen nauelarik.  
Senda gala, nere burua miletan sakrifikaturik  
ere, ifernutik urrun ta zure hautetsien artean  
kausitzen bainaiz hil ondoan.

Zuetarik nor bizi ahal izanen da su iresle har-  
tan? zuetarik nork jasan ahal izanen ditu sekula  
guziko su-elementa hek? Galdetzen du Isajaz  
profetak.

Gogoz jauts bitez, bizi direno, maiz eta ardu-  
ra thormentazko leze hetarat, hil ondoan ez iza-  
tekotzat hetan ehortziak, dio San Bernatek.

# VII. EGUNA

## Parabisuaz

**I. PHONDUA.** Zeruan seinduek gozaten duten zorionaz zerbait berri jakiteko, galde diozogun Jaundone Paulori;

seindu lorios hark ukhan zuen zoriona hirurgarren zeruraino altxatua izateko. Oh, bainan ihar-detsiko dauku apostolu handi hark: ez, ez ez egin niri holako galderik; zeruan ikhusi eta aditu ditut gauzak, gizonaren mihiak ezin erran detzaken bezalakoak. Edo baitezpada mintzatzerat hertxatzen banauzue, erran diezakezuedan guzia da, gizonaren begiak deus eztuela egundaino ikhusi gizonaren beharriak egundaino deus eztuela aditu, gizonaren lzipirituak deus eztuela egundaino gogoan hartu, ez bihotzak gutiziatu, seinduak zeruan inguratzen dituen loriari ta gozaten duten zorionari hurbiltzen ere zajonik. Apostoluaren hizkuntza horrek, zein handia, zein gozoa, zein osoa dela eztauku hararazi behar seinduen dohatsutasuna parabisuan?

Bainan gauza hobeki, eta mundu huntako ilhunben erdian eman zaikun bezenbatean bederen aditzeko gogoan har dezagun, Jainkoak egin duela parabisua bere hautetsiak, bere zerbitzari lejalak, bere adiskide maite-maiteak saristatzeko. Bai, dio Jainko Jaunak, nere gain hartzen dut nere zerbitzari lejalei bere saria aphaintzea eta ematea. Eta hortarakotzat guti zaizkit bertzela egin ditudan guziak; lur berri bat, zeru berriak eginen ditut nere seinduei dagoten bezalako golardoa ematekotzat. Ikhusagun nor den hola mintzo dena; ikhusagun nor den seinduei bere loria, bere saria ematea bere gain hartzen duena; eta hortik emogun gogoari nolakoa ditek seinduen loria, seinduen zoriona zeruan.

Jainkoak hanbat ekharritasun, hanbat maitzagune erakhusten du liburu sakratuetan bere zerbitzarien elderat; birjina, mundu huntako onthasunak, ohoreak eta atseginak oinen azpian ezarririk, haren maithagune garbiaz bizi direnentzat; arima Jainkoti, munduari behatu gabe, Jainkoari arthoski darraizkonen, eta traba guziak goithurik bere buruak mortifikatzen, eta etsai guziak garaitzen dituztela, haren lege seindua



phondu guzietan begiratzten dutenentzat; egiazko penitent, egin diotzaten damu minen alderat, bere buruei lehenago atsegin eman dioten eredura jazartzen diotenen, eta khar berri batekin haren zerbitzun hari direnentzat; marthir lorios, hari lejal egotea gatik bere bizia gogotik sakrifikatu dutenentzat, liburu sakratuak betheak dire, horientzat Jainko guziz botheretsuak daukan maithagune samurraren seinalez. Zer eztu beraz hekientzat egiten parabisuan Jainko, nahi duen guziaren egiteko antzea ta ahala eskuetan duen hark?

Lurraren ganean ere ikhusi izan dire erregeak, zerbitzu handiak bihurtu zeraizten bere menekoetarik zenbaiti sari ederrak eman deraiztenak. Ordean suntsi bitez horiek guziak gure begien aitzinetik: ohore aphur bat, kargu loriosak, errenta handiak; emagun bere khoroak berak: zer dire horiek, Jainko baten bere zerbitzari lejalei, bere adiskide maite-maitei ematen deraizten sari handien aldean? Ez bertzerik, lanhorik eta itxurapenik baizen. Zenbatez baita Jainkoa zuhurrago ta botheretsuago, munduko errege guziak baino, hanbatez dire handiagoak

eta gozoagoak bere zerbitzariei ematen deraizten sariak, lurreko edozein erregek egundaino nihori eman izan diotzienak baino.

Naturalezan berean gauza espantigarriak egin izan du Jainkoak. Zeruek bere izarrekin, lurak dakharzken hanbat gauza ederrekin, itsasoak bere uhinekin eta arrainekin, egun handi batean erakhusten dauzkigute, guziak bere nahi xoil batez egin izan dituen Jainko haren botherea, haren zuhurtzia, haren ontasuna. Horiek guziak ederresten ditugu; gure Izpirituek endelguz ezin har detzaketen bezalakoak dire. Ez-ez, erraten dauku bizkitartean Isajas profetak etzaitzeltela horietan bara. Nahi baduzue ongi ezagutu Jaunaren botherea ta manifizentzia, zerurat begiak. Har zazue gogoan bere seinduentzat egina daunkan hiri lorios hura, ta han ematen deraizten sari handiak: hiri dohatsu hartan, sari eder hetan bereziki ta bertze nihon ezpezala da ageri Jaunaren botherea, Jaunaren zuhurtzia, Jaunaren manifizentzia. O! seinduen egoitza loriosa, Jainko guziz botheretsu baten lan nautsia! Zer loria, zenbat edertasun, zer aberastasun, zer gozo daukazun beraz zure baithan! Eta

ala dohatsuak baitire zu baithan sartzeko zoriona dutenak! Eta dio San Agustinek, mundu hau guzientzat egina da onentzat bezala gaxtoentzat. Beraz hanbat gauza eder eta miragarria balin bada mundu ageri huntan, nork erran, zer edertasun, zer onthasun, zer atsegin dauzkan bere baithan parabisuak, onentzat bakharrik, ta bere seinduak bere manifizentzia guzian saristatzeko Jainkoak egin duen hiri dohatsu hark?

Zeruko zoriona zertsu den gogoan hartzeko dakusagun oraino zer duen balio, eta zer gostarrik ematen zaikun. Dugun adi horren gainean Jaundone Paulo. Ez, dio apostolu handi hark, mundu huntako nekhe, borroka, gudu, pairamen guziek eztezakete berenaz zerua merezi; eztute berenaz ariarik eta bardintasunik batere zeruko loriarekin, ta han seinduek gozaten duten zorion ezin erranezkoarekin. Ala hainitz aditzerat ematen baitute apostolu handiaren hitz horiek! Eta zer ezagutza ederra ta gora ematen daukuten zeruko zorionaz!

Jaundone Paulo hark berak hanbat nekhe eraman du, lurraren bazter guzietarat Jesu-Kristoren izen seindua banatu nahiz; hanbat jazarkhunde

jasan du Jesusen amorea gatik, ta harenako maithagune sakratuaz guzia hartua zen. Emagun bada miletan nekhe gehiago erabili, jazarkunde gehiago pairatu, ta maithagune khartsuago bat ukhan duela: ez oraino horiekin guziekin etzuken merezi zeruko zoriona, seinduen golardoa.

Marthirek thormenta izigarririk paira dute; batzu gurutzefikatuak, bertzeak zerraz bizirik urratuak, bertzeak basa abrez xehakatuak, bertzeak olio irakitutan emeki-emeki sarthuak eta frijituak, bertzeak su izigarritan guttika-guttika erreak, eta holako bertze asko. Emagun bada gizon bakhar batek pairatu dituzkela marthirio suerte horiek guziak, bai eta Jainkoak mirakuluz bizirik zadukala, asko urthez horiek guziak jasan dituela; ez oraino ezluke merezi zeruko zoriona, seinduen golardoa.

Penitentek garraztasun handirik erabili dute bere gorphutzen gainean; mundutik arras urrunduak; garizuma hainitz urthean, bai eta hurren bere bizi guziak barur, askotan ogian eta urean, edo orobat belhar xoilez; jaunztura arruntak eta latzak; etzauntza gogorra, askotan taulatu hutsa

edo harrokak; lo guti, askotan gau osoak othoitzean; zilizioz, lizifrinez, burdinazko azotez bere gorphutzak sarrazkitzen! Emagun bada penitent bakhar batek, mende osoz, eta asko mendez, egin dituzkela bere buruaren kontrako dorphetasun, naturaleza guzia lotsatzen duten horiek guziek; ez oraino ez luke merezi zeruko zoriona, seinduen golardoa.

Jaundone Paulo, Santa Madalena, bertze asko Seindu Jainkoarendako maithagunez guziz ederresteke den gisan izan dire sustatuak eta urt-huak, eta Andre dena Maria bertze guziak elkharrekin emanik ere baino gehiago. Maithagune khartsu hartaz Jainkoari loria handi bat eman diote, eta haren ariaz gauza espantigarririk egin dute Jainkoaren loriakotzat: emagun bada arima bakhar batek ukhan Jainkoarentzat, mundua mundu denetik hunat seindu guziek ukhan duten maithagune guzia, eta egin dituela egundainoko Jaunaren zerbitzari guziek haren loriakotzat egin duten guzia, arima hark bere gain ukhan duten seindutasun guzia: halarik ere, o, zeruko dohatsutasunaren handia ta miragarria! Ez, arima hark bere prestugune guziekin, bere seinduta-

sun ezin gogoan hartuzko harekin, ezluke oraino merezi zeruko zoriona, seinduen golardoa, Jaundone Pauloren hitzaren arabera.

O! Apostolu handia! Zer hartzen duzu bada gogoan seinduen egoitza haren edertasunez, hango loriaz, han Jaunaren hautetsiek gozatzen duten sariaz? Zer behar zen bada loria handi haren, sari gozo hekien guri merezitzeko? Deusere gutiago, ihardesten dauku Apostolu Jaunaren Izpirituaz argitu hark, Jainko baten ezeztamenduak, Jainko baten pairamenak, Jainko baten heriotzea baino. Bai, erraten dauku, arrazoin zen, asko ume bere lorian sar-ararazi gogo zituen Jainko hark, hekien salbatzailea, heriotzeaz sakrifika zezan.

O! nere arima, nere arima, nolakoa den beraz zeruko Jerusalem haren edertasuna! Nolakoak, zein handiak, zein gozoak behar diren izan han nere Jainkoaren adiskidek gozatzen dituzten onthasunak eta sariak! Sari batzu, gizon eta ainguru guzien seindutasunak, batean emanik ere, ezin merezi dezaketen bezalakoak; sari batzu, zeinen erosteko Jainko batek ezpaitu bere bizia, bere odola guphidetsi. Ikhusazu, dio San Agusti-

nek, zenbat gostarik merezitu daukun Jainko-gizonak zeruko loria hura; har zazu gogoan, ahal badezakezu, haren beheramenduen, haren pairamenen, haren heriotzearen, haren odolaren merezimendu mugarririk gabeak; eta orduan zerbait ezaguturen duzu zeruan higurikitzen zaituen loriatik ta zorionetik.

Suntsi bitez beraz hemen munduko erregek eman detzaketen, eta bizitze huntan goza ditezken nahikara guziak, onthasunak, ohoreak, goratasunak, atseginik bizenak: deusik eztire horiek guziak, Jainko batek bere manifizentzia guzian bere seinduentzat aphaindu duen, eta Jainko batek, bera gizon eginik, bere biziaren eta bere odolaren gostuz merezitu daukun loria mugarririk gabearen, ta gozo ezin erranezko haren aldean, eta ongi sentimendu gabeak, ongi zoroak dire hanbat giristino, mundu huntako nahikarei bere bihotzak estekatzen diotzotenak, Jainko baten odola balio duten onthasunez gozatzerat Jainkoak deitzen dituen denboran, ta hartarakotzat eginak direlarik.

**II. PHONDUA.** Eta zer othe da bada seinduek zeruan gozaten duten, eta mundu huntan erran

eta gogoan har ditezken guziak hurbiltzen ere etzaizkon bezalako golardo ta sari hura? Jainkoak berak erranen dauku; adi dezagun. Ibil zaite nere aitzinean, erran izan zioen patriarka seindu Abrahami, eta erraten dauku bat-bederari; bizi zaite nere gogora, egin zaite seindu; eta hori egiten baduzu, ni nerorri izanen naiz zure golardo guziz handia, gozoa ta nasaja.

O, nere bihotza, aditzen dituk hire Jainkoaren hitz horiek? Sinhesten duk hire Jainkoak egiten dauan agintza handi, manifiko hori? Eta sinhesten baduk, zer kharrekin eztuk gutiziatu behar sari handi ta gozo haren ardiestea? Zer animorekin ez haiz hari behar, hartarat heltzeko behar den guziaren egiten?

Bai, Jainkoak eman nahi deraje bere adiskidei, bere handitasunari dagokon bezalako sari bat; eta nola deus ezpaitu kausitzen halakorik zeru-lurretan, ez eta izan ditezken gauza guztietan ere, bera, bai bera, eta bera den guzia ematen zaje saritzat. Jainko bat saritzat! Jainko bat gozatzeko! Jainko baten loriaz jauntziak! Jainko baten zorionaz dohatsu! Oi! zer seinduen zoriona!



Seinduek zeruan ikhusten dute Jainkoa, ez ordean, dio Jaundone Paulok, mundu huntan bezala, arrazoinamenduz, gogoz eta mirail batean bezala; bainan ikhusten dute garbiki, estalgirik gabe, bekhoz-bekho; ikhusten dute bere baithan eta den bezala. Oi! Jainko bat bere baithan eta den bezala ikhustea, zer atseginezko itsasotan hondatzen ditzun Jaunaren adiskide lorios hek!

Ikhusten dute Jainkoaren izate mugarririk gabe perfet hura; ikhusten dituzte haren edertasun ohoragarriak, haren ontasun gain-gainezkoa, haren bothere nahi duen guzia zeru-lur-ifernuetan egiten duena, haren zuhurtzia ta jakintasun deusere gerizatzen etzajona, haren seindutasun notharik xumena ezin onhets dezakena, haren zuzentasun miragarria, haren urrikalmenu guziz ederretsgarria: hitz batez ikhusten dute Jainkoa bere baithan eta bere osogune adoragarriekin.

Zer loria bada! Zer kontentamendu! Zer gozo Jainko mugarririk gabe oso hura gisa hartan ikhustea! Mundu huntan ere zenbait gauza edereder ikhusten badugu, hanbat gozo sentitzen

dugu gure baithan; bertze guziak ahantzirik, xoratuak bezala gagozko beha. Zenbatez ezta loriagarriago izanen bere baithan eta den bezala ikhustea Jainko, zeru-lurretan diren gauza eder guziak egin dituen, eta bere baithan hek guziak baino mugarririk gabe ederrago den hura.

Jesu-Kristok agertzen du bere loriaren arrajo bat Thaborreko mendian; haren soinekoak elhura bezain xuri, haren arpegia iguzkiaren pare. Jaundone Petri guzia hartua dago horren ikhustez; mundu guzia gogotik joanik, haren nahi ta atsegin guzia liteke bere gainerako egunak mendi hartan iragatea. Eta bada? Baldin Jainkoaren ikhuste haren iduri xoil eta itzal batek hanbatetaraino hartu ta xoratu bazuen Apostolu handi haren bihotza, zer izanen da Jainkoaren loria ta osogune adoragarri hek bere baithan, bere hedadura guzian ta diren bezala ikhustea? Oi! nola dauzkan horrek zeruko dohatsuak loriatuak, xoratuak, ezin erranezko kontentamenduz ta gozoz gaindi eginak! Jainkoa baithan ikhusten dute, ikhusi ta jakin nahi duketen guzia; natura-lezaren arrimu ederra, ta nola gerthatzen eta egiten diren hanbat gauza espantigarri; mundu

huntan zer iragaten den, ta osoki dohatsu izateko jakin behar duten guzia.

Seinduek zeruan maite dute Jainkoa, oi! Bainan zein osoki! Zein khartsuki! Mundu huntan gure bihotzak hartzen ditu batzutan hain maithagune handiak eta beroak, senhar-emaztek, ume burhasoek, eta adiskidek, batzuek bertzentzat; bethi elkharren ganat lehia, elkhar gabe ez onik, ez gozorik. Jakin dezagun bizkitartean, egundaino nihorentzat ukhan duen maithagune suharrena eztela hormarik baizen, seinduen bihotzak zeruan Jainkoarentzat sutan dauzkan maithagune handiaren aldean.

Mende guziek ederresteko ukhan dute, Jaundone Paulo batek, Santa Madalena batek, bertze asko seinduk Jainkoarentzat ukhan duten maithagune guziz khartsua, oraino mundu huntan zirelarik ere. Bizkitartean, oi! ala horietarik urrun baita seinduak zeruan erretzen dauzkan maithagunerat! Mundu huntan ezpezala ezagutzen dituzte Jainkoaren osoguneak, haren edertasunak, haren gisa guzietako maithagarritasuna. Gauza egin guzietarik laxaturik, Jainkoa ganat daude bakharrik itzuliak, Jainkoa baithan daude

guziak pulunpatuak. Hekien bihotzak maithagunezko su-khalda batzu dire beraz; diren guziak dire maithagunetarat aldatuak, maithagune bilhakuak bezala.

Eta bethi ikhusten hain khartsuki ta bereizate guziaz maite duten Jainko hura, bethi hartaz gozaten, bethi hari josiak, harekin bat eginak, haren baithan atsegin guzietako itsaso batean bezala hondatuak; oi! zer deskantsu, zer atsegin, zer gozo, zer dohatsutasun! diru-gose batek, aphur bat nekaturik, bil beza haren bihotza asetzeko behar den bezenbat urhe ta zilhar; zer haren atsegina! zer haren loria, gora igannahi bat, guti usterik, kausi bedi kargu handitarat, enplegu loriosetarat altxatua, burua hurren itzuliko zajo atseginez eta kontentez. Elkhar handizki maite dutenak, denbora luzez bata bertzeaganik urrunduak egon ondoan, berriz elkhar ganat bitez; oi! zer hekien kontentamendua! Zer mement gozoak iragaten dituzten elkharrekin! Kasuan izan dena da bakharra hori ongi gogoan har dezakena.

Oi! nere arima! Oi! nere bihotza! Eta zer izanen da bada parabisuan? Oi! nolakoa den sein-

duen deskantsua, seinduen bakhea, seinduen gozoa, seinduen zoriona, Jainkoaz gozatzean! Egundaino lurraren gainean gizonaren bihotzak hartu duken maithagunerik suharrena ezta hor-marik baizen, seinduek zeruan Jainkoarentzat duten maithagunezko su-khaldaren aldean; mundu huntan gehienik maithagarri zaizkigun gauza guziak eztire itsustasunik baizen, izigarrikeriarik baizen, Jainko haren edertasun ta mait-hagarritasun mugarririk gaben aldean. Ez, beraz, ez; mundu huntan gizonak khartsukienik maitha-tzen eta bizikienik gutiziatzen duen gauzaren edo adiskidearen kausitzeaz duken atsegin guzia fitsik ezta, Seinduak Jainkoa ikhusteez, Jainkoaz gozatzeaz hordituak dauzkatziten ezin erranezko atseginen ta gozoen aldean.

Mundu huntako atsegina ezta behinere osoa; bethi zer edo zer eskas da osoki ta alde guzieta-rik dohatsu izateko. Bainan seinduek, Jainkoaz gozatzean, kausitzen dute zorion osoa ta eskasik batere gabea. Jainkoa da, dio San Agustinek, hekien bizia, hekien osasuna, hekien loria, hekien deskantsua, hekien on guziak, eta eztu-kete bertze deusen ere gutiziarik.

Mundu huntako atseginak histen dire denborarekin, batzutan laster ere bai. Ordean seinduen, atseginak zeruan bethi bardin fresko, bardin berri, bardin bizi izanen dire. Bethi Jainkoaz aseak, eta bethi Jainkoaz gose; bethi Jainkoaz egarri, eta bethi Jainkoaz hordituak; horra zeruko egoile lorios hekien estatua, dio San Agustinek. Zer asma diteke loriagarriagorik, zorion osoagorik?

Hortik ere liburu sakratuak mintzo zaiku seinduen zorion hartaz, bazkari batez bezala, zeinetarat gonbidatuak direnek hartan kausitzen baitituzte bere nahikara guziak; eztei batzuz bezala, zeinetan sentsu bakhotxa dagokon atseginaz gaindi baitago; froga ta dasta bai, bainan hitzez ezin erran diteken bozkariozko gaindidura batez bezala; gozo handi, gozo bethe, seinduen bihotzak osoki ta alde guzietarik aseak ta dohatsu eginak dauzkan batez bezala.

Horiek guziek aditzerat ematen daukute seinduen zoriona zeruan guziz handia, osoa, ta mundu huntan dasta ditezken atsegin guziak haren aldean khirestasunik baizen eztiren bezalakoa dela. Bainan funtsean, ez mundu huntako

ilhunbetan gabiltzako, ezin ezaguturik dugun sekular zorion haren handitasun ta gozotasun guzia. Gure eginbidea da, hartaz dakiguna maiz gogoan erabiliz, haren ardiesteko gutizia handi bat bethiere gure bihotzetan idukitzea, ta hartarakotzat behar dena lejalatasun ta jarraitutasun guziarekin egitea.

**III. PHONDUA.** Egiak errega profetak arrazoin zuen errateko, egun bakar bat Jainkoaren etxe dohatsu hartan eta seinduen lorian iragana hobe dela, mila urte munduko palazioetan eta atsegin guzien erdian iraganak baino. Bai, egun bakar batez Jainkoa bere lorian ikhusi ta haren zorionaz gozatzea gatik, den zer den egiteko liteke.

Ordean zertan mintzo gare hemen egun batez? Eternitate guzia, deusere gutiago, horra ezin erran bezalako zorion haren iraupena. Ez, sekular enganiorik ezin sarthuko da hekien adimendu, Jainkoaren egiak berak argitzen dituentan; ez, sekular bekhatuak ezin khutsatuko ditu hekien bihotz, Jainkoaz osoki hartuak ta Jainkoari hain juntki josiak. Ezta beraz sekular Jainkoa hekien alderat aldatuko. Sekular ezin eroriko

dire beraz jarriak dauden tronu lorios hetarik; sekulan eztire histuko buruan dauzkatziten khoro ditziantak; hekien gozoa, hekien zoriona mende guzietakoa ta eternala izanen da.

Oi! nere arima, zer da hau? Mundu huntan nekhetan eta penetan bezenbat denbora parabisuan deskantsuan eta atseginetan, hori ziteken zuzentasunak galdetzen zuken guzia; eta hola egiterat Jainkoak, ezkinduke zertaz errenguratu. Bizitze huntan neketan oren bezenbat urthe ta mende parabisuko lorian, hori liteke sarizko frankotasun bat; guk merezi edo galdetzeko zuzen ginduken baino gehiago liteke. Bainan hori guzia etzajo aski dela; hori guzia deusik etzajo gure Jainkoari. Urthe banaka batzu beheramenduan, ta mende guziak zeruko goratasunean ta tronuetan; urthe banaka batzu etsajaren eta naturaleza gaxtoaren kontra guduan eta borrokan, eta mende guziak Jaunaren bakean eta deskantsuan eta gozotasun guzietan; urthe bakhotx batzu nigarretan, penitentziazko garraztasunetan, eta behar bada pairamenetan ta gurutzetan, eta eternitate luze eta ezin akhaba diteken hura Jainkoaren zorionaz beraz gozatzen, atseginezko



itsaso batean hondatua, nahikara guzien erdian, gozo guzietz gairdi eginak eta hordituak. O, zer golardo handi! zer sarizko frankotasun, bai legez, ala gure Jainkoa nasai ta miragarri agertzen baita bere hautetsien alderat! eta nik zer behar dut gehiago, haren zerbitzu seinduan behin bethikotzat finkatzeko, ta khar guziarekin hari jarraikitzeke?

Seinduen zoriona, zorion bethikoa oraino, zeren bethi baitirau geldi-erterik batere gabe, eta gaitzez batere nahasia izan gabe bizitze huntan ere zerbait nahikara kausitzen da, zerbait gozo dastatzen da. Bainan zenbat nahigabe, nahikara hekien artean! zenbat khirestasunez eztire nahastekatuak gozo hek? Osasun edo ont-hasan-eskas, Izpirituko griña, konzientziaren aseki, jaiduretarik ta gutizia minetarik bethi kasik sortzen diren barneko nahaskeria, lagunent aldetik bekhaizgoak eta erasia gaxtoak, adiskident aldetik deslejaltasuna, edo heriotzeaz edo bertzela hetazko gabea, senhar baten, emazte baten, ume batzuent aldetikako desgustuak; nork daki zenbat gisetako gaitz eta nahigabe darraizkotent Adam hobendunarent umei mundu huntan

tan? Askotan dohatsuenak direla, eta nihondik eskasik batere eztutela dirurtenak, dire gurutze phisuenak kharrajatzeko dituztenak, nahigabe saminenez hiratzen daudenak. Bai, arrazoin handirekin deitzen da ondikozko lur hau nigarrezko harana, ta herioaren itzala.

Ordean Parabisua da egiazko bizien lurra, egiazko dohatsuen egoitza. Nola da ifernua gaitz guzien bilduma, onik batere gabea, orobat da Parabisua, on, nahikara, atsegin guzien bilduma, gaitzik batere gabea. Dohatsu hekien Izpiritua, bihotza, izate guziak osoki dagozko Jainkoari josiak, ta haren nahi seindua da hekien izate guziaren erregela bakarra. Eztire beraz batere hukituak, bizitze huntan arima Jainkotiak hanbat penatzen dituzten gogoeta gaxto ta bekhaturako jaidura hetaz, eta Jainkoaren bakeak osoki ta trabarik gabe erreginatzen du hekien baithan.

Hiri dohatsu hartako egoile guziek sentimendu berak dituzte, eta sentimendu garbienak, sentimendu Jainkozkoenak. Maithagune bizienak dauzka guziak Jainkoa baithan bat eginak, eta ezta hekien artean, ez bekhazgoarik, ez supher-

tasunik, ez erasia gaxtorik, ez bata bertzeaz errenguratzeko arrazoinik den xumena.

Gaitz guzietarik gerizean izanen dire hekien gorphutzak; ez goserik, ez egarririk, ez hotzik, ez berorik, ez nekerik, ez oinhazerik, ez eritasunik, ez hil beldurrik ezta izanen Jaunaren egoitza seindu hartan, dio Isajaz profetak. Ezta beraz han adituko errengurarik, ez hats beherapenik; Jaunaren laudoriozko eta eskeronezko kantikek errepikatuko dute bakharrik hiri dohatsu hartan. Oi! zorionezko egoitza! Ala sorhajoa bailiteke zu ganat heltzeko nahirik minena hartzen ezlukena!

Eta badakite Jaunaren dohatsu hekiek, gozaten duten zoriona ezin galduko dutela, sekulan etzajela gutituko, ez histuko; eta horren ariaz erran diteke zorionezko eternitate bat betan eta mement guziez gozaten dutela. Baiki, halakoa da gure Izpirituaren indarra; gauza urrunenak hurbiltzen ditu, sentitzen balitu bezala; eta askotan ethortzekoak diren gauzen orhoitzapenak, gauzek berek bezain biziki ukitzen gaituzte. Horrengatik erraten da, ondikozko damnatuek mement bakhotxean jasateko dutela thormentazko eternitate oso bat. Bada gisa berean eta

arrazoin bera gatik zeruko dohatsuek betan gozaten dute zorionezko eta gozotasunezko eternitate bat.

O, zorionezko eternitatea, noiz sarthuko naiz zu baithan? O, Jaunaren etxe dohatsuko atheak, noiz idekiko zarete ni errezebitzeko? O, nere Jainkoa, zorion eta gozotasun guzien ithurri bizia, noiz helduren naiz zu ganat? Noiz harturen nauzu zure bozkarioan?

Ez beraz, ez, nere arima, ezkaitu enganatu Jesu-Kristok, erran daukunean, sarizko neurri handi bat, ongi bethea, ongi zaphatua, eta gaindi eginen zuena emanen zitzajela, haren lege seindua arthoski begiratuko zutenei. Bai legez atxikitzen du, bere hitza.

Ezta beraz batere harritzeko, baldin hanbat errege ta erregina; munduko bertze hanbat handi ta aberats, inguratzen zituen onthasun, ohore ta atseginei, basa-phozi bati bezala behaturik, bakharrik zerukotzat bizi izan badire; heta-rik asko ere, mundutik arras ilkhirik, mortueterat, komentuetarat joan izan badire, gorderik eta garraztasun guzietan bizitzerat. Ezta harritzeko, baldin hanbat milium, adin, estatu ta herrunka

guzietako martirek, gizonek bezala emaztekiek, eta neskatxa gazte-gaztek ere, gogotik pairatu badituzte ifernuak asma-araz zetzaken thormen-ta gisa guziak. Ezta harritzeko, baldin hanbat jende gaztek, munduak alde orotarik iduririk ederrena egiten, eta gisa guzietako nahikarak eskeintzen ziotzoten arren, guziak oinen azpian ezarri badituzte, Jesu-Kristo hautatzen zutelarik bere espos bakhartzat, bere gozo guzia egiten zutelarik harentzat bakharrik bizitzeaz, ta haren ondotik gurutzea kharrajatzeaz. Ezta harritzeko, baldin hanbat mila-miliun arima prestu, zer nahi gudu naturaleza gaxtoaren aldetik jasateko, zer nahi gaitz eta nahigabe pairatzeko ukhana gatik ere munduaren aldetik edo bere gorphutzean, Jesu-Kristoren lege garbia phondu guzietan hain arthoski, hain lejalki begiratu baitute. Bazakien horiek guziek, hola eginez, sekulako zoriona ardietsiko zutela, eta loriazko karga hark merezi zuela, den zer den egin zezaten haren seguratzeko. Eta orai badakusate segurki eztirela enganatu, eztutela sopra egin; badakusate hekien guduek, borrokek, nigarrek, penitentziek eta paimenek, ehunka, milaka ekharri dituztela frui-

tuak, fruitu ezin erran bezain gozoak, menderen mende guzietan, bere zorion handitan, gozatuko dituztenak.

Bada ni ere zero berak, zorion berak higurikitzan nau, eta egin dezaket, Jaunaren laguntzarekin batean, orai han daudenek egin izan dutena. Miletan dohatsu ni, hortarakotz behar den guzia egiten badut! Zorigaitz niri, ezpadut egiten!

O, Jauna, zure loriarat heltzen naizenean, izanen naiz osoki dohatsu ta atseginez gaindi, zioen errege profetak.

Lanak eta nekheak izitzen bagaitu, sariak anima bekitza, dio san Bernatek.

# VIII. EGUNA

## Jainkoaren eta debruaren zerbitzuaz

**I. PHONDUA.** Ezin bertzea da guretzat; baitezpada izan behar gare edo Jainkoarenak edo debruarenak, edo Jainkoaren ume lorios, edo debruaren ondikozko esklabo. Bekhatutik, bederen-bederen bekhatu mortaletik beirutzen bagare, Jainkoaren adiskide ta ume gare, bainan bekhatu mortal bakhar bat egiten badugu, debruaren gathetan amarratzen gare, debruaren esklabo dohakabe egiten gare. Egun behar dut beraz hautatu bi nausi horien artean, bainan hautatu nere bizi guzikotzat, eta orai hautatuko dudana ganik sekulan ez aldaratzekotan.

Bada hautu hori ezagutzarekin ta zuhurki egiteko, ongi gogoan hartu behar dut zer eta zerik diren bi nausi hek, eta hetarik zeinek duen esku ta zuzen nere gainean.

Zer da bada Jainkoa? Izate bat, bere baitharik dena, zeina baino hoberik ta perfetagorik ezin asma baititeke; Izate bat guziz handia ta majes-

tatez bethea, zeinaren aldean munduko goratasun, handitasun, distiadura guziak ezpaitire herrautsik eta itxurapenik baizen; izate bat guziz botheretsua, zeru-lurrak eta hetan diren guziak hitz bakhar batez, nahi xoil batez ezdeusetik athera dituen, eta diren gauza guziak gobernatzen dituen, zerbait izan eta gerta dadila baitezpada nahi duenean, deusek, ez nihork ezin bara dezaken gisan.

Jainkoa da izate bat guzia ederra! Eta edertasun guzien ithurria, mila-milium dohatsuk zeruan ageriki dakusatena, haren ikhustiaz guziak loriatuak, guziak xoratuak, behinere unhatu ez desgustatu gabe; izate bat guzia ona, diren on guziak egiten eta ematen dituen; izate bat guzia seindua, gaizkirik den xumena ezin onhets dezakena; izate bat guziz zuzena, zoini berea ta merezi duena zuzentasun guzian ta haren handitasunari dagokon bezala ematen dioena, gaizkiari gaztigua bezala ongiari golardoa. Bai hori guzia da Jainkoa, bai eta mundu huntan erran asma diteken baino mugarririk gabe perfetagoa eta maithagarriagoa.



Bainan zer da debrua? Izpiritu bat, egia bada ere, Jainkoak ona egin zuena, asko dohain ederez aberatsu zuena, bainan bere bekhatuaz arras galdu dena, zeru-goratik ifernuko zolarat botatua izan dena, eta geroztik hunat guzia gaizkirat emana, gaizkian gogortua dagoena, guzia etsimenduan, guzia errabian; bethi Jainkoak jazartzen dioena, eta bethi bera Jainkoaren kontra enferratua, bethi haren kontra blasfemiotan eta burhotan, haren loria suntsitzea, ta hari bere zerbitzariak arrogatzea baizen bilhatzen eztuena. Debrua da Izpiritu gaxto bat, gaizkian baizen, bekhatu lotsagarrienetan baizen onik eztuena, bekhaizgoak erretzen dagoena, bere bekhatuaz galdu duen bethiko zorionerat gizonak deithuak ikhustez hartarik hekien urruntzen hari dena bere ahal guziez, hek berekin batean sekulako thormentetarat herrestatu nahiz. Debrua da beraz ilhunbetako printze bat, Jainkoaren eta gizonaren etsai madarikatu bat, mundu guziaren itsutzen eta enganatzen hari dena bere ahal guziez, lurraren gainean gerthatu izan diren gaizki ta deserregelakeria guzien lehenbiziko ithurburua.

Ea bada, nere arima; horra bi nausi; ezin bertzea duk hiretzat, horietarik bata edo bertze zerbitzailea; baitezpada izan behar haiz edo Jainkoarena edo debruarena. Hautazak bada: ezen gauza hire eskuan duk, hire nahian zatzak guzia. Zenbat ere gaitz iduritzen baitzauk debru gaxto hari buru egitea, eta Jainkoak bere zerbitzarietarik galdetzen duen gisan bizitzea, Jainkoa hire alde izanen duk, hark lagunduko hau, eta haren laguntzarekin batean, behar den guziaren egiteko gai izanen haiz; hala egin izan die hi bezalako hanbat miliunek.

Hautazak beraz, o! nere arima, bainan zinez eta bethikotz: zein nahi duk? Jainkoa ala debrua? Norena nahi haiz izan? Izate mugarririk gabe handi, botheretsu, on, seindu, maithagarri harena, ala Izpiritu ilhun, gaxto, bekhaizti, errabiatu, nahastari, hire galtzea baizen bilhatzen eztuen harena? Ikhusak, eta etsaminazak ongi egitekoa, eta egik hire hautua: zein nahi duk? Jainkoa ala debrua? Niholere ez haiteke izan biena; hautazak bata edo bertzea.

Oi! nere Jainkoa, bainan dudan eta kordokan egotea bera ez othe liteke zorakeriaren muku-

rrua? Zu bezalako izate oso, adoragarri, maithagarri, zeru-lurretan diren bihotz guzien preza-mendua, adorazioneak, maithagunak eta este-kamenduak zure perfekzione adoragarriez merezi ditutzuna; bai, za, o! nere Jainkoa, balanzan ezar Izpiritu ilhun, Izpiritu gaxto, debru madarikatu, mespreziorik eta aborrimendurik baizen merezi eztuen harekin? Zer zentzu-errebeskeria! Eta zer laido samina liteken hori zuretzat, o! nere Jainko Jauna!

Eta bada, nere arima, ez othe haiz askotan ere erori zorakeria hortan? Ez othe haiz urrunago ere joan izan? Jainkoaren eta debruaren artean kordokan ematea ez azki izanez, ez othe duk Jainkoa aldebat utzi, debru madarikatuari hire bihotza emateko, haren ondikozko esklaboen artean, harren bandera higuinaren azpian hire burua ezartzeko? Hortaz jujatzeko, adizak zer dioen Jainkoak berak. Debrua da urguilusun nausia ta erregea; ez othe duk bada egundaino urguilurik eta banitaterik sartzera utzi hire Izpirituan eta bihotzean, hire jaunzturretan eta egiteko manera guzietan?

Debrua da bekhaizgoaren ithurria, ta bekhaiztiaren nausia; ez othe duk bada egundaino damurik ukhan bertzeren ongiaz eta nahikarez, bertzeri erakusten zitzaizkoten arthez eta ikhustatez?

Debruaren ofizioa da arimak hiltzea, eta zer nahi moldez bertzei bekhatu egiteko bidea ematen diotenak debruaren seme-alabak dire! ez othe haiz bada egundaino nihorentzat izan bekhatu egiteko bide ta okhasione, hire solasez, hire harrokeriez, hire arinkeriez, hire konplasentzia eta jautsapen gaxtoez?

Debrua da gisa berezi batean Izpiritu lohia, likhiskeria hetan baizen gosturik eztukena; heta-rat lerratzen dena haren gathe higuin, phisu, madarikatuetan amarratzen da; ez othe duk bada egundaino zaurthu garbitasuneko prestugune Jainkozko, bainan haurtzkorra, gogoeta xoi-lez baizen ezpada ere?

Azkenean Jainkoaren umek eztute bekhatu-rik egiten; bekhatuk egiten duena debrua ganika-koa da, debruaren esklaboa da, debruaren umea da; hortan dire ageri Jainkoaren umeak eta debruarenak; ez othe haiz bada egundaino bek-

hatuz khutsatu? Behar zen artha guzia ukhan othe duk, Jainko-legeak manatzen zaujan guzia ikhasteko, eta behar zen lejaltasuna phondu guzietan haren begiratzeko?

Eta baldin Jainkoaren beraren erran horien gainean ikhusten baduk, o! nere arima, bekhatua hire baithan sartzerat utzi dukala noizpait, eta hartaz, Jainkoari gibelaz jarririk, debruari eman hatzajola, oi! nolakoa izan den orduko hire zoramendua! Zer ahalgak ez hau guzia estalia iduki behar? Zer urrikik eztik hire bihotza osoki arrailatu behar? Oi! nere Jainkoa, zure urrikal-mendu mugarririk gabeaz, arren, barkha dietzadatu zoramenduzko mement hetan egin daukitzudan idoi kruelak, damu saminak. Hekien alde-ra nere burua kondenatzen dut penitentzia garratzetarat nere bizi guzikotzat: lehenago mila heriotze, halako zoramendutan berriz eroriko naizen baino.

Jainkoak beraz, bere izatez, eta bera dena zeren den, duda gabe merezi du preferentzia edo lehenuntza debruaren gainean; merezi du, Izipiritu madarikatu hura arras alde bat utzirik, nere bihotz guziaz maitha eta nere indar eta

ahal guziez zerbitza dezadan, denazkero izate bat mugarririk gabe osoa ta maithagarria. Gauza bera galdetzen dute Jainkoak nere gainean dituen zuzenek eta eskuak ere.

Badakit eta sentitzen dut ez naizela ni nerorri egin. Nork egin nau bada? Ez bertzek, baizita-re Jainkoak; hark emanik ditut Izpiritua ta biho-tza, begiak eta mihia, eskuak eta zangoak, hatsa ta bizia, arima ta gorputza bere sentsu ta ahal guziekin, deusere ezta nere izate guzian, ez eta gozaten ditudan eta zerbitzitzen naizen gauze-tan ere, Jainkoaren ontasunetik eztathorrenik.

Berriz debruak zerbait eman othe daut? Eta zer eman ziezakedan, ilhunbetako printze, Izpiri-tu madarikatu hark? Niri ongi egitetik urrun, ezta haren aldea ezpanau ohakoan itho, ezpanau suan erre, ezpanau mila estropuz gal-arazi, mile-tan bizi az gabetu. Ezen guzia gaizkirat jarria da; eztu bertzerik bilhatzen, gu gaitzez lehertzea baizen; eta Jainkoari eskerrak, dio San Agustinek, ezpadauku, egiten daukun baino miletan gaitz eta bidegabe gehiago egiten.

Bada horiek hola direlarik, zer zuzen-kontra-keria, zer ebaskoa izigarri ez liteke ni baithan,

nerre Jainkoari, nere egile bakharrari, nere jauz-tsapena, nere maithagunea, nere obedientzia errefusatzea? ezen ez nau fits baten, ez mement baten, ez eginkunde xumenaren ere nausi utzi: beretzat, bere loriakotzat, bere zerbitzukotzat egin nau naizen guzia; hortarakotzat ere bizi-arazten nau mement guziez; eta nola hura baita diren gauza guzien lehen ethorburua, bekhatu xoilaz landan, nahi du, ta haren Jainko izateak berak hala galdeturik, baitezpada nahi du, hura bera izan dadin, diren eta egiten diren guziguzien azken hel-burua edo xedea. Gauzarik den xumena egin dezadan, munduari atsegin egiteko, nere atseginak hartzeko, nere naturalezari ta jaidurei bere nahikarak emateko, zenbait arrazoin onest izan gabe, hori bera deserregelamendu bat da, nere nausi guzien gainekoaren zuzenen kontrako eskudantzia bat da, egiten diodan egiazko ebaskoa ta arrogazione bat da.

Oi! nere Jainkoa, eta zer othe naiz bada ni zure begietan? Oi! zer egiteko molde lotsagarri iduki dudan zure alderat! Aithortzen dut bai ahalge ta urriki minekin, nere joan-ethorrietan, nere jan-edanetan, nere egintzetan eta solase-

tan, asko ta asko aldiz nere nahi hutsez, nere atseginak hartzea gatik, nere jaidurei sentsuei bere nahikarak ematea gatik, ibili ta bidatu naitzela. Eta hortaz beraz, oi! nere Jainkoa, ebatsi dautzut nere izatearen ta biziaren zathirik handiena. Zer zuzen-kontrakeri izigarri! Lurreko nausi batek nahi du, haren sehiak beren denbora guzia haren zerbitzun enplega dezan, eta arrazoin du. Mahasti bat landatzen duenak nahi du mahasti hark harentzat ekhar detzan fruituak, eta arrazoin du. Bainan, Jauna, nausi hek sehi haren, mahasti haren nausiago othe dire bada, zu, ni naizen guzia egin nauzuna, nere nausi zaren baino?

Bainan, oi! nere Jainkoa, baldin zuri nere biziaren zathi handi ebasteen baratu gabe, oraino bekhatu egiten eta zure damuztatzen hari izan banaiz, oi! nolakoa izan den nere egitatea! zer egitate beltz eta izigarri, maithagunearen orde bihurtu dautzut beraz higuintza, eta ongirik prezagarrienen orde gaizkirik handienak eta damurik saminenak. Eta zure ontasun xoiletik nauzkan emaitzak berak itzuli ditut zure kontra; hetaz baliatu naiz harmatzat zuri jazartzeko, zuri



gerlarik gogorrena egiteko: zuk eman zenautazun Izpirituaz, bihotzaz, begiez, beharriez, ahoaz, mihiaz ta gorphutzaz zerbitzatu naiz, zuri damurik saminenak egiteko. Oi! zer monstro izan naizen zure begietan! Zoin miragarria izan den zure ontasuna, zure kontra zoratua eta errabiatua nintabilan mement dohakabe hetan ezpaitautazu jazarri, ezpainauzu orduan berean ifernuko zolan ehortzi, sobra baizen merezi eznuen bezala!

Eta, o! nere arima, othe da bada nihor munduan, nere Jainkoa tratatu dudan bezain izigarriki tratatu nahi nukelik? Itsu edo gor sorthu ta norbaitek argitu eta ernatu banintu; urean ithotzen, suan erratzen egoki ta norbaitek handik atheratzen banintu, aski esker-gabea, aski monstroa othe ninteke bada nere bista, nere bizia zor nioken hari jazarteko, haren hiltzeko? Zer monstrokeriaz erori naiz bada egitate izigarrri hortan nere Jainko, zeru-lurretan diren guziek egin diezakedaten baino ongi gehiago egin dautanaren alderat?

Eta nori atsegin egiteko, nori nere bihotza emateko, ebatsi natzajo nere Jainkoari, nere

nausi zuzen-bidezkoari? Debruari, Izpiritu gaxto, madarikatu hari. Baiki, bi nausien artean kausitzen nintzen. Alde batetik Jainkoak debekatzen zautan haserregoa hura, medisentzia hura, desoneskeria hura, ebaskoa hura: bertze aldetik debru gaxtoak hetarat bere ahal guzietz hertxatzen nintuen. Eta nik Jainkoa alde bat utzi! eta nik Jainkoari ukho egin, Jainkoaz arnegatu, eta nik debru madarikatua, ilhunbetako printze, Izpiritu gaxto, higuin hura hautatu nere nausitzat, nere erregetzat, nere aitatzat, eta nik debru madarikatu hari saldu Jainkoa ganik nauzkan Izpiritua, bihotza, arima ta gorphutza, oi! orduko nere itsumendua, nere zoramendua!

Oi! Jauna, zure urrikalmendu handi-handiaren beharra dut nere biziko deserregelakerien barkhatzeko. Arren bada begira nazazu berriz halako monstrokerietan erortzetik.

**II. PHONDUA.** Jaundone Paulok seguratzen gaitu, bizitze huntako ta hil ondoko ontsatasuna datxeikola Jaunaren zerbitzuari, bizitze prestuari. Debruak berriz begien aitzinean paratzen deraiku munduko onthasunak, ohoreak eta atseginak, gure zoriona egin behar duten gauza

batzu bezala: hetarako hirritsak eta pendurak gure baithan sutzen ditu; eta ojhuiz dagoku, gure jaidura hekiei jarraikiz, hekiei bere nahikarak emanaz kausituko dugula gure ona, gure dohatsutasuna. Dakusagun bada orai zeinek duen arrazoin, ea zeinen, Jainkoaren ala debruaren zerbitzuan izanen garen hobekienik bizitze hunkotzat ere.

Jakina da, ta guziek aithortzen dute, bihotzeko bakea; barneko deskantsua gabe, eztela guretzat munduan egiazko onik, ez dohatsu izaterik. Onthasunez igeri, bai, ohorez inguratua, atseginez horditua, bainan horien guzien erdian barren guzia nahasia, konzientziako harrak ires-ten hari; nor izanen da aski zoratua holako bat dohatsu dela errateko? Miletan dohatsuago bide da, fortunaz ahantzia, mundutik urrundua, bertze aldetarik ere penetan den bat, bainan horiekin batean bihotza bakean eta barrena deskantsu duen bat.

Non kausi bada barneko bake gozo, bizitze huntan baxharrik gure zorion guzia egin dezaken hura? Jainkoaren zerbitzuan, bizitze prestuan, eta ez bertzetan. Bai, Jauna, bake handi, nasai

bat gozaten dute zure lege seindua maithatzen eta begiratzeko dutenek, zioen errege profetak; handia, eta ezin erran bezain handia ta gozoa da zure zerbitzari khartsuei dasta-arazten derajezun bakea ta zoriona. Orobat dio Jaundone Paulok, bere nekhe, atsekabe, gurutze guzien erdian ere, bakez eta gozoz gaindi zagoela. Orobat zioen San Agustin handiak, onerat itzultzerat graziak behartzen zuenean, Etsizajola iduritzen bizi ere bazitekela, bekhatuan kausitzen zituen atseginak gabe; baina gero, Jainkoari osoki eman zitzajonean, sentitzen zuela bere bihotzean bake bat han gozoa, dastatzen zituela atsegin batzue hain garbiak ta garbiak, non gaizki bizi zen denboran hartu zituen atsegin guziak ezpaitziren khirestasunik baizen hekien aldean. Aithor bera egiten dute egun oroz, behin trebes ibili ondoan, osoki ta bihotz guziaz Jesu-Kristoren uztarri sakratuaren azpian jartzen direnek. Hori ezin adi dezakete gaizki bizi direnek, eta eztute sinhetsi nahi; ezin adi dezakete, nola izan ditelarik norbait boz eta dohatsu ziliziotan, lizifrintan, baruretari, atsekabetan: egizue guk bezala experientzia, erraten deraje hekiei San Bonaben-

turak, frogazazue guk bezala, eta orduan sinhe-  
tsiko duzue.

Jainkoa hari da hortan. Nola arima prestu  
hekiek bere buruei ta sentsuei bere nahikarak  
eta atseginak Jainkoa gatik ukhatzen baitiotzate,  
Jainkoak bere sakrifizio hekien ordainez bezala  
ematen deraizte bihotzeko bake ta barneko  
gozo, mundu huntako nahikare ta sentsuetako  
atsegin guziak xitzen dituzten hek, apostoluaren  
arabera.

Bertzalde arima hekien asmuak, gogoetak  
eta gutziak, baieta sentsuak eta izate guzia Jau-  
naren nahi senduaren azpian daude bethiere  
jarriak eta arrimatuak. Eztute deusere nahi, Jain-  
koak nahi duenik eta Jainkoaren loriakotzat bai-  
zen. Ezta beraz ez hekien barnean, ez kanpoan  
gerlazko ta nahaskeriazko ithurririk batere, izan  
ditezen goratuak ala beheratuak, erromes ala  
aberats, munduan aipatuak, ala ahantziak,  
ohoratuak ala laidoztatuak, guziak bardin eta  
jautsapen berarekin hartzen dituzte bere jainko-  
aren eskutik, hekien bihotzak bethi deskantsu  
berean daudelarik. Hola frogatu izan dute egun-  
dainotik Jainkoaren zerbitzuari behar den bat

bezain zinez eta osoki eman zaizkotenek. Gauza bera begien aitzinean ezartzen dauku arima Jainkotien aurpegian agertzen den aire ezti ta kontentak, edozein estatutan izanen badire ere.

Bainan oi! ala bertzela gerthatzen baitzaje debruaren ondikoizko esklaboei, eta haren gogoramendu likhitsez bere jaidura gaxtoei darraizkotenei! Ez, hainentzat ezta bakerik, ez barneko gozorik, dio Isajas profetak. Nola kausi dezakete barneko bake gozo hura, eztutenazkero ezagutzen hartarat daraman bidea, dio errege profetak? Oi! itsuak, oi! zoroak, eta nola nahi dute kausitu bizitze dohatsua bizirik ezten lekhuian, dio San Agustin, zer biltzen den, zer iragaten den bere jaidura gaxtoen esklabotasunean bere frogantzaz ikhasi zuenak!

Ez eiki gure bihotzak eztu sekulan edirenen bere deskantsu osoa gauza eginetan, eta Jainkoa ganik kanpoan. Ezta begia ikhustez asetzen, ez beharria aditzeaz, dio Izpiritu seinduak. Gauza bera da bertze edozein jaiduraz edo pasionez, eta hortik zer gerthatu behar zaje ondikoizko jaidura hekien esklabo jartzen direnei? nahaskeria-rik eta deboilamendurik baizen ez.

Hartu dituzten nahikarak hain laster iragan dire; eta hekien bihotzak bardin gose ta egarri. Hortik zenbat khexagune, berriz gauza beretarat nahiz? Ordean sekulan ezin arras ixil-araz konzientzia. Zenbat urriki beraz, zenbat bihotz-ukhaldi, zenbat barneko asiki min, bere jaidurei eman diotzaten nahikaren gainean? Eta halarik ere bethi orobat behartuak jaidura muthiri, arras nausitu hartaz: zenbat hiramendu beraz eta zenbat estira, jaidura gaxtoen esklabo jartzen diren arima dohakabentzat! Hala manatu duzu, Jauna, zioen San Agustin, berak frogontza egin izan zuenak, hala manatu duzu, Jauna, ta hala gertatzen da; bai, arima dohakabe, zure nahi seinduaren azpian osoki jarria egon behar bidean, bere sentsuei ta jaidurei esku hartzerat uzten derajenak, hortan berean eta bere baithan kausitzen du bere thormenta ta bere ifernua; bizitze huntarik beretik ere bera da bere borredoa ta bere debrua.

Dugun adi horren gainean Salomonen errana: egundaino ezta naski nihor izan munduan, Israelgo errege hura bezain dohatsu izan denik iduriz; bere Izpirituan ezagutzarik ederrenaz bet-

hea, bere menekoez ez ezik, arrotzez ere hagitz ohoratua, ezin konta bezenbat aberastasunen jabe, gisa guzietako atseginak ithoka hartzen ditu: berak dio, bere bihotzari eman ziotzala nahi izan zetzaken guziak. Horra segurki gizon bat, munduaren arabera osoki dohatsua, egundaino lurraren gainean nihor izan bada; eta bizkitartean zer dio berak? Bere buruari ta sentsu guziei ematen zeraizten nahikara ta atsegin hekien guzien erdian ere etzuela kausitu, hutsik, nekherik eta barneko khezkarik baizen, eta mundu huntan gizonak bilhatzen dituen guziak eztirela ezdeuskerietako ezdeuskeriarik, banitatetako banitaterik baizen. Exenplu horren ondoan, nor da munduak oraino lillura dezakenik, eta munduak eskeintzen diotzan nahikaretan bere zoriona kausituko duela uste izan denek? Oi! gizonak, erraten deraje halakoei Dabit, errege profetak, Salomonen aitak, oi! zein phisuak, zein zoroak diren zuen bihotzak! ez, ez, hain su handirekin bilhatzen ditutzuen, ohore, onthasun, atsegin, gurikeria, gozotasun horietan guzietan eztuzue edirenen gezurrik, itxurapenik eta faunkeriarik baizen.



Eta bizitze huntan gerthatzen zaizkun gaitze-  
tan zein urrun diren debruaren zerbitzarien sen-  
timenduak Jainkoaren zerbitzarienetarik! Ala bai-  
nan nahi duen guzia eginen du gizonak; bainan  
ezta sekulan gaitz eta nahigabe guzietarik geri-  
zean jarriko: eritasunak, onthasun-galtzeak,  
batzuen aldetik bekhaizgoa, bertzen aldetik era-  
sia gaxtoak, ahaide eta adiskide maiten herio-  
tzea; horiek eta holako bertze asko nahigabe  
ethorriko zaizko gutien ustean bihotza kheresta-  
sunez bethetzerat. Bada horien guzien erdian  
jende prestuek kausitzen dute arintgarri handi  
bat Jainkoa baithan. Badakit nausi maite hura  
hari dela guzietan, deusere etzajela gerthatzen,  
hark hekien onetakotzat gerthatzerat uzten due-  
nik baizen; bere gaitzak eta nahigabeak handiz-  
ki baliatzen zaizkotela bere bekhatu xumen gar-  
bitzeko, ta Jainkoaren alderako bere zorren  
pagatzeko; pairamen eta gurutze hekiek egiten  
dituztela bere nausi adoragarriaren iduriko, sal-  
batzekotzat izan behar diren bezala, eta gurutze  
hekiei behatzen diote zeruko loriak higurikitzen  
dituelako bahi batzuei bezala. Bada egia horiek  
miragarri da zenbat arintzen diotzaten Jainkoa-

ren zerbitzari lejalei bere gaitzak eta nahigabeak; eztituzte erdizka ere sentitzen; bere barre-netan bethe bake gozo bera daukate; askotan ere bere pairamenak hartzen dituzte zeruko bere nausiak egiten diotzaten fagore seinalatuenak bezala, eta hetan kausitzen dituzte bere atseginik bizienak. Hala santa Teresak erraten zuen; edo paira, edo hil: etzen bizi nahi gurutzetan eta pairametan baizen. Santa Madalena pazik erraten zuen; ez hil, bainan bai paira: bizi nahi zen, ordean zertako? Gehiago ta gehiago pairatzeko.

Bainan oi! ala sentimendu horiek urrun baitaude debruaren zerbitzarietarik gerthatzen zaizkoten nahigabetan! ala bainan ez tire ohituak bere fedez batere baliatzen. Beraz, ez Jainkoari, ez Jesus gurutzefikatuari, ez Purgatoriari, ez Parabisuari batere behatu gabe, bere gaitzak sentitzen dituzte bere garratasun guzian; askotan ere gaitzak berenaz diren baino saminago ta dorpheago egiten dituzte bere barneko khexagunez eta gogoeta khiretsez; eta bere nahigabetan, oinhazetan eta gaitzetan ez tute kausitzen hiramendurik baizen.

Eta noizpait mundutik ilkhi behar da; hil behar da. Eta bada nolakoak othe dire Jainkoaren zerbitzari lejalen sentimenduak mement naturalezarentzat hain ikharagarri den hartan? Bethi bake bera, gozo bera bere bihotzetan; Jainkoak berak hitz eman deraje azken mement hartan bereziki lagunduko ta bere benedizioez betheko dituela: deus etzaje gostatzen mundutik ilkhitzea, zeren lurreko gauzetarik bethiere laxatuak iduki baitituzte bere bihotzak, eta eternitatean sartzen dire deskantsuan, zeruko atheak hekientzat zabaltzerat doazilako fidantzia oso batekin.

Bainan bitarte hartan debruaren esklabo dohakabeak, guziak hiratuak daude. Mundutik ilkhitzeak, bere urhe-zilharren galtzeak maithatu dituzten ahaidetarik eta adiskidetarik hastantzak, estiran ematen diote bihotza; bere bekhatuen orhoitzapenak urratzen ditu, eta agertzerat doazin tribunal ikharagarriari behatzeak guziak izialduraz lehertzen ditu. Bai, gaxtoa, eta ezin gehiago gaxtoa, eta osoki hiragarria da bekhatoren heriotzea, dio Izpiritu Seinduak.

Oi! nere arima, biziki sentizaitzik eta zinez eta behin bethikotzat gogoan har zaitzik egia horiek. Jaidura ezin goithuzko batez bilhatzen duk dohatsu izatea; bainan bilhazak hire zoriona ediren dezakejan lekhan, hire Jainkoaren zerbitzu gozoan, eta bethi ere urrun ibil hadi debruaren bandera madarikatuetarik.

Jende arteko ohorea eta aiphamen ona ere Jainkoaren zerbitzari lejalentzat da, eta ez debruarentzat. Guziek prezatzen dute jande gazte bat, modesta, ezta, erretiratu, bere goragokoen alderat errespetuz bethea, bere eginbidetarat jarria, sakramenduetarat eta errelijio-nezko bertze gauzetarat jarraikia; gizon bat, sobrea, baketia, bere hitzetan lejala, giristino ona; emazteki bat, giriztino bezala, emazte bezala, burhaso bezala, etxeko buruzagi bezala dituen eginbide guziak lejalki bethetzen dituen. Bai, horiek eta bertze holako giristino onak dire munduan ongi behatuak eta ohoratuak: gaxtaginak berak eztauzke holakoak prezatu ta ohoratu gabe.

Bainan debruaren esklabo dohakabeak, jende gazte arinak, desmodestak, munduko dos-

teta harroetan dabiltzanak, behar ez-tiren adiskidetasun gisak dauzkatzitenak, bertze adin eta herrunketako gizon eta emazteki, bere eginbidetarik eta Jainkoaren bidetarik urrun dabiltzanak, guziez dire mesprezatuak, gaizki aiphatuak, karrikako basa bezala behatuak. Hekien behara edo beldurra dutenek zenbait agur eginen diote, lausengu apher batekin mintzatuko zaizkote: bainan nihork ez-titu bihotzez prezatuko, ez zinez ohoratuko: askotan hek beren aitzinean gehienik lausengatzen dituztenak dire, hetaz saminkienik mintzaten direnak, bere barneko sentimenduak garbiki ager diotzoketen lagunekin direnean.

Bizitze huni dagozkion lanetan eta egitekoe-tan ere Jainkoak laguntzen eta benedikatzen ohi ditu bere zerbitzari lejalak. Baieta bere prestutasuna, bere sobretasuna, bere ez-titasuna, bere lejaltasuna, bere lanerako jarraikitasuna, bere bertze prestuguneak hortarakotzat handizki baliatzen zaizkote. Horiek asko gasta-bide ta egiteko gaxtotarik urruntzen dituzte, ta bere egitekoei ohore egiteko ta bere umeak ongi ezartze-ko ahaletan ematen dituzte. Herririk ez ahal da, non ez-paita holako zenbait exenplu ikhusten,

familia prestuak, eremu handi-handirik ez ukhanna gatik ere, nor-nahi bezain ohorezki bizi direnak, eta bere egiteko guziak ederki dohazkote-nak.

Ordean bertze aldetik, debruaren esklaboak mundu huntako egitekoetan ere trebes eta makhur ibiltzen ohi dire. Bere urguiluak, gormandizak, desonezkeriek, jokoek, bere diruak iresten diotzate, bere suphertasunak asko egiteko gaxto ta hauzi gastos phizten deraje; bere alferkeriak eta etxeko artha-eskasak hekien alhorrak agorrik geldi-arazten ditu. Bai debruaren esklabo bat aski da hainitz aldiz, hobekienik finkatua zen etxe baten funditzeko; gure herrietako berri dakienak errexki sinhetsiko du hori; holako exenplu frango ikhusi duke bere denboran.

Azkenean gauza bera gerthatzen zaje gehienean Jainkoaren eta debruaren zerbitzariei osasunaren eta luzeki edo laburzki bizitzearen gainean. Jainkoaren benedizioneak alde batetik, eta bertzetik bere bizitze erregelatuak begiratzen ohi diote jende prestuei bere osasuna, ta luzeki bizi-arazten ohi ditu. Barneko bakea, bere jaidura ta gutizia guziak eskutik eta legearen azpian

idukitzea, jan-edanetakosobretasuna ta arruntasuna, bai eta lana ere, osasunarentzat eta luzeki bizitzeko laguntza on batzu dire; eta hala osasun hoberena ta bizitze luzena, giristino bere bizitze guzian ongi erregelatuak direnetan kausitzen ohi dire. Edo Jainkoak zenbait aldiz, hekien arimaren onerako, osasunaz gabetzen baditu, berak handizki laguntzen ditu bere gaitzak ongi jasaten, eta hetaz bertze bizitzekotzat baliatzen. Orobat gazte danik balin baderematza mundutik, hori diteke egin diezeken fagore seinalatuenetarik, zeren fruitua zerukotzat ondua baititeke, eta lurraren gainean gehiago egonez askotan gal bailiteke.

Bainan debruaren esklabo dohakabek, dela Jainkoaren madarizionez, dela bere bizitze gaxtoaz, bere osasuna anderatzen, ta bere bizia laburtzen ohi dute. Barneko deskantsuak osasunarentzat on den bezain kaltekor da barneko alhadura, griña ta nahasimendua. Haserregu borthitzek, onthasun biltzeko sekheria sobraniazkoak, ohore-gose handiak, atseginetarako ekharritazun biziagiak, norbaitendako maithagune bihotzari arras nausitzen zajonak, gorphutza-

ri ematen zaizkon gurikeriek, jan-edanetako sobraniek edo friandizek, odola berotzen ta umoreak nahasten dituzte, osasunik hazkarrena maiz flakutzen dute, batzutan laster ere bai, eta bethi kasik berantxago bederen bai, sukhar langit batek bezala. Hala dio Izpiritu Seinduak, gaxtaginak eztirela biziko bertzela biziko ziren denboraren erdia ere. Gauza bera ezagutu dute paganoek ere, ta hekien arteko zuhur batzuk saminki auhendatu dute gizonen erhokeria, zeren bere jaidurei esku hartzerat utziz, bere egunak hainitzez laburtzen baitituzte, eta lurra- ren gainean bizi diren denbora laburra ere, asko gaitzez maldaturik baitaramate.

Egiazki harrigarria da beraz adin ta herrunka guzietako giristino gehieneren zoramendua. Guziek maite dugu osasuna, ta luzeki ta dohatsu bizitzea. Horiek kausitzen dire, gehienera behintzat, Jaunaren zerbitzu seinduan, gure naturale- zari hartan aphur bat gosta behar izana gatik ere. Bainan debruaren esklabotasunean, agintzak eta itxurak lausengariak izana gatik ere, on baino miletan gaitz, hiramendu, borroka gehiago kausitzen da; gaitz pean bizitzeko ta bere egun



hiragarriak laster akhabatzeko bidea da debruaren zerbitzuan jartzea. Halarik ere gehienek, Jau-naren zerbitzu gozoiari hain errexki ukho eginik, etsai madarikatuaren gathetan bere buruak amarratzen dituzte. Zer zorakeria!

Niri dagot iragan denboraren gainean saminki nigar egitea, baldin holako erhokerietan erori banaiz, eta gerokotzat osoki finkatzea nere Jainkoaren, nere nausi zuzenbidezkoaren zerbitzu gozoan.

**III. PHONDUA.** Ordean ezkare bethikotzat mundu huntan: goiz edo berant, nahi ala nahiez, hemendik ilkhi ta eternitatean sarthu behar gare.

Bada zer da bizitze hau eternitatearen aldean? Emagun gizonak oraiko mendetan duken bizitzerik luzena lauretan hogoi urthe, ehun urthe. Zer da hori eternitate luze eta ezin akhabatuzko haren aldean? Lanho guti bat, airetan altxatu den bezain laster suntsitzen dena mement bat, begi herts-idek aldi bat, deusere gehiago. Zer da uri-ttortta bat itsasoko ur guziaren aldean? Hain guti eta oraino gutiago da gizo-

naren bizitzerik luzena, ezin akhaba diteken eternitate haren aldean.

Arrazoin da beraz, eta zuhurtziak ta gure buruendako maithagune zuzenak galdetzen du, mundu huntan ongi izateaz baino kontu gehiago iduk dezagun hil ondoko ongi izateaz; lurraren gainean iragateko dugun denbora labur huntaz zer nahi izanen bada ere, bilha dezagun eternitate luze hartan ongi ta dohatsu izatea. Ezen nor-nahik ere gogotik hauta bide lezake oren-laurden batez penetan egotea, ondoan ehun-urthez bere nahikara guziez gozatzekotan, gutiagotatik ere asko pena eta oinhazetarat bere buruak kondematzen dituzte eriek. Ordean nihor ez ahal da, ehun urthe thormenta handitan iragan nahi lituzkenik, hetarik lekhora oren-laurden batez atseginetan egotekotan: nihor ez ahal da hoin zentzu-gaberik, ta bere buruaren hoin etsai denik.

Dakusagun bada orai erregela horren arabera, zein nausi behar dugun zerbitzatu, Jainkoa ala debrua. Ikhusia da aphur bat gosta behar dela Jesu-Kristoren uztarri sakratua kharrajatze-ko; horren gatik ere salbatzaile amultsu hark

bere zerbitzua deitzen du uztarriaren izenaz. Ordean zenbat iraunen dute hortarakotzat hartu behar diren penek, jasan behar diren guduek, nork bere buruari egin behar diotzan bortxek? Bizitze huntako denbora, erran nahi da, mement bat, ondotik dathorren ezin akhabatuzko eternitate haren aldean. Eta pena ta gudu hautarik lekhora, zertan izanen dire Jaunaren zerbitzari arthartsuak eternitate guzian? Ezin erran diteken bezalako lorian, Jainkoaren beraren gozamean, atseginezko itsaso batean, mundu huntan ezin erran, ezin gogoan har diteken bezalako zorion batean, eta hori menderen mende guzietakotzat, eta zorion hura sekula guzian galduko eztutelako segurantzarekin. Oi! zeru ederra! Jaunaren etxe loriosa! sekulako dohatsutasun osoa! nork errefusatuko du bada, bizitze huntako denbora laburrean, mement huntan aphur bat penatzea ta gudukan haritzea, eternitate guzikotzat zu ardieste gatik? Laborariak urthe guzia asko nekhe-borroketa darama, zenbait fruitu bildu nahiz. Itsasoz dabilzanek asko pena ikhusten dute, galtzeko bide handitan jartzen dire, zerbait irabazi nahiz. Orobat gora igan-nahiek, ohore-

gosek, atseginzalek, eta bertzek, borroka frango badarabilate, gutizia duten hartarat heltzeko. Bizkitartean horien egin ahal guziak asko aldiz alferretan doazi; eta bere nahikara guzien bururat heltzen badire ere, berantenez hiltzearekin batean; eta batzutan, oi! zein laster, guziak galdu beharko dituzte. Bainan zeruko Jainkoa lejal da bere hitzetan; eta haren arthoski zerbitzuari darraizkonak segur dire osoki, sekula guziko fortuna egiten dutela, sekulan ezin akhabatuko den dohatsutasunean sarthuko direla. Nor diteke bada aski zentzugabea, aski bihotz-eroria, halako golardo bat ardiesteko behar den guzia egiterat herabe izanen dena?

Bertze aldetik berriz, nolakoa izanen da debruaren ondikozko esklaboen zorthea? Lurraren gainean bizi direno, goza bitez bere nahikara guziez ohorez, onthasunez, atseginez; Salomon edo bertze nornahi izan den bezain dohatsu izan bitez. Ordean zenbat iraunen du dohatsutasun horrek? Lurraren gainean daramaten denbora xoilki, erran nahi da, diteken luzena izanen bada ere, begi herts-idek aldi bat baizen ez eternitate luze haren aldean. Eta hil ondokotzat zer

zortek higurikitzen ditu? Hain gaxtoki ta erhoki ematen zaizkon nausi higuin haren, debru mada-rikatuaren zorteak, erran nahi da; sekula guziko etsiak, errabiak, deboilamenduak, hortz-karraskek su-elementek, mundu huntan senti edo asma ditezken thormenta guziak hurbiltzen ere etzaizkoten bezalako thormentek, segurantzarekin sekula guziak ezin ilkhiko direla suzko leze hetarik, lehertuak dauzkatziten gisa guzietako thormentak sekula guzian ezin akhabatuko direla. Ez, mement bat baizen eztirau debru madarikatuaren zerbitzuan kausitzen den atseginak eta nahikarak; bainan hari darrajon ta haren saria izanen den thormenta bethikoa eta ezin akhabatuzkoa izanen da, dio San Agustinek.

O! ifernua! o! su brasa iresleak! o! thormenta guzien bilduma! eta nork bere buruaren gainerat eroraraz, mement batez debruaren zerbitzuan kausi ditezken nahikarez gozatzea gatik! zer zorakeria! zer erhokeria lastimagarriagorik, dio San Jeromek, sekula guzikotz nigar-marrasketarat nork bere burua kondematzea baino, ametsaren bardin diren atsegin batzuz gozatzea gatik!

Zer zaik bada orai, o! nere arima, bizitze labur huntan har detzakejan nahikarek eta atse-ginek balio othe dik hetarat larga handin, gero eternitate guzian supean ehortzia egotekotan? Edo hori erhokeria guziaren mukurrua dela balin bazauk, eta bizkitartean hori bera denazkero, debruaren zerbitzuan gerthatzen dena, nola eztuk bihotz guziaz aborrituko hire Jainkoaren loriaren eta hire onaren etsai madarikatu hura? Nola ez haiz jarriko, Jainkoaren laguntzarekin batean, debru higuin hari bethi ta balenki gerla egiten?

Berriz Jainkoaren zerbitzari lejalentzat dagon sekulako zorionak, dohatsutasun osoak, Jainkoaren beraren gozamenak ez othe dik merezi, bizitze huntako denbora laburrean har dezajan haren ardiesteko behar den pena guzia? Sekulako deskantsuak, loriak eta gozoak ez othe ditik nasaiki ere saristatuko, debruaren, munduaren, hire pendura gaxtoen gudukatzen, eta Jainkolegea phondu guzietan begiratzan eman beharko dujan atzartasuna, eta hartu beharko dujan nekea?

O! parabisua! o! sekulako zoriona! o! Jainko-aren beraren gozamina! o! ifernua! o! sekulako su-elementak! o! thormenta guzien bilduma! o! ez pazinitez sekulan nere gogotik urrun!

Nihork ezetzake bi nausi zerbitza, dio Jesu-Kristok.

Bai, Jauna, zuretzat egin gaitutzu, eta gure bihotzak eztezake kausi deskantsurik, ez gozorik, den guzia zuri eman ez eta zu baithan pausatuz baizen, zioen San Agustinek.

# IX. EGUNA

## Jainkoaren presentziaz

**I. PHONDUA.** Jainkoa lekhu ta gauza guzietan da, zeruan bezala lurrean, lurrean bezala ifernuan; zeruan bere seinduak bere zorionaz beraz dohatsu egiten ditu, lurrean gizonak ongi eginez bethetzen ditu; ifernuan damnatuak thormentatzen ditu. Igan nadin zeru-goreneraino, jauts nadin ifernuaren zolaraino, nohan itsasoaren azken bazterretarat, guzietan zu kausitzen zaitut, o! nere Jainkoa, eta nihonere eznaiteke gorde zure aurpegitik, ziotson errege profetak. Eznitekezu gehiago gorde ilhunbetan pulunpaturik ere: ezen gaba eta eguna, gauerdi eta eguerdi, ilhunbea ala argia, bardin dire zuretzat; guzietan bardin ikhusten duzu, zioen Profeta Seindu berak. Beraz mundu guziari behatu behar diot, izate guziz gora hark bere han egoteaz ohoratzen duen tenplu zabal bati bezala. Beraz kausi niteken lekhu eta ordu guzietan ekharri behar diot errespetu ta sumisione nere Jainkoari. Zer errespeturekin eztire egoten erregen ganat



hurbiltzen direnak hekien aitzinean? Ez othe da arrazoin erregen erregeari, mundu guziaren jabeari errespetu bera ekhar diozodan, non nahi kausi nadin, eta ilhunbetan banatza ere?

**II. PHONDUA.** Jainkoak badakuski eta ezagutzen ditu diren eta izan ditezken gauza guziak. Bihotzak eta errajak zundatzen ditu, dio profetak; eta gogoeta xumena, bihotzeko itzuli iragankorrena, altxatu bezain sarri suntsitzen dena, etzajo hari gordetzen. Nola atrebi ninteke beraz bekhatulik egiterat nere Jainkoaren presentzian, nere Jainkoa baithan nagoela, nere Jainkoa beha dagotala? Nola atrebituko naiz erregen erregearen begietan egiterat, sehi baten aitzinean egiterat atrebi eznintekena? Ezen lotsagarriago eta ikharagarriago izan behar da neretzat, nere Jainkoak ikhus detzan nere bekhatuak, mundu guziaren aitzinean pharatuak balire baino. Ezen zer itsumendu ezliteke, Jainkoaren baino gizonen ahalgeago eta beldurrago izatea? Jainkoa orotan eta bethi beha dagot; Jainkoak badakusa zer hari naizen, zeren egiterat nohan, zer darabildan gogoan: gogoeta guziz salbagarria horixe, bekhatutik urrun-arazteko indar berezi bat duena;

ezen nor atrebi, hortaz orhoituzgeroz, han berean fundi dezaken, eta bizian eta hilean nihor ezin itzur dakioken Jainko guziz botheretsu ta juje guzien gaineko hura bere-bere aitzinean damuztatzerat? Horrek gogortu zuen Susana berthutosa egin zioten aiphamen lotsagabearen kontra. Nihork ezkaitu ikhusten, erran zioten giza zahar-galduek. Zer diozue, ihardetsi zerajen emazteki Jainko-beldurrak? Jainkoa ezta bada hemen? Eta nola atrebi ninteke haren damuztatzerat bere-bere aitzinean? Badakit bizkitartean hiltzerat naramazuela. Ezpanaiz zuen nahi likhitztsetarat erortzen. Bainan lehenago mila heriotze, nere Jainkoaren presentzian bekhatu rik eginen dudan baino. Horren gainean ojhu handi bat egin zuen, eta Jainkoa haren alde agerturik, beiratua izan zen paira-arazi nahi zioten heriotzetik.

**III. PHONDUA.** Jainkoa bethi beha dagot, munduan bakharrik banintz bezala; ikhusten nau bere izatea bera daukusan ikhuste beraz. Ni ere beraz ohitu behar naiz hartaz maiz orhoitzen, hari bihotza maiz altxatzen, bihotzez ardura haren adoratzen eta maithatzen, egiten ditudan guziak hari eskeinirik ta haren loriakotzat egiten

ditudalarik: arrazoin ahal da hortaz artha handi bat ukhan dezadan, majestate guzietako Jainko hura bethi nitaz orhoitzen denazkero. Horrek berak erakharri behar nau egiten dudan ongia, othoitzak, kofesioak, komunioneak, eta gainerakoak ahalik eta hobekienik egiterat, hala-nola sehiak ta langileak, bertzenaz lazatzen badire ere, entsejatzen baitire bere eginbidea arthoski egiterat nausia edo jabea beha dagotenean.

Eman zaite Jaunaren presentzian, eta ikhusazu ea badenetz deusere zu baithan, haren desgogorako ditekenik. Harzazu usantza maiz errateko zure buruari: Jainkoa beha dagot; Jainkoak badaki zer hari naizen, eta zer darabiladan gogotan: horrek guziz gogortuko zaitu zure pendura gaxtoen kontra, bizikienik bekhaturat behartzen zaituztenean ere. Orhoitzapen horrek gaizkitik urrunduko ta seinduki bizi-araziko zaitu.

Deus ezta Jainkoarentzat gorderik; diren gauza guziak agerian dire haren begietan, dio Jaundone Paulok.

Bekhatu egin nahi baduzu, bilharazu, ahal badagizu, Jainkoak ikhusiko etzaituen lekhu bat,

eta han egizu nahi duzun guzia, dio San Agustinek.

# X. EGUNA

## Salbamenduaren arthaz

**I. PHONDUA.** Salbamendua da, ongi mintzatzera, gizonaren egitekoa lurraren gainean; gaine-rako guziak ezjeusentzat kontatu behar dire. Erregen egitekoak, gorthetako itzuliak, gerlak, bakea, erresumak galtzea edo irabaztea, haur-dosteta batzu dire salbamenduko egitekoaren aldean. Gizonaren egiteko premiatsua, egiteko baxharra da Jainkoa zerbitzatzea ta bere salbamendua egitea. Hortan datza gizonaren onthasun eta zorion guzia. Ezliteke nor bere adimenduz baliatzea, ezliteke gizon izatea, egiteko handi horren gainean arthagabea izatea, horren ondoreak bethikoak izan behar direnazkero, hortarik nola atherako den nihork eztakienazkero, eta behin huts egiten bada, ezin errepara ditekenazkero. Zer itsumendu, zer erhokeria, ez bilhatzea bizitzea baizen, eta seinduki bizitzeaz konturik ez idukitzea; bere ahal guziak egitea onthasun biltzeko, eta hain guti egitea bere arima salbatzeko! Gizonak irabaz eta bere baleza ere

mundu guzia, zer balia lekioko hori, baldin bere arima galtzen badu?

**II. PHONDUA.** Diren gauza guziak gure salbamendukotzat eginak dire: alfer gerthatzen dire beraz, hortarakotzat baliatzen ezgarenean hetaz. Hala norbait ez-antsiatzen denean bere salbamenduaren gainean, ihuzkiak ezluke haina argitu behar, lurrak ezluke harentzat fruiturik ekharri behar; aingeruek alde bat utzi behar lukete; edo hobeki errateko, ezdeuserat bihurtu behar liteke. Jainkoarentzat bizi eztenak, ezta merezi bidezkoa; zeru-lurrak haren kontra hartu behar litezke, ifernuak iretsi behar luke: horra haren merezia.

**III. PHONDUA.** Bizkitartean, o! zoramendua, bortan dire giristino gehienak; bertze egiteko guzietz kontu handi daukate; salbamendua da baxarra, ez-axolarekin behatzen diotena. Diru hura balia-arazi behar da; alhor hek onthu behar dire; etxe hekien errantak goratu behar dire: horiek guziak bai, eta deusik ez salbamenduentzat. Bertze gauzetan zenbait kalte gerthadadin, hain minki sentitzen da; eta zerua galtzeak batere ezta ukitzen. Deus ezta guphida

gorphutzarentzat, soinekoentzat, atseginentzat, eta deus ezta egin nahi menderen-mende bizi behar den arima batentzat. Daramagun bizitzea-ri behatu, ta erran liteke gure arima eztela gurea, gure etsairik handienarena dela, abre baten arima dela; edo hobeki erran liteke, eztugula arimarik, ezperen eztugula galtzekotzat bai-zen.

Harzazu xedea, bainan zina ta bethikotz, zure salbamendua, zer nahi gosta behar izana gatik ere, bai eta zure bizia eman ta zure odola isuri behar baizinu ere. Sar zaite aita seindu Benito hama-bigarrenaren sentimenduetan. Errege batek galdetu zioenean zerbait, ongi etzenik, ihardetsi zuen bi arima banintu, nonbait hor, baten sakrifizioa egin nezaken, hari atsegin egi-teko: eztut ordean arima bat baizen, eta hau eztut galdu nahi deusengatik ere.

Ororen buruan ezta gauza bat baizen behar-beharrik, dio Jesus Jaunak.

Deusik ezta irabazirik, salbamandua ezpada egiten; guziak galtzen dire, arima galtzen bada, dio San Lukeriok.

# XI. EGUNA

## Bekhatuaren higuntzaz

**I. PHONDUA.** Zer kalte, Jainko bat galtzea! gizonek ondiko handi batentzat daukate, bere buruak dohakabetzat daukatzite, zenbait gertakari gaxtoz bere onthasunak galtzen dituztenean: zer da bada mugarririk eztuen onthasun bat galtzea? Bai legez dohakabea arima, bekhatuaz Jainko bat galtzen duena! bainan ere dohakabeago arima, Jainko baten galtzea ezdeustzat kontatzen duena!

**II. PHONDUA.** O! bekhatua, ala frangoki bai habila gizonen artean! bainan, oi! ala gizonek guti ezagutzen baihaute! zer bekhatu oste ezta egiten ezagutza osorekin? Eta bertze zenbat ezta egiten ezagutzarik gabe? Zer arrazoin eztugu errege profetarekin batean errateko: ah, Jauna, barkha dietzagutzu, ezagutzen ditugun bekhatuak bezala, ezagutzen eztitugunak ere, gerorrek egin ditugunak bezain ongi, bertzei eragin diotzotegunak ere? Jainko, bere izatez ontasuna bera denak, mugarririk gabe hastio du bek-



hatua, baieta bekhatorea ere bekhatua gatik. Aphur bat higuntzea da, norbaiti gaitz aphur bat nahi izatea: hiltzeraino higuntzea da, norbaiti heriotzea nahi izatea. Zer da bada mugarririk gabe higuntzea? Hori da gauza bat, ezin erran, ezin gogoan har diteken bezain ikharagarria. Eta zeren beldur izanen gare bada, Jainko guziz bot-heretsuaren higuntz izigarri haren beldur ez izatekotz?

**III. PHONDUA.** Legez ikhuskari harritzeko bat da galbarioko mendian iragaten dena. Bizkitartean graziaz gabetua den arima bat ikhustea lazgarriago da, Jainko bat gurutzean hitzen ikhustea baino. Jesus ezta hiltzen, bekhatua suntsizeko baizen; bekhatua gaitz izigarriago bat dela zajo, herioa bera baino.

Sar zaite egiazko urriki minetan zure bekhatuen gainean. Kalte guzietako handiena da, grazia galtzea; hartaz bakharrik egin behar da nigar: kalte guzietako handiena den bezala, hura da ere bakharra nigarrez errepara ditekena.

Zer gelditzen zaitzuk orai bekhatuetarik, hek eginak izanaz duzuen ahalgea ta urriki khiretsa baizen, dio Jaundone Paulok.

Zorigaitz, o! nere Jainkoa! bekhatuaz, zu gal-  
durik, zu baino zerbait hoberik kausitu uste duen  
arima itsu, arima zoroari, dio San agustinek.

## **XII. EGUNA**

### **Penitentziaz**

**I. PHONDUA.** Egizue penitentzia, eta sinhetsazue Ebanjelioa, dio Jesu-Kristok. Bi gauza horiek, penitentzia ta sinhestea, elkarrekin ezartzen ditu, guri adi-arazteko, penitentzia, ta garratza, berenaz datxeikola giristino izateari. Lurraren gainean bizi izan den denbora guzia penitentzian iragan du Jesu-Kristok, gure bekhatuen garbitzeko ta bere aitaren haserrea fazegatzeko: gu ere bada, hura bezala, izan behar gare osoki penitentziari emanak. Baldin seinduen seindua barurtu bada, nigar egin badu, hain penitentzia gogorretan bizi ta hil izan bada, zer eztute egin behar hobendun, lotsatzeko den phonduraino bekhatuz kargatuek?

**II. PHONDUA.** Bekhatua punitu behar du egin duenak. Bainan bekhatorek ezpadituzte denboran punitzen bere buruak, Jainkoak punituko ditu eternitate guzian. Penitentziazko urez borhatuak izanen eztiren bekhatuak, ifernuko suaz izanen dire punituak. Ez othe da bada hobe, zenbait

egun nigarretan, baruretan, garraztasunetan iragatea, ezenez eternitate guzian ifernuan erretzen egitea, nigar-marrasketan eta errabian?

**III. PHONDUA.** Ezta aski, Jainkoarekin bakeak egiteko, aphez baten oinetan ahuspez jartzea, ez eta burua hautsez eta gorputza zilizioz estaltzea: horiek egina gatik ere, ezpaduzu zure bekhatuez egiazko urrikia, ezpadituzu hausten adiskidetasun eta estekamendu gaxto horiek, ezpaduzu bihotza garbitzen herrakunde hortarik, ezpazare urruntzen bekhatuzko bide ta parada hetarik, itxura egile gezurti bat zare, eta ez egiazko penitent bat. Barurak, othoitzak, erremusinak, gorputzaren gaineko garraztasunak dire giristinozko penitentziaren axala ta gorputza bezala: haren Izpiritua eta arima dire bekhatuaren higuntz oso ta Jainkoarendako maithagune guzien gainekoa: horiek biek, dio San Agustinek, eta ez bertzek, egiten dute egiazko penitentzia, penitentzia segura, bekhatuak barkhatzen dituen, salbatzen duena.

Jainkoari barkhamendu eska zakizko orai artean eraman duzun bizitzeko-molde hain guriaz, hain guti penitentaz, hain guti ebanjelio-

aren arabera: horrekin batean galdegiozu, hemendik aitzina, leheneko sinhestunak bezala, penitentziaren garratzasunetan bizitzeko grazia, eta hortan eman zaite zin-zinez.

Ezpaduzue penitentzia egiten, guziak galduko zarete, dio Jesu-Kristok.

Penitent direlakoei erraten derajet: zer baliatuko zaitzue zuen buruak aphaltzea ta urmaria-tzea, ezpazarete bizitzez aldatzen, dio San Agustinek.

# XIII. EGUNA

## Bihur-ondeaz edo Konbersioneaz

**I. PHONDUA.** Egiazki sobra luzatzen dut nere Jainkoari ematea, bederen behar liteken eta noizpait emateko gogoan dudan bezain osoki badirudi haren ihesi ta haren eskuetarik yoan nahiz nabilala; eta zer? gaitz edo gaizki bat othe da Jainkoarena izatea? ahalgetzeko gauza bat othe da bizitze ahalkagarri bat uztea? goizegi eman othe ninteke mugarririk gabe maithatua izatea merezi duen edertasun baten maithatzen? bihar, bihar, diot, eta zertako ez egundantik? zertako ez mement huntarik beretik? Bihar nere gatheak hausteko erretxagoak izanen othe dire, edo nere bihotza onera itzuliagoa? Ez segurki ere: bertze gauza guziak flakutzen ditu denborak; bainan ohitura gaxtoak borthitzen ditu; erremedioak hartzea luzatuz, gaitza nausitzen da, askotan ere bai ondoan ezin senda ditekengisan.

**II. PHONDUA.** Zerk debekatzen gaitu bihotzez aldatzerat deitzen gaituen bozari ihardestetik?

Zerk izitzen gaitu? dudagabe zerbait gosta behar da bizitzeko: ordean ez othe da deus, Jainko gurutzefikatu bat adoratzeko duen ta paradisu bat higurikitzen duen giristino bat lotsatu behar duenik? Balin bada deus ikharatu behar gaituenik, hura da Jainkoak ematen deraikun graziez ez baliatzea. Hortaz merezitzen duguna da, gu ganik urrun dadin ta bere graziez gabe gaitzan, ta hala gerthatzen bada, zer izanen da gutaz?

**III. PHONDUA.** Bethi gerorat luza! Bainan gero hura nere eskuko othe da? haren jabe othe naiz? Jainkoak higurikitzen daut, hala da; iskriturak ere dio: eztu ordean erraten zenbat denbora dudan oraino bizitzeko, edo noiz-arte higurikiko dautan Jainkoak. Penitentzia egiten dutenei barkhamendua agindu deraie, ez ordean biharamunik nihori ere. Zer zorakeria beraz mentura baten gainean kontatzea salbamenduko egitekoarentzat, oraiko denbora, baxharra gure eskuko duguna, alferretan galtzerat utziz!

Ikhusazu zer den xuxentzekorik eta korreji-tzekorik zure bizitzeko maneran, eta emozu kontu orai beretik: ikhara zaite ikhusteaz, gehia-

go luzatzen baduzu, sekulan ez korrejitzeko zer hirriskutan yartzen zaren.

Gogo zina hartu dut; orai beretik, osoki ta bethikotz ematen naiz Jaunaren zerbitzatzen, zioen Dabitek.

Eztiteke segurantza ta prekozione sobrarik har, eternitate batez denean egiteko, dio San Gregoriok.



# **XIV. EGUNA**

## **Gizonendako ikhustateaz, edo errespetu umanoaz**

**I. PHONDUA.** Munduak baderasa, eta erasiko du nere bizitzea ebanyelioaren arabera erregelatzen badut: utzazu mundua erasterat. Ala zoro batzuen erasiek debekatu behar othe zaituzte zu, zure eginbidea egitetik, zuhur ta prestu izatetik? Ordean zer erranen du munduak, ezpadut orai artean bezala hantatzen, ezpanaiz ibiltzen dosteta harro hetan, edo neretzat galgarri direla sentitzen dudan lagun hekiekin, hausten baditut adiskidetasun izurritsu hek, onthasun gaizki bildu hek eskuetarik uzten baditut, maiz kofesatzten banaiz, debozinezko bizitzea besarkatzen badut? munduak zer erranen duen? jende zuhurrek erranen dute, gizonen baino Jainkoaren beldurrago zarela, ta goraki laudatuko zaituzte: gaxtaginek berek ere, bere bihotzean bederen, prezatuko zaituzte, ta erranen dute, arrazoin duzula, eta ororen buruan, zer dihoatzu zuri, munduak zer nahi derasan, baldin zure eginbi-

dea egiten baduzu, ta Jainkoaren gogorako balin bazare?

**II. PHONDUA.** Eta zer? giristino on, prestu ta debotzat atxikia izateaz ahalge izanen duzu? Zer lazakeria, Jesu-Kristoz ta haren ebanyelioaz ahalgetzea! Erregen eta bertze handien zerbitzariak ohore batentzat daukate bere nausien libraiak ekhartzea; eta zuretzat Jesu-Kristoren libraiak ahalkagarri izanen dire? nekhazale aphalenek ere goraki erakhusten dute zer ofizioetako diren; eta giristino bat ahalka dadila bere giristinotasunaz, Jesu-Kristoren egiazko diszipulu izateaz, alde guziz haren gogora bizitzeaz! o! ikhara gaiten! Jesu-Kristok eztu beretzat ezagutuko harena izateaz gizonen aitzinean ahalgetu ditekenik; berak erran du.

**III. PHONDUA.** Eta zer? Jesus adoragarriak othe du deus ahalkagarririk? Haren izena izen laidoitsu bat othe da? desohore bat othe da haren erranen eta eginen arabera bizitzea? Etzare ahalge, lohi, arnegari, burholari, harro, arin, mundutar izateaz; menturaz ere holakoa izate loria zaitzu: eta ahalgeturen zare, garbi, modest, erretiratu, prestu, debot izateaz; oren buruan,

eta mundutar zoroek zer nahi erasiko badute ere, gizon ohorezkoena da Jainkoa leialkienik zerbitzatzeko duena, harena izateaz batere ahalgetu gabe.

Ikhusazu ea munduko itxura hark etzaituenetz izitzen, etzaituenetz urruntzen giristino bezala ditutzun eginbiden bethetzetik, egin nahi zintuzken asko ongi egitetik, Jainkoak gogora ematen dautzun bezala bizitze debota besarkatzetik, eta hori balin bada, orhoiturik Jainkoa dela zure nausia, eta ez mundua, Jainkoak behar zaituela jujatu, eta ez munduak, ostika zazu mundu zoro, Jesus maitearen etsai gaxto hura; eta haren erasiez konturik iduki gabe, bizi zaite alde guziz Jainkoari ongi zajon bezala.

Eznaiz ez ebangelioaz ahalgetzen, zioen Jaundone Paulok.

Gurutzearen seinalea bere kopetan dakharrena ezta deusez ahalgetu, ez deusen beldur izan behar, dio San Agustinek.

# XV. MEDITAZIONEA, TA EGUNA

## Bere buruazko desfidantziaz

**I. PHONDUA.** Gizona ezta deusen ere hain beldur izan behar, nola bere buruaren; ifernuko bothere guziek baino gehiago izitu behar du flakezak; hats-gorapen bat, begikaldi bat, ezdeus bat aski da haren garaitzeko eta eror-arazteko. Adamek hain errexki bekhatu egin zuen; Dabit hain profeta argitua, hain errege seindua, Jainkoaren bihotzaren araberrako gizona, begi-kolpe batek arthiki zuen; Jaundone Petrik hain goraki hitz eman zioen bere nausiari, bizia gostako bazitzaion ere, etzuela hartaz arnegatuko; halarik ere, oren gutirik barnean burhorekin eta arnegurekin hartaz ukhatu zuen. Zer gerthakariak! nor ezta ikharan jarriko? baldin haizerik xumenak egotzi baditu zuhaitzik sendoenak, zer bilhakatuko dire kanabera edo seska flakoak?

**II. PHONDUA.** Gizona askotan garaitua kausitzen da, etsaja oldartu ere gabe: gure jaidura gaxtoek eta gure sentsuek eztute gure galtzea

baizen bilhatzen; berriz gure bihotza da gure etsairik ikharagarriena. Asko, borredoek ezin egotzi zituztenak, mortuan erori dire; debruak garaitu onduan, bere jaidura gaxtoez izan dire garaituak. Beira zaite hertsiki zure buruarekin adiskidetzetik, zure burua lausengatzetik, zure buruari bere nahikarak ematetik; hola egiten baduzu, segurki galduko zaitu.

**III. PHONDUA.** Seindurik handienak ikharan jarri dire, ez jakinez zertan ziren hekien arimak Jaunaren begietan. Asko urthez mortuan bizi izan zirenak eta penitent garratzenak aditu dire hatsbeherapenetan heriotzeko orenean, Jainkoaren jujamendu ikharagarriez orhoitzean, zeren ezpaitzakiten zerk higurikitzen zituen. Mement bat aski da saildu batetarik debru bat egiteko. Bada holako seindu handiak hala izitu badire, nola bizi gaitazkegu segurantzan eta beldurrik gabe? nola hanbat konta dezakegu gure prestutasunaren, gure egintz onen, edo orai ditugun sentimendu onen gainean?

Errozu maiz Jainkoari San Filipe Nerikoarekin batean: Jauna, beira zaite niganik; ezen hain flakoa, hain ezjeusa naiz, non ezpanauzu handizki

laguntzen, uztiko baitzaitut. Entseja zaite bethiere aitzinetik ikhustera zein parada gaxtotan kausi zaitezken, eta urrun zaite ahal zaitezken guzietarik, eta harma ezin ihes eginetan ez erortzeko. Ordean orhoit zaite parada galgarrienak direla, aitzinetik ezin asmatu dituzketzunak. Bizi zaite beraz bethiere beldurtasunean eta atzartasun handi batean, zure buruari batere fidatugabe.

Xutik dagoela eta ontsa dabilala uste duena beira bedi behatztopatzetik, dio Jaundone Paulok.

Nahi bezain lekhu segurean izan zaitezzen, nahi bezain onak izan ditezen oraiko zure sentimenduak, eztuzu horren gatik zeren hartu, eztuzula deusen beldur izateko, dio San Jeromok.

# XVI. EGUNA

## Graziez baliatzeaz

**I. PHONDUA.** Oi! ongi ezagutzen bagindu Jainkoak ematen deraikun grazien balioa! ala bertzelako artha baikinuke hetaz ongi baliatzeko! bada jakin behar dugu, eztugula errezebitzen graziarik batere, gogoramendu on bat baizen ezpalitz ere, Jesu-Kristok bere odol guziaren gostuz merezitu eztaukunik, eta bere aitari gurutzearen gainean hiltzen zela eskatu eztioenik. Beraz errezebitzen ditugun salbamenduko laguntza guziek, gure izpirituetan sortzen diren gogoeta onek, gure bihotzetan sentitzen ditugun ongizako gonbiduek, eta gainerakoek, Jesu-Kristoren odola dute balio; eta hekiei ez ihardestea da Jainko-gizon haren odol sakratua ostikatzea, eta haren heriotzea alfer gertha-araztea.

**II. PHONDUA.** Jainkoari zordun gaizko, ez xoilki ematen deraikun graziaz, baina bai oraino eman gogo zeraikunez, eta guk trabarik ez pharaterat, emanen zeraikunez ere. Iguzkiak argitzen duenean, guk leihoak zarratzen baditugu,

ezkaizko gutiago zordun bere argiaz, gure eskuan denazkero hartaz baliatzea. Oi! zer kontu ikharagarri galdetuko daukun Jainkoak ematen deraikun eta eman gogo zeraikun hanbat graziez!

**III. PHONDUA.** Badu behar bada hanbat denbora, hamar urthe, hogoi urthe Jainkoak behartzen gaituela zenbait ongi egiterat, mundutik urrunterat, banitatezko aire, moda ta jaunztura hek uzterat, adiskidetasun galgarri edo sobraniako hek hausterat, sakramenduetarat maizago hurbiltzerat, othoitzari, ta bertze debozinezko egintzei hobeki jarraikitzerat, asko huts xumetarik zentzatzera: zenbat aldiz ezkare halako asko phonduren gainean behartuak izan, dela Jainkoaz beraz, guri bihotzerat mintzatzuz, dela gure kofesorez? Bizkitartean horietarik deus eztugu oraino; bederen oraino asko gelditzen zaiku egiteko. Zer bada? hanbat denboraz Izpiritu Seinduaren eskolan, eta deusik ez ikhasten! hanbat aldiz abisatuak, behartuak, mehatxakatuak, eta halarik ere deusik ez egiten! gauzaren harrigarria! nolakoa den gure bihotz-gogortasuna! orhoit gaiten bada Jainkoa dela hartzedun



zorrotz, egiten dituen emaitzez kontu hertsia bat galdetzen duena, eta nihor, ez bizian, ez hilean, ezin itzur dakiokena; baldin ezpagitu berehala bortxatzen zor dioguna pagatzerat, hertsiki galdetuko deraiku intresak, eta intres hek hanbatez izanen dire handiagoak, zenbatez grazia gehiago ematen baita, eta pairu gehiago hartzen baitu gure alderat. Orhoit gaiten, eta ikhara gaiten orhoitzeaz, Jainkoak bere graziak ematean, atxikitzen duela neurri bat, zeina bethezkerok, guganik urruntzen baita. Hala dio berak Isajas profetaren ahoz: hanbat artha hartzen dut arima hortaz, hanbat egin dut hori nahiz ongian arras finkatu, eta guziak alferretan; bego bere gisa bere zorigaitzean. Hala dio Jesu-Kristok ere: eremanen zaitzue Jainkoaren erresuma, erran nahi da, salbamenduko laguntza, eta emanen zajo haren araberako fruituak ekharriko dituenari. Eta zer da arrazoinagorik, argiaz zerbitzatu nahi eztenari, argia khen dakion baino? Laborari batek ere, lur-pheza bat asko urthez eta gastu handiak eginik lantu eta ontu duen ondoan, ezpadu handik fruitu onik biltzen, ez othe du alde bat utziko? eta Jainkoa hortaratzen bada

gure alderat, merezi dugun, eta mehatxatzen gaituen bezala, zer izanen da gutaz, bai denboran, bai eternitatean? Ai, Jauna, lehenago bertze edo-zein zigorrada, othoi, zu niganik urruntze ta zure graziez gabetze hori baino.

Eskerrak emotzu Jainkoari eman dauzkitzun grazia guziez; barkhamendu eska zakizko zure deslejakeriez. Adi zazu orai zer galdetzen duen zu ganik, eta zaren beldur alde bat utz zaitzan, baldin ezpaduzu obeditzen.

Hainitz ematen zajonari, hainitz galdetuko zajo, dio Jesu-Kristok.

Grazien ondoan dathor jujamendua, eta hartan Jainkoa zorrotz izanen da, bizi gareno bere graziak ematean nasai denaren eredura, dio San Gregoriok.

# XVII. EGUNA

## Denboraz baliatzeaz

**I. PHONDUA.** Denboraren galtzea da munduko deserregelakeria handienetarik bat. Bizitze hau laburra da, ametsaren pare da. Mundu huntan bizi garen mement guziak hagitz dire baliosak; Jainkoak bere ontasun xoilaz egiten deraikun emaitz batzu dire; Jesu-Kristok bere heriotzeaz merezitu deraiku. Guziarekin ere, hanbat mement, hanbat denbora galtzen dugu; bizi gare, bethi mundu huntan egon behar bagine bezala, edo deus egiteko ezpaginu bezala. Zer itsumendu?

**II. PHONDUA.** Ai, damnatu batek balin balu nik hain errexki galtzen dudan denbora huntarik mement bakhar bat, nola balia liteken hartaz! nere biziko mement bakhotxean irabaz dezaket zorionezko eternitate bat; eta hain errexki galtzen dugu, hanbat denbora. Hain arthoski baliatzen gare, dostatzeko, atsegin hartzeko, onthasun biltzeko paradez; eta hanbat parada, hanbat mement, eternitatekotzat aberasteko balia litez-

kegunak, hain floxki galtzerat uzten ditugu. Zer gure zoramendua! non dugu adimendua!

**III. PHONDUA.** Eztezazula kontu egin, egun-  
araldea ongi enplegatu duzula, mundu huntako  
zure egitekoak ongi egin ditudzunean, bainan bai  
zerukotzat merezimenduz aberastu zarenean,  
eta osoki Jainkoaren gogora iragan duzunean:  
hura da giristino batentzat egun ona, egun ede-  
rra, egun aberatsa. Egizu hain ongi, non noiz-  
nahi galde diezazuten, zer hari zaren, ihardets  
ahal baitezakezu: Jainkoarentzat ta nere salba-  
menduarentzat hari naiz lanean.

Damu khiretsekin Jainkoari barkhamendu  
eska zakizko, orai artean zerukotzat enplegatu  
gabe iragan duzun denboraz; eta egizu harrapa-  
ka bahatzerat hemendik aitzina emanen zaitzu-  
naz, nolazpait bederen erreparatzeko denbora  
galduak.

Jainkoak eztio nihori eman denborarik bekha-  
tu egiteko, dio Izpiritu seinduak.

Zer? denbora baduzu, astia hartzen duzu ber-  
tze gauza guzietako; eta eztuzula, diozu, giristi-  
no on izateko, zure salbamendua egiteko, dio  
San Paulinok.

# XVIII. EGUNA

## Sakramenduez

**I. PHONDUA.** Sakramenduak dire kainu batzu, zeinetan gaindi guganat baitathoz Jesu-Kristoren merezimenduak eta odol adoragarria: hek dire salbamendukotzat behar ditugun grazien eta laguntzen ithurriak. Zer errespeturekin eztiotegu beraz behatu behar? ta zer artha eztugu ukhan behar hetarat maiz hurbiltzeko, ta bethi hetarat ekhartzeko galdetzen dituzten bihotz-moldurak edo disposizioneak, Jesu-Kristo gure salbatzaile adoragarriaren ta gure juje guzien Jainkoaren merezimendu xederik gabeak hekiei iratxikiak direnazkero! bainan bereziki zer errespetu handirekin, zer ikhara seindurekin ezkare hurbildu behar aldareko Sakramendu Saindurat, hartan denazkero Jesu-Kristo bera gorputzez? ta zer lehia eztugu ukhan behar hetarat ardura hurbiltzeko? Sakramenduetan ezarri ditu Jainkoak gure salbamendua egiteko behar ditugun laguntzak; eta sentitzen ahal dugu laguntza hekien zein behar handia dugun. Ezkare ala bainan gure

baitharik flakeza hutsa baizen, gaizkirako hanbat pendura muthiriz betheak gare; alde orotarik inguratuak gauzka, ta hain gogorki gerla egiten dauku ifernuko lehoin, borthitz bezain amarrutsuak. Zer gerthatuko zaiku beraz Sakramenduetarik urruntzen bagare? kausituko gare harmarik gabe, erran behar bada, etsai muthiriz eta kruelez inguratuak barnetik eta kanpotik. Errexki nausituko zaizku; gutaz nahi duten guzia eginen dute; leze guzietan ehortziko gaituzte. Hala ikhusten da Sakramenduetarik urrun dabiltzanen baithan, zeinen bizia egiazki lotsagarria baita fedearen bigietan alfer dute hainek erratea, flako direla; indar handiak, harmak garaitiarrak kausi letzakete Sakramenduetan: hetarik urrun dabiltzano, bere faltaz dire hain flako, eta bere flakotasunak eztitu batere desenkusutzen. Senti dezagun beraz, Sakramenduetarik urrun egotea, edo hek gaizki errezebitzea, dela Jesu-Kristoren odol adoragarria farfanatzea, eta nork bere salbamendua hurren ezin egin dezaken bezalako estatu batean ezartzea.

**II. PHONDUA.** Sakramenduak profanatzea da, gu baithan egin behar luketen ongia baratzea,

hetarat hurbilduz behar bezalako bihotz-moldurak gabe. Oi! zer ikharatzeko arrazoin guretzat! hanbat urthe badu kofesatzen naizela; hanbat kofesio egin dut nere bizian; halarik ere hain korrejimendu guti da nere bizitzeko maneran! hanbat urthe badu nere lehenbiziko komunioea egin nuela: geroztik hunat hanbat aldiz komuniatu dut; hanbat aldiz jan Jainkozko janhari hura; ta halarik ere nere bizitzeko manerak hain egite guti du Jesu-Kristorenarekin; hain aphalesgune guti, hain eztitasun guti, hain mortifikazione guti, hain karitate guti; bizitze bat hain guria, hain sentsuen araberakoa; hain nagia, hain hotza, hain barrajatua Jainkozko gauzetan: non da bada hanbat kofesio eta komunioek berenaz gu baithan egin behar zuten ongia ta ganbiamendua! zer kontu ikharagarri eztiogu Jainkoari eman beharko hanbat sakramendu hain progotxu gutirekin errezebitzen ditugunez? behin xoilki behar bezala komuniatu duen girstinoak badu indarrik aski, martirioa pairatzeko, egiazko seindu bat da: zertan gare bada gu?

**III. PHONDUA.** Ikhusazu zer bekhatu lazgarria den gaizki komuniatzea. Egiazko Judas bat da

giristino sakrilejo hura. Judasek hogoi eta hamar diru phezetan saldu zuen nausi adoragarria: giristino sakrilejoak are gutiagotan, bekhatuan kausitzen duen atsegin likhitsean truk, saltzen du Jesu-Kristo bera. Judasek eman zuen Jesu-Kristo bere etsai Farisauen eskuetarar: giristino sakrilejoak ematen du etsai are higuinagoen eta kruelagoen, debruen beren eskuetarar; alabainan debru madarikatua da haren bihotzaren nausi eta errege. Judasek adiskidetasunezko itxura guziak eginez, besarkatuz eta musu eginez, eman zuen Jesu-Kristo bere etsajen eskuetarar: giristino sakrilejoak, Judas berriak, presunaja higuin hura bera egiten du, Jesu-Kristo debruen eskuetarar ematerar doha, eta bizkitartean bere nausia bezala adorutzen eta bere salbatzailea bezala maithatzen duelako itxurak egiten diotza; menturaz hitzez ere erraterar atrebizten zajo. Zer hipokrisia beltz! Zer traidorekeria izigarri!

Zer ikhuskari ikharagarri, Jesus maltsoa, Jainkoaren bildots ezti ta notharik gabea Juduen, ifernutik ilkhiak ziruriten lehoin errabiatu hekien haztaparretan! bainan zer ikhuskari are lazga-



rriago, Jesu-Kristo bera ikhustea giristino sakrilejoaren bihotzean, debruen, urguileriako debruaren, herrakundeko debruaren, lohikeriako debruaren eskuetan emana, hekien eremuan sarthua, hekien oinen azpian eroria! ai, kristau sakrilejoa, othe dakik zer hari haizen? bai lurreko lekhurik zikhinenean, ongarupean nahiako lukek egon Jesu-Kristo hire arima beltz, bihotz lohi, gorphutz bekhatuz usaindu hortan baino.

Juduek gisa guzietara eskarniatu, laidoztatu, thormentatu zuten Jesu-Kristo. Giristino sakrilejoak ere tratamendu izigarriagoen errezebitzeko menean ezartzen du haren bihotz likhitsaren nausi dauden debruen aldetik. Azkenean juduek bizia edeki zioten bethiko bizitzearen emailari: giristino sakrilejoak bere bihotzean bere ahalaz hil-arazten du Jesu-Kristo bera, zeren debekatzten baitu haren ariman graziazko bizitzea hartzetik. Ai Kristau sakrilejioa! hi haiz beraz Judas berri bat, Herodes berri bat, borredo berri bat Jesu-Kristorentzat; debru bat haiz, Jesu-Kristok berak Judas hire aitzindariaz erran zian bezala, zer izigarrikeriak!

Baieta giristino sakrilejoa Juduak baino area-go agertzen da Jesu-Kristoren alderat. Juduek ezagutu gabez hil-arazi zuten; giristino sakrilejoak ezagutza osorekin; juduek behin xoilki hil-arazi zuten Jesu-Kristo; eta giristino sakrilejoak menturaz hanbat aldiz, edo kofesioan bere bekhatuak gerizatu ondoan, edo hetaz behar bezain urrikisuna hartu gabe, edo hek behar bezain osoki utzi gabe, Jaunaren mahainerat hurbiltzerat atrebitzen den aldi guzietz. Juduek hil-arazi zuten Jesu-Kristo, bere nahitarat hiltzeko menean ezarri zena; giristino sakrilejoak hil-arazten du Jesu-Kristo phiztua, eta bere aitaz lorifikatua. Juduek Jesu-Kristori paira-arazi zioten heriotzeak egin zuen munduaren erospena, gizonen salbamendua: bainan, oi! bihotz-min kruela Jesus maitearentzat! giristino sakrilejoaren bihotz lohian jasaten dituen laidoak eta heriotzea arras alferretan doazi, ez Jainkoaren loriakotzat, ez gizonen onerako batere baliatuko eztiren gisan.

Bainan ez, o! giristino sakrilejoa! eztuk alferretan izanen; hire zorigaitz handitan joanen duk; hire sekulako heriotzerat botatzeko baliatu-

ko duk. Adizak, eta ikhara hadi aditzeaz, zer dioen Jaundone Paulok: Jaunaren gorputz sakratua gaizki jaten duenak, bere jujamendua ta kondenazionea jaten eta edaten du. Erran nahi duk beraz, gaizki komuniatuz, hire kondenazionea ta sekulako zorigitza hire izatearekin bat egiten bezala ditujala, hire ganik gaugerero ezin urrun bezala dezakejola, eta mundu huntan bekhatupean eta sakrilejo pean bizi izan ondoan joan beharko haizela, hain izigarriki laidoztatu, phorroskatu, hil-arazi dukejan Jesu-Kristo haren aitzinerat, haren ganik merezi dujan sekulako zorthe lazgarria hartzeko.

Ikhusazu zinez zer eskas gerthatzen diteken zure kofesioetan eta komunioetan. Sakrilejorik egin baduzu, ez etsi; munduan zaren, errepara detzaketzu: bainan ez eman mugarririk hartuko duzun urrikiari, eta eginen ditutzun penitentziei, bertzela zorigaitz lehergarriak daude zuretzat. Hemendik aitzina ukha zazu artha maiz sakramenduetarat hurbiltzeko, bainan bethi ere hek hartu ta berehala, han berean hil behar bazine bezala.

Nork bere burua ongi froga eta etsamina beza komuniatu baino lehen, dio Jauudone Paulok.

Jesu-Kristoren sakramenduak farfanatzen dituztenak eztire izenez baizen giriztino, dio San Agustinek.

# XIX. EGUNA

## Meza Sainduaz

**I. PHONDUA.** Meza Seindua da gurutzeko sakrifizioaren odol isuri gabeko erreberrimendu bat. Egun oroz egiten da gure Elizetan galbarioan behin egin izan zena. Deus eztezaket egin Jainkoaren gogorakoagorik, Jainkozko sakrifizio hartan kausitzea baino: meza entzuteko molderik hoberena da, bere xedeak bat egitea aphezarenekin, eta sartzea Jesu-Kristoren izpirituan eta bihotzean, hark bezala eta harekin batean nor bera den guzia Jainkoari eskeintzeko eta emateko. Zer erreligione eskas hanbat giristino baithan, zeinak meza sainduan kausitzen baitire, eman zaizkon sentimenduetan batere sarthu gabe, askotan gogoan hartu ere gabe zer iragaten den aldaren gainean? Han Jesu-Kristo sakrifiziotan eskeintzen da, majestate guzizko Jainkoari dago-kon ohorea emateko; eta ondikozko hek izpiritu barrajatu ta bihotz sorhajo batzuekin kausitzen dire mezan, Jainkoaz naski orhoitu ere gabe, bederen majestate adoragarri haren aitzinean

beheratu gabe, ta dagozkon bezalako errespetuzko ta ikhara seinduzko sendimenduetan sartu gabe; hortarik urrun, elheketan daudala, begiak bazter guzietarat itzulika darabiltzatela, gorphutzeko aisiak ta gurikeriak, zeruko aingeruak ikhara dauden lekhuana berean bilhatzen dituztela.

Jesu-Kristo meza sainduan eskeintzen da barkhamenduzko biktima bezala, zeruko aitaren haserrea ezitzeko, bekhatorei bihurondezko edo konbersioezko graziak ardiesteko, ta lurra zeruarekin bakhetzeko: ta hanbat giristino, bekhatupean ehortziak izan arren, eztire batere entsejatzen, ez bere bekhatuez urrikitan sartzerat, ez Jainkoa ganat itzultzeko xede zinik hartzerat; hortarik urrun meza entzutean berean daukate askotan bekhatutan irauteko ta bekhatu berriz bere buruak lizuntzeko gogo; eta gogo gaxto hori dela kausa, meza entzutea bera gertatzen da hekientzat bekhatu berri bat: menturaz ere, zeruko ozpin-kolpe guziak merezi lituzken atrebentzia sakrilejo batez, Jainkoaren bera ren begien azpian eta Jesu-Kristo hekientzat sakrifikatzen den memento berean, asko bekha-

tuz lohitzen dire, gogoeta gaxtoz, gutizia lizunez eta bertzela.

Jesu-Kristo meza seinduan eskeintzen da sakrifiziotan, Jainkoak egin deraikun gisa guzietako ongiez hari eskerrak emateko: eta hanbat giristino, arimako ta gorphutzeko ezin erran bezenbat ongi eginez Jainkoari zordun zaizkon arren, eztire batere sartzen zor diotzoten ezagutzazko ta maithagunezko sentimenduetan; eztire batere animatzen haren khartsukiago maithatzerat ta lejalkiago zerbitzatzerat.

Jesu-Kristo azkenean meza seinduan eskeintzen da sakrifiziotan gure arimako ta gorphutzeko behar guziak zeruko aita ganik ardiesteko; eta hanbat giristino, gisa guzietako beharrez kargatuak izan arren, etzaizko batere ematen zeruko atheari joka, eztute meza sainduan deusere galdetzen: edo zerbait galdetzen badute, izanen dire xoilki bizitze huni dagozkon gauzak, osasuna, denbora ona, uzta joria; ez ordean bere beharrik handienak, bere bekhatuen barkhamendua, bere jaidura gaxtoen ta tentamenduen garaitzeko grazia, seinduki bizitzeko behar dituzten laguntzak. O! Kristau faunak! o! Kristau laxo-

ak! Kristau fede gutitakoak! miresteko othe da gero, elemenia bat meza entzuna gatik ere, egundainoko ber-berak kausitzen badire, egundaino bezain hargal, egundaino bezain erorkor, egundaino bezain ezjeus Jaunaren begietan? ordean beira bezate: Juduen legean etzen gure elizetan egiten denaren iduririk eta itzalik bai-zen; halarik ere Jainkoak asko aldiz, baita guziz dorpheki, punitu izan ditu itzal eta iduri hekien alderako errespetugabekeriak; zenbatez bada, dio Jaundone Paulok, ezteraje dorphekiago jazarriko, gauzaren eta egiaren alderat hain errespetu guti erakusten duten; eta alientzia berriko odol adoragarria hain sakrilejoki ostikatzen duten ondikozko Kristau hekiei?

**II. PHONDUA.** Egun-oroz hanbat hutsetan erortzen gare, eta gure bekhatuek hain punimendu ikharagarriak merezi dituzte: nola bada Jainkoaren zuzentasunari satisfakzione egin hekientzat? Hari eskeiniz bere seme maite ta gure salbatzaille amultsuaren pairamenak eta odol adoragarria, gure zorren aldera, eta gure bekhatuen barkhamendutan. Ez, martiren thormenta guziek, zenbait ere dorpheak izan baitire, ez



egundainoko penitentek egin dituzten penitentzia guziek, zenbat ere garratzak eta naturalezarentzat lotsagarriak izan baitire, ez mundu hontan jende beharrek jasateko dituzten herstura, nahigabe ta lazeria guziek ezterakete paga Jainkoaren alderako gure zorrik xumena, gurutzeko sakrifizioa gabe; hain gaitz handia ta izigarria da bekhatua. Bada gurutzeko sakrifizio odolezkoaren merezimenduak iratxikitzen eta baliatzen zaiku mezako sakrifizio seinduaren bidez. Zer artharekin eztiogu beraz Jainkoari eskeini behar, munduko bekhatuak khentzen dituen bildots garbiaren sakrifizio adoragarri hau, bainan behiere egiazko penitent gisan, eta harekin batean eskeintzen diogularik gure bihotz urrikiz phorroskatuen sakrifizioa.

**III. PHONDUA.** Erran diteke Jainkoak ezletzake-la jasan mundua hondatua daukaten hanbat deserregelamendu izigarri, hiri galduenen erdian ere ezpalu ikhusten bere seme maitea aldaren gainean sakrifikatua. Horrek dauka baratua haren zuzentasunaren beso ikharagarria. Baldin gure bekhatuek asperkunde galdetzen badute, Jesusen odola are gorago dago urrikalmendu

galdez guretzat aldaren gainetik; hark beretzen du zeruko aitaren bihotza gure alderat, eta baratzten ditu haren asperkunde dorpheak. Adora dezagun Jesu-Kristo, guretzat biktima egina; gihoazkon ardura gure errespetuak bihurtzerat aldaren oinetan; ta gauden han ahal dagigun bezenbat denbora, haren adoratzten, haren maithatzen, hari eskerrak ematen sakrifizio adoragarrri hunen bidez egiten deraikun ongi handiez, haren geroago gehiago maithatzeko, ta bertze behar ditugun grazia ta laguntza guziak eskatzten. Zer ahalge Jesus maitearentzat, baieta guretzat ere, hain maiz ta hanbat denboraz bakharrik baitago, lurreko erregen gortheak hain betheak diren denboran!

Har zazu xedea egun oroz meza saindua entzuteko; bainan bethiere entzun ezazu hain sakrifizio handi bati dagokon fede, errespetu, debozione, maithagune guziarekin. Hortarakotzat egizu kontu elizarakoan, galbariorat zoazila, Jesu-Kristoren heriotzean kausitzerat.

Lekhu guzietan sakrifiziotan eskeintzen daute biktima garbi, notharik gabe bat, dio Jainko Jaunak.

Jesu-Kristo egiazki izanen da guretzat bikti-  
ma, gerorri osoki ta bethikotz harekin batean  
Jainkoari ematen bagaizko, dio San Gregoriok.

# XX. EGUNA

## Erremusinaz edo emanaz

**I. PHONDUA.** Jesu-Kristok, bera-berari egintzat kontatzen dauku, haren amoreak gatik jande beharrei egiten diotegun ongia. Berari ongi egiteko ahala ta bidea irakhatsi daukun beraz: eta hortaz beraz, zer ezagutza eztiogu zor? Zer bidez hobeki ta bizikiago erakhar gintzaken, gure anaja beharrean direnei gure ahalaz laguntza egiterat? gurutzean hil zen, gu erosteko; aldareko sakramendu sainduan dago, gure adorazioneak errezebitzeko, ta gure arimen janhari izateko. Bada jende beharretan da gure urrikalpena bereganatzeko, ta gutaz hazia ta jauntua izateko. Dohatsu, Jesu-Kristori erremusina egiten dioena; bainan dohakabe, ukhatzen dioena. Zure zakhurrari jaterat ematen diozu, eta Jesu-Kristo gosez hiltzerat utziko duzu? Zer zure bihotza! zer zure krueltasuna!

**II. PHONDUA.** Munduko handi-mandiei ematen zajena, gehienez galdua gerthatzen da, baieta askotan nork bere kideari egiten dioen ongia

ere; gehienek esker-gabekeriaz pagatzen dituzte egiten zaizkoten ongiak. Bainan Jainkoarekin ezta sekulan deus galtzen; ematen zajon guzia nasaiki pagatzen du; beira bat ur hotzetaraino, dio Jesu-Kristok. Asko etxe funditu ditu jokoak, banitateak, gormandizak, erremusinak ezte egundaino batere beheratu. Onthasun biltzeko bide eder eta on bat da jende beharrei ongi egitea.

**III. PHONDUA.** Egin dituzkegun, edo egitea huts egin dukegun erremusinen arabera izanen gare jujatuak, Jesu-Kristok berak dioenaz. Zer ihardetsiko dute hanbat aberats bihotz-gogorrek, jende beharrak hekien kontra altxatuko direnean, eta Jesu-Kristok berak errephortxatuko derajenean bere gogortasuna? Zoazte, madarikatuk, sekulako surat: ezen gose nintzen, eta eztautazue eman jaterat, biluza nintzen, eta ez nauzue jauntzi. Zer hersturetan izanen dire aberats bihotz-gogorrek, juje ikharagarriaren ahotik hizkuntza hori adituko dutenean? egiazki jende beharren alderat gogorra den bihotz bat, damnatu baten bihotza da. Bainan arima karitatosoa, zerukotzat hautatua den baten arima da. Zeren

beldur izanen gare juje guziz garaiaren aldetik, gure jaunzturak ikhusiko dituenen bere soinean, gure ogia ta dirua bere eskuetan. Ez, ezugu zeren deusen beldurrik izan Jainkoaren zuzentasunetik, jende beharrak gure alde mintzatzan badire.

Ikhusazu nola tratatzen dituzun jende beharrak; ea tratatzen dituzun Jesu-Kristoren menbroak bezala, ea egiten dezajezun egin diezekozun eta egiterat obligatua zaren ongi guzia.

Zure ahale arabera izan zaite karitatos. Hainitz balin baduzu, emazu frangoki: guti baduzu, emazu guti hartarik ere zerbait, bainan bethiere gogo onez. Jakin ezazu, hola eginez, tresor eta laguntza handiak bilduren ditutzula behar-ordukotzat: Ezen erremusinak beiratzen du bekhatu guzietarik eta sekulako heriotzetik; hartaz arthaduen arima eztu utziko ifernuko ilhunbetarat joatera. Erremusinak fidantzia handi bat emanen deraje Jainko handiaren aitzinean hura arthoski egiten dutenei: hori zen, bertze asko abisu ederraren artean, Tobias zaharrak bere semeari eman zioena phondu hunen gainean.

Galdeturen dautzuten guziei emezu erremu-  
sina, beldurrez eta, bati xoilki ukhatzen badiozu,  
haina izan dadin Jesu-Kristo bera, dio San Agus-  
tinek.

# XXI. EGUNA

## Exenpluz

**I. PHONDUA.** Egundaino saindu guziek salbatu ahal izan duten baino arima gehiago galdu du exenplu gaxtoak. Ifernuko atheak ideki balitez, nekez kausi liteke damnatu guzien artean bat baxharra, erran ezlezakena: hulakoak edo hola-koak galdu nau. Ez othe da batere nitaz hori erran dezakenik? ez othe naiz nihorentzat izan bekhatu egiteko bide bat nere arinkeriez, nere hizkuntza ta manera harroegiez, nere hainendako ikhustate ta jautsapen kruelaz? eta hala izan banaiz, eta ondikozko hetarik bat balin badago nigatik damnaturik, ai, zer errabian dagoen haina nere kontra! zer fuliarekin galdetzen dioken Jainkoari asperkunde erretzen daukaten sula lama hekien erditik! zer errephortxu khiretsez lehertuko nauen nerorri eternitate guzian, nik ere balin badut zorigaitza leze ilhun hetarat aurt-hikia izateko! gure etsajak berak maite ditugu; ezperen maitha detzagula manatua zaiku, zertako bada gal-araz eta sekulako thormentetarat



bota, bidegaberik egin eztaukuten arima batzu, menturaz ahaide, haurride batzu, menturaz adiskide batzu? ai, adiskidetasun barbaroa! ez, ez, ezkare hainen adiskideak; hainen etsairik kruele-nak gare, eta askotan debruak berak baino etsai kruelagoak, askotan holako gezurrezko adiskide baten exenpluak, solasek, manerek, lausenguek egozten baitituzte debruak berak ezin garaiti zituen arimak. Eta gure arimek Jainko-gizon baten odola balio dute, Jesu-Kristok bere biziaren gostuz erosi ditu. Zer krueltasun erakhusten dioen beraz, ta zer damu samin egiten dioen norbait bekhatutan eror-arazten duen giristinoak! eta ondikoizko hark zer higuriki dezake Jesu-Kristo ganik, haren nekheak eta borrokak, haren nigarrak eta thormentak, haren odola ta heriotzea alfer gertha-arazten dituen, eta hekien guzien bidez erosi ta beretu zituen mienbro sakratuak sekulako heriotzerat botatu dituen ondoan! ai, ala hainak bere salbamenduarentzat beldur izateko baitu!

**II. PHONDUA.** Ai, aita-ama, behar bezain erre-gelatuki bizi etzaretenak, eta zuen exenplu gax-toez zuen umeak bekhaturat plega-arazten ditu-

tzuenak! bai, bai, miletan hobe ziteken ume dohakabe hekientzat sekulan ez izatea, zuen ganik sortzea baino. Gorphutzeko bizia eman diozute; eta burhaso barbaroak, hekien arimak sekulako heriotzerat botatzen ditutzue. Zer ihardetsiko diozute jujamenduko egunean, zor zitzajen, eta zuen gatik baizen ardietsiko zuten parabisua galdetuko dautzuenean?

**III. PHONDUA.** Jauntzi gaiten Jesu-Kristoz, Jaundone Paulok gomendatzen daukun bezala. Bethe gaiten haren izpirituaz, eta halako gisaz molda dezagun gure egiteko manera guzia, non gu baithan agertuko baitire salbatzaile amultsu haren aphalesgunea, haren modestia, haren eztitasuna, haren munduazko arbujoa, haren Jainkoaren alderako kharra, eta alde guziz Jainkoaren araberako bizitzea. Bizitze deserregelatu batek sarraski bezenbat ongi egin dezake arimetan bizitze Jesu-Kristoren arabera erregelatu batek. Hori neretzat obligazione hertsia bat da, baldin egundaino bekhatu egiteko bide izan banaiz norbaitentzat. Sei liberako bat ebatsi banu, obligatua ninteke haren bihurtzerat jabeari. Gisa berean Jesu-Kristori arimak ebatsi badie-

tzat, behar naiz ahal guziez entsejatu hekien hari bihurtzerat, errebela-arazi ditudan lagun hekientzat othoitz eginez, hekiei abisu onak eman bezaziki phondu guzien ganean Jesu-Kristoren araberako exenplurik baizen ez eman bezaz, eta zorigaxtoan hainak mundutik joan badire, hekien orde entsejatu behar naiz ahal dagidan bezenbat arima Jainkoari irabazterat.

Ikhusazu ea zenbait maneraz izan zaren egundaino norbaitentzat bekhatu egiteko bide bat. Hala izan bazare, urriki khiretsetan sar zaite Jesus maiteari egin diozun bidegabe izigarriaz, eta ukha zazu artha eragin dituzketzun bekhatuez kofesatzeko, ezagut detzaketzun bezenbatean, zerorrek egin bazinitu bezala. Ezen jakin behar duzu, bertzek zure faltaz egin dituzten bekhatu guziez Jainkoaren aitzinean kargatua zarela, zerorrek egin ditutzunez bezain ontsa. Baldin arinsko izan bazare, eztuzu zeren dudatu zure arinkeria eta harrokeriak osteka bekhatu mortalak eragin dituela, eta hek guziak Jainkoak zure gain ezarriko dituela. Entseja zaite penitentzia garratzez guzien barkhamendua ardiesterat,

eta hemendik aitzina gisa bateretan ere ez ematerat prestutasunezko exenplurik baizen.

Zorigaitz eskandala ematen duenari, edo norbait zer nahi gisaz eta arrazoinez bekhatutan eror-arazten duenari! hobe liteke, ihara harri bat lephotik lothutik, itsasoaren zolarat bota balezate, dio Jesu-Kristok.

Bat bedera zer nahi gisaz eragiten dituen bekhatu guziez kargatua da Jainkoaren aitzinean, dio Salbianek.

## XXII. EGUNA

### Pairamenez

**I. PHONDUA.** Gurutzetarat eta pairamenetarat higuriki behar gare mundu huntan. Ezgare giristino, aberats izateko, ez atseginetan bizitzeko. Hortarakotz etzen giristinotasun beharrik; aski zen mundua uztea zen bezala, gizonen usteak ta jaidurak nausi. Giristino baten bizitzea gurutzezko bizitze bat izan behar da; gurutzea ez maithatzekotz, orobat da fedeari ukho egitea.

**II. PHONDUA.** Zer dio Ebanjelioak? dohatsu nigarretan daudenak; zorigaitz zuei, aberatsak, zeren zuen nahikarak mundu huntan baititutzue. Hori da Jesus Jaunaren hizkuntza. Bainan badiruri hizkuntza arrotz bat dela hori guretzat, eta eztela aditzen Txinan eta Kanadan baizen, non giristino izateko zoriona dutenak, lehiaka baitoazi martiriorat. Badiruri pairamenez mintzo den kapitulua borhatu behar dela Europako ebanjeliotik. Sinhesten dugu egiazko dohatsutasuna nigarretan datzala, eta aberatsak eta lurraren gainean bere nahikarak dituztenak dohakabe

direla? bizkitartean fedezko phondu bat da hori, ta horren sinhestea hain premia da salbamendukotzat, nola Trinitate seinduko ta gizon egiteko misterioak sinhestea.

**III. PHONDUA.** Jainkoaren semea bera gurutze baten gainean hil behar izan da, bere lorian sartzeko, berak dioenez; eta seindu guziak ezterezurat heldu pairamenen bidez baizen. Nahi izan othe dezakegu bada, Jainkoaren semeari eta haren seinduei hanbat gusta zajena, eztakigun guri deusere gusta? gurutzea da zerukotzat hautatuak direnen primuza ta seinalea. Deus pairatzen eztuen eta pairatu nahi eztuen arima batek ikharatzeko du; damnatzerat dohalako seinalea dakharke. Baitezpada pairatu behar dugu mundu huntan edo bertzean.

Adora zazu Jesus gurutzefikatua, eta galdegiozu bizitze huntan haren erkide izateko grazia bere pairamenetan, gero haren lagun izateko sekulako lorian.

Bere gurutzea eztakharkena, eztiteke izan niri dagotan bezalakoa, dio Jesu-Kristok.

Zer ahalge! zer lotsa mienbro guri eta atse-  
ginzale bat izatea, buruzagi elhorriz khoroatu  
baten azpian, dio San Bernatek.

## XXIII. EGUNA

### Jainkoaren nahirat Egoteaz

**I. PHONDUA.** Adimenduaz dohatua den batek duken zorionik handiena da Jainkoak nahi duena nahi izatea. Hortan datza, eta ez bertzetan, egiazko seindutasuna. Ez, seinduak eztire seindu, hekien nahia gauza guzietan Jainkoaren nahiaren araberakoa delakotz baizen: hori gabe, gainerakoan zein nahi prestugune ukhan diezazun, etzare egiazko prestua. Zure barur, kofesio, komunione, bertze egintz on guziak deus etzaizkitzun baliatzen, horiek guziak, zure buruz, ohi-turaz edo bertzela, Jainkoaren nahiari behatu gabe, egiten baditutzu.

**II. PHONDUA.** Jainkoaren nahirat eztagon eta Jainkoak nahi duena on hartzen eztuena, nolaz-pait ere Jainkoaren zuzenen kontra doha: nahi izatea, munduan haren nahitarat, edo hark hala gerthatzerat utziz gerthatzen diren gauzak, bertzela dohazin eta eztitezen hala gertha, da nahi izatea Jainkoa eztadin izan nausi. Sumeti zakizko beraz gauza guzietan nausi guzien gaineko hari;



onhetzazu zuhurtzia mugarririk gabe batek nahi duena, eta zaren segur, zuri ontsa etzaizkitzun gauzetan ere, hark badituela arrazoin handiak eta osoki zuzenak.

**III. PHONDUA.** Deus etzaut gerthatzen, Jainkoak nahi duenik, edo Jainkoak, arrazoin onez, gerthatzerat uzten dautanik baizen, eta guziak nere arimaren onetan. Har baleza ere nabala eskuetan niri zintzurak egiteko, segur ninteke haren maithaguneak lerabilkela haren eskua. Zeren beldur izateko dut maite nauen bihotz baten ganik? Eztut beraz nahi, Jainko maite hark nahi duenek baizen. Beiratuko naiz hotzaz edo beroaz, eritasunez. Zerbaiten galtzeaz, edo bertze nahigabez errenguratzetik. Gaitz diruriten guziak izatez eta izenez aldatzen dire, Jainko baten eskuetan gaindi iraganez. Munduak denbora gaitza, desgrazia, edo ondiko bat deitzen duena bera, on bat da, zeruko fagore bat da, Jainkoa baithan, haren eskutik dathorren gisan, ta haren probidentzia adoragarriak erregelatzen duen gisan hartzen denean.

Ukho egiozu zure nahiari, eta othoitzazu Jainkoa, bainan bihotz osoz, gauza guzietan bethe

dadila haren nahi saindua. Ohi zaite lagunen gaxtakeriaz gerthatzen zaizkitzun nahigabeak ere Jainkoaren eskutik hartzen, berak bidaltzen dauzkitzun gaitzak berak bezala. Jop sainduari debruak eraman ziotzan bere onthasun handiak, eta hil-arazi bere seme-alaba guziak: bizkitartean etzuen erran: Jainkoak eman, debruak eraman; bainan erran zuen: Jainkoak eman, Jainkoak eraman; zertako hola? Zeren, dio San Gregorio handiak, baitzakien gizon saindu hark, debruak berak etzuketela haren gainean eskurik, Jainkoak ematen zioen, eta hari kalte egiteratuzten zuen bezenbatean baizen gisa hortan hartzen badituzu gerthatzen zaizkitzun nahigabeak, nola nahikoak izan ditezen, miletan arinago kausituko dituzu, ta salbamendukotzat handizki baliaturen zaizkitzu.

Hola nahi dut, o! zeruko aita, zeren zuk hola nahi baituzu, zioen Jesu-Kristok.

Jainkoaren gogarako gare, Jainkoak nahi duen guzia on hartzen dugunean dio San Agustinek.

## XXIV. EGUNA

### Jainkoa baithango fidantziaz

**I. PHONDUA.** Miriku bati fidatzen gaizko osasunaz; hauzi bat dugunean, abokat baten gainean kontatzen dugu hartarik ongi atheratzeko; itsuak bere bizia bera bere aitzin joatearen, askotan haur baten eskuetan ezartzen du; orobat zakhur batez bidatzen da. Ez othe da bada miletan arrazoinago Jainkoarrn gainean konta dezagun, eta gauza guzietan hartaz bidatzerat utz detzagun gure buruak? Jainko guziz botheretsuak ahal du ahalik aski, guri behar ditugun laguntza guzien emateko. Aski zuhur ahal da, gu nola ta zer bidez lagundu jakiteko. Bada haren ontasunaz ezteza-kegu gehiago duda. Maite ditu egin dituen gauzak, eta guziez artha hartzen du, dio Iskritura sainduak. Bekhatorei berei ere, mundu huntan direno, urrikalmendurekin behatzen deraje; hetaz ere artha hartzen du, nahiz eta noizpait bederen haren ganat itzul ditezen. Nork eztu bada fidantzia ukhanen halako nausi baten bait-han?

**II. PHONDUA.** Jainkoak hedatzen du bere probidentzia xinhaurrietaraino eta ulitxetaraino. Zeren beldur izan ditezke beraz, Jainkoaren beraren idurira eginak diren, ta Jesu-Kristok bere odol sakratuaz erosi dituen arimak? Jainkoak bazkatzen ditu, hura ezagutzen ez tuten sinhetsgabeak; ongi-eginez bethetzen ditu, haren izen seindua blasfematzen duten gaxtagin sakrilejok: zer eztu beraz eginen, hura ezagutzen, maithatzen ta lejalki zerbitzatzten duten kristauen tzat?

**III. PHONDUA.** Gure egitekoak segurki ere hobeki izanen dire Jainkoaren eskuetan, ezen-eguretan. Utz dezagun hura egiterat ta fida gakizkon gure aita ta gure ama da denbora berean. Aita guzietako hoberena, ama guzietako samurrena. Bere umentzat duen bihotz-ontasunak erakhartzen du hetaz artha hartzerat. Hitz eman dauku lagunduko gaituela; ez tio segurki huts eginen bere hitzari. Zeru-lurrak lehenago suntsituko dire, Jainkoak, haren baithan bere fidantzia ezarria daukan arima lejal bat galtzerat utziko duen baino lehen.

Zunda zazu zure bihotza, eta ikhusazu ea baduzun Jainkoa baithan Jesu-Kristoren merezimenduek galdetzen duten bezalako fidantzia bat. Egia da, mundu huntako onak, osasuna, bizitze luzea, onthasunak, eztauzkitzu Jainkoak seguratu; askotan hetaz gabetzen gaitu gure arimen on handiago batentzat. Bainan salbamen-duaz denaz bezenbatean ukhazazu haren bait-han esperantza oso bat, sekulan kordokatu gabe, nola-nahikoa izan dadin zure bizitze iragana: Jainkoak egiazki nahi du zure salbamendua, mundu huntan zareno.

Zu zare nere Jainkoa, ta zure eskuetan da nere zortea, zioen Errege profetak.

Egotz zaite Jaunaren besoetarar; ezta ez urrunduren, zu erortzerat uzteko, dio San Agustinek.

## **XXV. EGUNA**

### **Jainkoarendako maithaguneaz edo amodioaz**

**I. PHONDUA.** Jainkoak maitatu bere seme maite baxharra guretzat emateraino. Deus hobetik ukhan balu, orobat emanen zuen; ez othe du hortan aski pagatu guganik galdetzen duen maithagunea? ontasun aphur bati badagoko maithatua izatea; zertako eztugu maithatuko ontasun mugarririk eztuen bat? ala zeren den mugarririk gabea, gelditzea othe da maithagarri izatetik?

**II. PHONDUA.** Jainkoak manatzen dauku maita ha dezagula: gauza gogor bat othe da bada, mugarririk gabe maithatua izatea merezi duen edertasun bat maithatzea? nolakoa liteke gure sorhajotasuna, ezpaginu halako izate bat maitatzen, gure lagunak alderat hain bihotz-isuriak garen denboran! Jainkoak manatzen dauku, maita ha dezagula bihotz guziaz; eta bihotz xume, hertxi hau sobra othe da hain Jainko handi, hain maithagarri batentzat? nere bihotzaren edo-zein

pharte eman diozogun, ezta aski, ezpadiogu guzi-guzia ematen. Eztugu beraz gure bihotzetan iduki behar maithagunerik batere Jainkoaren desgogorako ditekenik, ez hari zor diogun mait-hagunea guti dezakenik, eta maithatu behar ditugun guziak ere haren gatik ta haren baithan behar ditugu maithatu.

**III. PHONDUA.** Maitha dezaket Jainkoa, nahi badut, munduko etsai eta ifernuko debru guziek ez naute hortarik debekatuko, nerorrek zinez nahi badut; eta hala bethi nere salbamendua nere eskuan izanen da, gainerakoan zein nahi hersturetan eta eskasietan izanen banaiz ere, zeren Jainkoa maithatzeari baitatxeiko salbamendua. Berriz Jainkoa ez maithatzea ifernua bera baino gaitz handiago bat da; eta ezta damaturik bere burua dohatsutzat iduk ezlezakenik, elementia bat mende thormenta hetan iragan ondoan ere Jainkoa egiazki maitha balezake; horrek seindutarat alda lezake. Benedika dadila Jaunaren ontasun mugarririk gabea, zeren manatzen daukan maitha dezagula, hori bera ezpalitz bezala gutizia dezakegun onik baliosena ta zorionik handiena.

Ukhazatzu ta suntsi zure bihotzetik Jainkoarendako maithaguneaz bertze maithagune guziak, eta egizu ahal dagizun entsejurik handiena, Jainkoa maithatzeko gauza guzien gaineratik eta bihotz guziaz.

Ezpadut Jainkoarendako maithagunea, gainerako guziak ukhana gatik ere, deusik eznaiz, dio Jaundone Paulok.

Herabe baginen lehenak Jainkoa maithatzerat, ezkaiten bederen herabe izan haren maithatzerat ordainez eta lehenik bere aldetik hanbat maithatu gaituen ondoan, dio San Bernatek.



# XXVI. EGUNA

## Jesu-Kristorendako maithaguneaz

**I. PHONDUA.** Jesu-Kristo berenaz ere guziz eta osoki da maithagarri. Jainko bezala, haren osoguneak edo perfekzioneak xederik eta mugarririk gabeak dire, eta hala Jainkoari zor zajon mait-hagune guzia harentzat ukhan behar dugu. Gizon bezala ere Jesu-Kristo da giza-semen arteko ederrena, profetak dioen bezala. Haren baithan dauntza gorderik, dio apostoluak, Jainkoaren zuhurtziazko ta jakitatezko tresor guziak. Hura da Jainko guziz botheretsuak eta mugarririk gabe zuhurrak zeruan edo lurrean egin duen gauzarik ederrena ta alde guziz osoena. Ez, ezta gizonik ez aingerurik hurbiltzekorik ere Jesu-Kristo bezain onik, ederrik, zuzenik, jakinik, seindurik. Bertze guzietan barrajatuak diren dohainak, graziak eta edertasunak Jesu-Kristo baithan bilduak dire, bainan bertze guziak batean emanik ere baino ezin erran bezenbatez, oin handiago ta osoago bathean. Oi! nere bihotza, sinhesten duk

hori? Eta sinhesten baduk, nola hagoke Jesu-Kristorendako maithagunez guzia berotua, guzia sustatua izan gabe? Hain samurra, hain izuria haiz hire lagunen alderat, hekien baithan ikhusten dujan edertasun, prestutasun, ontasun phixka batek, edo bertze zenbait gisatasun edo kalitate onek hain biziki ukitzen haute, hekiei mait-hagunez lotzen hatzaje hain suharki: eta zer? Bakharrik izanen haiz gogor eta sorhajo, zeru-lurretan bertze nihor ere den baino ederrago, hobeago, seinduago, alde guziz maithagarriago denaren alderat? Oi! zer ihardetsiko diok Jesus Jaunari bere jujamenduan sorhajotasun izigarri hori begien aitzinean pharatuko daujanean?

**II. PHONDUA.** Norbaiten maithatzerat bizikienik hertxatzen gaituena da, dio San Agustinek, hainak guretzat duen maithagunea, eta maite gaituela ematen deraikun seinaleak, hori egun oroz ikhusten dugu munduan, eta sentitzen dugu gure bihotzen zolan. Bada horren arabera, zer erran behar liteke Jesus Jauna maite ezluken bihotz batez? Non kausi halako gogortasunik, halako sorhajotasunik? Jesusen bihotz sakratua guretzat erretzen daukan maithagunezko khal-

dak eztu parerik. Ez, senhar-emaztek, ume-burhasoek, edo adiskide minenek, eztute egundaino elkhar hala maithatu, ez eta hurbiltzekorik ere, nola Jesu-Kristok gu maite baikaitu. Oi! zein izanen da bada bihotz hormatua, maithagunezko su-elementa hunek berotuko eztuena, maithagunez guzia urthuko eztuena?

Eta Jesu-Kristok, guretzat duen maithagunearen zenbat seinale eztauku eman? Mundu huntako adiskidek eman dietzakegukete bere arthak, bere laguntza, diru eta onthasun aphur bat; orobat bizia begira diezakegukete. Ez ordean berak eztire guretzat emanen, eztire guretzat hilen: egundaino ez emazteak senharra, ez amak umea, ez adiskideak adiskidea eztu hortaraino maithatu.

Bada hortaraino joan izan da Jesu-Kristok guretzat duen maithagunea; hoin handia, hoin espantigarria izan da. Salbatzaile adoragarri hark ikhusten gaitu, gu aita hobendun baten ume dohakabeak, ariman hilak, debruaren esklabo eginak, ifernuko bidean sarthuak, eta gerorri ezkaitezkelak zorigaitz hetarik altxa. Eztu segurki gure beharrik; eztauku deusere zor, eta zuzenta-

suna eztu batere kolpatuko, denborako zorigaitzetik uzten bagitu sekulako zorigaitzean erortzerat. Ordean hori niholere ezin onhets dezake haren bihotz amultsuak, eta guretzat duen mait-hagune neurri gabeaz, gauza guzien eskasian sorthu ondoan, gurutze baten gainean sakrifika-tzen du bere bizia azken hatseraino, eta isurtzen bere odola azken xortaraino, ezin erran bezalako laidoak eta thormentak jasaten dituela. Oi! mait-hagunezko mirakulu espantigarria! eta nola nik hori sinhets, neredako maithagunez hila dakusa-dan Jainko salbatzaile hura maithatu gabe, bai-nan bihotz guziaz eta gai naizen khar guziare-kin?

Gaizki hartzea liteke segurki uste izatea juduak eta erromatarrak nausitu zaizkola Jesu-Kristori ta bortxaz ereman zutela horiotzerat. Ez hek, ez mundu guzia etzakiozken nausi, berak ez nahi izaterat. Eztaut nihork edekitzen bizia, erran zuen berak hiltzeko aitzintxean; bainan nerorrek nere nahitarat ematen dut. Nigatik beraz, eta neredako maithaguneak garaiturik erori izan da nere Jesus maitea judu bihotz-gogo-rran eskuetarat; neredako maithagunez jasan

ditu akusu hek, laido hek, kolpe hek, thormenta hek, heriotze dorphe, laidotsu ta ikharagarri hura: horiek guziak ni nahiz etsai gaxtoaren gathetarik athera, sekulako heriotzetik eta ifernuko thormentetarik beiratu, Jainkoarekin baxhetu ta sekulako bizitze dohatsurat hel-arazi: zer fagore! zer ongi egin dagokon bezenbat ezin preza deza-kedan bezalako, sekulako heriotzetik, ifernuko thormentetarik beiratzea, sekulako loriarat, Jainkoaren beraren gozamenerat zuzen edo dretxo izatea! eta hori, bere biziaren gostuz! eta hori maithagune hutsez, nere beharrik etzuelarik, deusere zor etzautelarik; aitzitik haren etsai nintzen eta zuzen bidezki sekulako thormentetan ehortz nintzen denboran! zer maithagunezko mirakuluak hauk guziak! eta zein diteke bihotza haukien kontra sorhajorik eta gogorrik dagoke-na?

Mende guziek ederresteko ukhan dute Jaundone Pauloren Jesu-Kristorendako maithagune khartsua. Etzuen hura baizen, ez mihian, ez gogoan; etzuen harentzat baizen, ez hatsik, ez bizirik; nekhe, borroka, thormenta guziak arin eta gozo zitzaizkon, hekien bidez Jesusen izen

seindua bazter guzietarat bana-araz bazezaken, eta orotan adoratzaileak eta maithatzaileak irabaz ahal bazietzoken. Zerk phizten othe zuen bada bihotz handi hartan maithagune suhar hura? Jesus gurutzefikatua ikhustekak. Bai, mait-hatu izan nau, zioen, eta ni maite nintuelakotz, bera den guzia emanda, ta heriotze gogr hura jasan du.

Oi! nere bihotza, ez othe naiz bada ni ere sentimendu beretan sarthuko, arrazoin bera dudan denboran? gurutzefika ikhustean, erran behar dut apostolu handi hark bezala: gurutze horri itzatua izan da nere Jainkoa; horren besoe-tan galdu du bere bizia, eta eman bere odola; eta hori, neretzat zuen maithagune ezin gehia-gokoak hortararik, ni nahiz sekulako heriotzetik beiratu ta bethiko bizitze dohatsurat hel-arazi. Nola bada nik ez maitha, ni neurri guzien gaine-tik maithatu izan nauena? gogotik eman behar nioke bizia biziaren orde; bainan eznaiz haren-tzat martirioa pairatzeko kasuan; galdetzen dau-tana da maithagunea maithagunearentzat: ukha othe diezoket bada? nere bihotza hain gauza xumea da, eta har dezaken maithagune guzia

hain gauza aphurra; eta zer? gauza guti hau, ezdeus hau ukhatuko othe diot bada, ni neurri gabe maithatu nauen, ta neretzat den guzia sakrifikatu izan den Jainko salbatzaile hari? oi! nolakoa liteken nere bihotz-gogortasuna! eta zer zorigaitzearat higurikitzeke ninteken!

Jesu-Kristoren heriotze seinduari diotzogu zor akhaten ditugun salbamenduzko laguntza guziak; bathajo seindua, gure zortzez datxeikun bekhatuik garbitzeko, gure arimak graziaz phizteko debruaren menetik atheratu ta, Jainkoaren ume ta zeruko primu gu egiteko; penitentziako sakramendua, bathajoko grazia ezin erran bezain prezagarriaren galtzeko aski dohaka-beak, aski esker-gaitzak izaten baginen, Jainkoarekin gu berriz bakhetzeko, eta hori, ez behin, bainan eroriko garen aldi guziez baldin behintzat gure baithan zinez sartzerat egiten badugu. Hanbat gogoramendu on eta barneko abisu, orobat bekhatuen beren erdian sentitzen ditugunak; kofesoretarik eta predikarietarik aditzen ditugun solas eta eskorta ukigarriak, egiten ditugun irakurtz onak, bertze hanbat gauza, ongian finkatzeko ta aizinatzeko baliatzen zaizkigunak,

guziak Jesus maiteak guretzat isuri duen odol adoragarriaren ariaz ukhatzen ditugu. Nork aski preza detzake horiek guziak? eta nor dagoke horiek guziak bere biziaren gostuz merezitu dauzkiguna maithatu gabe?

Bada, zer erran aldareko sakramendu seinduz? Hau da Jesusen maithagunearen gaindidura ta guretzat egin dituen mirakulu guzien nautsia. Sakramendu adoragarri hartan dago guzia, nigarrezko ta guduzko haran huntan izateko gure gozoa, gure arintgarria, gure laguntza, gure indarra, gure janharria; bai, gure janharria. Komunione seinduan ematen dauku bere gorphutz sakratua janharitzat. Eta bere odol adoragarria edaritzat; den guzia, Jainko ta gizon bezala ematen zaiku gurekin bat egiten da. Zer mirakulu horiek guziak! zer maithagune neurri guziez goragokoa horiek eragiten dituena! eta non diteke bihotz aski gogorrik, maithagunezko mirakulu horiek gurituko eztutena guzia maithagunez urtuko eztutena? nere Jesus maitea, den guzi-guzia, ematen zaut; eta ez behin xoilki nere bizian, baina nahi dudana bezenbat aldiz; haren nahi mina liteke egun oroz ere har baneza; eta ni



ez natzajo naizen guzia emanen? eta eznaiz bizi naizen mement guzietan harendako maithagune suharrenaz erretzen egonen?

Ez ordean Jesu-Kristok lurraren gainean guretzat egin dituenak ez askietsiz, oraino zeruan ere guretzat hari da; bethi gu garabiltza gogoan. Hala erran zerajen bere apostolu maitei, zerurat zohala hekiei lekhua aphaintzerat. Hala dio Jaundone Paulok, zeruan ere guretzat dagola othoitzean. Bere gorphutz adoragarrian iduki ditu bere zauri sakratuak, gutazko orhoitgarri batzu bezala; eta hek bere aitari erakhusten diotza, hekien bidez gure onetan haren errekeritzeko, haren haserregoa fazegatzeko, ta behar ditugun graziazko laguntza guziak guri ardiesteko gisa hortan, dio San Bernatek, Jesu-Kristo zeruan eta lurrean den guzia guretzat da, den guzia gure zerbitzuko enplegatzen da.

Ea bada, nere bihotza, horiek guziak ikhusirik, eta gogoan harturik zenbat eta zenbat egin eta egiten duen Jesus onak guretzat, eman gaiten ahalik eta khartsukienik haren maithatzen, eta bakharrik harentzat eta harendako maithagunez bizitzen.

**III. PHONDUA.** Baldin Jesu-Kristok egiten bale-  
raut bertze orduz Jaundone Petriri egin zioen gal-  
dea, ea maite dudanetz; ihardets othe niezoke  
apostolu khartsu hark bezala: bai, Jauna, maite  
zaitut; zerorrek badakizu maite zaitudala? eta  
hola ihardesten banio, egia diodala har othe  
lezake? ikhusten othe du beredako maithagunik  
sakratuak erreginatzen duela nere bihotzean?  
nerorrek ere othe dut arrazoinik aski, uste izate-  
ko, egiazki, guzien gainetik eta osoki maite  
dudala Jesu-Kristo maithatzeari edo ez maitha-  
tzeari baitatxeiko ariman bizia edo hila izatea,  
zeruko edo ifernuko bidean izatea.

Mundu huntan naizeno ez tut sekulan jakinen  
segurantzaz osorekin Jesu-Kristo egiazki ta behar  
den bezala maite dudala. Jainkoak nahi izan du  
horren gainean jakitate osorik eznezan ukhan,  
behinere lazatu gabe, egin dezadantzat maitha-  
gune sakratu hartan bethi aitzinatzerat.

Ordean segurantzaz osorekin ezpada ere,  
bederen zuhurki ta prudentki uste izateko arra-  
zoinak badituzket Jesu-Kristo egiazki maite  
dudala. Dakusadan bada zer egiteko gisa atxiki-  
tzen dudan egiazki maite dudan lagun baten

alderat, eta ea egiteko molde bera daukadan Jesus Jaunaren alderat.

Urrun nago maite dudanari damurik batere egitetik. bekhatua da Jesu-Kristoren damua. Bekhatu mortal bakhar batez arras galtzen da haren maitahgune sakratua, eta bekhatu mortaletan nagoena nahi bezain goraki ta iduriz suharki erraten badiot ere maite dudala, eztut egiazki maite; haren etsaikoan, eta nere ariman hila nago. Bekhatu beniala ere da Jesu-Kristorentzat, munduan gizonak gizonari egin diotzoken nahigabe saminenak baino damu khiretsago bat. Nolakoak dire bada nere sentimenduak bekhatuaren alderat? zer artha dut xumenetarik ere beiratzeko?

Maite dudana ganat bethiere lehia dut; ezni-teke sekulan unha harekin. Badut lehia seindu bat Jesu-Kristoren bisitatzerat joateko aldareko sakramendu seinduan? Hantxe haren oin sakratuetan, Madalenarekin batean egotea lakhet dut? hortan kausitzen ditut nere mement gozoe-nak? Komunione seinduan, ez Jesus maitea ikhusten ezik, den guzia ni baithan errezibitzen dudanzkero, ogi sakratu haren gose handi bat

sentitzen dut ni baithan; eta entsejatzen naiz ahalik eta seindukienik bizitzerat: ardura komunitatea merezitzeko? lakhet dut orobat, othoiztean, meditazionean, elizako ofozioetan nere Jesus maitearekin egotea?

Entsejatzen naiz nere ahalaz maite dudanaren gogara egiterat. Jesu-Kristoren nahi mina eta egin diozokedan atseginik biziena da, aphalesgunez, mortifikazionez, eztitasunez, modestiaz, garbitasunez, karitatez, bertze prestugunez nere arima beregin eta aberats dezadan. Hortarat bada entsejatzen naiz nere ahal guziez?

Atseginekin nago maite dudana gatik nere burua aphur bat penatzera, baieta zerbait pairatzerat ere. Hartzen dut bada gogotik eta atseginekin, Jesusen gogara egitea gatik, bekhatutik beiratzeko, munduari ihes egiteko, nere jaidura gaxtoak gudukatzeko, nere burua mortifikatzeko, nere debozinezko egintzei lejalki jarraitzeko, alde guziz seinduki bizitzeko naturalezari gosta behar zajon pena guzia? gerthatzen zaizkidan gaitzak, jenden mesprezioak edo erasia gaxtoak, onthasun galtzeak edo bertze nahigabeak atseginekin, bederen-bederen eztiki ta Jesus

neretzat gurutzefikatuari eskeinirik hartzen eta jasaten ditut?

Maite dudanari ukitzen zaizkonak sentitzen ditut nerorri ukitzen balitzauzkit bezala, haren atseginak nerorrek gozaten banintu bezala; egiten diotzaten damuak eta bidegabeak nerorri egiten balerauzkite bezala. Gisa hortan sentitzen ditut bada Jesu-Kristoren nahikaretan edo nahigabetan doazin gauzak? Errege profeta bezala, guzia hiratzen naiz ikhusten dudanean hanbatek eta hanbatek ahantzia uzten dutela, jazardeka ta herio-kolpeka hari zaizkola bere bekhatuez? Nere ahalez entsejaten naiz Jesus maiteari egiten zaizkon damu min hekien baratzerat, nere lagunak bekhatuko bidetarik urrun-arazterat eta Jesu-Kristoren zerbitzurat erakhartzerat?

Azkenean egiazko adiskidetasunak erakhartzen ditu elkhar maite dutenak, ahalaz elkharren iduriko izaterat; hori da ere adiskidetasun iraunkor baten zimendurik sendoena. Badut bada artha Jesu-Kristori orotan behatzeko nere modelari bezala? Estudiatzen dut haren bizia? begiesten ditut bere misterioetarik batzutan eta bertzetan eman dauzkidan exenplu ederrak? entse-

jatzen naiz, nere barneko sentimenduez eta kanporako egiteko moldeaz haren imitatzera, buruzagi maite hura bere exenplu miragarriekin maiz eta ardura gogoan ekhartzen dudalarik?

Zundazazu hemen ongi zure bihotza, eta ikhusazu seinale horien gainean, ez egiazki maite duzunez Jesu-Kristo: ikhusten baduzu ezetz, oi! ikhara zaite; munduan diteken zorigaitzik handienean zaude eroria; lehia zaite hartarik altxatzerat baldin ikhusten baduzu maithagune sakratu hura zure bihotzean, oraino bizi izana gatik ere flakatur delako, egizu haren berretzerat, haren finkatzerat eta hartan aitzinatzerat, Jesus maiteari berari eskatuz hortarako grazia, eta bethi ta gauza guzietan egiterat entsejatuz haren alderat, egiazko adiskidetasunak eragiten duela hemen ikhusi duzun bezala; bainan hortarakotz ukha zazu artha handi bat, maithagune sakratu harentzat traba ditezken afekzione guzien zure bihotzetik suntsitzeko, izan dadin zure buruarendako zure onthasunendako edo norbaitendako estekamendu sobraniakoa, bere-naz gaxtoa ez izana gatik ere.

Zorigaitz Jesu-Kristo gure Jauna maite eztuenari; madarizione guziak daude harentzat, dio Jaundone Paulok.

Baldin naizen guzia zor banatzajo Jainkoari, zeren egin nauen, zer eztiot zor eta nola eztiot emanen nere bihotza oso-osea, erostean eta hain garastia erostean erakhutsi dautan maithagune ezin erranezkoaren alderat, dio San Bernatek.

# XXVII. EGUNA

## Lagunaren Maithaguneaz

**I. PHONDUA.** Jainkoa maithatzeko manamenduaren ondoan dathor laguna maithatzeko manamendua; eta bigarren manamendu hau lehenaren iduriko da, dio Jesu-Kristok. Beraz laguna maite eztuenak, eztezake erran egian Jainkoa maite duela. Gainerakoan nahi bezain sainduki bizi gaiten, nahi bezenbat egintz on egin dezagun, guziak deusik eztire, deus etzaizkigu baliatzen laguna maithatu gabe; hori gabe, martirioa bera arbujatzen du Jainkoak.

**II. PHONDUA.** Hori da nere manamendua erran zerajen Jesu-Kristok bere apostoluei, alkhar maitha dezazuen, nik maithatu zaituztedan bezala. Nere lagunek, hulakoak edo halakoak, ezpalute ere deus maithagarririk: ezlakiket hekien maithatzeko aski izan behar, jakitea Jesu-Kristok maithatu izan dituela? ontsa delikatua ninteke ezpaneza maitha Jainko-gizonak bere bizia bera baino gehiago maithatu duena.



**III. PHONDUA.** Lagunaren maithagunea giristinozkoa ta manatua zaikun bezalako izatekotz, izan behar da surnaturala. Ezta aski norbait maithatzea, zeren den gure ahaidea, zeren ongi egiten daukun, zeren duen edertasun, jakitate edo holako zenbait kalitate ta gisatasun on: hori liteke paganoek bezala maithatzea. Bainan giristino batek lagunak maithatu behar ditu Jainkoa baithan eta Jainkoa gatik, zeren Jainkoak hala manatzen duen, zeren diren Jainkoaren lanak eta iduriak, Jesu-Kristoren haurrideak eta mienbroak, giristinoak balin badire bederen, zeren zeruan gurekin batean Jainkoaz gozatzeko diren eginak. Arrazoin horiek kausitzen dire munduan bizi diren guzietan, eta hala diren guziak maithatu behar ditu giristino batek, baieta naturaleza-  
ren arabera higuin-garri litezkenak ere.

Giristino baten maithagunea izan behar da maithagune seindu bat. Ikhusia da, norbait maithatzea hura bekhaturat hertxatuz, edo harekin behar ezten zerbait egitekotzat, eztela Jainkoa gatik, ez Jainkoa baithan haina maithatzea; hori liteke maithagune madarikatu bat, debruzko maithagune bat; hainak litezke elkarren etsai

kruelenak elkharren borredoak, elkharrentzat debru batzu, baieta munduko borredo guziak baino, eta askotan ifernuko debru guziak ere baino izigarriagoak eta kruelagoak. Beraz giristino batek behar du guzien gaintetik gutiziatu lagunaren arimako ona; beiratu behar da nihorik bekhatuko biderik ematetik, hura hazerregotan, jujamendu gaxtotan, medisenzietan, gormandizetan, zinetan edo burhotan eta desoneskerietan eror-araztetik, edo halako gauzetan hura laguntzetik: hortarik urrun, giristino batek behar du bere ahalaz bere laguna Jainkoaren zerbitzurat erakharri ta hartan finka-arazi, harentzat othoitz eginez, hari abisu onak emanaz, Jainkolegea irakhatsiz, eta bereziki prestutasunezko exenpluak emanaz.

Giristino baten maithagunea izan behar da egintzazko maithagune bat. Ez, nere haur maitteak, eztezagula xoilki elkhar maitha hitzez eta mihiz, bainan bai egiaz eta egintzaz. Deusik egiten eztuen maithagunea, ezta maithagunea, dio San Gregoriok. Beraz lagunak egiazki maite baditugu, egin behar diotegu gure ahalen arabera behar duketen ongi guzia, arimari darontsona

premiatzkienik, eta gero gorphutzekotzat eta bititze huntakotzat ere behar duketena.

Azkenean gure lagunendako maithagunea izan behar da maithagune hazkar bat, hekien naturaleza bihurria, hekien eskasak, eginen dauzkiguten gaizkiak gutaz atxikiko dituzten erasia gaxtoak, altaratu gabe, jasonaraziko dauzkiguna, eta horien eta hekien ez maithatze-ko ekhar ditezken aitzakia guzien kontra Jainkoa gatik guziak maitha-araziko dauzkiguna. Jasana-tzue batek bertzearen kargak, dio Jaundone Paulok, eta hala betheko duzue Jesu-Kristoren legea.

Holakoa behar da izan lagunarendako mait-hagunea, iskritura sainduan hain hertsiki manatua zaikuna, ta hain ederki laudatua dena. Holako maithaguneari egiten zaizko agintzik ederrenak. Karitateak estaltzen eta borhatzen ditu bekhatuak, nahi bezain oste handitan izanen badire ere, dio Jaundone Petrik. Bere laguna maite eztuena, hila datza, dio Jaundone Joanik: bainan guk badakigu bekhatuko heriotzetik iragan gara-la graziatzko bizirat, zeren lagunak maite baititugu.

Horiek aditurik bada eta lagunaren maithatzeko ditugun bertze arrazoinak ongi phisaturik, bethe zaite egiazko maithagunea zure lagun guzien alderat; egizu bethiere Jainkozko prestugune horrek galdetzen duena, eta zorrozki beira zaite deusetan ere horren kolpatzetik.

Bere laguna maite duenak, lege guzia bethetze du, dio Jaundone Paulok.

Karitate xoilak berexten ditu Jainkoaren umeak debruaren umetarik, dio San Agustinek.

# XXVIII. EGUNA

## Etsajen Maithaguneaz

**I. PHONDUA.** Lagunaren maithagunea hain osoa izan behar da giristino baten baitan, non bere etsajak berak maithatu behar baititu. Jesu-Kristok egin dauku hortaz manamendu hertsia bat Ebanjelio seinduan, eta eman dauku exenplu bat guziz ukigarria gurutzearen gainean. Eta bada Jainko batek zerbait manatzen daukunean, gu herabe izanen gaizko obeditzerat? Jainko batek bere bizia ematen du bere borredoentzat; hekientzat barkhamendu eskatzen dio bere aitari gurutzearen gainetik; eta guk, haren diszipuluek, ezin jasanen dugu, ezin barkhatuko dugu gure anajek eginen daukuten bidegabe xume bat?

**II. PHONDUA.** Ezta urrikalmendurik, ez barkhamendurik, bere etsajari barkhatzen eztioenarentzat. Jainkoak tratatuko gaitu, gure lagunak, etsajak bera barnean direla, tratatzen ditugun bezala, dio Jesus Jaunak. Herrakundezko ta gaitz-nahizko zenbait sentimendu bere biho-

tzean daukanak bere burua kondentzen du, gure aita erraten duen aldi guzietan. Etsajak maitatu behar ditugu edo bertzela gu gerorrien etsai gare; ezta bitarterik.

**III. PHONDUA.** Elkhar biguin dioten bi girstinok badirurite eztirela erreligione berekoak: ezen elkhar ezin jasan dezaketen bi lagun nola jar ditezke mahain berean! Nola har dezakete janhari ber-bera; nola sinhest dezakete parabisu bera, eta dukete hartan eternitate guzian elkharrekin izateko esparantza: debruak eta damnatuak dire bakharrak biguintzea haizu zaikunak: hala-hala damnatuei bakharrak dagokotena da elkhar biguintzea. Ezta norbait damnatzerat dohalako seinale seguragorik, etsaja ez maithatzea baino; halako girstino bat ifernukotzat markatua da.

Jar zaite gurutzefika baten oinetan, eta norbaiten kontra zerbait herrakunde sentitzen baduzu, hartatzu harentzat karitatezko sentimenduak Jesusen zauri sakratuetan.

Bere anaja biguin duena gizon-hiltzaile bat da, dio Jaundone Joanik.

Aspertu nahi zare giristinoa zarelarik? nola bada hori, Jesu-Kristoren heriotzea eztenazkero oraino aspertua, dio San Agustinek.

# XXIX. EGUNA

## Jesu-Kristoren Imitazioneaz

I. **PHONDUA.** Baitezpada imitatu behar dugu Jesu-Kristo. Lehenbiziko gizona galdu izan zen, zeren banitate zoro batez, Jainkoaren iduriko izan nahi izan baitzen; bainan orai ezta guretzat salbamendurik, Jainko-gizonaren iduriko izanen garen bezenbatean baizen. Hori da Jainkoak eman duen legea eta arrimua.

Gizona berenaz itsu ta errebelakor da: behar zuen modela ta bidari bat, zeruko bidean xuxen eta errebelatzeko beldurrik gabe ibil-araziko zuena. Ordean non kausi halako bidaririk? ez mundu huntan, zeren lurraren gainean diren guziak hauskor eta erorkor baitire. Jainkoa bera ere etzaiteken izan gure modela, zeren ezin ikhus baititeke. Zer egin du beraz Jainkoak? Mundurat bidali du bere seme adoragarria, gure modela izateko; modela ezin errebela gaitzake-na, zeren Jesu-Kristo zuzentasuna ta seindutasuna bera baita, modela guri dagokun bezalakoa, zeren Jesu-Kristo lurraren gainean bizi izan baita



bertze gizonak bezala taharen bizitzeko manera ta exenpluak jakin baititzakegu. Hori guzia San Agustinen arrazoinamendua da.

Jainkoak eman dauku beraz modelatzat bere seme maite baxharra, eta haren nahia da ta ezarri duen baitezpadako legea, salbatuko diren guziak Jainkozko modela hari darraizkon, hura imita dezaen, haren iduri ta kopia biziak izan ditezen: ez hori gabe, eztiteke salbatzeko esparrantzarik. Hala dio Jaundone Paulok, Jainkoak zerukotzat hautatu dituen guziak destinatu dituela bere semearen iduriko izaterat. Zer hitz ikharagarri horiek, Jesu-Kristorekin egiterik bate-re eztutenentzat! Jesu-Kristoren, erran nahi da, Jaunaren hautetsen modelaren eta buruzagiaren iduria ezpadute, debruaren, erran nahi da, damnatzeko direnen iduria dakharkete; nola daudezke guziak aztu gabe?

Alabainan bi izate-gisa ditugu, gizonena eta giristinoena. Gizon bezala Adamganik gathoz, eta haren iduriko gare. Ordean giristino bezala Jesu-Kristo ganik gathoz: beraz gizon bezala Adamen iduriko garen bezain ontsa, giristino bezala Jesu-Kristoren iduriko izan behar gare.

Ezterakegu bertzela zuzenik ukhan Jainkoaren adiskidetasunerat, ez haren loriazko erresumarat.

Gauza bera adi-arazten dauku Jesu-Kristok ebanjelioko ehun lekhutan. Nerea izan nahi denak, ukho egin biezo bere buruari, dio gure buruzagi adoragarri hark; har beza bere gurutzeta, eta berrait niri. Ordean nola jarraiki Jesu-Kristori? Ez, dio San Agustinek, oinezko urhatsez, bainan bai haren exenpluak imitatuz, eta hekien gainean gure izate ta bizitze guzia moldatuz. Hori eginez baizen ezkaitzake har, ez ezagut bere diszipulutzat.

Ni naiz bidea, egia ta bizia, dio oraino Jesus adoragarriak. Hura da egia, zeren hark ezin engana baikitzake, ta hark irakhatsi baitauzkigu gehienik jakitea premia zaikun gauzak, Jainkoari ta gure salbamenduari ukitzen zaizkonak. Hura da bizia, zeren hartaz zeruan gozatzean baitatza bizitze dohatsu bethi iraun behar duena. Bainan denbora berean Jesu-Kristo da bidea, zeren haren urhatsei jarraikiz ta haren exenpluak imitatuz behar baitugu ardietsi sekulako bizitze dohatsu hura. Beraz munduak zer nahi erran

dezan ta gerorririk zer nahi iduri ditekegun, ez-tugu zeren uste izan egiazko prestugunerik badugula, ez eta zeruko bidean gabilzala, Jesu-Kristo imitatzen dugun bezenbatean baizen. Prestutasun guzia, dio San Bernatek, hanbatez da egiazko prestutasunik urrun, zenbatez baitu Jesu-Kristoren exenpluekin iduri ta egite gutiago.

Beraz kontu egin behar dugu Jesu-Kristok bat bederari erraten daukula, bere apostoluei azken afarian zangoak garbitu ta erran zerajena: exenplua eman dautzuet, nik egin dudan bezala zuek ere egin dezazuentzat. Beraz haren bizia arthoski estudiatu ta haren exenpluak bethiere gogoan erebili behar ditut, hekien arabera ni ere gauza guzietan gobernatzeko. Hori da Jainkoaren baitezpadako nahia ta salbamenduko bide bakharra.

**II. PHONDUA.** Gure giristino izateak ere bere-naz ematen dauku Jesu-Kristo, gure nausia ta buruzagia imitatzeko obligazionea. Ezen zer da giristinoa. Izen horrek erran nahi du, Kristorena. Giristinoa da beraz, gizon bat Jesu-Kristori eman zajona, hari konsekratu zajona, hari datxeikona; hitz batez giristinoa da gizon bat Jesu-Kristorena.

Ordean Jesu-Kristorenak izateko, ezta aski guk hala nahi izatea. Hark ere behar gaitu beretzat hartu, beretzat onhetsi, bertzenaz gure nahi guziarekin ere, ezgare egian Jesu-Kristorenak izanen. Nor hartzen du bada, eta nor dauka Jesu-Kristok beretzat? Haren arrastoei darraizkote-nak, haren exenpluak imitatzen dituztenak, eta ez bertzerik. Ez, dio San Ambrosiok, giristino lohia ezteke izan Jesu-Kristorena, zeren Jesu-Kristo baita garbitasuna bera. Giristino urguilusa ezteke izan Jesu-Kristorena, zeren Jesu-Kristo aphalesgunea bera baita. Giristino hauzkorra ezteke izan Jesu-Kristorena, zeren Jesu-Kristo ezitasuna bera baita. Horrela mintzo da San Ambrosio; eta gauza bera erran behar dugu bertze edozein prestugunez, hetarik urruntzen dena ezteukela izan Jesu-Kristorena, zeren Jesu-Kristo baithan izan baitire prestugune guziak, eta ezpaitezake beretzat ezagut, ez iduk, haren exenpluen ondotik, prestugune guziak begiratzten dituztenak baizen. Beraz Jesu-Kristo imitazerat, Jesu-kristoren iduriko izaterat obligatzen gaitu gure giristino izateak berak; eta Jesu-Kristo imitatzen eztuenak zuzen kontra ta gezurrez

dakharke giristino izena, dio San Agustinek. Zer da oraino giristinoa? gizon bat Jesu-Kristoren legearen azpian bizi dena. Hala bathajatzean eta giristinotasunean sartzean, gora hitz eman ginuen Jesu-Kristoren lege seinduaren azpian jartzan ginela, ta haren phondu guzietan begiratze-ko obligazioneaz kargatzen ginela: hitz hori guretzat mintzo zirenen ahoz emanik baizen, ezkenezaken ukhan bathajatuak izateko zoriona. Ezta beraz ebanjelioa bakharrrik eliza-gizonentzat, fraidentzat eta serorentzat; giristino guzien legea da; guziak, batbederak bere bizi-moduan, obligatuak dire haren begiratzerat; guziak ebanjelio seinduaren gainean ta haren arabera izanen dire jujatuak, dio Jesus Jaunak. Beraz ebanjelioak egiten deraikun manuak, munduari ihes egiteko, lurreko gauzetarik gogoia laxatua idukitzeko, barnez eta kanpoz ezti, garbi, aphaltura, pairutsu izateko, zoinek bere buruari ukho egiteko, bere gurutzea kharrajatzeko, penitentzian eta mortifikazionean bizitzeko. Jainkoa bere gatik eta gauza guzien gaisetarik, eta lagunak, baieta etsajak berak Jainkoa gatik nork bere burua bezala maithatzeko; bai horiek eta ebanjelioak

egiten deraikun bertze lekziona guziak giristino guzientzat dire; horiek dire, dio Tertulianek, bat-hajo seinduaren karga, sakramendu hura hartzen dutenei ematen zajena. Beraz giristino guziak obligatuak gare manu horien begiratzerat adin eta denbora guzietan. Eta zer othe da bada Jesu-Kristo imitatzea, hori bera baizen? ezen salbatzaile adoragarri hark eztauku horietan deuse-re manatu berak egin eztuenik eta bere exenpluaz erakhutsi eztaukunik.

Zer da azkenean giristino bat? Jesu-Kristoren mienbro sakratu bat: hala irakhasten dauku ta hola mintzo da Jaundone Paulo. Jesu-Kristok, bere gorphutz naturalaz bertzalde, badu gorphutz misteriozko bat, zeina baite eliza. Beraz giristino garen guziek egiten dugu Jesu-Kristoren gorphutz misteriozko hura, eta gare batbedera haren mienbro. Beraz, nola gure eskuak eta zangoak ibili ta gobernatu behar baitire, gure buruak nahi duen bezala, orobat giristino garen guziak Jesu-Kristo gure buruzagi adoragarriaren izpirituaz eta haren arabera behar gare gobernatu; eta hori bera da Jesu-Kristo imitazionea.

Eta egiazki zer iduri izigarri egiten duten Jesu-Kristoren gorputzean, haren arabera bizi eztiren ta harekin egiterik eztuten giristino ondikozkoek! giristino urguilutsu, bere airetan eta jaunzturretan banitaterik baizen erakhusten eztuena, bere burua erakhusteko, ikhusia, ta presatua izateko hain hirrits handia duena, Jesus aphaltura, bethi munduko ohoren eta laudorien ihesi ibili izan denaren mienbro! giristino jauzkorra, herratsua, aspertu nahi, Jesus pairutsu, laido saminen eta thormenta gogorrenen artean bildots baten estitasuna erakhatsi duenaren, eta gurutzearen gainean bere odola bere borredoentzat isuri izan duenaren mienbro! Giristino desonest, gogoetaz, gutiziaz, bertze hanbat gisaz bere arima ta gorputza lizuntzen dituenaren, Jesu-Kristo Birjinen Birjina, bere bizian eta pairameanean bertze edozein laido, akusu eta thormenta jasan nahi izan dituenaren, bainan garbitasunaren gainean gezur xumenaz ere haren akusatzerat bere etsajak utzi eztituenaren mienbro! Giristino onthasun-gose, atsegin eta gurikeria-zale bat, Jesu-Kristo, onthasun eta gurikeria guziak arbujatu eta ostikatu izan dituenaren mienbro!

Zer gauza itsusi, zer monstro higuigarri horiek, eta Jesu-Kristorekin iduririk eztuten bertze giritinoak, buruzagi adoragarri haren gorphutzean! ez bere bizian eztire zerbitzatzan haren desohoratzeko baizen, eta hil ondokotzat ezterakete bertze sorterik higuriki, Jesusen gorphutzetik laidotsuki ebakiak izatea, eta bere buruzagitzat hautatu duten debru madarikatuari largatuak izatea baizen.

Zorigaitz hortarik beiratzeko, eta Jesu-Kristo gure buruzagi adoragarriari bere lorian iratxikiak izateko, atxiki dezagun gure bizi guziko erregela bakhar bat Jaundone Paulok lehenbiziko giritinoei ematen zerajen abisu handia jakin-ezazue, erraten zerajen, Jesu-Kristo baithan bathajatuak izan zauten guziak, Jesu-Kristoz jauntziak izan zaretela. Beraz gauza guzietan goberna gaiten Jesu-Kristo bera bagine bezala. Bertzenaz, erraten zerajen oraino, begirautzue zer dagoen zuentzat, ezen Jesu-Kristoren izpiritua eztuena, eta hartaz bizi eztena, ezta Jesu-Kristorena; ezti-teke hainarentzat salbamendurik.



**III. PHONDUA.** Ikhusazu orai zer exenplu eman dauzkigun Jesu-Kristo gure buruzagi adoragarriak ta Jainkozko modelak.

Bere bizi guzian, eta egiten dituen egintz xume-xumenetan ere, eztu bertzerik bilhatzen, Jainkoaren loria, ta haren nahia bethetzea bai-zen. Hain minki behatzen dio zeruko aitaren ohoreari, non ezpaitu sumindurarik erakhusten, haren etxe seindua farfanatua dakusanean bai-zen. Jainkoaren loriaren kharrak erretzen dauko den guzia; hari egiten zaizkon damuak, bera-berari darontsotenak baino minkiago sentitzen ditu, ta hekien erreparatzeko ta hek bara-arazi nahiz, gogotik sakrifikatzen du bere bizia. Jainkoaren nahiari dagoko bethiere, hartarik den gutie-na aldaratu gabe, bere odola guretzat isurtzeko hirrits handi batekin dago; bizkitartean asko aldiz gordetzen zaje haren bilha zabiltzan juduei. Zertako? Zeren, dio ebanjelio seinduak, ezpai-tzen oraino ethorri haren orena. Bainan zeruko aitaz seinalatu orena bethe denean, bera doha-kote bere etsajei aitzinerat, jautsapen bera erak-husten du Jainkoaren manu garratzenen alderat. Olibetako baratzean bere bizitasun guzian senti-

tzen du gure naturalezak berenaz herioarentzat duen urruntasuna; galdetzen ere dio Jainkoari hartarik beira dezan: bainan hirur aldietan elga bere othoitza akhabatzen du hitz eder hautaz: halarik ere, oi! aita zuzena eta adoragarria, ezpedi egin nere nahia, bainan bai zurea. Holakoa izan da Jesus adoragarriaren egiteko moldea Jainkoaren alderat, guzia jautsapenez, errespetuz, kharrez, maithagunez, lejaltasunez bethea, bertze guziek zeruan edo lurrean ukhan duten baino mugarririk gabe perfekzione gehiagorekin. Izpiritu hortaz da errana ebanjelioan, egunaz nekhatu ondoan populuei irakhasten, gabak othoitzean eramaten zituela, askotan behintzat.

Haren gizonen alderako egin-modua orobat zen guzia eztitasunez ta karitatez bethea, urrikaltzen zaizko hekien gorphutzeko beharrak ere, eta osteka egiten ditu mirakuluak, hekiei laguntza emateko. Ordean haren artha berezienak dire, hekien arimako gaitzei erremedio emateko, jakitate gabeak irakhatsiz, bekhatoreak penitentziarat hertxatuz, guziei salbamenduko bidea erakhutsiz, bai erranez, bai eginez, eta hartarakotzat behar dituzten laguntza guziak emanez.

Bere etsajen erasia gaxtoek ere eztute gibela-tzen, ardi errebelatuen bilha ibiltzetik, hek bide xuxenerat erakharri nahiz. Bekhatore handienak, hiri guziko eskandela ziren emakumeak berak, bainan zinez Jainkoa ganat itzultzen direnak, amultsuki ta urrikalmendu guziarekin hartzen ditu. Farisau ta bertze bekhatore gogortuen kontra erakhusten duen garraztasuna ta egiten deraizten errephortxu saminak berak egiazko karitatetik ta hek salbatu nahitik ilkhitzen dire. Xede beraz, ta mundu guzia salbatu nahiz, gogotik pairatzen du gurutzearen gaineko heriotze kruek bezain laidotsua. Bada Jesus Jaunak bere gain eraman duen bizitzea orobat da guziz miragarria eta alde guziz Jainko-gizon bati dagokon bezalakoa. Lurreko onthasunak, munduko handitasunak, ohoreak eta distiadura osoki arbutatzen ditu; eta mundu huntako bere partajatzat besarkatzen du erromestasuna, beheramendua, ilhuntasuna. Deus eztugu kausitzen haren bizi guzian, naturaleza lausenga dezakenik; irakurtzen ditugu, bai, haren nekheak, barurak, nigarrak eta pairamenak, ez ordean nihonere hartu zituzken atseginak, gurikeriak eta nahikarak. Begietsazu

Betelengo heitik eta gurutzearen gaineraino; orotan ikhusiko duzu obedientziazko, ez-titasunezko, aphalesgunezko, garbitasunezko, mortifikazionezko modelarik osoena: Haren baithan ikhusiko duzu prestugune guzien bilduma Jainkozko bat, etsai errabiatuenek berek nondik loth ezin kausi diozoketen bezalakoa, eta mende auhendagarri hautan berean haren errelijione seinduaren kontra iskribatu dutenek berek ederre-etsi izan dutena.

Hori da bada ta holakoa da bathajatuak garen guzien modela; eta Jainkoak erraten dauku guziei: horra zuen modela; begietsazue ongi, ta lejalki zarraizkote, horren lagun izan nahi bazarete sekulako lorian.

Ikhusazu zer kontu iduki duzun orai artean Jesu-Kristo imitatzeko duzun obligazioneaz, eta hortan jar zaite hemendik aitzinakotzat. Berari galdegiozu haren imitatzeko grazia. Haren zenbait misterio ohoratzen dugun besta-egunetan ikhusazu ongi, bertze gauzen artean, zer prestugunazko exenplu ematen daukun misterio hartan, eta harzazu haren imitatzeko xede zina. Eman zaite usantzan, egun oroz errateko Jesu-

sen izen seinduaren letaniak, zeinetan ezarriak baitire haren prestugune seinalatuenak; debotki erratzu letania hek, hetan aiphatzen diren prestuguneak gogoan hartuz, ta hek Jesu-Kristo bera-ri eskatuz. Bainan Espainian bizi bazare, utziko dituzu hastea ta akhabantza, iskribu huntan emana den abisuaren arabera.

Zareten nere imitatzailleak, ni Jesu-Kristorena naizen bezala, dio Jaundone Paulok.

Alferretan ta zuen kontra dakharket kristau izena, ezpadut Jesu-Kristo imitatzan, dio San Bernatek.

# XXX. EGUNA

## Andredena Mariaren alderako debozioneaz

I. **PHONDUA.** Jainkoaren ama sakratuaren alderako deboziona hagitx gomendatua da elizan; eta Elizako aitak hartaz mintzo dire, nor zerurat helduko seinale seguretarik batez bezala. Bada deboziona hark galdetzen duen lehenbiziko gauza da, ohora dezagula Andre dena Maria, eta errespetu handi bat ekhar diozogula.

Hortarat erakharri behar gaituen lehenbiziko arrazoina da, Maria sakratuaren Jainko-amatasuna. Eztu horrek erran nahi duda gabe, Jainkoa Jainko bezala Birjina saindu haren ganik hasi zela izaten, Andre dena Maria Jainkoa bera baino lehenagokoa edo handiagoa dela: ez holakorik: Andre dena Mariaz ahal dagizkigun laudorio handienak egin gatik ere, badakigu hura dela, gu bezala, gauza bat Jainkoak denboran egin duena, ta Jainkoa mugarririk gabe dela hura baino lehenagokoa, handiagoa, botheretsuagoa, gisa guzietara osoagoa edo perfetagoa. Horren

gatik adorazionea daitzon ohore guzien gaine-  
koa Jainkoari zajo baxharrik zor; eta Andre dena  
Maria adoratzea egiazko idolatria bat liteke.

Bainan bertze sentsu batean, Andre dena  
Maria egiazki da Jainkoaren ama. Haren birjinaz-  
ko sabelean ta haren odolik garbienetik egina  
izan zen Jainko-semeak hartu zuen gorphutza:  
hark eman zuen mundurat Jainko-gizona; hark  
eman zioen bulharra, hark hazi ta altxatu zuen.

O! Birjina sakratua! Zer dignitate goretarat  
zakutkidan altxatua! Zer ohore, zer errespetu  
zaizkitzun zor! adorazioneaz beherago dituzken  
ohore, laudorio, errespetu guziak zure partaja  
dire.

Eta naturalki ere ohore ekhartzen badiotegu  
gutaz goragokoei, munduko handiei, lurreko  
erregei ta erreginei; zer ohore eztiogu ekharri  
behar Jainko baten ama benedikatuari? Zer dire  
othe munduko handi, aberats, errege, erregina  
guziak, Jainko baten amaren aldean? deusik ez,  
itxurapenik baizen. Maria sakratua, Jainkoaren  
ama bezala, mugarririk gabe da munduko handi  
guziak baino gorago altxatuak; aingeruen  
herrunka guziez gorago da ezarria loriazko erre-

suman; Jainkoa da baxharra hura baino gorago dena; bertze guziak hainitzez xitzen ditu, iguzkiak bertze izarrak xitzen dituen bezala, eta are gehiago. Hari zaizko beraz zor zeruan eta lurrean errespetu guziak, eta adorazionearen ondoan ditezken ohorerik handienak.

Maria sakratuaren ohoratzeko bigarren arrazoina da haren seindutasun guziz-guziz miragarria. Baiki, fedearen arabera gauzei behatzen derajen giristino batentzat, ezta ez aberastasunik, ez handitasunik, ez erregetasunik, ez bertze deusere hain ohoragarririk, ez norbait errespeta-tzerat hain biziki ekhartzen duenik, nola egiazko prestutasuna ta seindutasuna; gainerako guziak deus eztire haren begietan. Hala zioen errege profetak, gaxtaginari mesprezio guziarekin behatzen zioela, nahi bezain jakintsun, aberats, handi, ohoragarri izanen bazen ere munduaren arabera; bainan ikhustate ta errespetu guziarekin behatzen zerajela Jainkoaren egiazko beldurrean bizi zirenei, munduak arbutatzen bazituen ere.

Bada erregela horren arabera, zer ederreskunderekin eztiogu behatu behar Jesusen ama



benedikatuari: Zer jautsapenezko ta errespetuzko sentimenduz ezkare bethe behar seindu guzien erregina lorios haren alderat? Jainkoak egin ziotzan fagoreak eta eman ziotzan graziak bezala, hekien bidez ardietsi duen seindutasuna guziz miragarria da, gure erran edo gogoan har ahal guziez goragokoa da.

Jainkoak, Jesu-Kristoz landan bertze nihorkukhan eztuen pribilejio batez, beirutzen du ethorkizko bekhatutik. Izaten hasten den bezain sarri, Jaunaren graziaz bethea, berregindua ta aberastua da; ordean zein nasaiki othe? egundaino nihor ere zeruan edo lurrean izan den baino nasaikiago. Ez, lehenagoko patriarkek hanbat ehun urthez Jainkoaren alderako lejalta-sun osoenean biziz, ez Santa Madelenak Jesu-Kristorendako maithagunez guzia erretzen ego- nez, ez apostoluek bere nausiaren ezagut-araz- ten hanbat nekhe ta borroka erabiliz, ez martirek thormenta mueta guziak Jesu-Kristo gatik paira- tuz ta hekien erdian bere bizia emanetz, ez han- bat miliun birjinek mundu guzia bere loria, distia- dura ta atsegin guziekin oinen azpian ezarriz eta Jainkoarendako maithagune garbienaz ta susta-

tuenaz biziz, ez hanbat mortuetako aita asko urt-  
hez lurreko gizon gisan baino hobeki zeruko ain-  
geru gisan biziz; ez horiek, edo bertze nor nahik  
bizitze luzenaren eta egintz onez bethenaren  
akhabantzan ukhan duen graziazko tresora: ez  
eta aingeruetako gorenak ukhan duena ere, etzi-  
tzajon hurbiltzen andre dena Mariari, bere ama-  
ren sabelean izaten hasi zen lehenbiziko  
mementean emana izan zitzajon graziari. Oi!  
arima ederra, arima aberatsa orduan Jainkoak  
egin izan zuena!

Bada birjina seindiak Jaunaren graziaz balia-  
tzeko ukhan duen artha gisa berean izan da  
guziz miragarria ta bertze nihork ezpezalako.  
Bere amaren sabelean izaten hasi zen mement  
berean adimenduaz dohatu izan zen; bazuen  
ordutik Jainkoaren ezagutza, ta haren bihotza  
Jainkoari zatxaikon egundaino Jesu-Kristoz lan-  
dan izan den maithagunerik suharrenaz. Mundu-  
rat ethorri zenetik eta mundutik ilkhi arterainoko  
mement guziak hortan iragan zituen, bethi Jain-  
koa adoratzen, Jainkoa maithatzen bethi khar  
berri batekin ta haren baithan, zen ezin erranez-  
ko graziari zagokon, hedadura guziarekin. Ez,

etzen izan seinda miragarri haren baithan, ez solas, ez gogoeta alfer eta inutil bakhar bat; etzuen egin gauzarik den xumena, ez iragan mement bakhar bat, Jainkoaren gogara ta Jainkoarentzat baizen: etzen ere haren bihotza den gutiena hoztu ez epheldu Jainkoaren alderat: aitzitik haren Jainkoaren alderako lejalasuna, maithaguna ta kharra bethi mementetik mementera emendatuz eta birazkatuz zoazin; eta gisa berean birazkatuz zohan haren ariman Jaunaren grazia seindutzailea; erran nahi da, mement batean balin bazuen grazia laur bezala, ondoko mementean zuela zortzi bezala, ondokoan hamasei bezala, ondokoan hogoi eta hamabi bezala; eta bethi horrela Jaunaren grazia ta bere seindutasuna mementetik mementera doblezkatuz ta birazkatuz eraman zuen bere bizi guzia, zeinak iraun baitzuen hirur hogoi eta hirur urthe bederen, baieta askoren arabera hirur hogoi ta hamabi urthe.

Egizu bada orai kontu, ta harzazu gogoan, ahal badagizu, hiltzen mementerainokoan zer phundutaraino emendatu zuen bere baithan Jaunaren grazia, zer seindutasun espantigarritarat

heldu izan zen, aberastasun izpiritual bildu zituzken. Haren arima ezdeusetik atheratua izan zen mement berean Jaunaren graziaz izan zen aberastua erran dugun bezain nasaiki. Grazia balios hura bere bizi guzian mementetik mementera birazkatuz eraman zuen erran dugun bezala. Nork bada gogoan har zertaraino emandatu zuen grazia prezagarri hura bere biziaren azken mementekotzat, eta zer seindutasun espantigarritarat heldu izan zen? hortaz zauden elizako aitak guziz miretsiak, eta mintzo ziren Maria sakratuaren seindutasunaz neurririk gabeko ont-hasun batez bezala, ez zolarik, ez bazterrik eztuen itsaso batez bezala. San Bernat, andre dena Mariaren alderako debot handiak aithortzen du, deusek ezpazuen ere hala loriatzen, nola Birjina lorios haren laudorioak egiteak, deusek hala-hala etzuela hanbat lotsatzen. Zeren baitzekusan eman ziotzoken laudorio guziak etzakiozkela hurbil haren seindutasun neurrigabeari.

Hortik bada dakusagun zer ohore, zere errespetu ekharri behar diogun zeru-lurretako erregina lorios hari seindutasun den xumena ohoraga-

rriago da, ditezken bertze gauza ohoragarri guziak baino. Zer ohore etzajo bada zor halako seindutasun bati, zolarik eta bazterrik gabeko seindutasun bati?

Hortik Eliza seinduak, orotan Jesu-Kristoren izpirituaz gobernatzen denak, Maria sakratuaren ohoratzeko duen artha handia. Girstinoak diren mundu herri guzietan elemeniaka dire elizak andre dena Mariaren ohoretan eginak; eta guti-gutiak dire bertze seinduen izeneko Elizak ere, non ezten zenbait aldare bederen Maria sakratuaren izenekorik. Elizan badire hanbat besta erakhutsiak Jesusen ama benedikatuaren ohoretan. Aste guziez ere egun bat, larunbata, hortarakotzat da berexia. Eta hain bertze konfardia, izen batzuen eta bertzen azpian, Maria sakratuaren ohoretan izan dire altxatuak, eta asko induljentziaz aberastuak. Eztu ere Eliza-gizonak ofiziorik batere erraten, andre dena Mariaren ohoretako zenbait othoitz gabe. Hala aitzinetik erran zuen Birjina lorios hark, profeziazko izpirituz, Magnifikat hasten den kantika ederrean, ondoko mende guziek dohatsu deithuko zutela, ta lehia-ka hariko zitzaizkola ohore ematen.

Bozkaria zaite zure Jesus maitearen ama benedikatua horrela munduaren bazter guzietan ohoratua ikhustez; hortaz erakhutsazu zure bihotzeko atsegirik biziena. Baina ikhusazu zer egin duzun zerorrek orai artean zeru-lurretako erregina lorios haren ohoretan. Sarthu zare haren izeneko zenbait konfardietan? ekharriritzu hetako seinaleak, eta erran hetan seinalatzaren diren othoitzak? zenbat lazakeria menturaz phondu horien gainean! nola iragan dituzu Maria seinduaren ohoretan erakhutsiak diren bestak? Helas! menturaz hura guti gogoan hartzen zinuela, Jainkoari eskerrik eman gabe hari egin diotzan fagore seinalatuez, sakramenduetarat hurbildu gabe; eta behar bada, arinkerietan, munduko dosteta harroetan, arras andre dena Mariaren desgogora. Errantutzu naski zenbait othoitz Maria sakratuaren ohoretan; ordean nola? Izpiritu barrajatu batekin, bihotz hormatu batekin, zeru-lurretako erreginari mintzo zinaizkola zure lagun bati mintzatzen zaizkon baino ohartasun ta ikhustate gutiagorekin; erran nahi da, andre dena Mariaren ohoratzeko egin dituz-

tzulako gauzak berak, askotan haren damuztatzeke ta desohoratzeko baliatu izan direla.

Handizki ahalga zaite horietan egin dituzketzun hutsez; berari guziez barkhamendu eska zakizko, eta eman zaite gaurgero zure ahalez dagokon bezala haren ohoratzen.

**II. PHONDUA.** Andre dena Mariaren alderako debozitoneak galdetzen duen bigarren gauza da, hari gure behar-orduetan othoitz egitea; eta nola gure beharrak bethikoak baitire, ardua behar diogu Maria sakratuari bere laguntza eskatu. Hortaz ohoratuko dugu haren ontasuna, haren urrikalmendua, haren ahala; atsegin guzizko bat eginen diogu.

Bada, dio San Bernatek, Maria sakratuari othoitz egiteko lejal eta arthatsu egin behar gaituenak dire, Jainkoaren aldean duen kredita eta ahala, eta guri diakhargun maithagunea.

Eztezakegu duda Maria sakratuak ahal guzizko bat baduela Jesu-Kristoren aldean. Seindu guziek ere ahal hori badute, eta dio iskriturak, Jainkoa guziz ekharria, dela hekien othoitzak entzuterat eta nahia egiterat. Hala asko mirakulu egin izan du seinduen othoitzetarat, dela

lurraren gainean bizi zarenean, dela bere loriazko erresuman hartu dituen ondoan. Bainan seinduen ahala Jainkoaren aldean hanbatenaz da handiagoa, zenbatenaz mundu huntan khartsukiago maithatu baitute, ta seindutasun osoago batetararat heldu izan baitire. Hortik zer ahal eztu ukhan behar Jainkoaren aldean Maria sakratuak, bertze guziak haren alderako lejaltasunez, harendako maithagunez, eta seindutasunez mugarririk gabe, erran behar bada, xithu izan dituenak?

Jainkoak manatzen dauku gure burhasoak ohora detzagula. Nola bada, dio San Bernatek, Jesu-Kristok, diteken semerik hoberenak, amultsuenak, gisa guzietarat osoenak, eztu ukhanen behar den ikhustate ta jautsapen guzia andre dena Mariarentzat, egundaino izan den amarik osoenarentzat?

Andre dena Mariak guretzat othoitz eginen dio Jesu-Kristori; eta gure beharrak haren ganik ardiesteko, erakhutsiko dio, San Anselmio mintzo den bezala, bederatzi hilabetez egon-tokitzat zerbitzatu zajon bere Birjinazko sabela; erakhu-tsiren diotza eznea eman dioten bulharrak; erak-



hutsiren diotza erabili duten ta hanbat zerbitzu bihurtu dioten besoak; eta horiez guziez errekerituren du gure onetan. Eta nola, dio doktor seindu hark, nola Jesu-Kristo bezalako seme batek ukha diozoke Maria bezalako ama bati gisa hortan galdeturen dioena? Hori ezin ditekena da, diote boz batez Elizako aitek; eta nork ere merezituko baitu zeruko Erregina lorios hura ararteko balia dakion, hainak segur du bere salbamen-  
dua.

Bada Maria sakratuak guretzat duen maithagunea ta ongi-nahia ezta gutiagokoa. Jesus Jau-nak azken hatsean bezala zelarik, ikhusten du bere gurutzearen oinetan bere ama maitea, guzia nigarretan mainhatua; ikhusten du haren aldean Jaundoni Joani, bere apostoluetako maitena. Orduan erraten dio bere amari: horra zure semea. Ondoan erraten dio apostolu dohatsu hari: horra zure ama eta handik harat andre dena Mariak eta Jaundone Joanik elkhar amasemen oinean ekharri zuten. Bada, diote Elizako aitek, ordu hartan gu garen guziak genekharz-ken gogoan Jesus adoragarriak. Garen guziei eman dauku bere ama benedikatua amatzat, eta

bere ama sakratuari garen guziak eman giotza umetzat.

Andre dena Maria da beraz egiazki gure ama, eta horrek zer fidantzia eztauku har-arazi behar haren baithan? nork duda dezake den gutiena ere ama lorios hark maite gaituela, bainan egundaino amak bere umea maithatu duen baino gehiago? Mariaren errajak guziak maithagune bilhakatu ziren, dio San Bernatek, Jesu-Kristok haren sabel sakratuan egin izan zuen egoitzaz. Nork duda dezake beraz ama lorios hark osoki maite gaituela ta handizki gutiziatzen duela gure ona, ta denzen den egiterat dagola bere aldetik gu dohatsu egiteko? Ez, ez, dio San Ambrosiok, ezta egundaino amarik izan bere umearen alderat hain ekharririk ta isuririk nola baita Maria sakratua gure alderat.

Eta horra, dio San Bernatek, zerk egiten duen nere esperantza guzia, segur izateak zeruko ama lorios hura osoki dela ekharria niri ongi egiterat eta Jesu-Kristo, haren seme ta nere salbataile adoragarriak segurki entzunen dituela neretzat eginen diotzan othoitzak.

Beraz, dio aitzina Maria seinduaren debot handi hark, mundu huntan, itsaso haserre batean bezala, alde orotarik galtzeko hirriskuz inguratua bazabiltza, eztetzatzula begiak aldara Maria ganik, izar distirant hartarik. Etsajak asal-datzen bazaitu, atsekabetan erortzen bazare, beha diozozu izar eder hari, othoitz egiozu Mariari. Baldin urguiluaren, goranahiaren, medisentziaren, bekhaizgoaren uhinek kordokatzen bazaituzte, beha diozozu izarrari, othoitz Mariari. Baldin haserreagoak, onthasun-goseak, edo sentsuzko atseginetarako jaidurak behartzen bazaituzte, beha izarrari, othoitz Mariari. Baldin egin ditutzun bekhatuen belztasunak ta oste handiak, zure konzientziaren lohitasunak, higurikitzen zaituen jujamenduaren zorroztasunak ikharatzen eta etsitzeko phonduan ezartzen bazaituzte, beha izarrari, othoitz Mariari. Zure hirriskuetan, zure hersturetan, zure barneko nahasmenduetan, hitz batez zure behar guzietan, Maria harzazu gogoan, Mariari egiozu othoitz, eta izan zaite segur begionez behaturen dautzula, zure alde jaikiko dela, ta horrekin batean segurean zare. Ez, Mariari jarraikiz, etzare errebelaturen; Maria-

ri othoitz eginez, eztuzu etsituen; Mariak esku emanez, etzare eroriko; Mariak gerizatuz, etzare deusen beldur izanen; Mariak bidatuz eta lagunduz, salbamenduko porturat heltzen zare: horiek guziak San Bernat handiaren hitzak dire, ta bizi-ki ekharri behar gaituzte, Maria sakratuaren oho-  
ratzerat bezala, hari gure behar guzietan, ta beregainki arimakoetan, othoitz egiterat ta laguntza eskatzerat.

Ondikozko bekhatorek berek ere ukhan bezate fidantzia Jainkoaren aldeko ararteko ahaltsu haren baithan; haren laguntza eska bezate, eta arartekotzat balia dakiela othoitz bezate, ahal-gerekin bai, ezagaturik eztutela arbujorik baizen merezi, baina denbora berean fidantzia handi bat ezartzen dutelarik haren bihotz-ontasunaren gainean. Sentimendu horiekin hel bitez bekhatore gaxoak Maria sakratua ganat, eta entzunen ditu ama bihotz-samur hark; urrikalduko zaje, eta bere seme Jainkoarekin bakhetuko ditu. Horren gatik deitzen du Elizak, urrikalmenduzko ama ta bekhatoren ihes-lekhua. Hura da, dio San Bernatek, bekhatoren eskarela, Jainkoa ganat heltzeko; ordean zein bekhatoren othe? bekha-

tore penitenten, bekhatutik urruntzen direnen, ta zinez ta bihotz guziaz Jainkoa ganat Itzultzen direnena. Ezen andre dena Mariaren alderako debozione-itxura bat atxikitzea, haren konfardietan sartzea, abitua ekhartzea, egun oro arrosarioa erratea, eta horrekin batean aitzina bekhatutan bizitzea, bethi urguilus, mundutar, arin desonest; bai, hori debozione gaizki aditu ta guziz sorjes bat liteke; hola salbatu uste izatea, uste funtsgabe, uste itsu bat liteke. Alabainan seindu guzien erregina lorios hark, munduan bizi zenean, Jainkoaren ohoreari behatu izan dio gauza guzietan; orai gisa berean hortarat daron-tsate haren artha, haren gutizia, haren atsegin eta gozo guziek. Jainkoa izpirituz adoraten, bihotzez maithatzen ta lejalki zerbitzaten dutenak dauzka bere egiazko debotzat ta bere ume maite-maitetzat; halakoen onetan gogotik enplegatzen eta handizki balia-arazten du bere seme Jainkoaren aldean duen ahal guzizkoa. Bainan bere bizi-moldea erregelatzeaz konturik iduki gabe, Jesu-Kristori bere bekhatuez jazarteka hari zaizkonak, eta horrekin batean haren alderako debozione-itxura bat dakharketanak, bere egiaz-

ko etsaitzat, dauzka Birjina seindu hark; arbujo guziarekin behatzen deraje, eta eztute halakoek zeren fagorerik higuriki haren ganik. Hargatik bekhatutan bizi direnek, bainan hala bizitzeaz ahalge ta damu dutenek; bekhatuaren gathetan lothuak direnek, bainan hekien phorroskatzerat entsejaten direnek; bai, holako bekhatorek fidantzia handi bat ukhan bezate urrikalmenduzko ama haren baithan; haren laguntza eska bezate ardura ta ahal dagiten bezain khartsuki; eta ama on hura urrikalduko hekien flakezaz, bere esku botheretsua hedaturen deraje, ta handizki lagunduko ditu bere gathe phisu ta ahalkagarrien phorroskatzen, ta Jainkoaren umen libertate, gozo ta guziz atsegingarria ardiesten.

**III. PHONDUA.** Bainan, dio bethi San Bernatek, nahi baduzu zeruko erregina lorios hark onhets detzan; haren ohoratzekotzat eginen ditutzunak nahi baduzu, bere umeari bezala, begionez beha diezazun, eta arartekotzat balia dakizun Jesus Jaunaren aldean, arthoski beha ziezezu utzi dauzkitzun prestugunezko exenplu edeirei, ta lejalki zarraizkote hekiei.

Eta egiazki, nork uste izan dezake Jaunaren zerbitzari aphaltura hark begionez behatuko derajela hanbat jende gazte, ohore-gosei, laudatuak izan nahiei, bere buruak erakustea baizen bilhatzen ezutenei, bere jaunzturretan eta aphaindurretan eta airetan hanbat banitate agertzen dutenei! nork uste izan dezake, Birjina seindu, bethi mundutik urrundua bizi izan den hark, begionez behatuko derajela hanbat jende gazte, mundua hain su handirekin hantatzen dutenei, konpainia perilosenetan, dosteta harroenetan hain ausarki dabiltzanei, hetan baizen onik ezutenei? nork sinhets dezake, Birjinen Birjina hark begi onez behatuko derajela hanbat jende gazte, bere bihotzak eta arimak debru lohiari salduak dauzkatzitenei, ta bere behatzez, solasez, arinkeriez manera harroegiez, lohikeriaren izurria bazter guzietarat banatzen hari direnei? nork sinhets dezake, Birjina seindu, bere biziko mement guzietan, bekhatutik urrun eta Jaunaren legeari lejal, hari loria ematea baizen bilhatu ezutenak, bere gozo guzia hortan ezartzen zue-nak begionez behatuko derajela hanbat Kristau laxo, Jaunaren loriaz hain axola guti dutenei,

haren lege seindua hanbat phondutan hausten dutenei, egiten duten ongi gutia ere hain hozki ta nagiki egiten dutenei? Ez, ezin ditekena da, hola bizi bagare, Maria sakratuaren exenpluetarik hoin urrun bagabiltza, ezin ditekena da begio- nez beha diezagun, bere ume maitetzat iduki gaitzan, gure onetan gauza handirik egin dezan. Hori ardietsi nahi badugu, Mariari beha diozogun gure modelari bezala, eta entseja gaiten gure ahalaz haren imitatzerat. *Ave, Maris stella* has- ten den himnoan erraten diogu, erakhuts dezala, othoi, gure ama dela. Bada kontu egin behar dugu, berak ere bere aldetik erraten daukula: erakhutsazue, zuek ere, nere umeak zaretela; maitha nezazue beraz, eta maite banauzue, nere gogara eta niri atsegin egin diezakedan bezala erregela zazue zuen bizitze manera guzia.

Bada seindu guzien erregina lorios haren prestuguneak aski ezagutuak dire. Lehenbizikoa ta bertze guzien zimendua bezala zen Jainkoaren alderako lejalatasun oso bat. Bere amaren sabe- lean iragan zituen mementak berak Jainkoaren- tzat izan ziren, haren adoratzan, hari ohore ema- ten, haren maithatzen iragan zituen guziak. Sort-



hu zenetik hirugarren urthean tenpluan goraki  
konsekratu zitzaion, Birjinitatezko botua egiten  
zuelarik. Bere biziko mement guzietan eta egintz  
xumenetan eta arrontenetan ere etzioen bertze  
deuseri ere behatzen, Jainkoari ohore emateari  
ta haren nahia bethetzeari baizen, deusek ere  
etzuelarik den gutiena Jainkoa ganik barrajatzen.  
Orobat zagokon bihotz guziaz Jainkoaren nahi  
seinduari gauza garratzenetan ere, hala nola  
Jesus haurrarekin Herodesen ihesi Ejiptorat joan  
behar izan zenean; eta bere seme, bere burua  
baino miliunetan maiteago zuen hura, gurutzea-  
ren gainean galdu behar izan zuenean.

Haren Jainkoarendako maithagunea guziz  
miragarria ta ezin gehiago khartsua izan zen,  
hanbatetaraino bai, non azkenean maithagune  
sakratu haren gaindiduraz arimak egin baitzio-  
en. Maithagune neurri gabeko haren xedez egi-  
ten zituen egiten zituen guzi-guziak; eta hark  
ematen zerajen haren egintz xumenei ere ezin  
erran bezalako merezimendu bat. Bai, Birjina  
lorios hark, iruten hari zenean, sua phiztean,  
bazterrak xahutzean, phausua hartzean ere,  
gehiago merezitzen zuen Jaunaren begietan,

jaundone Laurendik grillen gainean erretzen zagonean, edo bertze edozein seinduk Jaunaren ohoretan gauzarik handienak ta berenaz baliose-nak egiten hari zirenean ere baino.

Maria sakratuaren aphalesgunea zein handia zen har diteke Jainkoak egin ziotzan grazia sei-nalatuetarik: ezen haren alderat ere begiratu-ian zen jaundone Petriren errana, Jainkoak aphalegurei ematen deraiztela bere graziak, eta bat bederari grazia handiagoak, aphalegurago denaren eredura. Bethi Jaunaren majestate ad-ogarriaren aitzinean beheratua, bere Jainko-amatasunaz batere suphertu gabe, munduko distiaduraren ta gizonen laudorioen etsai, artha-tsu ta atzarria ohore guzia Jainkoari bihurtzeko, on guzieren ithurburuari ta emaleari bezala; horra Maria sakratuaren aphalesgunea. Hala bere ikusi Elisabeth abiatu zitzajonean bere Jainko-amata-sunaz laudatzen, lehiatu zen Maria aphalegura laudorio hek berak Jainkoa ganat hel-arazterat, beretzat hartzen zuelarik xoilki Jaunaren neskato apha eta ezjeusaren izena. Orduan egin zuen, *Magnificat*, hasten den kantiko ederra. Mariaren aphalesgunea, aphalesgune guziz miragarria,

dio San Bernatek, zeren bekhatuaren notharik batere gabea baitzen eta graziaz gaindi egina.

Bada Maria sakratuaren garbitasuna ezin gehiagokoa zen; hain osoa, bai, dio San Bernatek, non aingeruen garbitasunak berak haren aldean ahalgetzeko ta goibeltzeko baitzuen. Hirur urthetan zelarik egin zuen bere botua, arima ta gorphutz zen guzia Jainkoari konsekra-tzen zitzajolarik. Bada prestugune balios, baina hauskor horren osorik begiratzeko hain lejal eta arthatsu izan zen, non guzia lotsatu baitzen aingerua gizonaren iduriarekin agertu zitzajonean. Hanbat prezatzen zuen, hain maite zuen Birjinitateko tresor ezin erran bezain prezagarri hura, ta hain zinez zatxeikon, non ezpaitzuen eman bere baimena Jainkoaren ama izateko, aingeruak seguratu zuen ondoan baizen, halarik ere Jainkozko prestugune hura osorik eta den gutiena histu gabe geldituko zitzajola. Bada bi prestugune horiek gatik bereziki, zolarik gabeko aphales-gune ta aingeruzko garbitasun haren gatik, izan zen Birjina lorios hura Jainkoaren ama izateko-tzat hautatua, dio San Bernatek.

Ezta premia hemen aipha detzagun seinduen seinda haren bertze prestuguneak. Hitz batez erragun San Bernatekin, bertze seindu guzietan, Patriarka, Profeta, Apostolu, Martir, Birjina, Penitent guzietan izan diren zeruko dohainak eta ukhan dituzten prestugune guziak Maria baithan izan direla, bainan eskasik batere gabe, eta ezin erran bezenbatez bertze guzietan baino osotasun gehiagorekin.

Horra bada nolakoa izan den Jesu-Kristoren ama benedikatua; eta horra zer eta nolakoak izaterat behar garen gu ere entsejatu, nahi badugu bere ume maitei bezala beha diezagun eta amatzat eta arartekotzat balia dakigun Jainkoaren aitzinean.

Beha diozozu prestugune guzien mirail eder hari, eta hartan begietsazu ongi zure bizia. Ahalka zaite, hanbatetaraino zure burua nothatua ikhustez. Urriki minetan sar zaite, eta bihotzmin handirekin barkhamendu eska zakizko zeruko ama on hari, zeren haren seme maiteari hain kruelki jazarriz, hura bera hain atsekabe minetan hondatu duzun harrazu xede zinena, hemendik aitzina Maria sakratuaren zerbitzari lejal eta

hume maite bezala bizitzeko, eta bihotz guziaz errekerizazu hortarakotzat behar ditutzun laguntza guziak ardiets dietzatzula bere seme maitea ganik. Andre dena Mariaren ohoretan idukitzen diren bestak iraganatzu ahalik eta seindukienik, sakramenduetarat debotki hurbilduz, eta erreberrituz haren alderako errespetuzko ta maithagunezko sentimenduak, ta haren gogara bethiere bizitzeko xede zinezkoa. Larunbatetan egizu zenbait mortifikazione Birjina seindu haren ohoretan. Egun oroz ere egiozu zenbait othoitz. Arrosarioa da ditezken ederrenetarik; ordean errespeturekin erran behar da ta debotki, ta ez ohitura hitsez eta funtsik gabe, gehienek erraten duten bezala.

Jesusek erran zioen bere amari: horra zure semea; ondoan erran zioen bere diszipulari: horra zure ama, dio diszipulu hark berak, Jaundone Joani Ebanjelistak.

Maria, o! izen gozoa, zeinaren azpian nihork ezpaitu etsitzeko, dio san Agustinek.

# XXXI. EGUNA

## Jainkoaren zerbitzuango kharraz

I. **PHONDUA.** Jainkoak gure alderat duen bezenbat khar ukhan dezagun haren alderat. Hari gaiten Jainkoa zerbitzatzan, ta gure arimak salbatzen, Jainkoa guri ongi egiten, ta gure salbamendukotzat bere aldetik behar dena egiten hari den bezain arthoski ta gogo onez. Bere bait-harik kanporat egin eta egiten dituen guzietan gure arimetako ona bilhatzen du; hortarat daron-tsate haren bihotzeko nahiek, haren probidentziaren artha guziek, haren urrikalmenduaren samurtasunek. Bizkitartean Jainkoak eztu gure beharrik, bai ordean guk badugu Jainkoaren beharra eta denborakotz eta eternitatekotz. Halarik ere, Jainkoak gu bethi gogoan garabil-tzan arren, gu Jainkoaz hain guti orhoitzen gare! Jainkoak hanbat egiten du gure ona nahiz, eta bereziki gu sekulako zorionerat helarazi nahiz, eta guk hain guti egiten dugu Jainkoarentzat, eta guti hura ere hain hozki, hain ephelki! Zer ahal-getzeko arrazoin arima nagientzat! egiazki erra-

teko liteke, ez hekiek Jainkoaren, bainan Jainkoak duela hekien beharra.

**II. PHONDUA.** Ikhusterat zein lazoki zerbitzatzun dugun, zenbat gauza haren gogorako egin genetzakenak uzten ditugun egin gabe, gure othoitzak zein hotzak diren, sakramenduak zein aphaintza gutirekin errezebitzen ditugun, bertze zenbat huts lerratzen den egiten dugun ongirat, erran liteke Jainkoak eztuela merezi zerbitza dezagun, eta bere zerbitzariet ematen deraizten sariak gauza aphurrak direla. Ezen zer juja ditekete bere sehiek artharik eta gosturik gabe, gogo gaitzez, zerbitzatzun duten nausi batez? Jainkoa desohoratzen dugu beraz, eta haren zerbitzu seinduari bidegabe egiten diogu, gure ganik galdetzen duena lazoki egiten dugunean, eta mila atsegin xume ukhatzen diotzogunean. Zorigaitz Jainkoaren lana lazoki egiten duenari, dio Izpiritu Seinduak; madarizione guziak merezi ditu.

**III. PHONDUA.** Jainkoarentzat egiten den gauza batek, bere baitharik nahi bezain xumea izanen bada ere, egundainoko gerlari ta erresuma-irabazle guzien balentriek baino miletan gehiago balio du. Hanbat gogo on ta animo erakhusten

bada munduko egitekoentzat, zeinak guziak ezpaitire ezjeuskeriarik baizen Jainkoari daron-tso ten gauzen aldean, zer eztugu egin behar Jainkoarentzat eta salbamendukotzat? Helas! debruaren zerbitzariak eztituzte bere buruak guphida, deusek eztitu lotsatzen, deusez eztire errenguratzen, nahi bezenbat nekhe ta borroka erabili behar izana gatik ere: zer bada? Jesu-Kristo ez othe du debruak bezenbat ikhustate ta jarraitasun merezi? edo parabisuak, ifernuak baino gutiago balio othe du? bai, gaurgero ifernua izanen da nere eskola. Jainkoa maithatzea, damnatuek higuin duten bezenbat; Jainkoa zerbitzatzea, mundua ta debrua zerbitzatzen diren bezala, sobra idurituko othe zait?

Etsaminazazu ongi nola zerbitzatzen duzun Jainkoa, eta haren zerbitzuko zein gauzetan gertatzen zaitzun lazakeria ta nagitasun gehienik, eta entseja zaite guziak egiterat zerbitzatzen duzun nausi handi hari dagokon bezala.

Zareten khartsu, zeren nausi handi bat baita zuek zerbitzatzen duzuen Jainkoa, dio Jaundone Paulok.



Zein ekharria baitzare munduko gauzetarat, eta zein gogo onez zerbitzitzen baitituzu munduko nausiak eta zure adiskideak, eta hanbat ekharritasun ta gogo on ukhanezazu gauza guzien egilearen eta nausi guzien nausiaren alderat, dio San Gregoriok.

## **LEHENBIZIKO PHARTEAREN BUKANIA**